



ANDERSEN'EN IPUIÑAK

UME IPUIÑ-AMESLARIAK
AITITA-AMAMAREN ATSEGIN-ERAZLE



JOSE MORALES

ANDERSEN'EN IPUIÑAK

UME IPUIÑ-AMESLARIAK
AITITA-AMAMAREN ATSEGIN-ERAZLE

ANDERSEN'EN IPUIÑAK

EGILLEA
OTAZUA TA ASUA'tar BENITO

ARGITARATZALLEA
ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA

BABESLEA
SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA

Bizkaiko Foru Ahaldundiaren diru laguntzaz argitaratua

AURKIBIDEA

Idatz-Aurrea	9
Gobernadorearen soiñeko barria	11
Berauneko gudaritxua	19
Iratxotxu ta jaki-saltzaillea	27
Aatetxu itsusia	35
Aingerua	47
Arrast nezkatilla	51
Txarrizaintzaillea	57
Urretxindorra	65
Udurtzetako Erregiña	79
Nezkatilla artzaiña ta Kedar-garbitzailea	115
Ardagaizko kutxatxua	123
Idatxikitxua ta bere lorak	135
Lokartuzale zaar baten kondaira	145
Pulgartzilla	169
Printzetza ta illarra	185
Bere gizonak egiten ebana, ondo egiña zan	189
Edurezko gizonkilla	197
Zori-kalotxak	205
Bidali laguna	237

IDATZ-AURREA

Hans Khristian Andersen idazle ospetsua, milla ta zortzireunde bostgarren urtean jaio zan Odense (Dinamarka). Bere umearoa guztiz ituna izan zan. Ume bakana, ume-umetxutatik aitaren aldetik umezurtz geraturik, bere amak, zendia elikatu al izateko, aberats, aundikien jantzi ta soñekoak garbitu bear izaten ebazan.

Gazte gaztetxutatik bere atsegina liburu edo beste edozein irakurgai irakurtea izaten zan, eta baita be berak asmatzen ebazan jost-irudi edo komeriakaz antzerkitara jolastea.

Amalau urte izan orduko bere etxetik aldendu zan. Kopenhagen mota askotako langintza eguneroko ogia lortzen eban. Antzerkilari be aldi labur baten egin eban lan, baña ez jakon bat be atsegintsu izan.

Geroago ikasle-sari edo beka bat lorturik, batxillerra amaitu eban. Emen asi zan bere idazle lana. Bere amagandik entzundako kondairatxu batzuk argitaratu ebazanean, bere ospea beingoan zabaldu zan eta ez uts-utsean bere errian, ez da baita be Europa osoan. Umetxu, antzerkalari, politiku ta agintari guztiak, bere laguna izatea gura izaten eben. Bera, Andersen, ia konturatu barik Europa-ko gizonik ospetsuenatariko bat biurtu zan.

Bere ipuñetan umetxutan jasan bear izan eban bizi gogor eta neketsua agertzen da. Gisabarnegabeko gisartea, aundiki ta aberatsaganako iguina izaten eban. Bere jatorri neketsuan sustraituta ezeukiak, txiroak, apalak izan ziran beti bere biotzean, eta bere irakurgaietan erabilten ebazanak, beti eurak goralduz.

Ipuiñ oneik ez dira umetxuentzat uts-utsik, edozein adifeko gizeseme, andrazko zein gizonezkoentzat eurak irakurtea atsegintsua izango da, ta baita be ongarri.

Ipuin oneik euskeratzea, es dakit niretzat lan zail, gaitz, ezifiekoa izango ez ba da. Baña idatz-aurrea emen da ta lan orretarako, euskeratzeko, gogoa be bizi-bizirik dot. Olan da ba ta aurrera...

Eskerrik asko irakurle, liburutxu au zure eskuetan eukiteagaitik eta millaka esker azkenengo itzak irakurri arte jarraitzen ba dozu. Agur.

Otazua ta Asua'tar Benito

GOBERNADOREAREN SOIÑEKO BARRIA

Antziña, orain millaka urte, erresuma itzal ta urrun baten jaur-lari edo gobernadore bat bizi izan zan. Bere leia soiñeko garestiak pillotute zan. Dirutsa ikaragarriak eraziten ebazan zeregin onetan, gero edozein gertaera jaurlaritzaz ospatzen zanean, bere erritarren aurrean, beti soiñeko barri bateaz agertzen zan. Bardin zan antzerki bat adelatzeko, zein bere gudaritza aztertu edo bazkaldu baño apur bat lenago eguzki artzen urteteko. Beti eban zio bat soiñeko barri bat jantziteko. Egun oso barruan bein baño geiagotan, sarritan bere soiñekoak aldatzen ebazan.

Bere erritar bat Jaurlaritzara beragaitik itaunka joaten ba zan, geienetan erantzuna au izaten zan: «Jaurlaria, Gobernadorea, bere jostunagaz aurkitzen da».

Laterri aretako Uriburua aldi aretan inguru areitako polit eta alaienatariko bat zan eta egunero bertara beste laterri batzuetatik andra-gizon ugari joaten zan lurralde areik ikustatzen. Oneitariko batzuk ango oparotasuna ikusirik bertan geratzen ziran bizitzen.

Bein baten uriburu aretara alboko laterriko zurgari batzuk eldu ziran, eta uri au euren guraritarako guztiz egokia izanik, bertan geratzea erabagi eben. Oneik Jaurlari, Gobernadorearen, gaixoa jakiñik, arin asmau eben bear edo lan gitxi eginda, Jaurlaria ber-bera ain ondo bizitzeko erea.

Erritarren artean asi ziran azaltzen, zelan egiten ebezan oil guz-

ANTZIÑA,
MILLAKA URTE,
ENPERADORE BAT LATERRI
ITZEL ETA URRUN BATEN BIZI
ZAN. BERE GURARI GUZTIA
SOIÑEKO GARESTI MOL-
TZOTUTEA IZATEN ZAN.
ORRETAN GAZTATZEN
EBAZAN DIRUTSA
IZUGARRIAK.

EGUN BATEN, ZURGARI BIK KETO TA LEOAK ZIRANAN-
TZAT IKUSI-EZIÑEKO OIAL EDER ETA GARESTI BATZUK EGI-
TEN EKIELA, ENPERADOREARI ESAN
EUTSOEN.



OIAL ORRETARIKO ORREGAZ
SOIÑEKO EDER BAT EGIN DAISTELA
AGINDUKO DOT. BERA SOIÑEAN
EROANEZ JAKINGO DOT NIRE MEN-
PEKOEN ARTEAN
NOR DAN LANGILLE ZINTZO
TA JAKITUNA.



OIAL MEE-LEUNTUAK ETA URREZKO ARIAK
EROSTEKO, ENPERADOREAGANDIK DIRU UGARI
ARTU EBEN, BAÑA EZ EBEN EZER EROSI TA ORDU TA
EGUN LUZEAK EMON EBEZAN OIAL-TEGIAREN
ALBOAN, LANEAN JARDUN ZIRALA IRUDIRIK.
JAURLERITZAKO LENENGO MINISTROA JOAN ZAN
OIALTEGIRA BEGIZTATZEN, BAÑA NAIZ TA EZER IKUSI
EZ, EZ EBAN ESAN EZER, BERANTZAT IKUSI-EZIÑA
ZALA ADIERAZUTURIK BERE KETO TA ERGELKERIA
AGERTZEN EBALAKO.

tiz apain ta lilliratsuak. Orrez ganera euren oialak ikusi eziñekoak ziran, agintaritzan edo beste lan-mailla gorengonetan egonda euren egin-bearrak zuzen betetzen ez ebezan gizon-andrazkoentzat.

Barri au Jaurliariaren belarrietara arin eldu zan.

Oial orreik ikusgarriak izan bear dabe, esan eban bere baitan. Nik soiñestuta, jantzita, jakin al izango dot nire serbitzarintzan, morroi edo jaurlaritza merezigabe ondo baño obeto bizi diran guzti areik, baita be leloak edo ketoak diranak, eta olan bananduko dodaz gizon eta zerbitzari, zintzo, jakitun eta oldarkoiak nire egoitzan, jaurlaritzan edo agintarintzan nigaz batera lan egin daien. Bai, erabagi bene-benetako bat artu bear dot. Bereala agindu bear dot, oil ikusgarri orregaz soiñeko arrigarri bat egin daistela. Zekula be ikusi izan ez dalako soiñeko lilluragarria bat.

Eta asmau eta egin. Berak oldoztu ebalako soiñeko bat berantzat egitea agindu eban. Iñoiz iñongo laterri bateko zuzendari edo agintari nagusienak, jantzi ez eze iduriztatu be eziñako jantzi bat. Orretarako ipuin onetako zurgai bie dirutsa polita aurreratu bear izan eutsen, eta zurgariak asi ziran euren asmakisunak betetzen.

Uri aretako oial-lantegi antzeko bat aukeratu eben. Lantegi onetan, obeto esanda guzurrezko-lantegi onetan, ez egoan ez tresnarik, ez da oial, firu edo aririk jantzirik, soiñekorik, josteko. Lantegi onetan goizalde arte egoten ziran, baña ez lanean, ba da ez eukien lanik zegaz egin.

Azpertuta, gogaituta egoten ziran bai, baña bai atsedenduta be. Une txiki edo labur baten lantegitik urtetan ba eben, Jaurliari, Gobernadoreari, diru geiago eskatzeko izaten zan, ari edo firu urrezkoak eta oial garestienak erosteko.

Baña eurak, zurgariak, diruaz geratzen ziran bitartean, lantegian etzunda edo ezertariko lanik egin barik ordu ta egun luzeak emoten ebezan.

Guztako litzaket, Jaurliariak, Gobernadoreak bere baitan esaten eban, nire jantzia zelan aurkitzen dan jakitea. Bere lenengo guraria jantzi ori ikustera joatea izan zan, baña bereala konturatu zen keto batentzat ikusi eziñekoa zala. Ez, ez dot ezergaitik bildur izan bear, asmatzen eban, baña bada ez ba dan gurago eban bere errikide anbatek, morroi batek ikusi egian.

Bitartean laterri aretako erritar, biztanle, guztiak ekien oial arein berezitasuna. Danak jakin gura eben zein zan besteen, euren erri-

tarren jakituria ta ergeltasuna. Baña bakoitzak besteena, bere lagunurkoena, norberana ez.

Jaurlaritzako lenengo Ministroa bialduko dot, Jaurleriak, Gobernadoreak esan eban bere baitan. Nire serbitzarien artean bera baño azkarrorik, jakitunagorik ez da. Beraz berak iñok ondoen aintzatu al izango dau gizon onein lana.

Ministroa apal ta mentsu joan zan Jaurleriagandik artutako agindua betetzen.

Ministroa lantegira urreraturik, ateko txirriña erabilli eban eta lantegiko batek urten eutsan.

Jaungoikoa Jauna! arrituta esan eban, lantegian jantzirik ez eze oial ez aririk be ez ikustean. Berantzat lantegia uts utsik egoan. Zelan izan leiteke nik jantzirik ikusi eziña izatea? Zelan izan neiteke keto, geldo edo ezjakitunen artean egotea? Zelan izan naiteke nire Jaurlaritzako lanak bear bezela egiteko trebegabea? Arrituta geratu zan, zer erantzun bere nagusiari emon jakin eziñik. Baña ez, une laburtxu baten ixil ixilik geratu ta ondoren esan eban.

Arrigarria da ikusten dodana. Au bai ikuspegi lilluragarria. Argazki ta doñutasunen estitasuna. Lantegi utsari begiraturik, besoak zabalik jarraitu eban. Zekula ikusi ez ikusiko ez dodan jantzi zoragarria. Bereala adierazoko dautsot nire Nagusiari zuek egin dozuen eta egiten zagozen lan dizdiratsua.

Poztuten gara jauna zure goralpenak gure lanagaitik entzutean, oialtzailleak esan eta jarraitu eben Ministroari jantzi ta oial orreen argitasunak azaltzen, gero bere Jaurleriari, Gobernadoreari, Ministroak argitasun berberak egin eiozan.

Urrezko ari edo firu geiago bear ebelako atxakiaz, barriro arin agertu ziran gure lotsabako zurgari biak Gobernadorearen aurrean diru eske ta beste abagune batzutan lez, lortu eurak eskatu ebena.

Egun batzuk beranduago, beluago, Jaurleriak beste bere menpeko morroi bat bialdu eban jostun lanak zelan ebiltzan jakin gurean eta bere jantzia noiz amaituko eben.

Gizon zintzo oneri arterakoena bardin-bardiña jazo jakon. Len esan dogun Ministroak bezela, lantegian ez eban ezer ikusten, ez jantzirik eta ez oialik ez aririk, firurik, be, baña onek be ez eban ezer esan. Oialtegian batera ta bestera adi-adi ibilli, baña naizta alegin guztiak egin, ez eban ezer ikusten. Zer ikusiko eban ba, ez ba egoan ezer ikustekorik?

EGUN BATZUK GEROAGO ERREGEAK
BER BERAK OIALTEGIRA IKUSTALDI BAT
IZAN EBAN, ETA...



EZ DOT EZER BE
IKUSTEN. ITZELA DAI
ZER IZANGO DA JAZOTEN
JATANAI!

EZ DA EGIA
ERREGE
JAUNA OIAL
LILLURAGARRI
BAT DALA?

ERREGEAK, SOIÑEKO APAIN TA GARESTI A,
JAI OSPETSU BATEN JANTZITEA ERABAGI
EBAN. INOK EZ EBAN EZER IKUSTEN, BAÑA
DANAK INOEN IKUSGARRIA ZALA, ITZELA
) BENETAN. BAÑA UMETXU BATEK...



EZ BA DAROA EZERI

UMETXU BATEK ORAIN-
TXE ESAN DAUI

EZ DAROA EZERI
ENPERADOREA
BERE BIDALIAN
BILLOSIK DOAI



ENPERADOREAK BERE BAITAN ESAN
EBAN, EGIÑA EGIÑA DA TA AURRERA
JARRAITU EBAN, BERE TXANBELANAK IKU-
SI EZ EGITEN EBEN OIAL-DINDIRRIA EUTSITEN EBELA
IRUDIAZ.

Ez al jatzazu guztatzen eundura au? Itaundu eutsoen guzurrezko oialgilleak.

Keto, ez jakin bat nazanik ez dot uste, onetzaz ziur naz. Orduan nire lanean dodan gorengotariko maillaren doiña ez naz izango? Au bai, une larria, baña niretzat ez da siñisgarria. Edozelan be, nik ez dot esango nire Nagusiaren aurrean emen ikusikorik, obeto esanda ikusi ez dodana. Gero luzaro jardun eban oialgilleak gorezten egin eben lan bikaiñagaitik.

Jauna, ikusgarria da, bakana, kide-gabeko jantzi lilluragarria da, esan eutson Jaurleriari beragaz aurrez aurrez aurkitu edo topo egin ebanean.

Laterri aretan aldi atan ez zan besterik entzuten, alkar-izketa guztien gaia beti izaten zan Jaurlarintzat, Gobernadorentzat, josten egozan jantzia.

Azkenean Gobernadore berak be ezin izan eban jasan soiñeko itzal a ikusteko guraria, naia. Orrelan jarraigo berezi aundi bat lagun oialtegiara abiatu zan bertan ari edo firu barik bere jantzia josten egozan langilleak ikustera.

Ez da egia, Jauna, ikusgarria dala? esan eutsoen bere aurretik, Gobernadorearen aurretik, joan ziran jaurlaritzakide batzuk. Begira eizu Jauna, margoen oparotasuna ta argazkien berezitasuna ta eskuakaz erakutsi eutsoen utsik egoan oialtegi edo oialtola, lantegi aurrean egoan jantzia ikusten ebela jakin-arazita.

Zer jazoten jat? esan eban Gobernadoreak guztiz asaldatuta. Ez dot ezer be ikusten. Itzalada da! Ergel, geldo, ezjakin bat nazalako? Ori izugarritzko alabear bat izango litzake.

Bai, benetan da ederra, esan eban Jaurleriak eta nire baimenik beroena dau.

Alde batetik eta bestetik begiratzen eban ikusi eziñeko jantzi ori ta azalpen gorezpentsuak egiten ebazan oial orren buruz.

Beragaz joiazan taldekoak bardin bardiña ikusten eben lantegi aretan, ezer ez, baña danak egizatzen eben Gobernadoreak esaten ebana.

Bai ikusgarria da, ederra da benetan, esaten eben bein eta barri-ro taldeko guztiak.

Erritarrak, aurrerako egun baten izango zan jai ospetsu, erritar danen aurrean agertu egiala aulkatu eutsoen.

Oial aren eder eta bikaintasunen adirazpenak, edonun eta edo-

zeiñeri entzuten jakozan. Danak egozan erri aretan doatsu oialegilleak egin eben lanagaz eta Gobernadorea bera be eretxi bardiñekoa zan. Ain bete-betean egoan oial aren izatasunaz, «Tejedores de la Corte» eritxon agerkaia eskeiñi eutsen eta baita be zaldun taldeko domiña bat.

Jai ospetsu a ospatzeko aurrerako egunean, oialegilleak gaba osoan egon ziran lantegian bear ta bear, amabi argikaiek argitaratzen eben bitartean. Euren adi-adi egoan gizon-andra aldra batek ikusten eban, zelan lantegitik ataraten eben ez-egoan oiala, zelan artesi aundi batzukaz ebagiten eben aizea ta zelan ikusi-eziñeko ari edo firu bateaz josten ebela. Azkenean jakin-arazi eben.

Jaurleri, Gobernadorearen, jantzia amaituta da.

Gobernadorea bere erritar batzuk lagun, lantegian sartu. Oialgilleak euren beso ta esku utsak jaso ebezan eta eurakaz zeozer, zerbait, eutsiko balebe bezela, esan eben.

Ara emen berorren popularda ederra. Eta emen berorren prakak eta emen txupila. Eta azkenez Jauna, ara emen berorren soin-ganeko edo longaiña. Oiala armarau-sare bezelako mee, xea da. Soifñean eroango dozu, ezeregaz jantzita joango bazintzake lez.

Bene-benetan da olan! esaten eben bere jauregikoak, naizta ezer ikusi ez.

Berorren baimenaz, jantzi barria ipiñiko dautsagu.

Gobernadoreak kendu ebazan soifñean eroazan soifñekoak eta zurgarriak asi ziran jantzi egiten ebela irudituz.

Zekula izan eta izango danik gizon apain eta lilluragarriena dirudi beorrek jantzi orregaz! Zekulako apaintasuna berorrena olan jantzirik!, iñoen jauregikoak.

Berorreri lagun bear dautsan ertzain-talde gertu ta begira da, Ertzaintzako Nagusiak esan eban.

Gertu naz, Gobernadoreak erantzun eban. Izpillu aurean azkenengo bira bat egin eban, soifñean eroan jantzia ikusten ebala bere erritar guztiak adierazita geratu eitezan.

Gutziz atseginntsu naz jantzi barri onegaz. Ez da egia gutziz dotore ikusten nozuela? Jantzi-zia batu bear eutsoen txanbelanak, gutziz ziñezko makurtzen ziran lurrera, egin-bear ori egiz egingo balebe bezela. Gero eskuak jasoten abiatzen ziran Gobernadorean atsean.

Azkenean Gobernadorea bere erritarren aurean agertu zan eta

oneik euren etxeetako ateetatik, leioetatik eta kale baztarretan lerro-tuta, oiuka esaten eben.

Ze jantzi dotorea! Zekulako arrokeria berana! Eta zelako jantzi-zia! Naizta iñok jantzirik ikusi ez, danak goraltzen eben bere margo dizdiratzua, oialaren leuntasuna, bere taiu arrigarria. Iñok ez eban gura agertu bere urkoaren aurrean ez-jakin bat bezela, ta ez da be keto, geldo baten irudira. Eurentzat Gobernadoreak eroan jantzia iñoiz ikusi dan soifñekorik bikain eta garestiena zan, eta danak batak baño besteak indartsu ta abots argiaz oiukatzen eben.

Baña ez ba daroa ezer? Billosik ba doa!, bere aman eskutik oratuta joian umetxu tolesgabe batek esan eban.

Gure Jaun eta Jaungoikoa! Entzun dozue nire alabeak zer diñoan, bere amak esan eban.

Erritarren artean barri au arin zabaldu zan. Umetxu onek une aretan ikertu ebana, Gobernadora billosik joiala. Ta jantzi ain bikain ori iñoiz ez zala izan eta beraz oialegilleak edo jostariak guzurrezko langilleak zirala.

Gobernadoreak soifñean ez daroa ezer, billosik doia. Ointxe nire alboan umetxu batek esan dau.

Azkenean erritar guztiak oiuka esaten eben. Gure Gobernadora billoz-billozik, soifñeko edo jantzi barik doa bere bidaldian!

Bera be, Gobernadora be, ez zan aurkitzen nasai, zeozer, zerbait, ondo ez ebillela susmau eban, eta naiko argi ikusten eban zurgari areik atzipetu egin ebela. Baña esaten eban, «egiña eginda da» Len baño egokera arroagoaz eta tente, aurrera jarraitu eban. Bere atsean, bere atsetik, txanbelan biak zer entzun ez ikusi ez ba eben lez, euren besoak luzatuta ta eskuetan jantzi-zia éroango balebe bezela.

BERAUNEZKO GUDARITXUA

Beñola ogetabost beraunezko gudaritxu izan ziran, guztiak ziran anaiak, ba da guztiak beraun-meatz zati batetik urtenak ziran. Guztiak euren izkillu edo fusil bardiña, soñekoa be urdin eta gorri garbi dizdiratsu bardiña, guztiak taiu bardin-bardiña.

Egunaren argiaz lenengo entzun ebezan itz, berbak, eta guzti au jaso zan, ezarri ebezan kutxatxua idegi zanean, oneitxek izan ziran; «beraunezko gudaritxuak».

Umetxu batek guztiz pozik eta alai berba oneik esan ebazan, bere aita-amagandik opari edo bezuza bezela kutxatxua artu ebanean. Benetan umetxu arentzat opari bikain bat, betirik gura izan eban eta sarritan amets egin be, orrelako gudaritxu batzukaz. Etxean be geratu eziñik egoan, saltuka ta arinka batetik bestera. Azkenean gudaritxu guztiak mai baten ganean, lerroan, bata besteen atsean ezarri ebazan. Guztiak ziran bikaiñak, dotoreak, guztiak ziran oinkada edo tranku bardiñekoak, guztiak ziran bardin-bardiñak bat izan ezik. Au azkenengo egiña izan zan, beraun gitxi geratzen zanean eta orregaitik iztar bakar bateaz urten eban, iztar-bakarra zan. Au zan besteakaz eban ezbarditasun guztia.

Naizta iztar-bakarra izan, besteak aiñako tinkoa, bere lagunak bezela jasekoa, txairo tranku luzekoa zan. Bera izan zan beste guztien artean ospea jaretzi ebana.

Gudaritxu oneik beste jostailu azko egoan toki baten ezarriak izan ziran. Guztien artetik, jostailu guztien artetik, bat izan zan bere

aunditasunagaitik nabaritzen zana. Erdi-mendeko gaztelu bat. Naizta kartoiaz egiña izan, ez eban orrelako antzik, bere leioetatik zear bere barnea dotore apainduta agertzen zan eta areto zabalak altzari ta lauki garestiakaz ederztatuta. Lorategi txikitxu batek inguratzen eban, zugatz txiki ta lora margodun uzaintsuakaz, baztar baten inda edo urtegi polita, guztia beirazkoa. Ur-gaiñean lepozut zuri batzuk dizdiratzen ziran. Guztia au, polit ederra izanik, gaztelu sarrera aurrean egoan nekatill liraiña politagoa ta ederragoa zan. Kartoiz egiña, baña bere azalaren margoa lilluragarria. Muselinazko jantzi zuri polita, ozkatu urrezko pitxidunez orniduta. Bere besoak gorantz ebazan eta bere oin txiki baten ganean finkatua. Olan adierazoten eban dantzaria zala, baña gudaritxuak ez eban olan ikusten, beste ames bat izan eban, guztiz ezbaridiña. Uste eban bera bezala, iztar bakarra zala. Orduan bere baitan esaten eban.

Bene-benetan uste dot, nezkatilla polit eta lirain ori niretzat guztiz egokia izango litzakela, naizta, bear bada, ni berantzat gauza gitxi edo txiki bat izan. Bera da jauregiaren jabea ta nik ez daukat kartoizko kutxan toki txikitxu bat baño, beste nire ogetalau lagunakaz batera. Au ez da, kutxatxu au ez da berantzat toki egoki bat, beintzat ori deritxot.

Baña gero bere ametsak, asmakisunak, ausnertuz, erabagi eban aurrerago izango ebalta astia nezkatilla polit aregaz alkar-aditzeko.

Gudaritxua kartoizko kutxa baten ostean ia estalduta aurkitzen zan, baña andik bere guztura begiratzen eban nezkatillatxua bere iztar-bakar ganean eutsiten.


Ogeratzeko ordua eldu zanean, esku ajolatsu batzuk jostailu guztiak batu ebezan. Gudaritxuaren ogeta lau lagunak kutxa barruan ezarriak izan ziran, baña usterikgabe gure gudaritxua kutxatik kanpora aitzuta geratu zan.

Gero, guztia ixiltasunik aundienean geratu.

Apurka apurka, aztikerizko ordua eldu zanean, jostailuak egozan gela txikia mar-mar seratatsuz betetzen asi zan. Lenago ixilkari, gero alaitasunez eta azkenean zalapart itzelaz.

Jostailu guztiak euren gorde-lekuetatik urtenda, bakoitza bere buruz olga ta jolasten asi ziran. Andrakillak ikustaldi ta erosketatan jolasten eben. Narritari edo paiasoak saltoka ta txantxetan, barre egin-azo gurean. Beraunezko gudaritxuak alegiñezko indarrak egiten ebezan kartoizko kutxatxutik urtetzeko, baña alperriokoak izan ziran

BERE-GUDARIEN ARTEAN ANKA-BAKAR BAT ZAN, BERA EGITEKO TXANDA ELDU JAKONEAN BEREUN ZATIA AMAITU ZALAKO, LERDEN, TXAIROA BESTEAK BEZELAKOA ZAN.



ERDI-MENDEKO KAR-
TOIZKO GAZTELU EDER
BATEN AURREAN,
GURE ADISKIDETXUAK
OIN BATEN BEATZ
GANEAN EUTSITEN
ZAN DANTZARI LIRAIN
BAT IKUSI EBAN ETA
BERAK USTE IZAN
EBAN BERA BE IZTAR-
BAKARRA ZALA.



JOSTALLUEN SOR-
GIN-ORDUA ELDU
ZANEAN, EGOZAN GELAN BIZI BARRI
BAT SORTURIK GUZTIAK SARATATSU
ZIRAN, BERAUN-GUDARITXU TA NEZKATI-
LLA-DANTZARIA IZAN EZIK, ALKAR MAITE-
TASUNEZ BEGIRATUAZ.

ZURE ITXUREA IKUSI BEAR ZEUN-
KE, ANDAK-BAKARRA TA ZURE
ARPEGI ARGEL ORREGAZI



BIRAMONEAN, UMETXUTA-
RIKO BATEK BERAUN-
GUDARITXUA LEIO-BARRENEAN EZARRIRIK,
AU KALERA JAUZITA IZARPEAN, EURITSE
ITZALPEN GERATU ZAN.

euren alegin guztiak. Guztiak ebiltzan zeozer egiten gure gudaritxua ta jauregiko nezkatillatxua izan ezik. Oneik geldi-geldi, mugidu-gabe aurkitzen ziran eta antza zanetik jolaste aretan kide izaterik ez eben gura izan. Ain sarata ta iskanbil aundia zan, eta kanario-txoria be izarturik erestaldi luzea egin eban.

Gaba-erdian, kuku-ordulariak amabiak jo ebazanean, su-autzezko kutxa bat, bein-batean idegi zan eta beratik gizonkil-jostailu batek urten eban, itsusia ifnon itsusirik ba da, aurpegi baltz, bekaitz eta itxura gogorrekoa.

Gizonkil au arin konturatu zan, zelan gure gudaritxuak eta nezkatill liraiñak, maitasun begiz alkar begiratzen ebela ta bere biotzean karrazka garratza sortu zan.

Ara gure gudaritxua! barre isakariaz esan eban: Dozun itxura, taiu negargarria ikusi bear zeunke! Iztar-bakar, aurpegi kokoloa!

Baña gudaritxuak ez-entzun egin eban, eta naizta gizon baldarrak zirikatzen jarraitu, ez ebazan artzen aintzat zirikatze oneik eta azkenean ezin izan eban sortu asarrea gure gudaritxuan.

Biar ikusiko dogu, etxeratzeko ordua eltzen danean, mar-mar gorrotoz esan eban.

Biramonean, oiturazko orduan jagi zan ogetik jolasten jarraitze-ko ta ustegabe euren jolasketatan, gudaritxua leio barrenean ezarri eban. Baita be ez eban jakin ifnok ifnoiz zelan au, leioa, uste-gabe bat batean ertsi, ixi, zan etxearen irugarren maillatik, bizilekutik, kale-rantz gudaritxua jaurtiz.

Gizajo arentzat jauste itzala izan zan, ba da ikara ganera bere egoera guztiz nekegarria, bere baionetea kaleko arri-arteon bere iztar bakarra aidean ebala.

Umetxua, bere jabea, ariñeketa baten bere billa kalera jaitsi, nezkamea bere atsetik joiala. Naizta alegin guztiak egin billatzen, ezin izan eben aurkitu gudaritxua, naizta bein baño geiagotan bere albotik igaro, mirari bat izan zan ez zapaltzea. Berak, gudaritxuak, ederki oiua al izango eban. Gudari-soiñekoakaz jantzita ez eban ondo ikusten kalean oiuka astea.

Nezkame ta umetxua aldendu ziran eta gudaritxua negar baten geratu zan. Andik laster euri zaparrada itzel bat izan zan eta gerotxuago, aertu zanean, bertatik igaroten ziran umetxu bik basarte baten gudaritxua begiztatu eben.

Begira eizu, beraunezko gudari bat! mutikotariko batek esan eban.

UMETXUAK TXALUPATXU, PAPERZKO
TXALUPATXU ETENKOR BATEN
GANEAN EZARRIRIK, ARGILLON ZIKIN BATE-
RA ELDU, TA...



AZKENEAN, ARRAIN BATEN URDAILLARA, TA AU
ARRAPATUA IZANIK, ANTZIÑA BIZI IZAN ZAN
ETXE BATEKO SUKALDARIA-ANDREAK EROSI
EBAN...

BEREUNEZKO GUDARITXUA DA.



BARRIRO JOSTAILLU-GELARA EROAN IZANIK,
BERE DANTZARI-NEZKATILLA MAITEA IKUSI AL
IZAN EBAN. BAÑA UMETXUTARIKO TXIKIENAK

ARTU TA SUTARA JAURTI. BIKOTEA ATSEKABETURIK BEGIRATZEN ZIRAN, ALKAR BEGIRATZEN
ZIRAN, BEREALA AIZE-BOLADA BATEK ANDRAKILLA SUTARAÑO JASO. BIRAMONEAN, SU-AUZT
ARTEAN BERAUN ZATITXU BAT BIOTZ ETA
LARROSA TXIKI BAT IRUDITURIK IKUSTEN ZAN.
LARROSATXUA NEZKATIL-DANTZARIAK BERE
PAPARRAPAINA ZAN.



Paperezko itxasontzi bat egin eta bere barruan sartuko dogu.

Beste mutikotxuari ederto eretxion bere lagunaren asmakisuna eta egunkari baten orriakaz itxasontzi txiki bat egin eta beratan itxasgizon bezala gudaritxua ezarri eben. Geroago kale bazterretatik etorren uretan, itxasontzia ipiñi ta guztiz alai agurtu eben.

Gudaritxu gizajoa! Zelako oleatuak jasan bear izan ebazan bateltxu arek! Zelako estutasun eta larriuneak gudaritxuak iraun bear bere tokiari utsiteko! Bateltxua oleatuak eraginda gora ta berantz ebillen, biraka bein eskumara urrengoan ezkerretara, uretan ondotzeko arriskuz, beste batzutan bere ontziz ibiltea arinka izaten zan. Gudaritxua sarritan atsekabe ta bildurrez egoan, baña orregaitik bere tankera arroputza ez eban galtzen, tinko bere lekuan egoan. Onetan, bat batean, zerbaiteaz topeketa bat izanik, bateltxua menzulo illun ta loi baten sartu, uri aretako ixurbide bat besterik ez zan.

Non eta zelan guzti onen azkena izango da, Jaungoiko Jauna! Gudaritxuak bere buruan oldozten eban. Axe gizonkil madarikatua nire gatx eta neke guztien errudun da, niri jasoten jatan guztia beragaitik da, gazteluko nezkatilla lirain aregandik aldendu gura izan nindulako. Bederik beragaz egondo ba nintzake, nire zoritxar guztiak obeto jasan al izango neukez.

Orduan, arrituta ixurbideren sarrera aurrean arratoi aundi bat ikusi eban.

Ee zu! Ez zaitetz ain arin joan! zure muga-txartela erakutsi bear daustazu. Lege-pean ez ba zara ezin zeinteke nire ur-ixurbide onetatik ibilli, arratoiak oiuka gudaritxuari esan eutson.

Baña gure gudaritxuak txitik egin barik aurrera bere bidean jarraitu, izkillu edo fusilla eskuekaz gogor eutsiten ebala. Bitartean batela urez iñon gelditu barik aurrera joian, bidean aurkitzen ebazan eragozpenak al ebazan lez zuzentzen ebazala.

Arratoiak batelen jarraipenean gogotxu uger egiten eban. Zugatz enborrei, paper eta an egozan zaborrei oiuka esaten eutsen.

Batel ori geldi-arazi eizue! Bertako ontzi-gizonak errenteri-zer-gairik ez dabe ordaindu ta muga-txartela be ez daukie.

Orain txartela abiada larregikoa dau. Ur-ixurbideen urteerara urreratzen doa. Ikaragarritzko sarata bat entzunik gure gudaritxua bildur eta ikaraz geratzen da. Ixurbidetik urteten eban urak eta urdibide batekoak alkartzean edo batzean ataraten eben saratea zan. Artez artez joian gure batela turrusta batera. Ezek ezingo eban gel-

diazo gure bateltxua. Uste-gabe batelak iru-lau bira egin ebazan eta orduan izan zan ontzi-ondamena.

Gudaritxua beti bezala tinko ta arroputz bere lekuan, begiak be ez ebazan ertsi, ixiten, Batel ganean zutik jarraitu eban paperezko itxasontzia urez betetu arte, azkenean batela birrindu. Orduan gudaritxuak, geratzen jakon une edo asti laburtxua, bere azken gogoketak gazteluko dantzari liraiñarentzat izan ziran. Bere abots, dantzariarena, bigun eta eztsitu irduditu jakon entzutea agur-abesti gozo ta minbera onetan.

Agur gudaritxu ausartea
nire adizkide zintzo ta ziñezkoa,
nire gaztelu ederretik
negarrez agurtzen zaitut.

Bitartean itxasonntzia gudariaz geldiro geldiro ondatzen joian, azkenean ez zan geratzen ez ikusten ezer ur ganean. Ezen urratsik ez zan agertzen ur aretan. Ur beratan aurkitzen zan arrain aundi batek, bere jakin-gureak eraginda gudaritxua iruntsi eban.

Arraiñearen urdaillean zentzu berezia oartzten eban gudaritxuak. Egoan lekua lengo ur-ixurbidea baño estu ta illunagoa zan, bere beste ogeta-lau lagunakaz egon zan kutxatxua baño azkoz txiki ta estuagoa, baño ez eban ezer esan, ez, berbatxu bat be, ta olan jarraitu bere izkillu gogor bere eskuakaz eutsiten ebala. Eta ori bai, beti zutik eta tinko arroputz.

Arrain barnean biorkadatuta, astinduta aurkitzen zan gudaritxua ain abiada aundian eroanez. Azkenean geldi-geldi geratu, guztiz geldi, zirkiñik be egin barik. Geroago, azkoz geroago, egun eguzkidunaren argitasuna agertu ta bere begi aurrean eta ederki entzun eban, zelan bere alboan batan batek oguzten eban esanez, Begira or beraunezko gudaritxua!

Jazo zana izan zan, arrantzale batek bere lanean ebillela arrain bat arrapau ebala ta arraintegi batera saldu, geroago sukaldari batek bere etxerako arrain au erosi ta sutean, sukaldean, janaritzeko edo sukaldaratzeko arraiñaren sabela idegi. Sukaldariak bere eskuetan poz aundi artuta bere nagusiaren aurrera eroan eban. Arrain bakana bezela sukaldariak erakusten eutsan bere nagusiari.

Ber-bera da! Izan be, ber-bera da!

Gudaritxua barriri lenago egon izan zan jostailu-gela beratzen aurkitzen zan. Guztia egoan an bardin-bardin. Lengo umetxu ber-

berak, jostailluak ordukoak ziran..., bere dantzari liraiña gazteluko ate aurrean, len bezela bere oin txiki baten ganean eta bere begirekada dirdirariak lillurutzen ebala.

Bera be, nezkatilea be, guzti ausarta da, guztiz biotz-bera esan eban bere baitan. Gudaritxu gizajoa, guztiz zumakorra, ia negarrez egoan. Baña bera guztiz arduraduna zan eta ba ekian negarra, negar tantalak, bere gudari-soiñekoakaz alkar-eziñak zirala. Orregaitik ixiltasunez eta biotz-maitasunez begiratzten une laburtxu baten geratu zan.

Beingo baten gela beratan jostailluakaz olgetan egoan mutikotxutariko batek bere eskuetan gudaritxua artu ta beste barik ke-zuloko suetan itxi eban jausten.

Bat-batean, sarata batek urten eban rape-kutxatik. Zalantza barik, bertan egoan gizonkil itsusia konturatu umetxuak egin eban egikisun odolti eta arrigarriaz.

Eta an, ke-zulo garreen tartean, bere barnean itauntzen eban, egurren suak ala bere biotz-maitasun suak atsekabetzen eban.

Geldika-geldika bere margo ederrak galtzen ziran, eta bere ametsetan dantzariari begiratzten jarraitzen eban. Nezkatileak berak be, bere une larri ta biotz-estua adierazoten eutsan.

Gudaritxuak sentitzen eban, zelan apurka-apurka urtutzen joian, baña berak ezer ez jazoko balitza lez jarraitu bere izkillua sorburuan eroala.

Orduan egundoko gertaera arrigarri bat jazo zan. Ate bat idegita bereala leio bat be. Orduan bien tartean aize-bolada bat sortu, eta nezkatill-dantzaria samuntasunez kezuloraño egaz egिñez jaso eban txirpillota edo mikeleta zuri bat bezala Gudaritxua urtutzen eban garrakaz inguratuta nezkatilea be geratu zan.

Azkenean gudaritxua guztiz urtuta egoan, eta biramonean nezkamea gelara sarturik kezuloko sua biztu ebanean, gudaritxutik beraun zatitxu bat bakar-bakarrik geratzen zan eta berau biotz bat iruditurik eta bere alboan larrosa txilistadun bat.

IRATXOTXU TA JAKI-SALTZAILLEA

Beñola ikasle batek bera bizi zan ganbara baten egun eta gaba oso geienak emoten ebazan. Arratoi bat baño txiroagoa zan. Ez-èuki utsa, ez zan ezeren jabe. Etxe beratan bizi-leku eder baten etxearen ugazaba, jabea, bizi zan, jaki-saltzaillea. Beraz jaki-saltzaillea ta iratxotxua bestaldekoak ziran, auzokideak.

Iratxotxuari jaki-saltzaillea begikoa jakon. Gizon esku-zabala, Gabon jaietan azpil batzuk bete janari gozo ta on ospatzen eutsozan iratxotxuari. Ondo bizi zan iratxotxua bizigai biltokian.

Egun baten ikaslea denda atsetik sartu ta gaztai apur bat eta argiziria erosi Sal-eroskai oneik jaki-saltzailleagandik artu ebazan eta berari ordaindu. Urtekeran, dendatik, urtetean, ikaslearen agurrari dendako jabeak, andra-gizonak, buru-mugimendu bateaz erantzun eutsoen. Agurtze apur bat txeratsuagoa egin eziñik ez eben andra-gizon oneik, ba da bere izkuntza bardiñekoak ziran eta ganera andrea guztiz berbalduna.

Dendatik ikasleak urten ebanean, gaztaia lotu eutsoen paperean idatzita egoana irakurten gelditu zan une labur baten.

Irakurlea konturatu zan, antziñako elerti-liburu baten zati bat, orri edo ingi bat, zala. Izan be liburua a, iñoiz apurtu ez izan bearezkoa zan.

Eretxi au adierazo eutson dendalariari, eta onen erantzuna au izan zan.

Ikasle, liburu orretatik orri geiago gura ba dozu, emon neikezuz. Ondiño orretariko azko geratzen jataz. Atsotxu batek emon eustan

liburu au akeit-garaio batzuen ordez. Txakur txiki batzuk emoten ba daustazuz gaiñerako orri guztiak emongo dautzudaz.

Eskerrik azko, ikasleak esan eban. Emoidazuz mezedez gaztai zati onen ordez, nik ogia gurin apur bateaz jango dot. Ez dozu uste tamalgarria izango litzakela liburu osoa zatika apurtzea? Zu gizon on eta zintzo bat zara, noski. Gizon-saltaille trebea, baña olertitzaz guztiz ez jakiña.

Bear ba da esaldia gogorregia izango zan, baña dendalariak ondo artu eban eta barre algarak izan ebezan alkarregaz. Jakiña, ikasleak esan ebana guztiz txantzetan izan zan eta dendako nagusiak aintzat artu.

Baña iratxotxua andik ur ebillen eta ikasleak esan ebana ondo entzun eta ez jakon izan bat be atsegin. Olako gauzak jaki-saltaillea-gaitik esatea naigabetu eban. Etxe ta dendearen jabe zan gizon ain emakorra, orrez ganera berari, iratxotxuari, guriña guztiz merke saltzen utsan eta Gabon jaietan jan-edari bikaiñak gozatzen ebazan dirurik ordaindu barik.

Eta olan dendea ertsiteko ordua eldu ta danak ogera joan ziran, ikasle izan ezik. Gaba aretan iratxotxua be ez zan ogeratu. Jaki-saltzaillea ta bere andrea lotan egozan logelara sarturik, andreari bere miña zusterkatu utsan. Lotan egoan bitartean andreak bear ez eban lez, iratxotxuak bere izaki batzuei ezarri leikioe, izkuntz doi arrigarrria zuzkituaz.

Guzti au berantzat atsegingarria zan. Orrelan izakiak min orren bitartez berba egingo eben, eta euren gurari, amets eta asmakisunak, notin edo pertzona bat bezela lagun-urkoari adierazo.

Izakiak banan-banan berba, itz, egin leikeen eta eskerrak orreri, bestela danak batera itz egin al izanik, an sortuko zan iskanbillak ez eban izango azkenik.

Lenengo miña ipiñi eutson gauzea upel bat izan zan. Upel txiki bat eta beratan egunkari ta aldizkari atserokoak, zaarrak, gordetzen ziran eta iratxotxuak itaundu eutson.

Egia da, ortik esaten dabena, zuk olertitzaz ez dozula ezer uler-tzen?

¡Ori guzur utsa da! Upeltxuak erantzun. Ezin obeto dakit itz orrek zer esan gura dauan. Olertia aldizkarietan beti azkenean ipin-ten daben zeozer, zerbait, da ta sarritan bananduta izaten dabena.

BEINOLA, KANBARA BATEN SARTURIK BERE BIZITZA EMOTEN EBAN IKASLE BAT IZAN IZAN. ETXEAREN JABEA, JAN-EDARISALTZAILLE BAT ORNITZE-GELAN, DENDALARIA AINTZAT JAKON IRET XO GUTZIZ BEGIKO BAT BIZI IZAN ZAN. GABA BATEN IKASLEA, ARGIZIRI TA GAZTAI APUR BAT EROSTEN SARTU. DENDALARIAK LIBURU BATEN ORRIAKAZ EURAKAZ LOTURA BAT EGIN...



ESKERRAK. GAZTAIAREN ORDEZ EMOIDAZUZ. ELERTITZAZ, JAUNA, UPEL-TXIKI ONEN ANAKO BERE EZ ZARA.

ONELAKO ORRI GEIAGO GURA BA DOZU, ZENTIMU BATZUN ORDEZ EMONGO DAUTSUDAZ.

GABEAN, GABA ARETAN, IRET XOAK DENDALARIAREN ANDREARI MIÑA ZUTERKATU EUTSAN ETA UPEL-TXIKIARI EZARRI...



ELERTITZAZ IKASLE ORREK BAÑO ASKOZ BE GEIAGO DAKIT.



ORDUAN IRET XOAK KANBARARANTZ ABIATU ZAN, IKASLEAZ ALKAR-IZKETA BAT IZATEKO. SARRAILLUAREN ZULOTIK BEGIRATURIK, ZEOZER LILLURAGARRI, IKUSGARRIA BERE BEGIEN AURREAN AGERTU ZAN. SOIÑU BIGUN, GOZO BAT ENTZUTEN EBAN BITARTEAN...

Jokatuko neuke orretzaz, olertitzaz, ikasle orrek baño azkoz be geiago dakidala, jakitunago nazala, naiz ta ni upel txikitxu bat izan.

Geroago, iratxotxuak miña errota txiki bateri ezarri eutson.

An izan zan, bai saratea.

Gero diru-kutxa, koipe-ordi ta olan beste izaki edo gauza batzuri ezarri eutson miña eta danak ziran eretxi bardiñekoak. Upeltxuak les guztiak ekien zer zar zan olertia. Guztien eretxiak entzun ta gero, iratxotxuak esan eban.

Oraintxe joango naz ikasleagana. Bat baten suteko, sukaldeko, zurgu edo eskilleratik goruntz igon eban ikasle egoan ganbaraño.

Ganbarara eldu zanean, iratxotxu guztiak lez, ate aurrean gelditu giltz-zulotik begiratzen. Olan ikusi al izan eban, zelan ikaslea bere ukondoa mai ganean, kandela baten argi epelagaz zatituko liburutxua irakurten egoala.

Kandelearen argitasuna ez zan andik uts utsik ikusten zana. Iratxotxuak ikusi eban zelan liburutik dizdira itzel batek urteten eballa, ta zugatz bat iruditurik, dizdira arek bere adarrakaz ikaslea ganetuz egiten eballa. Oneitariko adar bakoitza ezetasun bigun bateaz inguratuta agertzen zan, eta euretatik eta ueren ganean lora margotsu batzuk egozala. Lora oneik be nezkatill lirain eta eder, erakargarri bat iruditzen eben. Lora bakoitzak nezkatilla bat irudituz. Batzuk baltzikkak, begi baltz-baltzakaz, beste batzuk zurizkak eta kirruak, begi urdin bigunez apaindurik. Zugatz aretako igali bakoitza izar dizdiratsu zan, erest-aldi estitsuaren murmurotsak, entzuleen belarriak gozotzen ebazan.

Bere bizi luzean iratxotxuaren begien aurrean zekula be ez zan izan alako ikuspiderik. Irudimen benetakoa bear zan alako ikuspegi lilluragarri bat asmatzeko. giltz-zulotik sorgortuta lez luzarotxu geratu zan lauki zoragarri a ikusiaz.

Geldiro geldiro ta ia bera be konturatu barik, argia amatau zan. Ostera soifña oraindik entzuten zan, bear ba da, apur bat urrunduta, makalago... azkenean guztiz urrun. Ziurki ikaslea loak artu arte iraun eban. Iratxotxua orduan aldendu zan, ikusirik ikaslea otzak illik aurkitzen zala.

Eskilleratik berantz joiñala, bere begi txikiak ondiño argitasun miragarri ta arrigarri a begiratzen eta siñistu ezifnik, gomutatzen eban esanez, izekula be ez neban usten izango alako ikuspegi azaldu ezifneko bat nire begien aurrean ikustea, eta ondiño gitxiago ikasle-

ren ganbara estu, loi ta illun aretan! ¡A zelan guztako litzaket bera-
gaz bizitzea!

Olako edo antzeko asmakisunakaz ebillen gure iratxotxua, baña
bein eta barriro ausnartu ondoren etzipen antziz esan eban, ¡baña
ikasleak ez daukaz nilako janariak!

Dendalariaren andrearen miña upeltxuak igatu baño lenago,
barriro dendara jaitsi zan! Upeltxu berbalduna ez egoan ba eskuma-
ko aldean, bere eskumako aldean egozan guztiei barruan eukan guz-
tia edestuten! Une beratan ezkerreko aldekokaz bardiña egiteko gertu
aurkitzen zan. Kontuan izan bear da upeltxuak bere barruan euka-
na, aldizkari zaar pillo bat albiste mamintsuak euratan idatzita.

Iratxotxua upeltxuari miña kentzen leiatu zan eta ariñeketa
baten bere jabeari eroan eutsan. Baña ordutik aurrera upeltxuaren
artu-emonak gela aretako beste gauza batzukaz aldakuntz aundia
izan eben. Bertako gauza guztiak upeltxuari itzal ikaragarria izen
eutzoen. Ain aintzakotzat izan eta beragan ain siñiste aundia izan
eben. Dendalariak egunkaria abots zendoz irakurten ebanean, upel-
txua zala uste eben, irakurten egoana upeltxua zala.

Upeltxua ordutik aurrera len ain baketsu ez zan bizi izan. Len
lez ezin zan egon ixil ixilik ateko giltz-zulotik barrura begira, gela
barruan izaten ziran alkar-izketak entzuten. Ango jakitun esaerak ez
ebezan beragan len lez jakingura sortzen. Beste artegatasun berezi
bat sortu zan beragan. Gaba illuntzean ganbaratik urteten eben argi
dizdirak, gorantz narrazten eben ari ikusi-ezin miragarri batzuk ba
ziran bezela ikusten ebazan. Eta olan, gabero, argi miragarriak men-
duazoaz gela txiki aretaraño igoten eban eta beti bezela giltz-zulotik
barrura begira geratzen zan.

¡Ze zorionsua une areitan iratxotxua!

Indar alguztidun bat bere gorputzean, sentipen bakan eta ezeza-
gun batek bere gogoan jabetzen eban, itxas-aundi ekaitz gogor ta
andiputz bat aurrean, bere aurrean ikusiko balebe antzera. Orrelako
unetan, ustegabe ta zergaitik jakin barik, iratxotxua negarrez eta in-
tzirika luzaro egoten zan.

Egia esan, bera be ez zan alegintzen gertaki ori zergaitik edo
zelan izan leitekean jakiten. Berak uts utsean ekian zelan bere ari-
mea zeozer galant, eder, lilluragarriak sogortzen ebala.

(Berantzat, iratxotxuentzat, ze atsegintsua izango zan, ikaslea
egoten zan bezela, zekulako zugatz argi-dizdiratsu aretan egotea!)

IZE IKUSKIZUN IZUGARRIA! IZELAN GUZTAKO
LITZAKET BERAGAZ BIZITZEA! BAÑA IKASLEAK EZ
DAUKA LAPIKOKORIK, JATEKORIK...



UPELTXIKIAK BERE MIÑA AINBESTE BERBA
EGIÑEZ AMAITZEN JAKONEAN, DENDARA
JAITSITEN ZAN. EGUN BATEN IZUGARRIZKO
ERREKETA BAT IZAN ZAN...

ALBOKO ETXEAN. IRETXOEA ARIÑEKETAN KAN-
BARARA JOAN, LIBURU ARTU TA TEILLETURA
IGON EBAN. BERE ALTXORRIK BEREZIENA
ZAN...



ÚSTE DOT ALDENDU
EGIN BEAR DODALA. ITAMALA
JAT DENDALARIA ITXITEA! IBETI
EMOTEN DAUSTAN LAPIKOKOA
AIN GOZO TA ONA DAI!

ETA AU, IRAKAKURLE MAITEA GIZALEGEA DA. GIZONIK
GEIENAK DENDALARIARI EUTSITA BIZI GARA, ZUZEN BE,
LAPIKOKOA ZIO IZANIK...

Baña berak ezin eban egin besterik, begiratu, ebaska begiratu giltz-zulotik barrura ango gertaerak jakiteko. Xabalkoan otz itzela zan, eta tellatuko erlatzetatik aize guztiz otz batek, ipar aize otz batek, gorputza ez eze azurrak be izotz biurtu eutsazan. Baña iratxotxuak ez eban ezer sentitzen ganbaran argia amatau ta bertako soifnu-otsa ixildu arte. Orduan bai, orduan konturatzen zan iratxotxua dar-dar, ikaratan egoala ta arifneketa larri baten bere abaro berotsura abiatzen zan! ¡Ze egutaro ederra an, ze ederto egoan bertan begiz-ikusi ikuskizun arrigarri a gogoraeraziz!

Baña laster Gabon jaiak izango ziran eta orduan dendalariak beti bezela, lapikoko azpillakada bat eta gurin zati ao-gozagarri ta mardul bat eskeñiaz bere zindotasun amaigabea agertuko eutson. Gabon jaietan iratxotxuak ez eban beste jaun ez jaberik dendalaria baño. Bere mugimendu guztien zain egoten zan.

Gaba baten lotan egoala, asarre bizian eta saratatsu gizon aldra batek atea joaz, izartu eben. Zaindari batek turuta aundi bat jotzen eban, kale beratan izugarrizko erreketeta itzal bat zala jakin-erazoz. Baña ez ekien zein etxetan izan zan, dendalarien etxean ala alboko etxe anbatan.

Olako unetan jazoten dan lez, inguru aretako notiñak, pertzonak, guztiz arrituta egozan eta euren artean dendalariaren andrea bere bai. Onek bere urrezko arrakada eder eta garestiak suetik gaizkatu gurean. Beste aldetik, dendalaria, arifneketa baten bere diru-etxe-ko txartelak, billeteak, zaintzen toki ziurrean ipiñiaz. Nekamea osterara, ainbeste lan eta nekez aurretuko dirutxuaz erositako oial-zirizko «chal» polit eta dotorea izan eban uts utsik bere gogoan.

Bakoitzak norberan ondasuna zaintzen, gaizkatzeko alegiñak egiten ebazan eta onetan iratxotxua ikaslearen gela txikian sartu zan. Au guztiz nasai leiotik errete ikaragarria begiratzen egoan. Alboko etxea zan erretan egoana ta beraz berak, ikasleak, ez eban berantzat arrizkurik ikusten, ganera berak ez eukan zer zaindurik. Ez zan erreko, ez, beranik ezer. Iratxotxuak ikaslearen gelan egoan liburu eder bat artu ta gogor besarkadatuaz eta estuturik, arifneketa baten igon eban etxearen tellatura, kezulo ganean jarrita luzarotxu bertan egon zan.

Su-gar gorritzka ta dizdiritsu aren argitasunean, iratxotxua luzaro egon zan tellatuan, bere altxor guztia zan liburutxu a esku biakaz eta indarririk aundienagaz bere bularrean estututen. Orduntxe jakin eban lenengoz non eukan biotza ta egiz norena zan.

Noiz edo noiz, nozbait, erretea amaitu zan, eta orduan iratxotxua apurka apurka nasaitzen asi ta bare bare gomutatzen geratu.

Nik egin bear dodana, uste dot, iñoan bere baitan, aldendu egin bear dot. Dendararia itxitea samia da niretzat, batez be guztiz itxitea ezia dot, gogoan dodaz emoten izaten eustazan janari gozo ta oparoak.

Au egia da irakurle, au berezkoa da... Gizaki geienak bizona osoa irauntzen dogu, «dendalariari», dendalari anbateri eutsituta, lapikokoa zio izanik. Egia da, lenen lenen jan egin bear da bizitzeko.

AATETXU ITSUSIA

Ze eder eta loratsu egoan lur-alde a. Uda aretako eguzki argi diz diratsuak alaiturik. Urre-margodun gari soroak dizdiratzen ziran, olo-solo orlegien ondoan. Larretan ebagi-barri bedar-txortak, neguan abereak elikatu al izateko, zapaira eroateko itxaroten egozan. Larreen ganetik egazka zigoñia anka-luze gorridunak ebiltzan. Danan ganetik eta guztia garaituz basetxe eder bat erroillaz inguratuta. Lurralde aretan erne ta azitzen zan zugatz, sasi ta bedarra amaibakoa zan eta orregaitik aate-eme batek bertan abia egitea ta arrautzak ipintea ez zan bat be arritzekoa. Leku egokiagorik nekez aurkitu al izango eban. Egaztiak ainbat egun beranduago, beluago, arrautzen ganean jarraitzen eban, eta egia esan naiko azpertura egoan, ba da aate txikitxuak ez ziran agertzen, berantzat euren agertzeko epea igarota egoan, beste alde batetik bere adiskide edo lagunak bera ikustatzen etorri baño gurago izaten eben inguru aretako ozin ederretatik uger ibiltzea.

Azkenean, noiz edo noiz, aate txikitxuak euren arrauts-moskoletatik urteten asi ziran. Lenengo euren moko ori, belegiak, agertu ebezan eta gero burutxuak eta gorputz guztia.

Kuak, kuak, kuak..., aate txikitxuei bere ama arduratsuak.

Banan, banan, bata besteen atsean, atsetik, an joan ziran gure aatetxuak euren amaren atsetik eta zain danak aate-amak egiten ebanagaz. Eta aate-ama nasai, bat be larritu barik joian euren abiada laburrean. Landa loratsu batetik ebiltzan eta ama pozik zan margo orlegia bere aatetxuentzat egokia dala ikusirik. Batez be euren ikusmenerako.

Iñoiz ez neban sumatuko ludia ain aundia zanik! arrituta aate txikienak esan eban. Egia zan, berak, aate txikiak, itxi eban arrautz-moskol txikiagaz berdinkatu ezkeró, ludia edo beratatik ikusten ebana ain aundia iruditzea.

Bere amak au entzutean, barre algara saratsua egin eban.

AATE-EMEA POZIK EGOAN BERE IRU SEMEAKAITIK, BAÑA LAUGARRENA...



IZE MOTSA, ITSUSIAI IZEKULA EZ DOT IKUSI IZAKI IZUGARRIAGORIKI BESTEEN ANTZIK EZ DAU... ETA INDI-OILLOA IZANGO BALITZ? BIAR EROANGO DOT UGER EGITERA TA ORDUAN JAKINGO DOT ZER DAN.

ESAN ETA EGIN, JOAN ZIRAN OZIN BATERA TA ARRITUTA GERATU ZAN AATE-AMA, BERE ANAI-ARREBAK BAÑO AZKOZ OBETO EGITEN EBAN UGER. ORDUAN EZPAI BARIK KONTURATU ZAN BERE SEMEA ZALA. GUZTIZ POZIK BERE TXITA-TALDEA OILLOTEGIRA EROAN EBAN, BERE LAGUN ETA ADISKIDEI ERAKUTZIZ.


GUZTIAK DIRA POLIT-POLITAK, BARA AIN ITSUSI ORI BARREGARRI BAT EGINIK DA.



BAÑA GUZTIAK, BAT BE ATSERA GERATU BARIK, AATE TXIKITXUA GUZTIZ TXARTO ARTZEN EBEN ETA KOITADUA ZORITXARREZKO ZAN, BERE ANAI-ARREBAK JOLASTEN ALAI EBILTZAN BITARTEAN, BERA BESTEAKAITIK ALAMEN EGINDA ZAN.

IKANPORA!
IKANPORA AATE
NOTS ORI!

IAUNDIEGIA DAI
IEZ DAU GURE ANTZIK.



IEZ ZAITEZE AUSAR-
TU UKUTURIK EGI-
TENI EZ DAUTSUE
EZELAKO KALTERIK
EGIN.

Uste dozu ludia ikusten dozuna bakarrik, uts utsean, dala? Ez, neure semetxu maitea, ludia zuk iruditzen dozun baño azkoz aundiago da. Landa loratsu onen beste aldera ta gora bertan dagon gure eleiz-barruko abadearen etxe ta lurralde guzti orreik baño urrunago da bere azkena. Ezin izan dot iñoiz oiñez bertaraño, azkeneraño joan al izan.

Atetxuek au entzutean, guztiz arrituta, ludiaren buruz itaunka jardun eben luzaro.

Orain barriro zenbatu bear zaituet. Bat... bi... iru..., nazka-kiñu bat egin eban. Ondiño ez. Noiz amaituko ete da au? Ondiño arrautz aundiena geratzen da. Eta barriro abian arrautz ganean ezarri zan.

Une beratan aate zaartxu bat, aate atsotxu bat, bera ikustera joan zan.

Zelan? Zelan doa ori? adikotasunik aundienagaz itaundu eban.

Begira. Emen naz ondiño, ba da arrautzatariko bat ondiño idegitzeko da. Baña ikusi eizuz ze seme-alaba eder eta bizkorrak dodazan. Ikusi dozu iñoiz oneik baño aate eder, zendo ta politagorik? Euren aita ber-bera dira, bere irudi ber-bera.

Eroapena alabatxu. Olan izaten dira gauzaka eta zer egin leike? Itxaron ez da beste urten biderik. Baña itxi eistazu arrautz ori, ikusi dagidan. Ia ba da bein baten niri jazo jatan arazo bera. Begira, neure arrautzen artean indi-oillo edo pabo baten arrautz bat jarri eusten eta ez zeinke sumatu zelako nekeak jasan bear izan nebazan indi-oillo txitatxuari uger egiten irakasteko. Egazti orreik ez doaz ulertzen, izugarritzko bildurra izaten dabe uretzaz. Ia? Alan da, indi-oillo arrautzea da. Nire onua gura ba dozu, itxi eizu bertan arrautza ori, ez eizu astirik galdu orregaz, eta zure umetxuak elikatu, ezi ta azitzen alegindu zaitez.

Ze leba dot onezkero arrautz onen ganean apur bat geiago egonaz? Ainbeste egun emon ondoren bardin da.

Ondo izan zaitezela, zu ta umetxuak eta urrengo arte. Au esanez aate-atsotxua aldendu zan.

Azkenean seme barriak, aatetxuak, apurtu eban arrautz-moskola. Aatetxu luze, ergel bat zan. Amak guztiz atsekabetuta begiratzen eutson bere ume jaio-barriari.

Ze itsusia dan! Nire bizian ez dot ikusi iñoiz ezer ain izugarritzorik! Besteen anaia dala ezin lei esan. Eta indi-oillo, pabo bat izango balitzake, nire lagunak esan dauan bezela?

Biar lenen-lenen, onena izango da, guztiak batera oziñera uger egitera joatea, olan jakingo dogu aatea ba da ala ez. Goizean goizeti joango gara.

Eguzkia edoipean estalduaz aate-ama bere umetxuakaz abian loak artu eban, egun barri baten itxaropenez.

Egun-sortzea diriditaria, eguzki argi ta alai, ortzi urdiña, edoi barik, abian oso osoan joten eban eta bere argitasunak izartu eban gure aate-zendia. Astirik galdu barik, aate amak bere umetxuak zenbatu ebazan eta ikusirik talde osoa egoala, eurak atsetik zirala eta guztiz azkor oziñerantz abiatu zan.

Kuak... kuak..., deitu eutsen bere umetxuei. Orain ikusiko dogu indi-oilloaren txitatxua ba da ala ez.

Aatetxuek txitik egin barik euren amaren atsetik oziñerantz joan ziran. Bertara eldu ziranean, ugerlari trebeenetariko batzuk bezela urperatu ta euren anka bizkorrak mugiduaz ur iraitzera urteten eben. Ondo ibilli ziran luzarotxu, poz-pozik uretan.

Ama be euren artean bardin ebillen, baña begiratasun berezia izan eban aatetxu itsusian eta arrituta geratu zan ikusirik guztietatik ondoen egiten ebalu uger. Bere poza ta alaitasuna amai-bakoa zan. Ze izan bear dau indi-oilloa! esaten eban. Neure egiazko seme kutuna da! Ez da besterik bear ori baiztatzeko bere anak zelan mugitzen dauzan ikustea baña ta bere ibilte ta uger egite bizkorra. Amaitu euren uretako egotaldia ta amak esan eutsen.

Joan gaitez, umetxuak! Jarraitu eidazue nire atsetik, baña bat be aldendu barik, Oillotegira eroango zaituet nire adiskide ta lagunak ezagutu daizuezan. Baña izan zaitez zentzundunak eta agertu zaitez ume ondo ezitsuak bezela. Baita be kontuz izan katuaz. Ba da gugaz ez da izaten adiskide lar onegia.

Oillo-tokira eldu ziranean, barruan aldra saratatsu bat zan, angira-buru batek zendi bin artean eraginda. Bakoitzak berantzat, norberantzat, gura eban angira-burua. Azkenean angira-burua katuarentzat izan zan eta zelako barreak egiten ebazan berak ba!

Olan da ludia umetxuak! Oba izango da lenen lenen ikasten asi zaitez. Bitartean bere baitan pentzaten eban ze gozo ta guri egongo zan angira-buru a.

Goazen, bizkortu eizue zuen oinkadak, baña nire albotik bat be aldendu barik. Burua lerdengo euki eizue. Baztar aretan dagon aate-ar zaar aren ondolik igarotean, burua makurtu eizue, gure artean egazti guztiz itzalduna da. Oillo-tokian bizi danik egaztirik ospetsuena da. Jatorriz txinatarra da ta bere eskumako ankan daroan lokarria, bere sotiltasun bereziaren ezaugarria da. Aate batek lortu leiken zaririk bereziena. Eta ariñago, mezedez. Samea apur bat geiago makurtu bear dozue ta ez tolestu zuen beatzak aate ezigabeak egiten daben lez. Orain esan, kuak... kuak... kuak.

Eta euren amaren esanak entzunda aatetxu danak apal-apal men egin. Oillo-tokiko beste aate guztiak urreratu jakozan eta inguraturik, berbetan, izketan jardun eben, eta beraz, ez lar ondo aatetxuagaitik.

Zetarako bear dogu oillo-toki onetan aate geiago? Leen be larregi giñan eta orain oneik agertzen dira gure janari urria liskartsen!

Onetan eurerariko aatetzar batek esan eban.

Begiratu eizue ze itsusiak diran! Ikusi dozue iñoiz izaki ain itsusirik?

Kanpora! kanpora! kanpora aate itsusi ori! oiuka esan eban.

Aate-ama guztiz asarratu zan.

Ez zarie bera ukututen ausartuko! Ze kalte edo gaitz egin dautzue? Berak gaur arte ez dau izan zuekaz artu-emonik.

Aundiegia da! Ikaragarria da ta ez dau gutariko antzik be!

Aatetxu itsusia guztiz ikaratua egoan. Une beratan aate zaar ta ospetsuaren albora eldu ziran.

Ze txitaldi polit eta ederra! esan eban aate zaarrak zorionak amari emonez. Danak

EGUN BATEN, GURE ADISKIDEAK BARRUTIKO ORMEA GAINDURIK OZINTXURA EITZEA LORTU EBAN, BERATAN BASA-AARTE BATZUK AURKITZEN ZIRAN..



NAIKO MOTSTXUA ZARA, BAÑA GURE GUZ-TOKOA. GUGAZ ETORRI GURA DOZU? OR UR DAGON OZIN BATERA, EROANGO ZAITUGU, BERATAN BIZI DIRAN ANTZAR ESKONGE EDER BATZUK EZAGUTU DAIZUZAN.

BAÑA UNE ARETAN, IZKILLU DANBADA BI ENTZUNIK, ANTZARRAK ILDA JAUZI ZIRAN. ATETXU MOTSA, GEROAGO ETXE TXIKITXU BATERA ELDU AL IZAN ZAN.



ATSO BATEN EGOITZA ZAN, MIKITO, KATU BAT, ANKA-LABUR, OILLO BAT ZIRAN ETXEAREN UGASABAK ATSOA TA BESTE ABERE BIAK USTE EBEN EGUN BATZUK IGAROZ AATETXU MOTSAK ZEZOZETARAKO BALIOKO EUTSELA, BAÑA...

IKASI EIZU ARRAUTZAK IPINTEN, EDO KATUA LEZ RONRON EGITEN, EDO MIKITO BEZELA ASAR-ERAZTEN. EZ DOZU BIZI BEAR NAGIKERIAN.



dira polit-polit eta ederrak, baña... ori ain itsusi ori elgaitz da. Ezin zeinke barriro einkatu!

Eziña da jauna, esan eban amak itzal aundiaz eta auzpezturik, baña ez dau leba, ardura, aundirik polit eta ederra ez izateak. Ostera mutiko azkarra ta on-ona da, bere itxurea obetuko da, astiaz. Jazo jakona da denpora larregi egon zala arrautz barruan, eta laztandu eban aatetxua bere burua ukaturik. Guztiz zendo ta bizkorra da ta bere bizitzan ez da izango atserengotarikoa. orrek bai dau lebea edo garrantzia.

Aate zaarrak adjakatu eban eta nasai geratu zan aatetxua begirutzen.

Izan leiteke arrazoa zuk izatea. Baña ez ezizu aitzu angira-buru bat niri ekartea, aurkitzen ba dozu.

Aatetxuek euren lenengo bizitza eguna, zalantza barik zorionsua izan eben, aate txiki ta itsusiarentzat izan ezik. Danak ibilli ziran arifeketan jolasten, nasai ta pozik. Ostera aatetxu itsusia, gizajoa arbuatuta, oinperatuta... Danak, bai oilloak zein oillotegiko aateak, isekatu ta biotzgabe barregarri artzen eben.

Aundi ta itsusegia da, iñoen.

Urrengo egunetan, ondiño azkoz be txarragoak berantzat izan ziran. Biziten be ez eutsoen itxiten. Bere neba-arrebak eurak be esaten eutsoen.

Zergaitik katuak ez zaitu arrapatuko bein, eta olan zure arduragabe geratuko gara? Oillotokira jatekoaz joaten zan umetxuak be, beragana, aatetxua, urreratzen zanean, ostikedaka beragandik aldendu egiten eban.

Orregaitik aatetxu itsusia naigabetuta ta zoritxarrez beterik aurkitzen zan.

Egun baten, biotz-bultzakada batek eraginda egaz asi zan eta esparru ganetik kanpora urten al izan eban. Bere igesketan, bera joian inguruetako zugatzetan egozan txoritxuak bere jtsusitasuna ikusirik iges egiten eben.

Oneik be nire itsusitasunaz bildurduta dagoz, bere artean esan guztiz saminduta. Ertsi, ixi, ebazan bere begiak eta aurrera jarraiturik, ozin-nagusira eldu ta gaba aretan bertan bizi ziran mendi-aate batzukaz lo egin eban. Ainbeste egazkada egiñaz guztiz nekatuta aurkitzen zan eta gaba osoa lo baten emon.

Biramonean baso-txoriak eta mendi-aateak egaz asi ziranean etorri-barriaz topo egin eben.

Nondik urten dozu zuk? Itaundu eutsoen. Guztiz itsusia zara, adiskide! Baña jokaera egokia ba da ta gure artean zirikatzerik ez ba dozu sortzen, guretzat zure itsusitasunak ez dau garrantsirik, lebarik. Guretzat ondo jokatzek esan gure dau, gure zendiko aate-eme bateaz be ezingo zarala eskondu. Ez zaitez saiatu orretzaz, bestela gure asarrea izango dozu ta gure artetik iges egin bearra.

Une aretan gure aatetxua ez egoan eskontzatarako. Berak ez eban gura besterik lo nasai egunero egin, bakean uger ibilli ta jan-edan eragozpen barik baño. Guzti au zan bere naia, guraria, ta bakean mokokadarik emon barik beste aateak itxi egiela.

Bertan geraturik, egun batzuk beranduago, beluago, antzar bi urreratu jakozan begikotsu ta berbaldun eta esan eutsoen.

Naiko itsusia zara, baña orrexegaitik zuzen be zure adiskideak izan gura dogu. Gura dozu gugaz etorri ta aldako-egazti biurtu gu bezela? Guztiz atsegingarria da,

ikusiko dozu, etorri zaitöz gugaz. Antzar-eme eskonge batzuk bizi diran ozin batera eroango zaitugu. Ederrak eta irakargarriak dira. Aukera polita izango dozu antzar-eme eder eta lirain bateaz eskontzeko. Zer daritxazu?

Baña aatetxu itsusiak ez eban izan astirik erabagi bat artzeko.

Pum! pum! entzun zan une beratan. Lupetze aretan antzar biak jauzi ziran ilda euren odolagaz urak gorrituz. Geroago beste danbada batzuk geiago entzun ziran eta antzar-aldra aundi batek urten eban ozin ur garden aretatik egazka.

Eiztariak ozin alboko zugatz eta sasi ondota ezarrira antzar, aate edo beste edozein egazti noiz ikusiko zain. Edoi urdiña ozin-nagusiaren ganean edatu zan, txakurren oinkadak basartean ur entzuten ziran eta inge ta izintzak aizeak eraginda saratatsu ziran.

Zelako larritasuna, atsekabeak jasan bear izan ebazan gure aatetxu itsusiak! Egopean sartuta eukan bere burutxua ta ez ekian non estaldu. Ustegabe aize epel-epeltxu batek inguratu ta poztasun apur bat izan eban. Lotzorrez atara buruata guztiz arrituta geratu zan, ikusirik bere aurrez aurrez txakurtzar itzal bat egoala ta adi-adi berari begiratzen. Aatetxuak bere begi dizdiratsuak ikusi ebezan, bere autz zabalak eta ortzagin zorrotzak. Uste izan eban une aretan bere azken ordua ur egoala. Baña txakurtzarra beragana urreratu, uzindu ta aldendu zan, ukuturik be egin barik.

Nire Jaun eta Jaungoikoa! Ain itsusia naiz?, txakurak eurak be aginkada baterako be ez nabe gura.

Baña bertan jarraitu eban geldi-geldi. Bitartean danbadak alde guztietatik eta txakurren zaunkadak eta euren oiartsunak troka ta mendietatik entzuten ziran. Illuntzerantz eistari-aldia amaitu zan, baña berak, aatetxuak, bertan jarraitzen eban zirkiñik be egin barik, mugidu barik. Ordu batzuk beranduago, geldiro geldiro inguruak ikustatu ebazan, egaz goratu baño lenago. Zeartu ebazan ingurutako lorategi ta landa guztiak eta azkenean gaba illundu zanean basetxe apal batera eldu. Guztiz erorkor egoan, mirari bat zan lurperatuta ez egotea.


Aatetxua guztiz nekatuta etorren eta burutxua makur-makur aize indartsu batek eraginda.

Aterpe edo abaro bat aurkituko baneu! Gogoratu eban.

Orduntxe ikusi eban zelan etxe aretako ateak, ate-orpo bat apurtuta eukala ta bere ol zaarren bitartetatik errez izango jakola barrura sartzea, etxe barrura sartzea. Gogoratu ta egin, ori izan zan egin ebana, sartu etxe barrura iñoren baimen barik.

Etxe txiki arek, etxe baten baño txabola baten antza geiago eban eta beratan andratxu bat katu bat lagun ebala bizi zan. Katua etxabere polita zan, bere ule dizdiratsuz, ron-ronetan luzaro jarduten eban eta lepoa ederto ustaitzen eban bere gustoko ez zan zerbait egiten jakonean. Andreak, "nire alabatxua" deitzen eutson. Andratxuak oillo anka guztiz labur bat be ba eukan, onek egunero arrautz biribil eder bat ipinten eutson eta gure andratxuak oillotxua guzti maite eban. Oillo au bere ugazabearentzat "ankalaburra" zan.

Etxe aretako iru izakiak biramonerarte ez eben ikusi gure aatetxua. Aatetxua ikusi



ebeneko, katua miauka asi zan eta oilloa alaritzen. Zer jazoten da? andratxuak itaundu eban.

Orduan berak be aatetxua ikusi eban eta ikusmen gitxikoa zan lez, lenengotan aate aundi ta eder bat zala uste eban, eta guztiz pozik egoan.

Au da nire zoriona! esan eban bere baitan, ziur-ziur emen izango da aate-emea ta arrautz ederren jabe al izango naz. Ikusi daigun ba!

Urreratu zan beragana, aatetxuagana, baña ez zan guztiz ziurtatu arra ala emea zan, dana dala beragaz geratuko naz, emea ba da arrautzak ipiñiko daustaz eta arra ba da lapikorako ederto etorko jaku. Iru bat aste naiko izango da arra ala emea dan jakiteko.

Baña egunak aurrera joiazan eta an ez zan agertzen arrautzarik, berak arrautz-opilla jan gura eban. Bitartean aatetxua egoitz aretako biztanleak ezagutzen ebillen eta baita ezagutu be. Katua zan etxeko jaun eta jabe ta etxeko andrea, oilloa biak uste eben inguru aretako izakirik jakitun, ospetsu ta berezienak zirala ta beste guztiak gitxiagoztat izaten ebezan. Aatetxuak uste izan eban besteak jakinarazi egingo ebezala, baña zelan, ez ba cutsoen itxiten berba egiten be?

Ia, ikusi dagigun. Zuk zer dakizu edo zer egiten dozu? Zertarako balio dozu? Arrautzarik ipinten ba dakizu? oilloak itaundu eban.

Ez, iñoan aatetxuak.

Orduan egon zaitex ixil ixilik, obeto izango da zuretzat, oilloak garrats esan eban.

Orduan katuak itaundu eban,

Arrautzarik ipinten ez ba dozu, run-rum egiten eta atzamarkadaka txori ta beste izaki txiki batzuei iges eginazoten ba dakizu?

Ez, ez dakit olakorik egiten be, aatetxu itsusiak esan eban.

Orduan gitxiago ulertzen dot, zentzundun izaki trebe batzun aurrean zelan ausaritzen zaran zeure eretxiak azaltzen.

Aatetxua goibel eta nagaigabeturik bere tokitxuan baztertu eta berbarik ez egitea erabagi eban.

Baña biramonean egun eguzkitsu ta alai batek eraginda, aatetxu itsusia guztiz alai ta gogotsu aurkitzen zan eta ozin-nagusira joan eta bertan uger egiñez jolasten ibilteko gogo bizi-bizia eban. Ango aize osasuntsuetan, jaso bere ego txikiak eta azkatasun oso osoan eguna emonaz, zorientsu ta azke izan. Batez be bere gurari, nai, bizi-biziena uger luzaro egotea zan eta ezin izan eban itxi abots saratatsuz esan barik.

Ze gauza bakana diñozu! arrituta oilloak esan eban. Ori jazoten jatzu ezer egin barik, langabe, beti egon zaralako. Saiatu zaitex arrautzatxu batzuk ipinten edo gitxienez lepoa makotzen ingurutako txori txikiak uxatzeko, orrelan ez dozu izango astirik olako gauzatan gogoratzeko.

Izan be, ain eder eta atsegingarri jat urperatzea! aatetxuak antziz esan eban. Ozin ondoraño eldu ta gero burua ur ganean atera, ariñeketan ur ganean ibilli ta onelan luzaro jolastu. Olan zorienttua naz.

Bai, ba litzake, jardun eban oilloak. Zuk zentzuna edo zentzun ona, galdu bear izan dozu, iñoiz izan ba dozu. Ba da ez naz ziurtzen iñoiz izan dozunik. Itaundu eiozu

katuari, bera da nik ezagutu dodan izakirik zentzundun eta burudunena, ia inoiz izan ba dauz olako gurariak.

Nitzaz, nire zentzuntasunetzaz ez dot berbatxu bat esan gura, baña itaundu eiozu berari, baita be itaundu eiozu andratxuari, onek aztura aundia dau. Ala, esaiozu ia inoiz uretan sartzeko gogorik izan ba dau. Uretan burua sartuta jolasteko gogorik izan ba dau.

Zuk ez nozu ulertzen, guztiz goibel aatetxuak esan eban.

Nik ulertzen ez ba zaitut, orduan nok ulertuko zaitu ba? Ez dozu zure burua beste guztiak baña geiagotzat izango, ez? Ez dozu uste izango, andratxua ta katua baño jakitunagoa zarala?, nitzaz ez dot ezer esan gura. Andikeria, arrokeria, griña txar bat da. Aldendu eizu zugandik griña txar ori. Ez zara, bear ba da, etxe on baten aurkitzen, otz eta gozetik babestuta, euren eredu ona ikaskai on bat izan daizun, pertzona edo izaki zentzun-dun batzukaz bizitzen? Siñistu eistazu, mutikotxu. Saiatu zaitex zeozer, zerbait, onurezkoa egiten, ez zaitex izan ain antsigabe. Alperkeritik inoiz ez da ezer lortzen eta olako amets ganorabakoak, alper buruetan sortzen dira, ezer ez egiteak eraginda.

Munduan zear joan bear izango dot, aatetxuak esan eban.

Bai, esan eban oilloak, ori izango dozu onena. Ondo baño obeto etorriko litzakizu nagikerian bizi barik, ludian izan bear diran neke, lan eta naigabeak egizatzea.

Beste barik aatetxua oziñarantz abiatu ta aldendu zan. Inoiz azetuteko ba zan egun orretan azetu zan ureaz. Unetxu bat be geratu barik ibilli zan urperatzen, uger, ariñeketan, urganean eta jolasten uretan. Baña ikusten eben guztiak beragandik aldendu egiten ziran, itsusia zalako.

Udagoiena eldu zanean zugatzetako orriak belegitu ta lurralde osoak euren ezetazun eta margo orlegia ain polita galdu eben. Eguraldiak be ozkirriagoak ziran eta edoi illun eta euritsuak zeru goian agertzen ziran egun otzak eta edurtsuak aztiatuz. Eguraldi txarra benetan aatetxuentzat. Arratsalde baten, eguzkia sartalderantz joianean, baso abarotsu baten artetik txori zuri-aldra aundi bat agertu zan, guztiz zuriak ziran, idun, sama, luze-luze eder eta lerdinakaz. Inoiz ez eban ikusi gure aatetxuak egazti ain polit eta liraiñik. Egazti areik lepazutzak ziran eta euren ego luzeakaz egaz egiñik deadarkada bereziak egiten ebezan. Baña ain goi joiazan! gaitz egiten jakon gure aatetxuari eurak ikustea. Gora begira ain luzaro egonaz buruko miña be sortu jakon. Oziñeko ur izoztuetan aatetxua alde batetik bestera ebillen uger, bere samea goruntz begira tenten. Or duan oiui ikaragarri batek urten eban bere eztarritik eta une baten bildurturik geratu zan. Egazti zoragarri areik gure aatetxua guztiz biotz-beratuta itxi eben. Gero urruntasunean egazti areik estaldu ziranean, barrero urperatzen zan oziñeko ur sakonetan. Ur-ganera urtetan ebanean konorte barik lez geratu.

Nora joango ete ziran egazti ain polit eta eder areik? Berak ez ekien zelan eritxoen eta gitxiago norantz joiazan. Euren bekaitzik ez eban, ba da berantzat ainbeste edertasun ez eban gura. Aate gizajotxua! Olan, itsusia zala, naiko izango zan berantzat, euren zendian anai bezela artua izan ba zan. Zorionsua izango zan euren artean, aate-zendiagaitik zillegitua izan ba zan.

Egunak aurrera, negua gero ta gogor eta otzago zan, azkenean aatetxua, oziñeko ura izoztu ez eiten uger ebillen, unetxu baten be geratu barik ibilli bear izaten eban uger. Ain zan otz aundia ta batez be gabetan. Uger ibilteko zailla oziñean egunero gitxituten zan... azkenean ainbeste izoztu ziran oziñeko urak eta gura aatetxua bearturik izaten zan gelditu barik uger egiten, ankak izotzak lortu ez egiozan, beintzat iztarratariko bat izotz artean atxilotua geratu ez eiten gelditu barik ibilli bear izaten eban. Baña guztia zan alperrik, azkenean nekeak eraginda atxilotuta geratu zan izotz artean.

Biramoneko egun-sentian usterik-gabe andik igaroten zan baserritar batek ikusi eban. Gizon on au oziñeko izoztutako ur albora urreratu, bere oiñetakoakaz izotza apurtu eban alik ondoen eta bere eskuetan maitasunez arturik aatetxua bere etxera eroan eban, bertan bere andreak jagon egian. Toki a, epel eta erosoan zan. Gertaera onek bere berbizkundera iruditzen autsan eta toki a atsegin-lekua. Etxe aretako mutikotxuak beragaz jolastu gura eban, baña bera, aatetxua guztiz bildurturik, ba da uste eban ilgo ebela, azkenean iges egin eban.

Ez zan joan urrun, bere itsutasunean, esne-lapiko baten jauzi ta bertako esne guztia lurreratu eban.

Baserritarraren andre oiuka ta sarataka asi zan. Orduan aatetxua, len baño bildurrago, beste koipe-burdillean jauzi eta apur bat geroago urun zorro baten. Andratxua bere atsetik ariñeketa baten joian, bere etxean aatetxua ainbeste lardaska egiten eutsola ikusirik. Bitartean umetxuak euren indar guztiakaz barreka ta oiuka. Eurak be aatetxuaren atsetik ebiltzan, egaztia arrapau gurean.

Zorionez etxeko atea idegita zabal-zabal egoan eta egaztitxuak iges al izan eban. Ariñeketan abiada itzalean, erdi oiñez beste erdi egazka, edurrez estaldutako sasiarte baten sartu zan...

Tamalegia izango litzake aatetxuak Negu gogor aretan jasan izan bear ebazan neke, samin eta zoritxar guztiak orain edestutea.

Uts utsean esango dogu, eguzkia lurra berotzen asi zanean, gure aatetxua ozin baten, zumetz artean abarotuta egon zala. Ara, Udabarri barri bat eldu da! esan eban. Au poza gure aatetxu itsiña. Oraingo gogo barri bat etorkion bere bizitzara.

Egun baten uste-gabe izugarrizko gertaera jazo jakon. Egaz joateko bere egoak zabaldu ebazanean, nabaritu, konturatu, zan len baño indar guztiz aundiagoaz bere egoak astinduten ebazala ta beraz leku batetik bestera abiada arrigarrian bitarte aundiak egiten ebazala. Bera konturatu zanerako sagar loraz beteko baratz eder eta polit batera eldu zan. Ze toki eder eta lilluragarria beratan bizitza osorako geratzeko!

Barriz ustegabe, abaro sasitsu aretatik lepaiztu batzuk urten eben, zuri-zuriak ederrak eta politik ziran benetan, arin eta arrokeriz ozin aretako urak zeartzen ebezan. Bai, aatetxuak esaten eban, politik eta ederrak ba dira, baña arropuzak be bai. Aatetxuak une aretan gogoratu eban, egazti areik ezagutzen ebazala, nonbaiten ikusiak zirala. Orduan beragan goibeltasun itzel bat sortu zan, ziroikgabe, atsekabeta aurkitzen zan.

Eurakaz egaz egin, bizi ta uger egin gura dot! Egazti ain eder, polit eta arro orreikaz bizi gura dot, esan eban. Baña ilgo nabe, ziur, itsusia nazalako, ni euren artean eta euren itxurarako kaltegarria izango naz.

Aurrera ziardun bere ausnarketatan eta iñoan:

Ez dau lebarik! Gurago dot eurak il naien, oillotokiko oilloak, neure zendiko aateak beti mokokadaka aurretik ibiltea baño. Danak beti zirikatzen eta euren txantxa ganorabakoak jasan baño! Bai, eurakaz betirako geratuko naz, il arte! euren alboan geldi-geldi, ixil-ixilik uzkurtatu noiz elduko bere alabearreko zigorra.

Il naizue gura ba dozue, iñoan berantzat aatexu gizajoak.

Baña... zer ikusi eban, orduan, ur garden areitan! Bere irudi ber-bera ur garbi ta garden areitan dizdiratuta. Baña ikusi eban une aretan, lengo aatexu itsusia bera ez zala. Lepazut bat zala irudi aretan ikusten eban.

Gure aatexua ze zorionsu sentitzen zan une aretan bere eraldatzea ikusirik! Berak jasan ebazan neke, lan, zoritxar guztiak ez ziran ezer oraingo zorionagaz berdindu ezkerø. Oziñeko lepezut aundienak bere alboan ezarri ziran uger egiteko, bitartean txikienak euren mokoakaz laztantzen eben. Au bai, egun zoragarria gure aatexuena!

Lepazut barri bat dogu gure artean! Eta ze polit eta ederra dan! batera gaiñerokoak esan eben. Eta danak joan ziran ariñeketan euren zendi ta senidei barri au emoten. Une batzuk geroago oziñera lepezut barriari eskeintzeko gozoki pillo bateaz itzuli ziran. Lepazut aldra guztiak jan eban gozokia egun aretan. Eta gure len izan zan aate itsusi ta ergel a, orain lepezut eder, lirain eta arropuz bat bezela agertzen zan. Baña gure aatexuak ez eban arrokeririk, apala zan benetan. Biotz on onekoa.

Bai, bai, oziñeko lepezutik eder eta politena da! esaten eben.

Toki aretako lepezut zaarrenak be apaltasun eta maitasunez euren buruak makur-turik baieztatzen eben, lepezut barriaren edertasuna onartuaz.

Azkenean aatexu itsusia, orain lepezut barria, guzti lotsatuta eta zer egin ez jakiñik naasgatuta baztar baten bere burua egopean ebala geratu. Ain zorion aundiaz aldigaiztuta lez egoan. Baña ez uste izan arrotuta, arrokeriz beteta aurkitzen zala, ez, orixe ez. Biotz ondun izaki bat ez da iñoiz arrokeriak jota izango. Zekula ez da izango arroa gure lengo-aatexua.

Len ain zoritxarrekoa izan zan aatexua, orain adiskidetasunez Jaungoikoak egindako lepezut, egazti eder eta lilluragarriena bezela goraldua zan. Ozin ibarreko zumetz, larrosa ta lora guztiak be auzpeztu ziran lapazut barri au euren aurretik igarotean. Eguzkia bera be kidekoa zan, egun, lepezut-barri onentzat, zorionsuan.

Orduan gure lapazut-barriak arrokatu eban bere lumatzea, bere sama luzea azkortu ta zorionez beterik, bere barruan gogoratu eta esan eban:

Zekula be ez neban uste izango ainbesteko zorionsua izatea, aatexu itsusi bat izan nintzanean. Amesetan be onen besteko poz eta zorionik zekula be iñook iñoiz ez eban asmauko.

AINGERUA

Ludi onetan, emen bean, umetxu bat ilten danean, Jaungoikoaren aingerutxu bat zeru goitik jaitsiten da, bere besoetan umetxua artzen dau, ego urdiñen toles bitartean eta bere bizitzan maite ebazan toki guztietara beragaz egazka eroaten dau. Orduan aingeruak eskuteda bat lora batzen dau, eurak ondo zainduaz Jaungoikoaren aurrera eroan, ludi onetan baño azkoz be eder, usaintsu ta abartsuago azi daitezcan. Gure Jaun eta Jaungoikoak lora guztiak bere bularrean besarkatzen dauz, baño berantzat bereziena danari mozu maitagarri bat emoten dauza. Mozu arek loratxu areri itz edo berba egiteko doi arrigarria ezartzen dautso, ta andik aurrera Egillea goraltzen dauan taldekidea izango da.

Ori izan zan aingeru arek ildako umetxu bat zerura eroan ebanean edestu ebana, eta onek lilluratuta entzuten eutson amesetan balego lez. Gero umetxuagaz txikitan jolasten eban tokietatik bidaldi bat egin eta loraz betetutako baratz eder batzuk ikusi ebezan. Orduan aingeruak itaundu eban.

Zein lora eroango dogu zeruan landaratzeko?

Onetan naiko ur larrosa eder bat ikusi eban, baño zoritxarrez batan batek zitalkeriz lastoa ebagita, bere adar ta orriak berantz begira ta bere lora-kuskuak guztiz zimelduta eukazan.

Larrosa koitadea!, umetxuak esan eban. Zergaitik ez daroazu gure Jaun eta Jaungoikoaren baratzean landaratzuz bertan azi ta lora azko emon daiozan?

Aingeruak irribarre bateaz, umetxuaren asmakisun bigun eta samur areri erantzun eutson. Egia esan, aingeruak aintzat artu eban, baño eziña zan, ez eban astirik.

Lora pillo eder bat eskuratu ebanean, eguna illuntzen asita zan eta uriko kale estu ta illunetarik baten ganetik egazka luzaro jardun eben. Iru-illebetearen azkena zan eta kale aretako etxe zaarretakoak euren aldaketatan ebiltzan, altzari ta beste tresna batzuen aldaketatan. Orregaitik ez zan ikusten besterik loikeri ta ezetarako balio ez eben gauza alojagabeak baño.



LURREAN UMETXU BAT IITEN DANEAN,
 ZERUTIK AINGERU BAT JAITSITEN DA, TA
 BERAGAZ, UMETXUAZ, BERE BIZITZAN ATSE-
 GIN IZAN JAKOZAN TOKIETATIK IBILLI
 JOLASTEN ETA LORATXU BILLA, BERAGAZ
 ZERUETARA IGOTEN DAU.

...JAUNAREN BARATZEAN AZI
 EITEZELA.

LORATXU ORI BE
 EROAN GEINKE. UMETXU GAIXO BATE-
 NA IZAN ZAN, BERE ALTXOR BAKARRA
 ZAN. URTE BETE DA ZERUAN DANA.

ETA ZELAN
 DAKIZU ZUK
 GUZTI ORIP?

BA DA, NEZKATILLA-
 TXU GAIXO A, NEU
 NAZALAKO TA ONDO
 BE ONDO EZAGUTZEN
 DOT AIN MIZKEZ
 JAGON, ZAINDU,
 NEBAN LORATXUA.

ATSEGIN-TOKIRA
 ELDIRIK, GURE JAUN
 ETA JAUNGOIKOAK
 UMETXUARI EGO BA-
 TZUK OPA EUTSOZAN
 ETA LORATXUA MOSU-
 KATU...



BEREALA, LORA-
 TXUAK, BERBA EGITEKO
 DOA BERAGAN IZAN,
 BERE EGILLEA GORAL-
 TZEKO.

Baztartuta, jabegabe egoan tresna pillo baten artean, aingerua konturatu zan lorontzi eder eta polit bat aurkitzen zala, beste gauza guztiak bezela, noizbaiten izan eban jabeak kalera jaurtita. Lor-ontzi polit aretatik baso-lora politago batek, margo azkotako, lora polit eta usaintsu batek, loikeri, zikinkerri, aren artetik lauki alai ta ikusgarri bat agertzen eban.

Loratu ori eroan geinke, aingerutxuak esan eban.

Zergaitik ez? umetxuak erantzun eutzan jakingurez beterik.

Gero esango dautzut, aingeruak jarraitu eban eta loratxua bere eskuetan arturik, umetxuaz barriro egaz abiatu zan, ipuin antzeko gertaera bat umetxuari edestuz.

Ara esan eutsan, kale orretan, kale ain estu ta illun orretan, ume bat, nezkatillatxu bat bizi zan, gizajea luzaro gaixorik egon zan. Txiki-txikitatik bere ogetik ezin izaten zan jagi. Nozean bein apurtxu bat, obeto aurkitzen zanean, bere etxeko gelan, logelan, ibillaldi labur batzuk bere iroskai lagun, egiten ebazan. Udako egun eguzkitsuetan nezkatillatxua bere logelara aren argitasuna sartuz, bere bizia, nezkatillatxuaren bizia, apur bat alaitzen zan baña zoritxarrez berantzat eguzkia logelatxu onetan asti laburretan egoten zan. Eguzki dizdiratsua poztuteko. Bitartean bere begitxu urdiñakaz, bere atzamar argal eta gardenak begizatzen ebazan. Olako egun zoragarrietan, esaten eban, "gaur urten dot", berantzat eguzki-izpiak bere gelan sentitzea, etxe aurreko landa orlegi ta loratsu batetik edo bertan egotea zan.

Berari, nezkatillatxuari, baso, mendi ta zugatzaz ekian guztia, ausoko umetxu batek, bere adiñeko mutikotxu batek, irakatsi eutsan. Berak eroaten eutsazan izai, abeto, adar batzuk. Mutikotxua izai-adarrak bere logelan itxita joatzen zanean zelako ametsak gure nezkatillatxuak izaten ebazan. Bere buru ganean dindilizka izai-adarrak ezartzen ebazan eta izai-ondo baten kerizpetan aurkitzen zala amesetan egiten eban, baso eder eta zugatztsu baten, eguzki osoa bere izpi guztiak beragan, millaka txori abeslari euren txio-txio estitsuakaz urrukatzen ebela.

Egun baten mutikotxu bere auzokideak baso-lora polit batzuk be eroan eutsozan, eta ustegabe euren artean euteraiko bat zuztrai ta guzti egoan. Bereala lorontzi baten landaratu eban. Bere logelako leio-barrenean landaratu gura eban, bere ogetik ikusteko erara, bere begien aurrean. Esku bigun eta maitasunez beteriko beso batzuk loratxu a zaindu, jagon, eben; apurka apurka asten ikusiaz nezkatillatxua zorionsua zan. Nezkatilla gaixo arentzat lorontzi a bere loratxuaz, baratz loratxu eta eder bat bezela zan, ludiko altxorrik aundiena... Batzuetan ogetik jagiten zanean bere iruskoi lagun, nekez eta geldiro beragana, loratxuagana, urreratzen zan, eta arduratsu, gozoro urestatzen eban. Eguzkiaren izpi epelak laztandu egien, eguzki-begira ezartzen eban. Loratxua berantzat landaratua izan zan, eta beraz berantzat bere usain gozoak.

Arratsalde baten, nezkatillatxua bere arpegi zuritxuaz loratxua begiratzen egoala il zan... Orain urte bat zeruan dala, bitarte guzti onetan baso-loratxua leio-barrenean guztiz aitzua izan da. Etxean iru-illebeteko aldaketa egin dabenean, baztertuta kalera jaurtia izan da, zarkilleri bat geiago bezela.

Ara, umetxua, aingeruak jarraitu eban, ori dogu gure lora-txortari erantsi dautza-

gun lora barria. Eta ba dakizu zuk zergaitik? Ba da dan apala izanik, errege ospetsueneren baratzeko lorarik eder eta lilluragarrienak baño atsegin geiago zuzkitu daualako.

Umetxua ixil-ixilik aingeruari begira adi-adi geratu zan. Azkenean itaundu eutson. Eta zuk zelan dakizu guzti ori?

Orduan aingerutxuak irri-barre gozo bigun bateaz erantzun eutsan.

Neu, ber-bera nintzan nezkatilla gaixo ori. Iruzkoi batzuk lagun, nekez-nekez nenbillen nezkatillatxua, neu nintzan. Eta ondo, baño obeto dakit zelako maitasunez eta ardura bizi-biziaz zaintzen neban, jagoten neban, baso-loratxu ori.

Umetxuak abo-zabalit aingeruaren adi-adi geratu, zer esan ez jakiñik eta une batzuk geroago. Atsegin-lekuko atera eldu ziran. Toki zorionsua, pozgarri ta, atsegin utsaduna, nekerikgabekoa. Jaungoikoak agurtu ta estutu eban besarkadatu bere bularrean umetxua ta aingeru-ego batzuk opa eutsazan bere adiskide aingeruaren antzekoak. Onelan, biak batera, gura eben guztian joan al izango ziran toki guztietara egazka. Gure Jaun eta Jaungoikoak lora guztiak besarkadatu ebazan baño mozu ta besarkada bereziak baso-loratxu arentzat izan ziran, loratxua erdi zimelduta egoan. Une beratan mozu aregaz Jaungoikoak baso-loratxu areri izketa edo berba egiteko doi mirragarria emon eutson, ta Amaibako-Jaunaren aingerutaldera alkatu zan.

Orduan guztiak batera, danak batera, aingeruak, loratxuak eta baita be baso-loratxu zakarkerian jaurtia izan zanak, umetxu ona lagun ebela eraz-abestu eben goratzarre polit eta gozoro bat.

ARRAST NEZKATILLA

Lur gogor eta izoztatuaren ganetik gabeko itzalpena ezartzen zan eta toki guztietatik aize otz ikaragarriak astintzen eban, edurtze aundi bat zan...

Urtearen azkenengo egunak ziran, urte barri bat baten aurrea, ta illuntasun eta otzaren artean nezkatill gizeje bat kaletik oiñutsik joian.

Zelako ikarak ebazan koitadeak, soin-ganeko berogarri barik eta oiñetako barik. Bai, abarketa zaar batzuk eroazan, baña zer ziran abarketa arek zuloz beteta ta adabuz josirik ba egozan? Orregaitik edurraren ganetik oiñakaz edurra ber-bera zapaltzen ebala joian.

Bere iñetziko amantaleko sakeltxu baten, nezkatillatxuak arrast-loturatu bat eroan. Bitartean bere eskuetan kutxatxu bat eutsiz, kaletik zear ebillen. Aste osoan ezin izan eban saldu ezer, eta arrast-saltzalleagaitik ez zan iñor errukitu, naizta bere itxurea errukagarria izan.

Gosez-il baten irudi ber-bera zan gure arrastsaltzalle otzez ikaraka. Edur malkoak geroago ta sarratuago, eta nezkatillaxuaren ule-kuskuillen ganean jauzirik, zeruko izarrak eguzki alboan ezarrita dirudien.

Goialdean aundiki-etxe epel eta oparotasunaz beterikotan, biztanleak jan eta edan egiten eben, kale otzatako erritarren ardura ta errukigabe. Alai argitasunak zorion oso iruditurik kale otzera zabaltzen ziran janari gozo ta mamintsuaren usaiñ erakargarria zabalduaz. Aai txiro, ezeuki ta zorigaiztokoak, egun zoragarri a alaitasun eta itxaropentsu ez eban ospatzeko! Ez ziran izango maikideak oparotazun a gozatzeko!

Arrast-nezkatillatxua erri aretako kale loi, zikin, eta soil areitatik aurrerantz joian eta aterpe aundi batera eldu zanean eta bertan sarturik, etxe bi arteko zoko baten, al izan ebanik ondoan jazarri zan, bertako berotasun izpiatz bere gorputza ta oiñ ia otzak illak berotu gurean, baña alperrikoa zan.

Une baten bere etxera joatea be bururatu jakon. Gabonzaar zan! Bai, baña bera

arrast-saltzaillea izanik, diru apur bat eroan bear eban zendia elikatzeke. Eta bere aita? Bere aita! Bere etxera, etxeratu ba zan, arrats-kutxatxu bat saldu barik eldu ba zan, bere aitak, zigortu, joko eban. Ganera bere etxean kalean añaoko otza zan. Ipar-aizeak astinduten eban aterpe aretan baño bere etxean otza aundiagoa, beraz etxera joateko leiarik ez eban.

Nezkatillatxuak bere eskuak zurrun ebazan, aize otask eranginda. A Jaungoikoa! Arrast bat biztutea saiatuko baneu? oldoztu eban, gogoratu, bear bada berotasun apur bat lortuko neuke.

Egutaroa geroago ta gogorragoa zan eta azkenean geiago eziñik, artu eban bere eskuetan arrast bat eta biztu. Ze sugartxu atsegingarria aterpe illun aretan sortu zan! Bai sugartxu berotsua zan, zeruko izarrak aiñako goiz-izar dizdiratsua. Nezkatillatxua berotasun aregaz arin nabaritu zan, sugartsuen ganetik bere eskutariko bat edatu eban. Bere asmakisunetan, bere gogoraketatan, erdi amesetan bezela, euren etxeetan, arnabarrezko kezulo, bikain, baliotsu, baten bean, beko su eder baten aurrean, aurrez aurrez, nasai ta zorionsu, zendiak, notintsa ikusten eban. Zenbateraño ziran bearrezkoak beko-sua ta ke-zulo aundiki ori, arrast ezerez bateaz naiko ba zan berotzeko?

Une aretan nezkatillatxuak bere burua orrelako gela apain baten asmatzen eban beko-su eder baten aurrean, egur legor eta zoli batzuen artetik urteten eban txingar-tuak begiratzen eban bitartean... baña A Jauna! bere iztarrak luzatzen joan zanean bere oiñ txiki ta erdi otzak illak berotzeko asmuz, arrasta amataurik barriro eldu ziran illuntasuna ta itzalak... bere gogotik gela lilluragarri aldenduaz.

Baña bere amentaleko zabeltxu baten arrast geiago eukan. Kutxatxu bat, bi, iru kukatxu... euretariko batetik arrast bat atera eta alboko orman bizturik, su-gar txiki batek aterpe illun a apur bat argiturik bere amesetatan etxe barnea ikusi al izan eban. Etxe eder eta eroso, jantoki erosoagoaz, mai eder bat aulki, jearleku, bikain batzukaz inguratuta ta mai ganean jan-edari gozo ta mamintsuak ugari, ango oparotasuna amaibagea zan, Txinako jan-edontzi garesti dizdiratsuak, argikai edo argiontzi eder, argiziriz beteak sapaitik dindilizka. Baña, Zer ikusi eban arrastsaltzailleak jantoki erdiko mai ganean? Guztitariko edariak, bonbilla ugari, beirazko txolaontzi dirdira-dunak eta mai erdian... indi-oillo, pabo, eder bat! Indi-oillo guri ta mamintsu bat, bere bularrean lau-ortzeko bat sartuta, ta ondoan zidarrezko aitzo polita. Orduntxe ustega-be gertaera jazo zan. Indi-oilloa egazkada baten arrastsaltzeillearen eskutxu otzetan ezarri. Baña zoritxarra neskatillatxuena, oraingoan be bere amesak ez eban izan azken onik, indi-oilloa eskuekaz oratzeko egoan uanean, arrasta lurrera jauzirik, barriro arrastsaltzaillea len bezela illuntasunik aundienena ta otz geiagoaz geratu.

Gure arrastsaltzailleak beste arrast bat atara ta bizturik amesetan jardun eban, oraingoan Gabon-zugatx eder eta margotsu baten aurrean jearritta aurkitzen zan. Zugatza gauza izugarrizkoakaz apainduta egoan, jostaillu ugari, baña berantzat bereziena bertan ikusi eban andere, seintxu, ule kirrudun bat zan. Argiz beteriko adar bitartetatik, bere arpegi txiki ta begitxuakaz nezkatillatxuari irribarreka egoan,



GABON ZAAR ARETAN, ARRASTSALTZAILEEA BETERIK ZIRAN KALETATIK ZEAR EBILLEN. EZ EUTSOEN EROSTEN INOIK EZER ETA ETXERA ITZULTZEKO BILDUR ZAN, BERE AITAREN BILDUR. ATARI-AURRE BATEN JEZARRIRIK BEROTZEKO ARRAST BAT BIZTU EBAN. ARETO AUNDI TA EDER BATEKO KEZULOPEKO SU BERO-BERO AURREAN IRUDITZEN ZAN. ARRAST GEIAGO BIZTU. BIGARREN ARRASTAREN ARGITASUNEAN, BERAGAN EGAZKA INDI-OILLO LODI-GURI BAT ETORRELA AMES EGIN EBAN. BESTE BATEK GABON-ZUGATZ GOZOKIZ BETERIKO ZUGATZ BATERA EROAN EBAN.

11

BERANTZAT AMESIK ATSEGINTSUENA BERE AMAMA IKUSI EBANA IZAN ZAN.

BA DAKIT, AMANTXU, ARRAST AU AMATATZEN DANEAN EZE-REZTUKO ZARALA, EROAN NAIZU ZUGAZI!



AMAMATXUK ARTU EBAN BERE BESOETAN ETA ZERURANO EROAN. ORDU BARTZUK GEROAGO, ATARI-AURRE BATEN, UMETXUA OTZAK ILLIK AURKITU EBEN.



KOITADEAK BEROTU GURA IZAN EBAN, ZIUR, ARRATST KUTXAXU BAT ZUZITU EBAN.

INOK EZ EBAN IGARRI ARRATSTSALTZAILEEA NORA EROAN EBAN BERE AMAMAK ETA EZ BERAK IKUSI EBAZAN TOKI LILLURAGARRI TA GOZOAK.

arrastsaltzaille txiroari, ñoiz ezelako jostaillu bat, seintxu edo antzeko bat bere eskuetan euki-gabeari. Zekula olako pitxi kutun batzukaz jolastu ez ebana ñoiz umetxu txiroei be jostaillu ta andrakil bateaz, naizta zirkillezkoa izan, jolasten gustatzen jakela, ñor konturatu ez zalako! Zelan gozatzen eban gure nezkatillatxuak ameseta oneikaz! Nik uste dot, beste zendi aberatzeko ume batek egiazko jostaillu garestiakaz jolasten dauanean baño azkoz geiago.

Nezkatillatxuak luzetu ebazan bere besotxuak jostaillu ta andrakillak laztandu gurean... eta orduan... arrasta amataurik izartu. Gabon-zugatz galantako argi-dizdirat-suak, goi-goi, igon eben, goi oskoroan dizdirazka egozan izarrakaz naastatuaz. Euratariko argitxu bat amaigabetasunean jauzirik bere atsean, atsetik, lorratz me-me bat itxiten ebala.

Batanbat ilda, norbait il da! arrastsaltzailleak esan eban, bere amamak esaneko itz, berba, batzuk gogoratuz. "Izar bat zerutik lurrera jauzten danean, arima on bat egazka zerurantz joaten da".

Bere amamatxu antziña ilda zan, baño nezkatillatxua orduntxe ñoiz baño geiago beragaz konturatzen zan. Ludi onetan bere izan zan ñor baño geiago biotz-biotzez maite izan ebana.

Aa amamatxu maitea!, zotinka esan eban. Zergaitik ez narozu zugaz?

Beste arrast bat bizturik, sugarraren argitasunean bere amama agurgarriaren irudi ber-bear, berotasun beteriko toki zorigarri baten irribarreka agertu jakon.

Amamatxu! Amamatxu!, nezkatillatxuak bein eta berriro esan eban. Ba dakit arrasta amatatzen danean itzaliko zarala, sute, ke-zuloko sua bezela, indi-oillo erre ta mamintsua lez, Gabon-zugatz jostailluz beteriko a bezela... Eroan naizu zugaz!

Eta bildurra izan eban, bildur illuntasun eta otz aregaz bakarrik geratzeko. Larritasunez kutxatxu aretako arrast guztiak batan bestean atsean biztu ebazan, amamatxuaren ikuspegi zoragarria luzatu gurean. Bere atsegiña une aretan amaibakoa zan eta ez da arritzekoa nezkatilla onen guraria, naia. Arrastak su-gar ederra egiten eben, eta arrastsaltzaillentzat eguzkiak Udako legorte aundienetan baño be argitasun eder eta biziago bat aterpe loi aretan zabaltzen eben.

Orduan amamatxuk bere basoetan maitasun osoz beterik artuta bide-zior, zeru-argitasunez bateaz inguratuta egoan batetik eroan eban, arrastsaltzailleak ñoiz geiago, zekula otz, goze ta aitaren sartadak ez lagun-urkoaren norberekeririk izango ez eban tokira...

Ordu batzuk geroago, goizalde izotz aretan, etxe zaartxu bik egiten eben zoko illun ta kerizpetsu baten, jezarríta ondiño, arrastsaltzaillea aurkitu eben. Bere espantxu bigun erdi-idekietan aingeru-irribarretxua agertzen zan. Gabo-zaar otz aretan gozez eta izotzak eraginga...

Biramonek, Urtebarri eguneko eguzki epelak bere lenengo izpiakaz il-jantzi eban. Nezkatillatxua zurrunduta aurkitzen zan, bere amental ñantzian arrast lotura bat eukala, zeifnetik kutxatxu oso bat txukatu eban.

Koitadeak bere gorputza berotu gura izan eban, urrean, auzokide batzuk ñoen.

Baña ori bai, iñor ez zan izan gauza umetxu arrastsaltzaille arek Gabon-zaar aretan ikusi ebazan ikuspegi arrigarri, lilluragarriak, ikusteko, ez da zekula asmau be, bere amamatxuk eroan eban toki atsegintsua...

TXARRIZANTZAILLEA

Beiñola erregekune edo printzipe bat, egia esan ez guztiz aberatza, laterri baten jabe ta jaun izan zan. Printzipe onek eskondu gura eban, baña uste eban ain txiroa izanik ausardi bat zala Agintari-nagusi bategana joatea eta esan, “Jauna, zure alaba zaarrenagaz eskondu gura dot eta orretarako zure baimenen billa natorkizu”.

Egun baten ausartu ta joan zan bere guraria, naia, betetzen. Printzipea, naizta aberatsa ez izan, ospetsua zan eta eunkada bat printzeza baño geiago gertu ziran bere biotzeko eskakisunari “baietz” bateaz erantzuteko. Baña gura ba dozue zer... jazo zan jakitea, jarraitu eizue irakurten adiskidetxuek.

Printzipearen aitaren illobian, bost urterik bost urtera loratzen zan larrosatxua bat egoan, lora bakar bat bakoitxean emoten ebana. Baña ikusi ba zenduen zelako lorea! Bizitza onetako arazo ta neke guztiak aiztuten ziran loratxu a usainduz, ain bigun eta gozoa zen berak zabaltzen eban usaiña. Gure printzipetxuak larrosa miraragarria orren ganera, trebetasun aundienagaz abesten eban urretxindor polit bat eukan.

Urretxindorrek trebe ta gozotasun aundienagaz abeste eban, bere txi-txi-txio alai lilluragarria abesti bat baño, bere estarran ludi onetakó eresi eder eta bigunak ezarrita egozala dirudian.

Orregaitik printzipea bere gauza on bioakaitik arro izatea ez da arritzeko urretxindorra ta larrosea. Gauza biak urretxindorra ta larrosea, erregin-gaiari, printzezeari, urrezko kutxatxu baten bialdu eutsozala jakitean, iñor ez dot uste arrituko danik, paregabeko doari bat izanik.

Zaspi morroi, pajes, ta aintzari bi, doakari ain baliotsuaren eramalleak izan ziran eta enperadoregaitik areto nagusian onartuak. Areto beratan erregin-gaia bere andere-lagunakaz jolasten eta txantxetan aurkitzen zan. Ba da gure ipuiñeko erregin-gaiak jolastu, besterik egiten ez ekian.

BEINOLA ENPERADOREAREN ALABEAGAZ
ESKONDU GURA IZAN EBAN PRINTZIPE BAT
IZAN ZAN.



PRINTZIPE GAZTEAK,
NAIZTA TXIROA
IZAN, ALTXOR
BALIOTSU BI EUSKA-
ZAN. BOZT URTERIK
BOZT URTERA
LORAZTUTEN ZAN
LARROSA BAT, BERE-
ZIA, BAKANA, TA
ARRIGARRIRO ABES-
TEN EBAN URRE-
TXINDOR BAT. 12



PRINTZETATXUARI EZ
JAKON IZAN ATSEGINTSU
LARROSATXUA TA URRE-
TXINDOR AZKATU EGIEN
EGINDU PRINTZIPEARI
DEBEKATURIK BERA IKUS-
TEN JOATEA. BAÑA AU,
JAUREGIRANTZ ABIATU
ZAN, TXIROTASUNEZ
JANTZITA, ADABUZ BETERI-
KO SOIÑEKOAKAZ JANTZI-
TA, ENPERADOREAK TXARRI-
ZAINZAILLEA LEZ ALOGO-
RATU EGIAN. EGUN
BATEN...

LANA AMAITU ONDOREN, ERESI
EZAGUN BAT ABESTEN EBAN TUPIN
BEREZI-BAKAN BAT EMON EUTSOEN.
BERA LAGUN IZANIK, SUTE, SUKALDE,
GUZTIETAKO JANARIAK JAKITEN
ZIRAN. PRINTZETATXUAK TUPIÑA
EROSI GURA EBAN. 11

Printzeatzua doakaria ikusi orduko pozaren pozez txaloka asi zan, esanez:

Konturatu ba zan katutxu eder eta bizkor bat bialtzea! Aa ze poza izango neban!

Larrosatzua ikusirik, bere usaiñagaz bete bete egin ebazan bere birikiak, laztandu bere erbatz ule guridunak eta zorionsua nabaritzen zan. Larrosea berezkoa zala jakitean, zorion iragankor izan zan.

Ez da larrosatxu eskuz egindakoa! oiuka uzkurdurik esan eban.

Tamala da!, jarraitu bere aitak, emperadoreak. Larrosa berezko bat da!, ixilaldi laburtxu baten ondoren esan eban. Ondo da, zure errege-gaiaz aserrazi baño lenago, ikusi daigun beste kutxatxuan zer dakarren.

Egia da! oiuka erregin-gaiak oiuka esan eban. Aiztu jatan beste kutxatxu bat ekarri eballa.

Ara non, bigarren kutxatxua idegi ebenean, beratatik urretxindor polit batek urten eta zekulako abesti alai ta lilluragarria egin eban. Errege-etxe aretan txoriaren txio txio estitsua entzutean iñork ez eban jakin zer esan.

Superbe! Trè charmante!, pozez ta oiuka andere-lagunak iñoen, frantzez-izkuntz lazgarri baten, naizta eurak jakitun andiputz bezela eben euren burua izkuntz orretzaz.

Orduan arazo onetan kide izan zan aguretxu gizalege batek, abots arro arroaz esan eban.

Txoritxu orrek gure printzeza dakarst gogora, batez be bere abots agintzalle doñuagaitik.

Enperadoreak agureatxuari begiraturik antzi sakon bat egotzi eban.

Zuzen zara, Errolando, arrazoi dozu, esan eban, matrail ganetik beruntz negartantal bat jarioten jakola. Niri be zelan gogoratzen daustan, eta luzaro negar baten jardun eban.

Txoria eskuz-egiña ez dala, uste dot, printzeatzuak esan eban. Ez da egia aita maitea txoria eskuz egiña ez dala?

Ez, ez, iñoan beste taldekide batzuk. Bene-benetako urretxindor bat da. Ori ez da guzurrezko txori bat.

Ez, orain ikusiko dogu zelakoa txoria dan! Azkatu eizu, emoiozu berari dagokion azkatasuna! printzeatzuak agindu eban.

Aldikoi, itzulkoi ta aldizto, gutziz asarratuta, bere printzipeari be bere ikusten joatea debekatu egin eutsan.

Baña orregaitik gure gaztea ez zan biotzkatu. Egitamau polit bat asmau eban. Aurpegia baltziturik, kapela bekañetaraño sartu edo ezarri ta errege-jauregiko atean deitu eban.

Enperadoreak ber-berak burua leiotik atara eban, deika egoana nor dan jakiteko. Zer gura dozu?, itaundu eutsan.

Egun on, Jauna, agurturik jarraitu eban. Zure jauregian emongo zeuskide lantxu anbat egiteko erea edo obeto lantoki bat?

Ixil unetxu baten ondoren, enperadoreak erantzun eutsan.

Ara, bai... naizta gaur egun eskakizun larregi izan... Ia ikusi daigun, itxi eidazu



PRINTZEZATXUAREN
AMAR LARROSAGAI-
TIK EMONGO DOT,
BESTELA EZ.

PRINTZEZATXUAK ONTZAT ARTU EBAN
ETA OLAN BERE LATERRIAN ZER JATEN
ZAN JAKIN AL IZAN EBAN.

TXARRIZAINZALLEAK BESTE MALTZURKERI BATZUK
ASMAU EBAZAN. VAL-DANTZAK, POLKA TA MAZURKA
SOIÑUA JOTEN EBAN MATRAKA BAT EGIN EBAN.
BERAGAITIK, BERE ORDEZ. PRINTZAZATXUARI BERE EUN
LARROSA ESKATU EUTSOZAN. ORDAINKETA EGITEKO
SASOIAN USTEGABE ENPERADOREA AGERTURIK, ZER-
GAIK EDO ZER ORDEZ ZAN IKUSTATU EBAN.

13



JAKINIK PRINTZEZATXUAK LARROSA BAT
EMOTEA, BERAGAZ ESKONTZEA ZALA.
SUTSU ASARRATURIK PRINTZEZA TA
TXARRIZAINZALLEA JAUREGITIK KAN-
PORA BIALDU EBAZAN. BIDEAN JOIAZA-
LA, BERAK, PRINTZEZATXUAK SAMIÑEZ
GOGORATZEN EBAN JAZORIKOA.



TXARRIZAINZALLEA UNE BATZUTAN ESTALDURIK, AGERTU
ZAN APUR BAT BERANDUAGO, BANJA ORAIN PRINTZIZE-
KO SOIÑEKOAKAZ JANTZIRIK.

ARBUJATZEN ZAITUT, NIRE
LARROSATXUA TA NIRE
URRETXINDORRA ZEUK BE
ARBUJATU ZINDUZALAKO,
NIRE OPARI BI BEREZIENAK...

OSTERA, APETATSU ORI, SOÑU-
JOSTAILLU BATEGAITIK, TXARRI-
ZAINZALE BATERI LARROSAK
EMON ZEUTSOZAN, ALEGINDU
ZAITEZ OBEA IZATEN, PRINTZE-
ZATXU!

ETA AU ESANIK, ALDENDU ZAN BERE JAUREGI-
RANTZ, PRINTZEZATXUA ALPERRIK JOAN ZAN BERE
ATSEAN, BADA BERAK JAUREGIRA SARTUAN BAT
BATEAN, ERTSI EBAN ATEA TA NEZKATILATXUA KAN-
POAN GERATU, EZEGUN EBAN ERESIA ABESTUZ...

unetxu bat gogoratzen. Gurdizaiñak edo gurdizaingaiak berrogeta amar baño geiago dodaz itxaroten. Morroi-nagusigaiak, jauregian dodazanak geiegi dira. Zaldunkin bat! Ez, zuk ez dozu zaldunkin baten antzik... Begiraille, ori gitxiago... Ba dot zureztat lan bat, lan-toki bat, mutil, Txarrizaiña! Baieztatzen ba dozu, ontzat arten ba dozu, oraintxe izendatuko zaitut enperadorearen lenengo txarrizaiña, txarri-zain nagusia. Txariak ugari daukadaz etxean eta txarri-zain bat bear-bearrezkoa dot, eurak jagon edo zaindu daistazan.

Ara emen, zelan printzipea enperadorearen txarri-zaintzalle bezela sartu zan. Jauregiko lekurik txarrena, loi ta illunenean ezarri edo emon eutson egoitza bezela. Gizajoa asto baten antzera, gelditu barik egun osoan ibilten zan lanean, enperadorearen txarriak jagoten, zaintzen.

Egun baten, oitura eban lez, egun osoan lanean, bearrean, egin ondoren, txilintxuek az inguratuta tupintxu bat egin eban. Txilintxuak, tupiñeko janari egosikeran antziñako abes-olerki bat entzunazo egiten eban, iñoala:

Ia, ia Agustin maitea!

Guztia dago galduta, galduta, galduta!

Tupintxu aretatik urteten eban lurrunean atzamartxu bat ipiñi ezker, jakin al izan zeinke bere barruan zer abazutitzen zan eta baita be, ta au da arritzekoa, uriko sukalde, sute, bakoitzean eta guztietan.

Asti labor barruan printzeza edo erregin-gaia bere andere-lagun batzuk az andik ur igaro, eta jakia, soiñua entzutean ate aurrean lilluratuta geratu, ba da berak be, "Aa Agustin Agustin" abestia ezagutzen eban. Egia esateko zatitxu edo arlo a uts utsik ekian, gaiñerokoa bere burutxuan ezin artu, ori bai, atzamartxu bateaz bere pianuan sarritan jotzen eban.

Orixe ba da nik neure pianuan joaten dodana! printzetatxua oiuka esan eban. Ezpai barik txarri-zaiña guztiz az ezitua izango da!, eta bere andere-lagunei txarri-tokian sartzeko agindu eutsen, eta jarraitu esanez; sartu zaiteze txarritokian eta itaundu eiozue txarrijagolearia, bere soiñu-tresnatxuak zenbat balio dauan.

Andere-lagunetariko batek be, ez eban sartu gura txarritokira, izan be toki au leku iguingarria da, batez be emakume batentzat, gertaera jazoten dan bezela, prantzez-izkuntza bikaiña egiten ba eban. Azkenean euretariko bat limurturik, sartu zan, baña ez lenago iru zoruko oiñetako batzuk oiñetataru barik.

Txarri-jagolearen, txarri-zaiñaren, aurrez aurrez aurkitu zanean, oneri itaundu eutsan.

Zegan salduko geuskizu zoiñu-tresnatxu ori?

Ba... amar larrosagaitik.

Norenak eta zelakoak izan bear dabe larrosa orreik?

Printzetatxuarenak, txarri-jagoleak erantzun.

Ez eizu olako amesatarik izan, txarri-zaiña! andere-lagunak oiuka ean eban.

Eta txarritokitik bereala urtenik, printzetatxuak itaundu ia zenbat eskatzen eban txarri-zaiñak soiñu-tresna aregaitik.

Amar larrosa, baña beorrek emon bearko dautsaz Erregiña ori...

Ezelan be ez, zekula be ez! asarre, sutita ta oiuka erregin-gaiak esan eban.

Ba, azkenengo sal-neurria ori dala diño.

Azkenean, gure printzetatzuak soiñu-tresna a gure eban ezkerok, ez eban izan beste urten biderik, amar larrosak emotea baño. Alan egin eban, banan banan emon eutsazan amar larrosatzuak txarri-zaiñari. Berak ostera tupintxu artu.

Printzetatzua zorionez beterik izan zan eta baita be bere andere-lagunak. Zekulako jolasketak egin ebezan. Gau ta egun tupintxu a erabileten eben eta olan jakiten eben erriko sute edo beste sukalde guztietan egunero ze janaritzen eben, erriko zendi txiroenetatik, aberast eta ospetsuarenetaraño.

Izugarria da!, printzetatzuak iñoan. Orain jakingo dogu ziur zein etxetan ondoen jaten daben.

Ori, ori!, bere andere-lagunak oika. Ze joztagari! Orain jakingo dogu, nok jaten dauan salda ta txilis-erain eta nok baso-oillar eta lanpernak eta sute edo sukalde guztietan sua biztuten daben ala ez.

Olan emon ebezan egun batzuk, jauregian danak uste eben mutil a benetan txarriagole bat zala ta ez alboerriko printzipe bat. Mutillak bere aldetik txarri ta txarrikuma tartean, egunero zeozer, zerbait, ikertzen eban, zerbait berezia.

Egun baten eder bat asmau eban. Berak biraka ziardunearan iñondiko polka, mazurka ta balzak zoiñu lilluratsuak joaten ebazan.

Superbe! superbe! oiuka esan eban printzetatzuak andik igarotean. Zekula ez dot entzun soiñu ain lilluragarriagorik, Entzun eizu, nire andere-lagunak, entzun!

Soiñu zoragarria arek eraginda, ezin izan eban geldiarazi tresnatxu a eukiteko guraria.

Sartu bedi zuetatik bat eta itaundu txarrizaiñ orreri soiñu-tresna arrigarri ori segan salduko leuken. Baña gogoratu larrosarik ezelan be ez! Noiztik ona printzetza batek txarriagole bateri larrosak emon bear dautsoz?

Andere-lagunetariko bat txarritokira sartu zan eta urten ebanean bere printzetza-txuaren itaunari erantzunez esan eban:

Txarrizaiñak bere soiñu-tresnatxuagaitik, bere orde, berreun larrosa eskatzen dauz.

Printzetatzuak sutsu asarraturik iñoan.

Gizon ori burutik ez dago ondo! Eta ariñeketa baten toki aretatik aldendu. Baña unetxu bat geroago, zerbait gogoraturik, iñoan.

Dana dala eresertia zaindu bear dogu, eta ni naz gobernadorearen alabea ta beste erritar danen aurrean arazo onetan be eredu izan bear dot. Esaiozu aurrerako soiñu-tresnagaitik bezela, orain be amar larrosa emongo dautsadazala ta gaiñeroko beste amar zuen eskuetatik, andere-lagunen eskuetatik, artuko dauazala.

Gugandik?, andere-lagunak itaundu. Ori egitea ez jaku bat be atsegin.

Ergel batzuk zarie!, larderitu ebazan. Nik larrosa bat emonte ba dautsat, zuek be emon zeinkioe. Aiztu jatzue, urrean, jaten emoten dauzuedana neu nazala, jantzi egiten zaituena ta prantzez egiten dozuen izkuntza berezia nigaitik ikasten dozuela?

Zuzen dado! Errozoia da! andere-lagun guztiak batera iñoen.

Minutu batzuk geroago andere-lagunak txarritokira sartu ziran larrosakaz.

Emoiozuez zuen larrosa orreik, neuk neureak emoten dautsadazan lez!, printzetzatxuak agindu.

Une beratan leiotxu batetik gobernadorearen burua agertu zan, eta talde a begirata, esan eutsen.

Zer esan gura dau moltso orrek, txarritoki alboan zer egiten dozue? Baña nire alabea ber-bera andere-lagunakaz! An ikusten ebanagaz nabarmendurik, bere betaurrekoak ezarri ebazan eta ariñeketan txarritokira jaitsi zan. Baña lenago oartu bear dot, ez printzetzatxua eta ez bere andere-lagunak be ez zirala konturatu enperadorea euren aurrean egoala. Orregaitik puzka ta oiuka enperadorea, emakume-taldea egoan lekura eldu zanean, onek txarrijagoleari larrosak emoten jardun eban.

Zer jazoten da emen? Abots ikaragarriaz enperadoreak esan eban, eta bere oiñetatik oski bat kendurik, taldearen aurka jaurti eban bere indar guztiaz. Zoritxarrez oskiaz andere-lagunetariko bat buruan jo eban. Guztia au jazo zan, txarri-jagolea larogeta seigarren larrosea bere eskuetan artzen egoan une beratan.

Kanpora danok emendik!, enperadoreak amorruek gorri-gorri eginda esan eban.

Laterri aretan, nezkatilla batek mutil eskonge bateri lora bat emotea, esan gura eban beragaz eskontzeko bearturik geratzen zala.

Orregaitik enperadoreak bere laterritik danak, bere jaurpidetik atserriera bialdu ebazan, betirako arroztuta.

Ze zoritxarrekoa naz!, printzetzatxuak esaten eban, mendi, baso ta ugerteetatik zear txarriazindariaz joan bitartean.

Baña guzurrezko txarrijagolea unetxu baten nezkatillagandik aldendu zan eta zugatz batzuen ostean estaldu. Orduan bere baltzitutako arpegia garbitu, bearzena ba eban bai, bere adabuz beteriko ta loi soiñeko areik kendu, bere naastautako ule kirruak orrastu eta... printzetzatxuagana barriro agertu zanean bere enperadore jantzi apain ta pitxiz betekoaz, printzetzatxuak mirari bat une aretan sortu zala uste izan eban. Printzipea ain erakargarria egoan, ain dotore, printzetzatxuak berak be burua makurturik agurtu eban.

Arbuiatzen zaitut, printzipeak esan eutsan! Arbuiatzen zaitut nire indar guztiakaz, ba da zuk lenengotan arbuiatu zenduan printzipe zuzen, zintzo, deduzko bat eta ezin izan zenduan ikusi zein baliotsuak ziran nire larrosatxua ta urretxindorra, nire doarik zintzo ta onenak. Isekatu ziñan nigaz ta baita eurakaz be Ostera alditsu ori, soiñutresna ezerezko bategaitik txarri-jagole bateri larrosak emon zeutsozan. Jaungoikoak egin zaiazala printzetza oba bat!

Au esanez eta bere jauregi bidea artu, aldendu zan. Bere urratsan atsetik, printzetzatxua ariñeketan alperrik joian. Printzipea Jauna bere gazteluan sartu zanean, ertsi, eban atea ta, ta berak, printzetzatxuak kanpotik abesten ziardun:

Aa, aa Agustin maitea,

Guztia da galduta, galduta, galduta.

URRETXINDORRA

Jakin bear dozue, irakurle maiteak, Txinan enperadorea txinatarra dala, eta baita be beragaz eta bere inguruan bizi diran guztiak txinatarrak dirala.

Orain edestuko dautzuedan kondaira, orain millaka urte jazo zan, baña orregaitik gaur egun ez dau garrantsirik galdu. Aiztu baña lenago ta aiztu ez eiten, ementxe idatzita itxi gura dot, etorkizuneko gizartei idatzi onen bitartez adierazoz.

Txinatar enperadorearen jauregia, aldi aretan ludian izan ziran jauregirik eder eta galantena zan. Toska bigun ta dizdiratsua, ain etenkor eta gardena zan. Bere ganetik ibiltea oiñaze bat, apurtzeko bildurragaitik. Lorategi edo baratza toki zoragarri, lilluragarri bat, zekula izan diran lora politenakaz, euren artean, zidarrezko txilintxu batzuk dindilizka eukazan. Aize-ozkirria izaten zanean txilintsu oneik zorigarritzko soñuaren doiñuz inguru a alai ta baketsuago iruditzen eben. Baratza lur-sailla itzela, bertako baratz-zaintzailleak be ez ekien ziurtasun osoz non eban azkena, muga, ain andia zan. Ibilli ta ibilli, zugatz luze, lodi ta ozin sakon batzuk artetik, baso kerizpetsu batera eltzen zan. Basoak bere muga, itxaso urdin eta ur gardendun bat izan eban. Itxasoan, basoaren ondotik, joaten ziran itxazontzi txikiak, zugatzetako adarretatik dindilizka egozan txilintxuakaitik laztanduak izanik.

Urretxindor batek, abeslaria bera, bere egoitza zugatzen artean izan eban. Bere ots saratatsua, bertaraño joaten ziran entzuleentzat abesti lilluragarria. Eresi bat esango neuke nik. Illuntzeetan arrantzaleak euren sareak batzen joaten ziranean luzaro egoten ziran txori txiki onen txio-txio ezititsuak entzuten, abo zabalik zorion baketsu bateaz beteturik.

Zeruetako Jaun eta Jaungoikoa! Ze abesti bigun, gozo ezititsua! Iñoen. Baña, ariñegi, euren lanean guztiz arduratuta, urretxindorraaz aiztuten ziran.

Baña urrengo egunean urretxindorra abesten entzuten ebenean, aspere bardin-bardiñak izaten ziran, ordurarte iñoiz abesti gozo areik entzunak izan ez ba ziran bezela.

TXINATAR ENPERADOREAREN ETXEA, BENETAN ZAN IZUGARRIZKOA, LILLURAGARRIA. BAÑA GUZ-
 TIAK GEIEN TXUNDITZEN EBENA, URXU EGOAN BASO BATEN BIZI ZAN URRETXINDOR BATEN
 ABESTI EDER TA ZORAGARRIA ZAN.



LIBURU ONEK DIÑO, NIRE
 MENPEAN DIRAN LURRAL-
 DETAN LUDIKO TXORI ABES-
 LARIENA, ZEKULA IZAN
 DANIK URRETXINDOR DO-
 ÑU GOZO TA ESTITXUENA-
 GAZ ABESTZEN DAUANA...

14
 ZEKULA BE EZ DA IZAN
 NIRE BEGIEN AURREAN
 IZAKI ORI, JAUNA...



LAN GOGORRA TA NEKETSUA IZAN ZAN
 URRETXINDORRA AURKITZEA, TOPATZEA, ZERE-
 GIN ONETAN LUZARO IBILIRIK, AZKENEAN
 SUKALDEKO NEZKAME BATEAZ TOPO EGIN
 EBEN, ETA ONERI ESKUPEKO
 ON BAT OPA ONDOREN,
 TXORIAK
 ABIA EUKAN LEKURANO
 EROAN EBEZAN..



URRETXINDORTXU
 MAITEA, GURE ENPE-
 RADOREAK ZURE
 TXIO TXIO BIGUN
 ETA GOZOA EN
 TZUN GURA DAU

ATSEGIN IZANGO
 JAT BERE AURREAN
 ABESTUTEA.

Laterri aretako Uriburura, ludiko toki guztietatik notintsa aundia etorten zan. Uria ikustatzen eben, enperadorearen jauregi izugarria, bere baratz loratsu ta zugatzdunak, baña basoaren beste muga-aldera eltzen ba ziran eta orduan urretxindorren txio-txio eztitsua entzuten ba eben, gorazpen guztien azkena an izatan zan. Ez eben aurkitzen berbarik, itzik, txoritxuaren abesti, txio-txio gozo ta lilluragarria gorezteko. Zekula izan ete da, esaten eben, ludi onetan eta entzun eresi ain bigun, gozorik? Zoratuta, amesetan ba ziran bezela, ikuspegi ain eder eta txori-abesti zoragarri aregaz, aurkitzen ziran.

Ez dago ezer ludi onen ganean olakorik! Au da zekula ikusi dodanik toki polit eta atsegingarritsuena, au da nire bizitzan entzun dodan soiñu amesgarri ta kutunena! Gure Jaun eta Jaungoikoak lenengo gizon-emakumea ezarri ebazan atzezin-lekua onek izan bear dau, zalantza barik!

Eta euren laterrietara, euren errietara, itzultzen ziranean, euren erritarrei ikusi ta entzun eben guztia azaltzen eutseen. Jakintsu batzuk, jakitun batzuk, laterri aretako edertasunak goralduz, liburu orritsuak idazten ebezan, baña idazletariko bat be ez zan aitzu gure urretxindorragaz. Berantzat izaten ziran goralpen berezienak Olerkariak eurak be, euren olerki bikañenak doatzen eutsoezan.

Oneitariko liburu asko aldi aretan idatzi ziran eta onetariko batzuk enperadorearen eskuetara eldu. Liburu orreik beragandik on-artuak izan ziran eta bere liburutegian ezarri ebezan bereziki. Bere atsedean-aldietan irakurten ebazan, eta ikusirik bere laterria, aberria, atserrietan ain begi-onez ikusia zala, begiratu zala, ta ainbeste goralpen idazle ospetsu ta olerkari ospetsuagoak bere erriari eskeiñi, guztiz atsegin-tua zan. Baña egun baten usterikgabe liburutxu baten irakurri eban, "Baña guztitatik onena, atsegingarriena, urretxindorra da", ta enperadorea arituta geratu zan.

Zer da irakurten dodana? Zer diño emen? Liburu onek diño nire laterrian, nire menpean diran lurraldeetan, txoritxu bat, urretxindor bat, ludi onetan zekula entzun danik txori abeslaririk txio-txio eztitsu ta lilluragarriena dauana dagola. Zelan ez naz jakitun txori onen izateaz?

Bereala bere morroi-nagusiari deitu eutsan. Gizon au aundiki bat zan, bera baño beste beragoko beste anbat ausartzen ba zan berari berba, itz, egiten, bere erantzuna beti izaten zan, Pluf! Pluf! Beintzat orain arte, ez dogu jakin zer esan gura eban Pluf! Pluf! orregaz.

Enperadoreak bere morroi-nagusiari esan eutsan.

Liburu onetan nire baratzean txori bat bizi dala diño, bere izena urretxindorra ei da, urretxindorra deritxona. Nire baratzen bertan bizi ei da, ta gaur arte beratzaz ez dot ezer jakin. Lotsagarria da liburu batzuetatik jakin bear izatea neure baratz ber-beratan, txori zorigarri bat bizi dala! Nire laterriko izakirik baliotsuena bera dala baieztatzen dabe. Zergaitik txori orren izaterik, ez daustazu jakinazo?

Gaur arte Jauna, txori orren barririk ez dot jakin, apal-apal morroiak erantzun eutsan. Nik berorregana etorten diran gizon ospetsuak uts utsean ezagutzen dodaz.

Niretzat eta nire aurrean txori orrek abestu daiala da nire guraria, naia.

Oraintxe joango naz Jauna bere billa, eta aurkituko dot, morroi-nagusiak esan eban.

Baña non? Naizta gogorik onena izan utsikgabe bere Erregea serbitzea, eziña izan jakon. Urretxindorra ez eban aurkitu. An ebillen gora ta bera, leku batera ta bestera arin eta arduratsu. Baratzaren saillarik aundiena be arakatu eban. Ikusten ebazan andra-gizon guztiei itauntzen eutsen urretxindor deritxon txoritxuagaitik, azkenean gogaituta ta apalik enperadoreagana itzuli bear izan eban bere guraria, naia, bete barik.

Jauna zurru-murruak izan bear dabe, esan eutsan. Liburuetan irakurten dan guztia ez da siñistu bear oso osorik, sarritan sorgiñak asmauko gauza amesetagarrik izaten dira.

Liburu au, Japoiko Enperadoreak, adiskide benetakoa, ber-berak bialdutako opari bat da, bertan ipinten dauanik ezin leiteke izan guzorra. Txori ori gura, nai, dot! Gaurtik aurrera nire babespean biziko da. Nire jauregian txori orrek, arrera berezi bat izango dau. Gaur gaberako ez ba da nire aurrean, afal-ostean nire errege-gizonak zapalduak izango dira ta bakoitzak sabelean berrogeta amar sartada artuko dauz.

Ederto Jauna, morroi-nagusiak bere burua makurturik esan eban. Beste morroi batzukaz lagun urten eban, danan artean txoria billatzeko asmuz.

Barrio goitik bera jauregia, baratza ta inguruetako toki guztiak arakatu ebezan, eta oraingoan bai bera eta baita be bere lagunak len baño arduratsuago, ba da enperadoreak agindutako zigorra ez jaken bat be atsegintsu.

Azkenean inguru aretako notin, pertzona, guztiei itaundu ondoren, sute, sukalde, nezkatilla tolesgabe bateaz topo eginda itaun bardiña egin eutsoen oneri be, zorionez oraingoan, morroientzat pozgarria izan zan erantzuna.

Urretxindorra? Bai ezagutzen dot! Nire amari eguneroko ondakin guztiak eroateko urteten itxiten dauste, nire ama ogean gaixorik dago. Bera, urretxindorra, baso onen beste mugan, ondartza alboan bizi da, bertatik amagaz egon ondoren, jauregira itzulten nazanean, beraz guztiz nekatuta, zugatzpe baten jezarririk urretxindor orren abesti, txio-txio, kutun eta ezitsuak nire biotzean sarturik, negar-tanta mamintsuak izuriazoten daustaz. Txoritxu orren abesti lilluragarriak nire ama kutunaren mozu laztanak bezelako biotz-ikara nire biotzean sortzen dabe.

Sukaldaritxua, sutean, sukaldean, toki berezi baten ezarriko zaitut eta betirako izango da, orrez ganera enperadorea jaten ikusteko baimena izango dozu, oraintxe urretxindor orrek, enperadorearen aurrean abestu bear dau, morroiak esan eban.

Nezkatillatuak ontzat artu eban morroiak esan eutsona ta bere aurretik zala ta beste morroiak lagun, baso beste mugarantz abiatu, itxasalderantz. Bide-zior batetik joiazala, bei baten murrezea entzun eban.

Emen da! Geurea da!, mutiko batek guztik pozik esan eban. Ez neban iñoiz siñestuko edo asmauko, izaki ain txiki batek olako abots ain ikaragarria eukitea! Beste leku anbatan entzun dodala, uste dot.

Urretxindorra ez da, ori bei bat baño ez da, nezkatillatuak esan eban.



EGUN BATEN, ENPERADOREAK OPARI LEZ GUZURREZKO-URRETXIN-DOR BAT ARTU EBAN, BARDIN-BARDIÑA ITXURAZ, BEINTZAT, EGIZ-KOENA, OKEL ETA AZURDUNENA. BAÑA AREK, GUZURREZKOAK, URREZKO PITXIAKAZ APAINDURIK, ABESTI BI UTS UTSIK EKIAZAN ETA EURAK ABESTEN EBAZAN. DANAK ZIRAN GUZURREZKO-TXORIARI ARRETAZ BEGIRATZEN ETA BITARTEAN EGIAZKO URRETXINDORRAK AZKATASUNA LORTU.



Euren bidean jarraiturik, ozin baten albotik igarotean, urgerixoak kro, kro, egin eben.

Zoragarria! Zoragarria! Txinatar abade batek iñoan, Eleiz bateko txilintxuak bezelako soiñua da.

Ondiño ez da urretxindorra, oziñeko ugerixo batzuk dira, nezkatillatxuak barriro.

Baña andik asko urrundu barik urretxindorraren abesti gozo-gozoa entzun eben.

Or dago! Ori bai da bera! guztiz pozik esan eban. Zugatz ganean, bere adar baten ganean egoan txoritxu nabar bat taldeari erakutsi.

Ori urretxindorra izan leiteke? Ez neban iñoiz asmauko be olako itxura arrunta izango eballa! Morroi-nagusiak esan eban.

Urretxindor maitea! nezkatillatxuak oiuka txoritxuari esan eutsan. Gure enperadoreak zure abestiak entzun gura dauz. Gaur gabeen bere aurrean abestu daizula gura dau.

Poz pozik abestuko dot, urretxindorrek erantzun. Eta bere abestiak itzaltasan audienagaz edoietaraño igon eben.

Bereizka kanpai batzuk biraka dirudi! Iñoiz, zekula, ez dot entzun ezer ain zoragarriagorik, morroi-nagusiak burua makurturik eta sutsu esan eban. Gaur gabeen jauregian izango dan jaiaren enperadorearen maikide izatea nireztat atsegingarria da. Jatorduan eta ondorengo jolasketatan enperadorearen aurrean zure txio-txio lilluragarri ori agertu al izango dozu.

Urretxindorra arrituta geratu zan, ba da uste eban enperadorea talde beratan egoala, baña gai onen buruz ez eban berba, itz, geiago egin.

Pozik joango naz, an izango naz, naizta nire abestiak, emen zugatz artean, basoan askoz be kutun eta zoragarriagoak izan.

Bitartean jauregian apinketatan asi ziran. Beak, lurra, orma ta zapaiak millaka tximist-ontziaren argitasuna dizdiratuaz, iñozkorik garbi ta alaiaren dirudien. Areto zoragarri a, zidarrezko txilintxu lorak ederto apaintzen eben. Idegita itxi ebezan leioetatik sartzen zan aize-ozkirritxuak eraginda txilintxuak soiñu ereskidetsu ta kutunaz entzuleen belarriak gozaten ebezan. Jauregiko areto nagusi audian eta bere erdian urrezko jaun-aulki eder bikaiña ta bere alboan txapel-kakoa, urrezkoa au be, urretxindorra bere ganean ezarritzeko. Guztia zan aundikitasuna, obeto esanda, aundikeria, ango oparotasuna amai bakoa zan, an ez zan ezeren utsik.

Enperadorearen inguruan jarraigo osoa batu zan eta urretxindorra eldu zanean eta bere txio-txio eresitsuakaz bertako entzule guztiak abo zabalik, siñistu eziñik entzuten ebena egia ba zan ala ametsa, geratu ziran. Alako soiñu gozo ta kutunagorik ez ebela iñoiz entzun autortzen eben. Izan be, ain zoragarri ta alai zan urretxindor aren abestia.

Enperadorearen begietatik negar-tantal batzuk izuriturik, bere jake ganera jauzi ziran. Urretxindorrek bere abesti ain gozoa amaitu ebanean, biotz-samurturik esan eutsan:

Zure urrezko samea inguratuta eroan daizun, "Urrezko Oiñetakotxuen Gargantila Nagusia" izendatuko zaitut.

Urretxindorra zelan eskertu eziñik egoan eta beragaz izan eban bereiztea asagotuz, esan eutsan.

Nireztat zure saririk onena, zure begietatik izuri dozuzan negar-tantalak izan dira. Eta barriro bere txio-txio gozoaz abesten asi zan.

Zekula ez dogu entzun soñu ain zoragarri ta politagorik!, enperadorearen taldekoak, ba andrazkoak eta baita be gizonezkoak oiuka esan eban.

Andrazko batzuri aoa be ur-parapoakaz betetzen jaken, uste izanik, olan urretxindorra obeto irudituko ebela, beralako txio-txioak iraitziak berba, itz, eginkeran.

Enperadorearen berengo maillako morroiak, zaldi-zain, lekaioak, eurak be txoria-ren abesti gozoa pozez adierazo eban. Au, enperadorearentzat benetan pozgarria zan. Ba da berantzat olako morroiak, ezigabeak, nekez poztuten zirala uste eban.

Urretxindorra jauregi aretan guztiz ondo artua izan zan eta enperadoreak andik aurrera bertan bizitzea erabagi eban. Txoritoki edo kaiola eder bat egin eban eta amabi morroi bere serbitzurako enperadoreak izendatu ebazan. Oneen eguneroko bearra, txorien bidalietan, ba da urretxindorrek bidaldi bi egunero egiteko baimena izan eban, bata goizean eta beste illuntzean, esan dodan lez, morroi oneik txorian bidaldietan ankara lotura eroaten ebazan amabi zingilla margodunak eutsitea, izaten zan. Baña errez igarri lei, bizitza a urretxindorarentzat ez zala bat be atsegintsua.

Uriburuko biztanle guztiak jauregian bizi zan txoriatzaz berba, itz, egiten eban. Alkar-izketa guztien gai bear bearrezko, urretxindorra zan. Andra edo gizonezko bi kalean zear aurkitzen ziranean, topo egiten ebenean, oituzazko zan olako alkar-izketa entzutea:

Batak esaten eban, Urre... ta besteak erantzun... txindor.

Eta zotinka notin biak alkarregandik aldentzen ziran, alkar ulertu zirala agurtuz.

Egun baten, enperadorearen eskuetara loturatxu bat eldu zan, berari txartel bat onelan idatzita ekarrala: "Urretxindorra".

Ara! enperadoreak irribarreka esan eban. Ba daukagu emen beste liburu bat urretxindorraz idatzita, gure urretxindorraz.

Baña ez zan izan olan, ba da kutxatxu edo loturatxua idegikera, bere barnean beste urretxindor bat, guzurrezko urretxindorra, eskuz egiñeko txoria. Gure txoriaren irudi ber-bera. Ain bardiñak ziran, urretxindorra ta jostaillu-txoria errez errez naspildu eikeezan, txori-jostaillua arri-bizi dizdiratsukaz guztiz untzez josita egon ez ba zan.

Jostaillu-txoriari indarra emon eutsoenean, danak konturatu ziran abesti bi bardin-bardiñak uts utsean abesten ebazala. Abesti oneik entzutean, urretxindorra ber-bera abesten egoten zan bezela, entzuleak lilluratuta aurkitzen ziran.

Abestuz ganera txori-jostailluak bere buztena batera ta bestera mugitzen eban bizkortasunez. Buztanean ezarrita eukazan esmeralda, txingarri ta pitxi dirdiratsuk eraginda, argitasun berezi bat izaten zan. Jostaillu txoriak bere saman inguratuta zirzil bat eroan, idazti baten ipinten ebala: "Japoiko enperadorearen urretxindorra, Txinako enperadorearen ondoan, txoritxu gizajo bat da".

Danak oiuka iñoen: Ze txori polita! Bera bezelakorik egundo ez dogu ikusi.

BESTE EGUN BATEN, GUZURREZKO-URRE-
TXINDORRA ERAGITEN EBAN TRESNATARIKO
BAT LARDASKATURIK, ERREGE-ETXEAN
DANAK KIKULDUTA EGOZAN. URTE
BATZUK GEROAGO, ENPERADOREA GAIXO-
TU TA IZUGARRIZKO AMESETAK IZAN EBA-
ZAN. ONETAN, GOIZ BATEN...



LEIOPEAN URRETXINDOR ZORAGARRI A AGER-
TURIK, BERE TXIO TXIO ESTITSUAKAZ GAIXOA
OSATU, SENDATU, EBAN. ONEK, ENPERADO-
REAK, BIOZT-BERATUTA, SARITU GURA ISAN
EBAN, BAÑA TXORITXUAK...

BASOEN ITSUTASUNA, ABAROTASUNA,
BEAR DOT, AIZE-OZKIRRI TA EGUZKI-ZURIA,
BAÑA EZ ZAITUT BAZERTU GURA. GABERO
ETORKO NATSU ABESTEN ETA NIRE ERESIETAN
EZ-EUKIEN, TXIROEN, ZORIGAITZ GUZTIKAZ
EDESTUKO DAUTSUDAZ ZUZENDU DAIZU-
ZAN.



Txoria jauregira eroan eben morroiak andigarria au izendatu eben, "Urretxindor erregetxera lenengo sar-eraslea".

Orain biak batera abestu bearko dabe, ta ori zero-abesti bikondekoa izango da, enperadoreak esan eban.

Olan izan zan, txori abeslari bikote onek abestu eban, baña ez zan izan soñu zero-abestirik, ez da urrik emon be. Saio-azterketa negargarria izan zan, txori bakoitzak bere aldetik abestuten jardun eban, besteen soñuari jaramonik egin barik. Jostaillu-txoriak berak ekiazan bi edo iru abestiaz ziarduan, beste txoriak, benetako urretxindorrak bitartean, bere estarriaz txio txio arrigarriak egiten ebazan, abesti ereskidetsu ta eres-mota ezbardiñak eta barriak sortuaz abesten eban bitartean.

Jostaillu-txoriak ez dau izan errurik abesti-saioa guztiz txarra izan ba da, jauregiko soñulari-nagusi edo soñulari-taldean zuzendariak, esan eban. Soñu arauari jarraituz ederto abestuten dau.

Orduan guzurrezko-txoriak berak bakarrik abestu egiala erabagi eben. Egiazko txoriak artero izan eban añaiko aintzagarrria guzurrezko-txoritxuak bere abesaldian izan eban, eta bestea baño mozkintsuago zan apaingarria zalako.

Ogeita-amairu bider abestu bear izan eban abesti ber-bera, alan da guztiz be ez eban bere burutxuan nekerik agertzen. Entzuleek geiagotan gura izan eben entzutea, baña enperadoreak urretxindor benetakoaren txanda zala esan eta danak entzun bear eutsuela.

Baña une aretan konturatu ziran urretxindorrak iges egin ebala. Guzurrezko txoria aintzalten egon ziran bitartean, egiazko urretxindorrak bere azkatasun amesgarria lorturik, kaiolatik iges egin. Izan be, azkatasuna Jaungoikoaren doi berezienetarikoa bat da.

Zer jazo da emen? Isekatu da nigaz?, enperadoreak su-gorrotoz esan eban. Bere morroi-talde guztia be asarre, amorruez, igesketa aregaitik eta urretxindorrak enperadoreaganko izan eban eskergaitz aregaitik.

Ez dau beorrek atsekatu bearrik, gugaz geratzen da txorietatik abeslari ta bikaiñena, nezkame ta morroi guztiak esan eben.

Azkenean enperadoreak be ontzat artu eban gertaera au, ba ez eban beste urten-biderik, eta barriro guzur-txoriari indarra emon eutsoen. Naizta ogeita amairugarrenez abestu abesti ber-bera, entzuleak ez ziran izan gauza ikasteko.

Jauregiko soñu-taldeko nagusiak, guzurrezko-txoriaren alde amaibako gorezpenak egin ebazan, gogotsu finkatzen eban egiazko txoria baño ohea zala, edozein errege-jauregitarako duiña, ta ez bakarrik bere itxura edo tankeragaitik, baita be, bere eretxiz, benetako txoriaz iñoiz ez zan jakiten zer abestuko eban, ostera guzurrezkoagaz arazo au jazoten ez zalako. Berak ekiazan iru edo lau abesti entzuten ziran beti.

Orrez ganera, jarraitu eban, batek ba daki zergaitik eta zelan abesten dauan. Jakiteko bere barnea idegi ta ikusiz naikoa da. Ostera besteagaz batek beti egon bear dau gogoratzen, asmatzen, zelan txoritxu batek alako bikaintasuneaz soñu ain eresigarria abestu leikean.

Soiñulari-nagusia ren itzaldia, talde osoak txalotuz finkatu eban. Enperadorea bera be biotz-minberatuta ta ain esaldi zoragarria saritu gurean, urrengo Igandean txoria erritarrei erakusteko baimena emon eutsan, bide batez txoriaren soiñu ta abesti zoragarriak agertuz.

Esan eta egin, urrengo Igandean, erri osoak ikusi ta entzun al izan eban txoritxua, eta danak zorobiotuta, edariaz mozkortuak izan ba ziran bezela, egozan. Jakiña da, edari berezia Txinan tea da.

Errege-basoko arrantzale zaarrak, burua mugitzen, iñoela:

Bai, egia da, bere txio-txio soiñu berezigarrikoa da ta egizko txoriaren abestiaren antza dau, baiña... zeozeren utsa, ezbardintasuna nabaritzen dot.

Naizta olako eretxiak ugari izan, egiazko urretxindorra, urrezko abotsdun txindorra, erbesteraua izan zan.

Bitartean guzurrezko-txoria jauregi aretan guztiz ospetsua zan. Enperadorearen oge ondoan zedazko muntx bat eukan eta bere alboan, eskeiñi, opa, eutsoesan urrezko pitxi lilluragarriak. Ezkerretara lenengo maillan, lauki bat onela idatzita “Errege Gelako Lenengo Abeslari”. Enperadorearentzat ezkerra zan lekurik bereziarena, alde orretan biotza dagolako. Txinan enperadoreek eurak be biotza ezkerreko aldean daukie.

Jauregiko soiñulari-nagusia, ordurarte gizon tolesgabe bat izan zana, saiatu zan urretxindorraz ogetabost aleko liburu bat idazten eta arrigarria, goiztik gabea ospetsua biurtu zan. Antziñako ta Txino-izkuntza garbienean idatzi eban, omen geiago izan egian. Naizta erritar guztiak liburu ori irakurri ebela esan, iñok ez eban euretan idatzita egoan ezer ulertu, baña iñok ez eban esan olakorik, bestela ergel batzuk lez begiratuak izango ziran eta baita be zartada batzuk sakelean emonez zigortuak.

Olan joan zan urte oso bat. Enperadoreak eta gaiñeroko nezkame-morrogi guztiak txoriaren abesti, txio-txio, txiruli, txinkadak ekiezan. Kalean be nezka-mutillen artean entzuten ziran “ziñiz, kluiñiss. kluiñ...”. Enperadoreak berak be, iñor aurrean ez ebanean edo arriskugabe aurkitzen anean, bardin bardin egiten eban.

Gaba baten, guzurrezko-urretxindorra entzuten iñoiz baño zorobiaturik egon ziran, txoriaren burdi-gorputzen txirrinkada bat entzunik, bere barnetik bultzagarri batek urten eban. Une beratan, bereala, gurpiltxu guztiak gelditu ta beraz, jakiña, gure txoritxuaren abestiak amaitu.

Enperadorea bere errege-aulki apatzetik zutundurik arrituta agindu eban osagille ospetsuena ta trebeena txoritxua osatzen etorri eitela. Baita be eskeiñiz saripen eder bat bere guraria, naia, txoria osatzea lortzen ba eban. Oneik osagilleak, guztiz errez ulertu leike lez, ezin izan eben egin ezer. Orduan ordutegi-konpotzaille bateri deitu eutsoen, eta onek bai, naizta ez errez, luzaro lanean jardun ondoren txoritxua abesten ipintea lortu eban, baña enperadoreari adierazo eutsan, aurrerantzean txoria aldizka ta aldi-luzegabe abesten erabilli egiala, ba da guztiz aje egoala ta barrero lardazkatzen ba zan, berak ezingo ebala konpondu.

Enperadorearentzat, biotz-dardara itzala izan zan eta baita be laterri guztientzat. Urtean bein edo birritan gein-bat txoriaren abesti-aldia izaten zan, ba da bildur ziran txori barik geratzeko. Baña soiñulari-nagusia arrokeriz, eta bere erritarren aurrean aundiki agertu gurean, iztaldi luze-luze bat egin, ba da uste eban erritarrak bere ogetabost ale idatziak aitzuta ebezela. Eta bere itzaldian, itz gaitz, aundiki, naspildue-nak erabillirik, txoria ondo egoala baiztatu eban. Eta danak poz-pozik geratu.

Andik bost bat urtera, egun baten ustegabe laterri osoa naigabepean jauzi zan. Enperadorea gaixorik guztiz txarto aurkitzen zan, ogean. Osagilleak iñoanetik il zorian egoan.

Onelako unetan jaurleritzatan jazoten dan bezela, laterriko jauntxu ta agintariak baturik beste enperadore bat aukeratu eben, gobernadorea ilgo zan egunerako guztia gertu eben. Erri osoa be enperadorearen etxe aurrean, jauregi aurrean batu zan eta morroi-nagusia ikusi orduko berari enperadorearen osasuntzaz itaunka ziarduen.

Pluf!..., morroiak uts utsik, beragan oitura zan bezela, esan eban.

Enperadore gizajoa, zurbil eta otz bere errege-gelan etzanda egoan. Bere alboan, lumarki eder baten ganean guzurrezko-urretxindorra.

Laterriko nezkame ta morroi guztiak euren itzalpenak eskeintzen eutsoezan enperadore barriri, uste izanik, lenagoko enperadorea illa ez ba zan be, bere azken ordua ur egoala. Zaldi-zaiñak atsegintsu ebiltzan barriketatan, eta nezkameak suten, sukaldean, txantxetan tea artzen. Jauregiko barne-bide guztietan eta luzeera guztian oil-lodi, zabalak edatu ebazan, oinkada otsak ematzeko. Zio onegaitik illobi-ixiltasuna nabaritzen zan.

Baña enperadorea ondiño ez zan il, bizirik zan. Bere sedaz eta oil-guri lodiakaz apaindutako oge berezi, eder, aretan etzunda, illargiaren izpien laztan otsak artuaz, egunak eta gabak emoten ebazan. Arnasea be oztaz-oztaz artzen eta bere bular ganea arrigarritzko astuntasun bat sentitzen eban.

Olako baten begiak idegirik, bere ganean jezarrita Eriotza ber-bera aurkitzen zala ikusi eban, bere buruan, Eriotzaren buruan, enperadorearen urrezko koroe ber-bera eroala, esku baten espata zorrotz bat eta bestean errege-makilla bikaiña. Ogearen luzetara oe-sabai errezelen bitartetatik, arpegi ugari, batzuk eder-politak eta beste batzuk iguingarriak, erdi agerturik ikusten ebazan.

Egikisun onak eta txarrak ziran. Enperadoreak bere bizitzan egin ebazan egikera on eta txarrak, gaiztakeriak.

Gogoratzen zara nigaz? Eta nigaz? Eta aldi aretan egin zendunagaz? Eta beste aldi aretan?, bata besteen atsean itautzen eben.

Ain-beste berba, itz, egiten eben, ainbeste gauza esan eta gogoratu, enperadore gaixoa atsekabez beterik izerdi dariola egoan.

Ez naz gogoratzen! Ez naz gogoratzen ezergaz! Eznekian ezer! Itxi eidakue! oiuka iñoan. Soiñua entzun daitela! Non dagoz nire txinatar atabal-nagusiak! Entzun daitela soiñua, ba da izaki oneik ez dodaz ikusi gura!

Baña soiñua ez zan entzuten, dana egoan ixilpean eta enperadoreak geroago ta

argiago entzuten ebazan berak egindako gertakisun guztiak, onak eta txarrak, ots abots negargarria, une larrian enperadorea aurkitzen zan. Itz bakoitza Eriotzarengandik baieztatua izanik bere etsipena auditu, geiagoturik.

Soiñua! Soiñua!, oiuka enperadoreak eskatzen eban. Zu nire urretxindor maitea, nigandik ondagarri ta doiki ugariaz gainduta izan zarana, abestu eizu niretzat!

Baña urretxindorra ixil-ixilik, indar-giltsa emoteko ez ebalako lagunik. Danak aitzu ziran beragaz, len ainbeste goraltzen ebenak, orain ez ziran agertzen. Gaixoagana, enperadoreagana, Eriotzea geroago ta geiago makurturik, bere begi-zulo utsakaz adi-adi begiratuz. Jauregi osoa ixiltasun izugarrian aurkitzen zan. Ezelako bizitzaren irudirik ezin zeinkean sentidu.

Bereala, ustegabe, leio alboan, abesti gozo ta lilluragarri bat entzunik, urretxindorra, egiazko txoria, enperadorea gaixorik guztiz txarto, il zorian, egoala, atsegin apur bat beragan sortu gurean, basoko zugazti, lora ta errekatxua kutun eta maiteak itxita etorren. Abestuten ziardun bitartean, enperadorearen ogea inguratzen eben arpegi guztiak, geldiro-geldiro aienatu arte zurbildu ta ezereztuten ziran, eta Eriotzea berbera be, bere abesti eresitzuak lilluratuta, gaixoagandik bere arreta baztertu eban.

Jarraitu eizu, urretxindorra, jarraitu...

Nik jarraitu dagidan gura ba dozu, emoidazu zure urrezko koroea, emoidazu zure espatea ta zure erre-makilla urrezko ederra ta zuretzat uts-utsean nire abestirik gozo, kutun eta lilluragarrienak abestuko dodaz.

Eriotzeak txoritxuen txio-txio bakoitzagaitik, espatea, koroe ta errege-makilla emon eutsazan.

Urretxindorrek bere txorotxiorik gozoenagaz, illobi urruneko bakartasun ixilla abestu eban, bere larrosa zurien usaiñ eta erri-miña abestu, baita be, saretz orlegieena, bizidunaren negar-tantalkaz azitzen dan bedar eze-guriñena, illargia illobe otsak laztantzen... Eta Eriotzeari be, abesti bigun eta kutun orreik entzutean, barantz-miña sorturik eta enperadoreaz aiztuta, leiotik urten laiño zuri ta ots baten izpia bezela.

Eskerrak urretxindor maitea! Milla esker!, oiuka enperadoreak iñoan, bizia zan odola bere zanetatik barriro sentitzen ebañ. Nire laterritik nik erbesteratu zindudazan, eta zuk ostera, Eriotzearen iratxo ikaragarria ta bere ondoriok nigandik aldunduz ordaintzen daustazu! Zelan, txoritxu maitea, ordaindu al izango dautzut mezede au?

Nik neure saria artu dot errege Jauna, urretxindorrek iñotsan, zuretzat lenegoz abestu nebanean zure begietan negar-tantal batzuk ikusi nebazan eta antzerlari, ertillari, batentzat ondiño olako gertaera bat baño sari obeagorik ez da. Urrezko pitxi garesti, dizdiratsu bat balitza bezela nire biotzean, barne-barnean, oroipengarri ori gordeta dot. Orain, enperadorea, egizu lo ta atsedean apur bat artu nik zuretzat abesten dodan bitartean.

Olan egin eban eta bere, txoriaren, abestien urrumekatzekaz enperadorea lo gozoro, amesgarrian luzaro iraun eban. Eguzkiak bere izpi gozo ta alaikaz egun barri bateri argitasunara eragin eutsanean, bere gorputza, enperadorearen gorputza, alai, pozez, indartsu osasun osoaz aurkitu zan.

Enperadore gaixoaren alboan, alpaditxutik inor ez egoan, bere menpeko ta adiskideak ikustalditxu egitera be ez ziran joaten, ba da iltzek eben, beintzat epe laburrean. Baña urretxindorrek abesti ta abesti jarraitzen eban, aurrera nekatu barik.

Gaurtik aurrera, urretxindor maitea, nigaz egongo zara beti ta nire eskuekaz neure-neukekaz, zugaz aitzu izan ninduan guzurrezko-txori ori apurtu, zatituko, dot, enperadoreak biotz-mingarri, su-asarre esan eban.

Ez dozu olakorik egin bear Jauna, urretxindorrek esan eutson. Beste txoriak, guzurrezko-txoriak, berak ekian guzti-guztia abestu eban. Zaindu, jagon, eizu orain arte bezala, ba da, betirako zugaz ezingo naz egon. Ezingo nozu euki beti zugaz. Zure toska ta iruilleta garesti onein artean abia, nire zendiaren egoitza ezin dot egin eta ezarri. Basoetako orritza, orbela, abaroa, aize-ozkirria ta eguzkia bear dot. Baña ez zaitut itxiko, gabero etorriko naz eta zuretzat uts utsik abestuko dot, zure leioaren alboan ezarrita nire abesti lilluragarienak eta kutunenak zuretzat izango dira. Zure biotza poztu daiten, zure nezkame, morroi ta menpeko guztien pozak eta goibeltasunak, gogoratu daizuzan, abestuko dot. Zuk ezagutzen ez dozun ontasan eta gaiztakeria abestuko dot. Baserritar eta arrantzale txiroen etxe ganetatik, apal eta aundiki, altsuen etxe, egoitz, ganetatik, euren zorion-aldi, atsegin eta atsekabe, nekeak, ezagutzen doguz, euren zorion-aldi urriak eta zoritxar eta nekealdi luzeak ezagutzen doguz. Nik oso-osorik nire abestian ekarri dautzudaz. Zure biotz-gizonarentzat abestuko dot, ba da, enperadore Jauna ez dot nai, gura, zure koroerik, ez dot gura erregetzarik, nire abestiak zure biotza aundi ta emonkorragoa izan daiten gura dau. Baña lenago gauza batzaz berbea, itza, emon bear daustazu.

Zeuk gura, nai, dozun guztia!, enperadoreak inotson.

Ez da gauza aundirik. Uts utsik auxe gura, nai, dot. Ez eiozu esan inori txoritxu batek barri guztiak edestuten dautzuzala, ba da olan azkoz be obeto izango da.

Enperadoreak zin egin eban, eta orduan txoritxua egazka, enperadorea agurtu ondoren azkatasunaren bideak artu ebazan.

Gero, bizitzara itzulia izan zan ilurrena, jagi zan ogetik, bere errege-soiñeko jantziak jantzirik, errege-gelara bere ministru ta errege-gizonak sartu ziranean, ziurki enperadorearen gorpua aurkituko ebela, arritasunez ikusi eben zelan enperadoreak danari "egun onak" opatuz agurtzen ebazala.

EDURTZETAKO ERREGIÑA

I

Izpillu ausia ta bere zatitxuak

Ipuin au, asieratik asitzea obeto izango da, uste dot nik, ba da olan izango da erarik onena, azkenera eltzen garanerako guztiaz jakin-jabetuak izatea.

Ipuin onen gaia, iratxo oker-oker bat, okerra ez gaiztoa esango neuke nik, izan zan eta beratzaz apur bat jardungo dogu.

Gutziz pozik eta alai egoan egun baten, izpillu berezidun bat lantzea bururatu jakon. Izpillu onen berezitasun biziarena, beratan dizdiratzen ziran gauza polit eta ederrak, ezereztuta geratzen ziran, ostera itsusiak eta baldarrak, itzelez aundituta, egiz ziran baño be txar eta itsusiagoak, ikusten ziran.

Lurralde orlegi, loratsu ta ikuspegi zoragarriak, zerba, azelga, egozi solo batzuen antza eben. Notin edo gorputzgabe, gitxienean itsusi-itsusiak, euren biorkadak eraginda eurak ezagutzea eziñekoa zan, baten-batek bere arpegian garaotxu bat ba eban, bertan mendizka bat ezarri eutsoela dirudi.

Iratxoentzat gauza oneik, txantxegarri, ludiko gauza jostagarrienak ziran, eta bere ikastetxea joaten ziranak, ba, jakin bear dozue, ikastetxe bat sortu ebala, izpillu miragarri bat zala iñoen. Eskerrak berari, izpilluari, edo bere bitartez gauzak, arazoak, ta baita be gizasemeak, pertzonak, eurak ber-bera ziran bezela ikusi leikezela. Beintzat eurak ori uste eben.

Asmakizun orregaz arrituta, ludi osotik zear erabilli ta agertu eben, ludi osoko lurralde ta notin guztiak beratan dizdiratuak izan arte. Baña bere auzardi edo ausartasuna ondiño be aundiago zan. Goiko zeruetaraño izpillua igon gura izan eban, bertako aingeruak eurak be isekatzeko.

Gertu ziran euren guraria betetzeko ta zerurantz euren bidalia asi eben baña arazo



BEIN BATEN, IRETZO GAIZTO BAT, GAIZTO GAIZTO BAT, IZAN ZAN. ALAI TA POZIK EGOAN EGUN BATEN, GAUZA ON ETA EDERRAK EZEZTUTZEN EBAN ESPILLU BAT EGIN. BERE ADISKIDE BATZUEN LAGUNTZAZ...



GOIZ-AIZEETARA IGOTEA ERABAGI EBAN, AINGE-
RUAK ISEKATZEKO. BANÁ IZPILLUA MILLOKA ZATITAN
APURTURIK JAUZI ZIRAN...

LURRERA, KALTE IKARAGARRIAK EGINIK,
IRETXO GAIZTOA BARREKA JASAN EZI-
NIK ZAN. ZATITXU BATZUK, ZATI TXIKI
TXIKITXU BATZUK, AIZEAN, AIDEAN,
ZABUKATZEN GERATZEN ZIRA, BARRA
JARRAITU EIZUE IRAKURTZEN ETA IKUSI-
KO DOZU ZER JAZO ZAN...



bat, ezbear bat izan eben, zenbat eta gorago igon izpilluak keiñu geiago egiten eban eta biorkada larregi aurrera jarraitzeko, azkenean ia eziñekoa zan bera eutsitea. Garaille urten gura eben ezker gora ta gora euren bidalian jarraitu. Azkenean biorkada gogor batek eraginda, izpillua euren eskuetatik lurrera jauzirik guztiz birrindu jaken. Zatiketa onetatik millaka zatitxu sortu ziran, batzuk txiki-txikiak, ondartzako area-garo ikusi-eziña lakoak. Oneik garaotxu, oneik, norbaiten begietan sartu ezker, orduan pertzona oneik euren aurrean ezartzen zana ariogabe ikusten eben, obeto esanda, ariogabe baño pertzona zein gauza guztien alde arlo gaizto ta itsusia agertuz, ba da zatitukeran zatitxu bakoitzak eta guztiak, lenengo izpillua-ren almena eben. Sarritan izpilluaren zatitxua biotz barneraño sartzen zan, jazokera ikaragarria au, biotza gertaera oneitan izotz-meta bat biurtzen zan. Izpilluaren beste zati aundiago batzuk etxeetako leioetarako gordeten ebezan, baña euretatik, leio aretatik, beira areitatik, senide edo adiskide bat begiratzea, izugarria zan. Beste zati batzuk betaurrekoak egiteko erabilten ziran, eurakaz andra-gizon eta gauzak alderdi-gabe ikustea guztiz eziña, ba da guztia alderantzikatuta ikusten zan. Eta jakíña, iratxoa barrez ito-bearrean, berantzat txantxeta orreik, jolaste ori, eztikeria zan.

Ondiño geiago... izpilluaren zatitxu asko ondiño zabukatuta ebiltzan. Irakurten aurrera jarraitzen ba dozu jakingo dozu zer jazo zan.


II

Mutil eta nezkaitillatxu bat

Uri aundi bateko etxetzar baten, eta zaarra be bai, umetxu txiro-txiro bi bizi ziran. Guztirako asti, leku ta eremugabe bizi diran orretariko uri baten. Notintza, gente ugari bizi dan uri aundi, erleauntz dirudian baten, gizasemeak zerbait orlegi, usaintsu, ezeaz zorion-amesak izan gura ba dabez, lorontzi anbateko loraren ezitasun eta margo orlegiaz atsitu bearko dabe. Orrelako uri naiko kutxatu bat zan.

Naizta anai ez aideak, senideak, izan, alkar asko maite eben, eta euren aita amakaz sapai-gane bat izan eben euren egoitza. Euren bizilekuak alkar aldamenean egozan, tellatuak alkar joten, tellatu batetik bestera erreztasunagaz igaroteko eran. Ur-aska baten ganeti errez errez egoitz batetik bestera joan leitekean.

Leio bakoitzeko erlaitzean kanpotik, umetxu bien aita-amak zurezko kutxa aundi batzuk ezarri ebezan. Euratan zendia elikatzeko edo beintzat elikatzen laguntzeko, guraso langilleak barazki-landara batzuk landaritzen ebezan. Baita be kutxa bakoitzean larrosa-landara bana ezarri eben. Lora landaradun kutxak ur-aska alboan egozan, bertan umetxuen aita-amak ezárrita, ipiñita, onelan loratxuak ur-askea ukuturik orma-lora edo antzeko bat iruditzen eben. Loratxuak geldiro-geldiro goiantz, azitzen joiazan, bitarten kanporantz basa-illar itzel bat eta usaintsua benetan, guztiz odoltsu ta orritsu, nabaritzen zan. Larroseen adarrak arian arian luzatuz, baso illarragaz krutzeraturik, elkar kurtzaturik, euren lora ostoe itzalagaz garai-arku bat



KAY ETA GERDA ALKARREN ALBO-
KO ZAPAIETAN BIZI ZIRAN, UME
TXIRO TXIRO BI ZIRAN. UDABA-
RRIETAN, LEIOTETAIK EUREN
BURUTXUAK URTENDA JOLASTEN
EBEN.



BAÑA NEGUAN, LEIO BATEKO BEIRAN, IZOTZA
KENDURIK EGIN EBEN ZULOTXU BATETIK BEGIRATUZ
ALKAR IKUSTEN EBEN. AMAMATXUK EDURRAK EUREN
ERREGIÑA EDESTU EUTSEN ETA GABA BATEN. KAYK
USTE IZAN EBAN BERE LEIOTIK IKUSI EBALA. NEZKATI-
LLA EDER EDER ETA LIRAIN BAT ZAN.

UDABARRIA ELDU ZAN, ETA UMETXU
BIAK LIBURU POLIT BAT IRAKURTEN
EGON ZIRANEAN, KAYK SISTADA BAT
BIOTZEAN NABARITU. LENENGOTAN
EZ ZALA EZER USTE EBAN, BAÑA SOR-
GINKERIZ BETERIK ZIRAN ISPILLU
ZATITXU BAT ERAGINDAKOA ZAN.
BERE BIOTZA LASTER IZOTZ ZATI BAT
BIURTUKO ZAN.



egin eben, bene benetako garai-arkua. Lora-kutxak naiko goi ezarrita egozan, orregaitik umetxuak zuretaraño ezelan be ezin igon eben. Sarritan euren aita-amaren baimena tellatura joateko izaten eben, orduan bai, lora-kutxatxu orreik babestuta, zekulako olgetak, jolasketak, egiten ebezen.

Baña guzti au jazoteko eguraldi ona bear izaten zan, eguzkia argi ta bero izaten zanean, eta alde guztietatik bero, argi ta bizitasuna besterik izaten ez zanean. Negu otz eta illunak, eguraldi ekaittua, umetxu bi onein jolasketa ta atsegin-egunaren amaia izaten zan. Orduan oneik, umetxuak, berogallu baten inguruan, bere berotasuna gozatuz, Udan emoneko egun berotsuak eta alaiak miñeriz gogoratzen ebezan. Leiotako beirak izotzez ezalduta, ezer ikusigabe egoten ziranean. Aldi luze orreitan, umetxuak ezin izaten eben jasan berezitasun au ta orduan berogalluan txindi bat berotuagaz, txindia beira izoztuei urreratuz leiatilla txiki-txikitxu bat egin eta berata-tik alkar ikusi al izaten eben. Umetxutariko bat Kay eritxon eta bestea Gerda, au nezkatilla polit eta liraiña zan.

Udan alkarregaz egoteko teillatura igotea naiko izaten eben, baña neguan zurubi batetik igon eta jaitsi bear izaten eben, bitartean kanpoan, ixiltasun ikaragarriaz edurrak kale eta etxeak zurituten ebazan.

Ze ederra dan edurra!, Kayk bein baten esan eban.

Erlauntz, aundi, itzel bat dirudi, amamatxuk erantzun eban.

Berdinketa au mutikoaren guztukoa izan zan, eta onek jarraitu eban.

Erle-erregiña be ba dauka, amamatxu?

Bai, Kay, amamak iñotson. Eta erlauntza estu edo tinkoen aurkitzen dan alderantz joaten da egaz egiñik. Danatarik aundiena da ta ez dau oiturarik emen geratzeko, lurrean geratzeko, goietako edoi baltzetan idegita dagozan ozin urtsuetaraño joaten da egazka. Neguko gaba otz eta ekaitzdunetan sarritan uriko kaleetatik zear, obeto esateko, kale ganetatik, goitik, ibilten da egazka, leio bitartetatik kirikatzen dau. Orduan leio guztiak izotzez betetzen dira argazki polit eta zoragarriak osotuz, lora bakan, usaintsu, ezezagunen antzera.

Ori guk be ikusi dogu! ume biak batera oiuka esan eben.

Ze liraiña izan bear dau Edur-Erregiñak, amamatxu!, begiak txitxilduta Gerdak iñoan. Emen sartu ete da.

Saiatzen ba da, zergaitik ez? umeak bere aldetik esan eban. Ba dakizu zer egingo dodan beragaz? Berogalluan ganean ipiñi ta urtu.

Amamatxuk irribarre gozo-gozo bateaz umetxua begiratu eban, bere burutxua laztanduz. Gero ipuiñak edeztuten jarraitu eban.

Gaba beratan Kay txikia erdi-lotan egoala, gogotsu igon eban aulki batera, ta berak apur bat lenago leioko beiran egin eban zulotxutik kanpora begiraten ziardun. Edur-malkoak edoietatik jauzten, len baño indartsuago jarraitzen eben. Eta, au bai arrigarrria! euretatik aundiena, apurka apurka aunditzen joian, nezkatxa jantzi mee, garden, lilluragarri bateaz apaindutako bat biurtu arte, milloi ta milloika mauts txiki-txiki-

txuak, zeruko eguzki bera baño be dizdiratsuagoakaz egiña izan balitza bezela. Ze eder ta zoragarria zan!

Ala da guztiz be edur-nezkatza bat baño ez zan, bera guztia edurrez egiña, izotz itsu-arazledun bat, zidarrak eguzki izpi bateaz topo egiten dauanean dizdira bezelakoa. Baña ondo begirastu ezker, Kayk bere izotz irudian, zezerlako bizi bat asmatu eban. Bai, nezkatzak bizia eban, bere begiak urrezko ipurtargi baten antzera itzulikatzen eben, naizta bere begi-barneetan atsekabe ta larritasuna, Kayen eretxiz, agertu. Nezkatzak bere arpegia leiorantz bira eban eta bereala eskuaz keiñu bat egiñik, Kay ikaraturik, aulkitik jauzkadaka zutunik geratu, une ber-beratan leio aurretik txori aundi baten antzekoak etxe aurreko baratza egazka zearkatu eban.

Biramonean egun otza baña argia zan. Egun batzuk joan ziran eta azkenean Udabarria, beti bezela ain eder, loratsu ta alai agertu ta beragaz batera edurrak urtutzea. Eguzkia dizdiratsu ta kimu eze, barriak, aldazkatu ziran, lurralde urrunetatik elaiak euren txio-txio saratatsu ta alaiakaz agertu, ta umetxu biak eguraldi on eta epelakaz teillatuko baratz txikitxura itzuli ziran.

Ze ederra zan Udabarria! Zelan agertzen ebezan lora-kuskuak euren ulegurizko lora-ostoak!

Gerdak loratzaz berba egiten eban, itz egiten eban, buruz abesti polit bat ekian eta bere lora-ontzian azten zan larrosatxua gogoraturik, bere adiskide txikiak batera abestu eban:

*Udabarria eltzerakoan
Lora gorriak loratzen dira
Negan ez eban iñok uste izango
Euren edertasuna erne-berrituko zala.*

Abestia amaitukeran umetxu biak euren eskuak krurutzaturik, loratxuak mozukatzten ebezan. Gorantz, zeruetara begiratz, gure Jaun eta Jaungoikoak bialtzen eutsen eguzkiak dizdiratzen eban aldera. Eta beratzaz, Jaungoikoatzaz erurakaz aurrez aurrez egongo balitzake bezela berba egiten eben. Ze egun atsegintsuak eguraldi ona danean! Ze zoragarria zan egun areitan, larrosa arein ondoan, jolastu, abestu ta itz, berba, egitea! Siñistu eziñekoa zan èurentzat, lora-kusku areik egun baten zimeldu eitekezela!

Kay eta Greda liburu polit, argazki-pozgarridun bateaz poz-arazten oituratuta ziran. Liburu onetan iñondiko abere ta pizti guztiak, mota guztietakoak, agertzen ziran.

Egun baten, egun argi ta alai baten, eleiz-nagusiko kanpaiak jo ebezanean, arratsaldeko bostak, mutikotxuak esan eban.

Aiii, biotzean zikkada bat nabaritu dot! Begi onetan zerbait, zeozer, sartu jat.

Nezkatillatxua ariñeketan joan zan beraganatz, bere besotxuakaz saman besarkatuz.

Kayk orduan, bere begitxuak mugidu ebazan, baña ez eban ezer ikusten.

Naizta ezbear ori jazo, esan eban.

Ez da ezer, ez dot uste ezer danik, joan da...

Baña ez zan egia, zorgindutako izpillu aren zatitxu bat begian sartu jakon. Guk ederto gogoratzen dogun izpillu zoritzarreko aren zatitxu bat zan. Beratan dizdiratzen zan biotz-oneko, on, eder eta lilluragarri guztia, griñatxar, kerri ta oker biurtzen eban izpillua, kerri guzti oneik guztiz aundituta, maltzurkeri ta gaiztokeri guztiak aundi ta argitasun guztiaz agerturik. Bai, Kay gizajoak, izpillu zorigaiztoko aren zatitxu bat bere biotzean sarturik eukan, izpillu zatitxu izugarria bat... eta laster bere biotz-lekuan izotz zati bat baño bere orde ez eban izango.

Gerda atsekabez beterik negar baten egoan, eta bere adiskidetuak inñotson.

Ez eizu negarrik egin! Guztiz itsusi ikusten zaitut olan! Ez ba da izan ezer, umea!

Ixil asti labur bat egin ondoren, jarraitu eban, Uff! Ez dozu ikusi? Larrosatxu orrek mamarroak daukazala uste dot. Begira Gerda, aditu beste oneri nazkatzen nau! Ez zara nabaritzen, konturatzen? Guztiak dira itsu-itsusiak! Ondo baño obeto dagoz zurezko kutxa kaskar orretan. Ostikada aundi bat kutxatxuari emonez larrosatxu biak zuzterkatu ebazan.

Kayy! Arriturik, ikaratuta, oiuka nezkatillatxuak esan eban.

Baña mutikoa egiñagaz damutu barik, damugabe, beste larrosatxu zuzterkatuta, bere etxeke leiotik zear estaldu zan, Gerda gizajea negar baten itxirik.

Apur bat geroago, barriro batu, alkartu ziran, abere liburutxuaz jolasten. Baña Kayk, liburu aretako argazkiak ikustean, izugarriak dirala inñotan eta liburutxu bera, guztiz gogaigarria.

Guztatzen ez ba jatzu, atsegin ez ba jatzu, Gerdak minbera esan eban, amamatxuri ipuintxu bat edestu daiskula esango dautsogu.

Umetxu biak amamatxuaren ondora joan ziran. Baña Kayk, amamatxu, berbea, itza, agoan eukala itxi eban eta gero bere atsetik betaurreko beiragabe batzuk ipiñita atsotxua iruditurik, bera, amama, isekatzen ebillen.

Urrengo egunean kaletik joiazan erritar danen abotsak, kiñu ta kera guztiak iruditzen ikasi eban. Erritarrak ebezan utsarte, akats, gaiztakeri, okerkeri ta gaiñerako kerri guztiak, ondo baño obeto iruditzen ekian. Ain aundia zan bere trebetasuna eginkera onetan, andik lasterrean erri osoak maixitzen eban esanez: "mutil onek adimen aundi bat dau".

Baña ez zan, ez, adimenik, bere biotzeraño begitik sartu jakon beira zatitxu txiki-txikia, bere bizi ta bere izakera aldatuz, egin eban jazokerea guztia izan zan.

Kay ez zan lenagoko mutiko ber-bera, ez. Gerda bera be nabaritu zan orretzaz, baña naizta Kayk aldate aundia izan, Gerdak asko maite eban, bere maitasuna lengoa bezela bizi-bizia, bero-beroa, zan. Ordutik aurrera, mutikoaren aldakuntzatik aurrera, bere jolasketak ez ziran arterakolakoak, jolas itunegiak, arduratsuak, bere adiñeko mutiko batentzat zuzenegiak.

Neguko egun baten, edurtze izugarria bat izan zanean, bere etxetik beira geigarri

bateaz urten eban, edur ganean bere narruzko jakea zabaldu ta beratan edur apur bat pillotu.

Beira onetatik zear begiratu eizu, Gerda, bere adiskedeari esan eutsan.

Nezkatillatxuak men egin eban, narruzko jakean jauziko edur-malkoak, guztiz aundituta agertzen ziran, lora margodun bakanak edo izar liraiñak irudituz. Benetan ikusgarria.

Polita ez? Kutxatxuko lorak baño askoz politagoa!, mutillak iñotsan. Edurmalko oneitan ez dozu aurkituko ezer akatsdunik, urtuten asi arte.

Egun batzuk geroago, Kayk, bere eskuak esku-narru lodi batzukaz zaindurik kalera urten eban. Bere edur-narra gertu egoan.

Agur Gerda!, esan eban. Mutillakaz jolasten noa. Eta kale-bera abiadan joan zan. An itxi eban saminduta berak izan eban adiskiderik on eta zintzoena.

Enparantza nagusira eldu zanean, erritar mutikoakaz topo egin eban, uriko okerrenak ziran. Mutillak euren edur-narrak baserritarren gurdí edo burdiei atsetik lotzen ziarduen, olan euren indar barik, alegiñik egin barik, burdien atoiari joateko.

Olan ebiltzala ustegabe, guztiz zuriz margotutako edur-narra eder eta lirain bat agertu zan, beratan narruzko txartes eder baliotsu baten inguratuta notin edo pertzona bat joian, bere burua txano edo txapel zuriz edurra ber-beralako batek apaintzen eban. Edur-narra arek platzatik iru edo lau bira egin ebazan. Bitartean Kayk ixilkeriz eta trebetasun ez gitxiagoaz bere edur-narra bestearen atsetik, biraka ebillen edur-narraren atsetik, Kayk bere, bere edur-narra lotu al izan eban, bere lagunakandik ikasita, ba da oneik baserritarren burdi-narren atsean lotzen ebezan, gero ganean nasai-nasai joateko.

Orduan bereala abaiada itzelean etor-barrien edur-narrak bere atsetik narraz eroan eban. Edur-narra orren jabe ta gidariak burua itzuli ebanean, Kay ikusirik adiskidetasunezko kiñu bat egin eutsan, ezagutu ba eban bezela. Uri aretako atetara era orretan eldu ziran, edur-narrak bata bestean atsean. Edurra iñoiz baño itsu ta mamintsuago zan eta mutillak euren begien aurrean egoana be ez eben ikusten. Bere edur-narra bestearenetik lokatu gurean alperrik ebillen. Bere alegin guztiak alperrikoak izan ziran, bere nai, guraria, betetzeko. Narra biak alkartzen eban lokarria, sokea, guztiz biribilkatuta egoan eta orregaitik Kayri eziñekoa izan jakon alkar azkatzea.

Orduan Kay guztiz bildurturik oiuka asi zan, baña iñok ezin izan ebazan entzun bere deadar indartsuak, biztanle guztiak euren etxeetan egozan, sutondoan berdantza izugarri bategandik babestzen.

Ze atsekabetuta egoan gure Kay gizaño! Otoiz Aita-gure bat esan gura eban, baña une aretan auniztu arauak besterik ez eban gogoratzen... Zori txarra.

Edurtzea denporea joianez aunditzen geroago ta geiago ta azkenean edur-malkoak, edurrezko aize-borobillak baño, ori bai, zuri zuriak. Bereala, ustegabe Kayren edur-narra eroan beste edur-narra aldi-erazi bat egiñez gelditurik, beratan joian notiña, pertzonea, aurreko edur-narran, narratik urtenda lurreratu zan. Kay, orduan

KAYREN IZAKERA ALDATU ZAN.

IGAUZA ORREK
MOTS MOTSAK
DIRAI IEZ EIZU OLAN
NEGAR EGINI!
IGUZZIZ MOTSA
ZAGOZI!

KAY!



EDUR-NARRAKO NOTIÑA. EDUR-ERREGIÑA
BER-BERA ZAN. KAY BILDURTURIK EGOAN, BAÑA

EDUR-ERREGINAK BEKOKIAN MOSU BAT EMON EUTSON, GERO BERE
ONDOAN EZARRIRIK, KAYREN BILDURRAK IGES EGIN EBEN. IKAS-
KETAN EGITEN EBAZAN AUERRERAKUNTZAK EDESTU, BITARTEAN
EDUR-NARRA OZIN IZOZTUEN GANETIK EGAZ JOIAN.



19



BEIÑOLA KAYK, BERE
EDUR-NARRA BESTE
AUNDI BATEN LOTU EBAN. ONETAN
GIDARI LEZ NARRU ZURI ZURIZ
INGURATUTA GIZON BAT EGOAN.
ABIADA ITZELEAN KAY DANDARREZ
BERE ATSETIK JOIAN. AZKATU GURA
EBAN BAÑA EZIÑA IZAN JAKON.

nabaritu zan nezkatilla arek eroazan soñieko guztiak, txartes eta txapela be bai, edurrezkoak zirala. Eta notiña... Edurretako Erregiña ber-bera zala!

Billaldi, bidaldi, on eta arin-arin bat izan dogu, Erregiñak esan eban. Mutikotxua dar-dar, ikeratuta egoala ikusirik, jarraitu eban. Goazen, etorri zaitetz nigaz, nire otsonarruzko txartespean berotu zaitetz.

Au esanez, artu eban Kay bere eskutik, bere edur-narran albo baten ezarri bere txartes bero-beroaz inguratuta. Baña umetxuari toki a estalpe bero-bero bat ez jakon iruditzen, berak uste eban izotzgallu gela baten sartuta egoala.

Otza dozu? Otz zara? Erregiñak itaundu eutsan, mutikotxuak ez eutsola erantzuten ikusirik mozu maitekiro bat emon eutsan.

Ze mozu otza, nire Jaun eta Jaungoikoa! Kayk bere biotzean, barne-barnean, izotz-aize bat sartzen sentidu, ta uste eban bere azken ordua ur egoala. Baña zorionez, une laburtxu baten biotz-ikara bat bakarrik izan zan. Beingoan indar-barriturik barriro otzak illik aurkitzen zan.

Bere edur-narratxua gogoratzuz, oiuka iñoan.

Aiztu zarie edur-narratxuaz, andrea!

Baña ez, Edur-Erreginatxua, ez zan aiztu edur-narratxuaz. Euren atsetik egazka etorri ziran edur-aizeborobil areitariko bateri lotu eban.

Edur-Erregiñak, Kayri beste mozu bero-bero bat emon eutsan, oraingoan bekoki-bekokian.

Barriro ez zaitut mozukatuko, iñoan, ba da beste orren beste egingo ba neuke, zorigaitzez ilgo ziñakez.

Kayk begiratu eutsan. Bai, guztiz eder eta liraiña zan, bere arpegi on-uts aretan adikune burudun bat nabaritzen zan. Umetxuari, bere gorputzetik otza aldenduaz, bildurra be aregaz batera joan jakon. Ez, orain Edur-erregiñaren bildurrik ez eban. Eta orduan Kay gauza azko edestuten asi jakon, zelan Aritmetika, geografi eta laterri azkotako Uriburuen izena ekiala. Edur-erregiñak berbetan itxiten eutsan, espan ganeko irribarre gozo bateaz baieztatuz. Orduan bera, Kay, Edur-erregiñaren jakituna uste izan da, bere aurrean txikituta ikusten zan. Edoitsa illun eta ekaiztdun artetik gora, eurak generaturik, ekaizt-aize batek eraginda alde batetik bestera egazka joan ziran...! Aizeak berak be antziñako eresi berezi batzuk abesten ebazala eritxon! Baso ta mendi itzelen ganetik, ordeka edo goi-zelai amaibakoen ganetik, aintzira eder ur-geldi izoztuetatik, euren ganetik, egazka luzaro ziarduen. Itxaso asarre ta ekaiztdun eta lurralde zabal ganetik, egazka ebiltzan. Euren buru ganean, illargiak bere argi otz eta bakeduneaz, gabako illuntasuna argitzen eban, naizta azko ez izan. Amaitu eziñeko gaba aretan, Kay gauza guzti oneik ikusten, begiratzen, ebillen.

III

Sorginkerizko aldasuna eban emakumearen baratza

Gerdak jasan ebazan neke ta samintasunak azaltzea ez da ez bat be erreza, Kay ez zala itzuliko jakin ebanean, Kay maitea geiago ez ebala ikusiko jakintean. Zer jazo ete jako Kay maiteari? Baña itaun onen erantzuna ez eban entzuten iñogandik. Berak jakin eban guztia mutikotxu batzuk esan eutsoena izan zan. Eurakaz egun batzuk aurrerago jolasten egoala, eurakandik jakin eban guzti guztia au izan zan; bere edurnarrea beste aundiago bateri atsetik lotu eutsola ta narra aundiak narrez uriko ateetaraño eroan ebala. Baña albiste onek ez eban bat be poz-arasten gure nezkatilea.

Kay euren artean ez eukitean, danak ziran atsekabetuta, gazte ta zaar, batez be bere amama ta Gerda, onentzat ez zan poztasunik, gozaldirik. Olako unetan bezela, barri edo izparrak ugari ziran, uriko mugak ukutuaz dagon ibaira jauzita ito zala, menditik ibillikeran troka sakon batera jauzi ta il zala, abar eta abar. Iñok ez ekian ezer, baña gizonaren asmamena neurrigabea da.

Neguko gaba-egun luze ta illunak olan joan ziran eta ondoren Udabarri alai ta argitsua eldurik, eguzkiak bere izpi beroak lurrean dizdiratzen eben.

Geiagotan ez dozue Kay ikusiko, Kay maitea il dalako, Gerdak esan eutsen.

Baña eguzki-izpiak erantzun eutsoen.

Ez dogu siñisten

Gerdak elai alaiak egazka ikusi ebazan eta onei be esan eutsen.

Kay geiagotan ez dozue ikusiko, Kay maitea il da.

Ez dogu siñisten, elaik erantzun.

Azkenean Gerdak, berak be, bere gurariak eraginda edo, Kay bizirik zala uste eban.

Kayk ondiño ikusi ez dauazan oski barriak ipiñiko dodaz eta eurakaz ibaira jaitisiko naz, Gerdak esan eban.


Esan eta egin. Ondiño ogean lo egoan bere amamatxu mozukatu ondoren, Gerdak goiz-goiztik bere etxetik urten eta bere oskitxu txiki gorriakaz uriko kaleetatik zear ibairaño jaitsi. Bere baztarrera eldu orduko, ibairi itaundu eutsan:

Egia da diñoena? Nire adiskide Kay, zuk kendu daustazu? Itzulten ba daustazu, nire oskitxu gorri oneik emongo dautsudaz. Ibaiko, ibairen olatu edo uin txikitxuak bare-bare agertzen ziran eta Gerdak uste eban bere guraria on-artua izan zala. Beste barik, bereala, oskitxuak oiñetañik kendu, ta naizta eurak izan bere altxor maiteena uretara jaurti ebazan, ibaira jaurti. Baña oskiak ibai baztar-baztarrera jauzi ziran eta korrontak lurrera beingoan itzuli. Jazokera au gogoratzean eta jazoki guztiak ausnartuz, Gerdak uste izan eban, ibaiak bere oparia edo bezuza ez ebala gura artu, Kay maitea beragaz bertan ez egoalako. Unetxu bat geroago beste asmakisun baten, oskiak indartsuago, ibai erdira jeurti bear ebazala, urrunago jaurti bear ebazala.

Andik ur, seskadi baten alboan txalupa txiki bat ikusirik beragana urreratu zan eta bere naia, guraria, obeto betetzeko bere ganera igon, baña bertako seskaren kuluzka-

KAY GALTZEAZ AMATXU
TA GERDA GUZTIZ ATSE-
KABETUTA IZAN ZIRAN.
UMETXUA IBAIAN ITO
ZALA-USTE EBEN. GER-
DA...

NIRE ADISKIDETXUA KEN-
DU DAUSTAZU, ITZULTEN
BA DAUSTAZU NIRE
OIÑETAKOTXU GORRIAK
EMONGO DAUTSUZAZ...



NEZKATILATXUA TXALUPATXURA IAGONIK BERE
OIÑETAKOTXUAK URETARA JAURTI EBAZAN.
TXALUPATXUA BERE LOTURATATIK AZKATURIK
IBAI BERANTZ JOIAN. GERDAK LAGUNTZA ESKA-
TU EBAN, BAÑA ALPERRIK IZAN ZAN.

TXALUPATXUAREN UGAZABAK, ATSOXU
BAT BERA, BERATATIK URTETEN LAGUNDURIK
BERE ETXERA EROAN EBAN. GERO NEZKATI-
LLATXUAREN ULE KIRRUAK ORRASTURIK BERE
AMAMATXU TA KAY
AIZTUTEN ASI ZAN...



tzeaz txalupatxua eurakandik azke geratu eta urak eraginda, uraren korrontak eraginda, ibai-bera joian edo eroan urak. Gerda gertaera onegaz konturatu zanerako berandu izan zan, lurreratu gura eban, baña alperrikoak ziran bere alegiñak.

Nezkatillatxua, jakiaña, bildurturik oiuka asi zan, guztia alperrikoa, lurralde a bakardade osoaren jaun eta jabe zan eta iñok nezkatillatxuen deadarrak eta oiuk ez eikezan entzun. Gerdaren deadarrak txoritxuak uts-utsean entzun ebezan eta danak joan ziran bere ondora lagundu gurean. Eurak, txoritxuak, egin al ebena urria zan. Euren biotz-on eta laguntza agertuz, abesten jardun eben, iñotsoela: Emen gagoz! Emen gagoz! Bitartean txalupatxua ibaibera jarraitzen eban.

Ibaiaren bazter biak, zugatz kerizpetsu ta igoalaz beterik, bere landa orlegi bedar leundun, zeintzuetan bei ta artxo ederrak larratzen ziran, eta ibarrak apaintzen ebazan lora margotsuakaz, ibaia, bikain, ikusgarri benetan egoan. Ostera inguruetakoa lurraldetan notin, pertzona, bat be ez zan ikusten.

Gerdagandik bildurra aldentzen asi zan, bere buru-amesetan, bere gurariari lagunduz, ibaiak Kay maitearen albora eroan gura ebala, bururatu jakon. Gurariaen, naiaren, beiratatik begiratuta Gerda, Kay maitearen alboan ikusten zan.

Txalupatxuaren atsetik, berari jarraituz, bere oski gorritxuak ur ganean joiazan.

Kereixa ugari egoan ortu batera txalupatxua eldu zan, ortuaren erdi-erdian etxetxu bakan bat, erainkintz bereziduna, margo bizidun batzukaz apaindutako leioakaz. Beirak margo azkotakoak ziran, urdiñak, ori-belegiak, gorriak... Sapaigaz egiña ta sarrerako burni-sare alde bietan egurrezko gudaritxu bi egozan an.

Gerdak, gudaritxuak egiatzkoak zirala uste eban eta deitu eutsen, baña jakiaña, eurak ez eutsoen jaramonik egin. Une beratan txalupatxua euren, gudaritxuen, aurre-aurretik igaro ta urak bultzaturik ibai baztarrerantz joian.

Gerdak oiua ta deadar indartsuagoak egin ebazan eta orduan esku-makil bat lagun eta kapel bakan bateaz bere burua apaintzen eban atsotxu bat agertu zan. Kapela lorez margotua.

Koitadea!, biotz-bera atsotxuak esan eban. Zer jazo jatzu ibai-korrontak ur ganean narraz olan eroan zaiazan? Ibaira urreraturik bere esku-makillea txalupa ganean ezarri eban, txalupatxua ibai bazterrean geldituazoz.

Atsotxuak Gerda atara eban txalupatxutik eta nezkatillatxua guztiz pozik zan. Egia esan, atsotxuak beragan bildur apur bat sortzen eban.

Nor zara tan nondik zatoz?, atsotxuak Gerdari itaundu eutsan.

Gerdak atsotxuari guztia edestu eutsan, jazoriko guztia ta bide batez Kaygaitik itaundu, ia ikusi ba dau itaunduz. Atsoak Gerda bere neke ta samiñak edestuten egoan bitartean kurruzka batzuk eta azken itaun oneri, Gerdaren azken itauneri, Kay ondiño ez zala eldu erantzun eutsan, baña ziurki laster epe laburrean elduko zala, erantzun eutsan. Nezkatillatxuari, baita be esan eutsan ain goibel ez ebala egon bear eta baratzeko gura, nai, ebazan kereix guztiak jan eikezela. Liburu argazkidunak baño politagoak ziran lora guzti areik ikusi eikezela. Orrez ganera adierazoz, lora bakoitzak ipuin polit bat edesten ekiala. Gero eskutik arturik etxetxuraño eroan eta atea barruti k giltzez ertsi, ixi, eban.

Goi-goi egozan leioak euren margodun beiratatik zear argi gozo bigun bat sarturik, izugarritzko margo-naastea sortzen eben. Mai ganean otsarakada kereiz bat egoan, Gerda bere aurrean jezarrita, inok ez jatekorik esan ez eutson ezkeru, kereixakaz bete bete egin bere sakela. Jaten egoan bitartean, atsotxuak nezkatillatxua orrazi urreztatu eder bateaz orrazten eban eta au egitean, bere uleak zimurturik geroago ta geiago urre antzekoak biurtzen ziran. Ikuspegi ta lauki polita bere arpegi txiki gozo ta gorri-zuriaz.

Zelan gura izan neban beti zulako ume lirain polit bat neugaz eukitea! atsotxuak antziz esan eban. Ikusiko dozu ze ederto ta pozik biziko zaran nire ondoan!

Atsotxuak Gerda zenbat eta geiago orraztu, Kay txikiak geiago aiztuten zan baita be bere amamatxu eta bere oski gorriak ibaian galdutakoakaz be bardin jazoten jakon, eta guztia zan atsotxu arek sorgin-alduntasun bat ebalako, naizta ez izan gaiztoa, ba da sorkinkeria, arazo onetan sorgintasuna esan bear leiteke, atsotxuak bere jolastzeko egiten eban. Bere betiko amesa ori zan, nezkatillatxu bateaz bizi al izatea. Bere sorginkeria orain orregaitik zan, nezkatillatxu a, Gerda beragaz eta beragan izateko.

Gerdak baratzera urten baño lenago, berak, atsotxuak, urten eta baratzeko loratxuak bere esku-makillagaz ukuturik lurperatu ebazan. Loratxuak Kayren irudia gogoratuz beragan maitasun bizi-bizi berezi bat, Gerdagan, loratxuak sortu ez egien. Baita be loratxu polit oneik ikustean Kayren billa jarraitzeko, nezkatillatxuan sortu eikeen gurari, nai, bizi-bizi, sendo bat.

Gero Gerda baratzera eroan eban, inguruak begiztatzen. Nezkatillatxua! zelan sorgortu zan ainbeste lora margo bizi-bizidun eta usaintsuen edertasunagaz! Euren ezetasun osoan aurkitzen ziran eta beraz baratz osoa, alde batetik bestera dizdiratsu irudituaz. Bere eder eta bikaintasuna ezin izan zeinkean berdinkatu inongo argakizdun liburu zaar batek. Gerdai pozez-pozez biotzak taupadak egiten eutsozan eta illuntzean eguzkia estaldu arte, bertan jolasten geratu. Egun eta asteak jolasketa oneetan Gerdak emon ebazan. Azkenean nezkatillatxuak lora guztiak ezagutzen ebazan, baño euren artean batean, lora baten, utsa sumatzen eban, ez ekian zein zan, baño bere utsa asmatzen eban.

Egun baten, atsotxuaren kapelan margotuta egozan loratxuak begiratzen ebazan bitartean, andreari andik kentzea aiztuta itxi eban larrosa eder bat begiztatu eban. Zintzotasungabeko arazotan olako jazoerak geienetan izaten dira.

Baratzean ez dago larrosarik!, Gerdak koldartuta oiuka inoan. Eta ariñeketa baten lora-sail eta bideziorretatik joan zan, aurkituko ez ebazan larrosaren billa. Orduan bide bazter baten atsekabez beterik jezarrita negarrez geratu. Bere negar-malkoak, lurrean jauzirik, egun batzuk lenago atsotxuak bere esku-makillagaz lurperatuko larrosak erneazo ebazan.

Nezkatillatxua atsegiñez pozturik, larrosatxuak mozuka jan bear ebazan, baño poz-aldi laburra izan zan, bereala bere teilletu ganeko baratza ta Kay gogoratuz barriro bere biotz-miña agertu.

Aaa nire Jaun eta Jaungoikoa! samintasunez esan eban. Zelan galdu dot ainbeste

asti! Ni Kay billa joan bear neban eta ondiño emen nago. Ba dakizue zuek non dagon? Ba dakizue il ba da?

Ez da il, larrosak erantzun, ba da illak lurpean egoten dira ta gu andik gatoz eta ez dogu Kay ikusi.

Eskerrik asko, nezkatillatxuak erantzun.

Orduan gaiñerako loratxuarantz urreraturik euren, loratxuen, kukulu barneetan begiratu, guztiei bere adiskidetuagaitik itaunduz. Baña loratxuak eguzkia artzen eta bere berotasunagaz gozatzen, euren biritza ta euren amesetatan uts-utsean gogoratzen eben. Lora guztien erantzunak Gerdak entzun ebazan, baña Kayren barririk iñok ez eutsan emon.

Ara emen zer esan eutsan zitiriak, lirioak.

Entzuten dozu, Gerda, danboliñ tarrapata? Iru eres-nota bakarrik dira, iraunkortasunez bein eta barriro berriztuak. Entzun eizuz, olez-egitasun eta andrazkoan abesti laguntzagaz. Begiratu eiozu indiatar emakumeari illobi-garraldian mugidu-gabe bere longain gorri bakarren inguratuta. Laster, une batetik bestera, ezereztuta, sugarras naspilduta izango da. Uste dozu, zuk Gerda, bere biotza be sugarrak ezereztu leikela?

Aaa! Nik orretzaz ez dakit ezer, Gerdak inotsan.

Ba, orixe da nire kondaira, zitiriak antzirika esan eban.

Ara emen zango-gorriak zer esan eutsan.

Bidezior arritsu bat dago mendi tontorreraño eta an, bere ganean, tontorrean gaztelu zaar bat goratzen da, bere orma guztiak untzez guztiz estalduta dagoz. Leio, zaarra bera be, baten esku-bandan zurkaiztuta, lazto ganean larrosarik eder eta bikaiñena baño be, eder eta liraiñago dan nezkatilla batek bidea kirikatzen dau. Ze adiguritsu, ze zuri ta ze biguna dirudi! Ez da saratzik aize-ozkirriak laztanduta, berak bezela lerdentasuna ibilli al dauanik. Ze oparotasun bere sedazko ta oil-gurizko jantzi garestietan eta bere ule kirrua apaintzen dabezan pitxi urrezkoen dizdiratasuna! Guztiz arduratsu ta kezkatu bidera begiratzen jarraitzen dau... Egun baten etorriko da...!

Nor? Kaygaitik diñozu? Gerdak ikusmiñez esan eban.

Ez, nire amesketatzaz uts-utsean ziardun naz, zango-gorriak iñoan.

Ara zer esan eban kanpai-txikiak.

Zugatz orlegi, eze, ta kerizpetsu artean kolunpio bat dago, beratan jezarrita, euren jantzi zuri politakaz eta euren kapel orlegi zabaletan zirgilla gorritzakaz apaindurik, nezkatilla eder eta polit bi dagoz. Aizeaz jolasten dago, ingeuts bat eta ontzitxu bat eutsiten dauala. Saboi mazkaillu batzuk egiten dabil. Kolunpioaren jon-etorrietan eta aizearen zilipurdikadakaz, mazkailluak aizeak eraginda egaz doaz, eguzkiaren argitasuna lagunduz sorgin-margo izugarriak iruditurik. Mazkailluak buru ganean, ule ganean, eta nezkatillatxuen barre gozoaz be jolasten dabe.

Kolunpiora igon gura dauan txakur txiki jolazale bat be saltuka an dabil, eta kolunpioaz topo egiñik lurrera jausita auzika, zaunka, asarre dago.

Maskailluak plast egiten dau... margoa ta poza, alaitasuna, eguratzean ezereztuten dira... Ori da nire abestia.

BAÑA GERDAK, LARROSAK IKUSIRIK BARRIRO
EURAK GOGORATZEN ASI ZAN.

BA DAKIZUE ZUEK, KAY NON
DAGON?
IL DA?



INIRE AMAMATXU MAITEAI
INIRE ALDEGITEAREN ERRUZ
NEGARREZ IZAN BEAR DAU! IKAY
AURKITU BEAR DOT ETA BERAGAZ
ETXERA ITZULI!



ARIÑEKETAN URTEN EBAN ETXE ARE-
TATIK ETA BARATZERA ELDUKERAN,
UDAGOIENA ZALA KONNTURATU
ZAN, ETA ETXE ARETATIK ARIÑEKETAN
URTEN EBAN. IZENBAT DENPORA
ORDUTIK ONAI GERDARI LUDIA ITUN,
GOIBEL, NABARMEN ERITXON...

Zalantza gabe, barik, garrantzitsua da diñosuna, baña zure gogoraketatan goibel-dasuna da... eta euretan Kay ez da agertzen.

Ara emen bitxigorriak zer esan eban.

Ze polit eta liraiñak iru aitzak, aizpak! Aize-ozkirri, loraren usain gozoa, edo ibaietako maitederrak bezela garden eta samurrak ziran. Aintzira alboan, irurak eskuetatik alkar oratuta abestuten eben. Abestu ta dantzatu egiten eben eta ez ziran sorgiñak, gizaki bizi-biziak baño. Batek jantzi urdiña soiñean, bigarrenena zuria zan eta irugarrenena larrosa margokoa. Iru nezkatilatxuak dantzaten basoan estaldu ziran, eta basoan, zugatzez beteriko baso aretan usain-gozo bigunagoak ziran. Andik, bertatik, basoko abarotik apur bat geroago iru il-kutxa agertu ziran, euren barnean nezkatilteen iru gorpu zuri ta otzen altxor berezia eroela. Ipurtargiak illargipean iru kutxen ganean dantzatzuz izar txiki batzuk dirudien, egazka, dantzaten il-kutxan ganean. Lo dagoz ala il dira aintzirako dantzariak? Loratxuen usaiñak il dirala agertzen dau ta kanpaiek, illuntzean, biotz-miñez dindatzen dabe.

Zure kondaira ori entzutean, ze goibeltasun sentitzen dot nire biotz-barnean! Zure usaiñak ildako nezkatilatxuak gogoratzen naroa. Uste dozu Kay be il dala? Larrosatxuak ezetz esan dauste...

Dilin, dolon! Dilin dolon! bitxi-gorriaren lora-kuskuak abestu eban. Ez dakigu ezer Kay txikitxuatzez, uts-utsik gure abestia dakigu.

Orduan Gerda zapo-illi albora urreraturik, ara beragandik zer entzun eban.

Udabarriko lenengo eguna zan eta gure Jaunaren eguzkiak, gure Jaungoikoarenak, auzune bateko baila apal bat argitatzera jaitzi zan. Bertako zoko baten Udabarrri aretako lenengo lorea erneta, eguzkiaren izpitan urrezko aletxo bat iruditurik dizdiratzen zan. Zokoko atearen alartzepean bere illobatxuari begira atso bat egoan. Illobea nezkatilla liraiña, ule kirrudun, benetan ederra zan. Nezkatilatxuak jauregiko gela ta lorio-bideak garbitzen bere eguneroko ogia irabasten eban. Illobea amama ikusten etorri zan eta amamaren matrail zimeletan mozu bero-bero bat emon. Biak urrezko biotzaren jabe ziran, biotz maite-emonkorra, lora-leka erne-barri baten bezelakoa, mozu aretan amama-illobatxuak euren biotza oso-osoz ezarri eben, eta euren espanak urrez beteturik, baila apal aretan eta inguruetan urrea ugari egoan. Au da nire oroimena.

Aaa amama maitea! Gerdak iñoan, amama gogoratuz. Nire urrutiratzea gogoratuz negarrez egongo da, ziur, lenago Kayren urrutiratzeaz egin eban bezela. Beragana itzuli bear dot eta lorei itauntzea alperrikkoa da.

Bere jantzia batu eban arifñeketan abiada aundiagoan joan al izateko, baratzetik urteten abiatzurik, unanu batek bere izterretan jo eban eta orduan Gerdak begirekada zorion bete bat egin eban.

Ikusi al naz! Konturatzen zara? Nire usaiña bigun-biguna da.

An, sapa-gain aretan, dantzari txikitxu bat bere jantzi labur, tun-eun dizdiratsua kaz dago, bere oiñ txikitxuetan utsiten da. Garaille arroputz bat dirudi, ludiaren garaillea, bere beso luzetuakaz eta bere burua tinko. Bere burua zapi lirain margodun bateaz

estalduta, bere azala ta jantzia zuriagoak dirudi. Konturatzen zara? Lazto-lora baten utsiko balitzake bezela ain ariña dirudi. Llipa-lora bat izan leiteke? Ikusi al naz! Ikusi al naz!

Alperrikoa da ori niri edestutea! Ez dot ezen ardurarik!

Gerda baratzaren mugaraño ariñeketan joan zan. Atea ertsita egoan, baña indartsu bultzaturik idegi al izan eban eta sartu.

Ariñeketan joian bitartean iru bider itzuli eban bere burua bere atsetik iñor ba etorren jakiteko. Nekatu zanean, ba da oiñ-utsik joian, bere ointxuak mallatuta ebazan, bere bideketan gelditurik, arri baten ganean, zugatzpean jezarri.

Orduan Gerda konturatu zan Udagoiena zala.

Zenbat denpora joan da, Jesus Jauna! Baratzean beti Udabarri izan bear dau, ba da an lorak beti agertzen dira loratsu, ezetasun osoan eta eguzkiak egunero argitzen dau. Zenbat asti galdu dodan! Unetxu baten be geiago ezin naz geratu atsedentzen.

Zutundurik ariñeketan abiadan joan zan. Zelako miña eban oiñetan! Bere inguruan, lurralde aretan, ze otz eta illun-nabar egoan! Zugatzen orriak apurka apurka jauzten joiazan, bata bestearen atsean jauzten ziran, eta ezotasuna zugatz-enborretatik dariola agertzen zan.

Ze illun-nabar eta goibel, Gerdari une aretan ludia agertzen jakon!

Baña zelan, Kay printzetzaren jauregian?, umetxuak esan edo itaundu, guztiz arrituta.

Ara, ikusiko dozu, alenginduko naz azaltzen, baña ez jat guztiz erreza zure izkuntzan berba egitea. Ez dakizu zuk bedarren, belarren, izkuntza?

Aaa, ez, sentitzen dot!, Gerdak ikeratuta esan eban, baña nire amamatxuk ba daki, ni ez nintzan iñoiz ikasten saiatu.

Ondo dago, ez dau lebarik. Al dodana egingo dot, baña parkatu eistazu lar ondo ez ba dot, edo obeto egiten ez ba dot.

Beleak berak ekian guztia edestu eutsan, azaldu eutsan.

Nire laterri zabal-aundian neurritik kanpoko adimendun printzetzatxu bat bizi da. Jakinazoteko eta konturatu zaitezcan zelakoa dan, esan bear dautzut ludi osoko egunkari guztiak irakurri dauazala. Erregiñatzarako oraintsu izendatu dabe. Naiko gogaituta egoan egun baten, abesti bat abestuten asi zan. Abestiak olan diño:

Eguzki eder-ederreko egun baten

Printzetzatxua eskondu zan...

Une onetara eldukeran geraturik, berak be eskondu bear ebalá gogoratu eban. Baña asmakisun au, eskontzea, ondo baño obeto ausnartu bear zala, eskondu baño lenago, erabagi eban eta senarra, gure artean gizona, ederra baño adimenduna oba zala. Mutil azko dira sendo ta ederrak diranak, baña baita be, ergel, kaiku utsak, eta olako gizon bat beralako printzetza batentzat ez zan egokiena. Bere guraria bere ministro ta nezkaimei adierazo eutsen eta danak pozez beterik izan ziran...

Ona eldutean, beleak tarteko egin eban, gero jarraitu Gerdari zin egiñez berak iñoan guztia egia osoa zala ta bere eskongaia, belearen eskongaia, gazteluan bizi ta etxerakotuta zala. Bera zan, berari, beleari, gazteluan jazoten zan guztien barria azaltzen eutsana.

Bereala printzetatzuak eleiz-deiak egin ebezan eta euretariko bakoitzean bere len-izkiakaz biotzezko azpildura bat egiñik. Eleiz-dei oneitan danak irakurri eitekean, edozein mutil jasekoa gaztelura printzetatzuaz berba, itz, egitera joan leitekela. Printzetatzuak eurakaz, mutillakaz, alkar-izketa adiskidetasunean egingo ebal. Berbetan ondoen egingo ebana ta alkar-izketan trebeena izango zana, printzetatzuaz eskonduko zala. Siñistu zeinkedazu, siñistu zeinkedazu, beleak bein eta barrero iñoan. Dirautsudana, ain ziurra da une onetan zugaz berbetan, izketan, nagola bezela. Jakin eizu, talde aunitzak etorri zirala, adin eta mailla guztietako aundikiak erregiña-gaiak.

Notintsa ikaragarria jauregi inguruan batzen zan, danak erregin-gaiagaz eskondu gurean. Danak ziran aundikiak eta jakitunak, beintzat eurak olan uste izan eben. Jauregitik kanpora danak ziran berbaldun, baña gaztelu barruan izaten ziranean, aurkitzen ziranean, nasgarri, lotsatuta izukor sentitzen ziran. Millaka argi dizdiratsupean eta ainbeste lekaio, morroi longain ule-guridun, ainbeste ertzain nagusi jai-aundietako soñiekoakaz jantzita egozan guztien aurrean, auzkertu ziran guztiak ikeratuta, mututa geratzen ziran. Gero Printzetatzuaren aurrean aurkezten ziranean, berbetan asi orduko, len baño kikilduagotuta geratzen ziran eta jakiña, berak, printzetatzuak beingoan agurtzen ebazan. Guztiz bakana zan erregiñ-gaiei jazoten jakena! Errege-aulki aurrera eltzen ziranean, bat batean, berba-gabe bezela geratzen ziran, zital-edari anbat edan ba eben irudi ber-bera. Gero bai, kalera urtekeran berbaldun biurtzen ziran, kaleko aiz-ozkirriak arin-arin astindu ebezan, urrean. Eta bat eta bi ez ziran izan, erregiñ-gaiaren aurrean mutil gazte asko auskertu zan. Nik neuk be ikusi gura neban eta bertara joan nintzan, beleak esan eban. Batzuk nekez eta gozez ziran, ostera beste batzuk, sumatzailleak, eurakaz koipea ta ogia ekarri eben, eta baita jan gozoro be. Antza zanetik euren zoritxarrak ez eutsen gitxitu jateko gogoa. Bitartean sumatzaille oneik, begiek urten bearrean, besteen begiek, gozedunenak, janarien atsean ikusirik, maltzur areik esaten eben:

Naigabetu bearra dozue, sentitzen dogu! Erregiñ-gaia iñoiz ez da eskonduko gozez illik dan gazte bateaz!

Gerdak belea geldi-arazi eban guztiz atsalkoi itaunduz:

Eta Kay? Gizon aldra aretan ikusi zenduan?

Apur bat itxaron eizu, bere sasoiaren guztia elduko da, egaztiak iñoan.

Irgarren egunean, gaztetxu bat, zaldi-gurdi, zaldi talanguzain barik agerturik, gaztelura bat be leba barik, arrokeri ta aundirik gabe, tolesgabe urreraturik sartu zan. Mutillak bere begiak zure antzera dizdiratsuak ebazan eta eguzki izpiaren añako ule urre-margoduna. Baña beragan guztia ez zan ona ta ikusgarria, bere soñiekoak naiko ajeak ziran.

Kay gizajoa! Gerdak iñoan. Zalantza barik Kay ber-bera zan!

BIDEAN GERDAK BELA GUZTIZ BEGIKO BAT AURKITU, TOPAURIK, ITAUNDU EUTSON KAYGAIK, ETA EGAZTIK EZAGUTU EBALA USTE EBALA ERANTZUNIK, NEZKATILLATXUAK BIOTZ-ERAGINDA MOSUKATU.

IRUGARREN EGUNEAN, BEGI DIZDIRADUN MUTILGAZTE BAT BERE ULE KIRRUAKAZ AGERTU ZAN. BERE SOIÑEKOAK AJEAK ZIRAN ETA BERE OSKITZARRAK SARATATSUAK...

22

GURE LATERRIAN, PRINTZEZA BIZKOR, EDER BAT BIZI DA. MORROI EDER BAÑO AZKARRAGOA ZAN BATEAZ ESKONTZEA ERABAGI EBAN ETA ORRETARAKO ESKONGE GUZTIEI DEI EGIN EUTSEN. ESKONGE UGARI AGERTU ZIRAN, BAÑA AIN AUNDIA ZAN GAZTELUAN OPARO TA AUNDIKITASUNA, GUZTIK ARRITUTA MUTUTA GERATZEN ZIRAN ETA ORDUAN PRINTZETATXUAK KANPORA BIAITZEN EBANZAN.

JEZPAI BARIK KAY ZANI!
GOGORATZEN NAZ ZELAN
OSIKI BARRI BATZUK MUTSUTU EBAZAN.

ONERI, KAYRI, AN EGOAN OPAROTASUN ETA AUNDIKORI GUZTIK EZ EUTSAN ARRITASUNIK SORTU TA NASAI TA AUSARTA PRINTZETATXUA JEZARRITA EGOAN LEKURA URRERATU... ORAIN BERA LAGUN IZANIK GAZTELUAN BIZI DA.

Bere bizkarrean bizkar-zorro bat eroan, beleak jarraitu.

Ba nik uste dot edur-narra bat zala, ba da beragaz urten eta joan zan, nezkatilla-tuak esan eban.

Baleiteke, ba ni beragandik ez nengoan ur. Baña nire emaztegaiak edestu eustane-tik, gaztetxua gazteluko ateetara eldutean, bere aurrean atezain batzuk guztiak euren zidarrezko buru-babes eta urrezko oskoletan sarturik sei astokumatxu ikusiko baleuz bezela uzkurtauaz, oztaz oztaz agurturik esan eban:

Ze azpergarria izan bear dau egun osoan olan or egotea, zutunik, zutik, etan tenten. Eta ori esanik jauregiko areto izugarrietan sartu. An jauregian, txingar bezela bertako gauza guztiak dirdirutzen eban, an morroi-nagusiak, otsaiñak eta jauregi-lagunak danak joiazan izugarrizko apaitasunez jantzita, arri-bitxi ta urrezko ontzi dizdiratsuak eroezela... Ikuspegi a naikoa zan, iñoiz alako oparotasun eta arrandisko jarduera artean ibiltea oituratuta ez egoan bat bildurtzeko. Baña gaztetxua ez zan bildurtu, ez eban ikerarik, aurrera jarraitu eban bere oski saratsuen arduragabe.

Bai, bai, Kay zan!, barriro Gerdak esan eban. Oraintxe gogoratzen naz, zelan egun areitan lenengoz oski barri batzuk ipiñi ebazan. Bai, entzuten dodaz zelako ibilkeran egiten ebazan.

Bai, alan da, beleak bere izketan jarraitu. Berak, Kay, ausarti errege-aulkira urreraturik, ikusi eban zelan bere erreselpen, errege-aulkiaren, erreselpen printzetatzua egoala.

Ze ausardia!, biotz-arrimenez Gerdak esan eban. Eta belatxua, esaidazu, lortu eban bere guraria, naia, Kayren naia, erregiñ-gaiaren eskua edo baimena printzetatzuaz eskontzeko?

Gauza bat dirautzut, belea izan ez banintz, printzetatzuaren eskua niretzat izango zan.

Gaztetxuak ederto berba, itz, egin ebala diñoe, nik neure izkuntzan, beleen izkuntzan, berba egiten dodan ain ondo. Beintzat ori da nire emaztegaiak esan eustana. Bear ba da, bera, gaztetxua, printzetatzuaren jakin-onuak artzen uts utsik joango zan. Eta antza danetik biak ederto alkar ulertu ziran.

Jakiña, ori Kay da! Gerdak, geroago ta pozago, iñoan. Bera da, bai, bera ori egin leikena! Bazenki, belatxu maitea, Kay zenbat gauza dakizan egiten! Matematikatan gitxienez kebradotararte, eta beste gauza azko ta azko geiago. Belatxu adiskide, zergaitik bere albora ez naraazu? Zure laguntzaz beingoan aurkituko geunke.

Juu! Zuk, umetxua, guztia ikusten dozu errez errez, beleak iñotsan baña ez dakit, bear ba da, nire emaztegaiak arazo onetzaz zerbait, zeozer, egin leike, besterik ez ba da be, onu on bat izango dogu, beragandik onu on bat izango dogu. Baña gauza bat adierazi bear dautzut, zulako umetxu bateri guztiz gaitz izango jako errege-gelatarazartzea.

Orretzaz ez eizu izan ardurerik, nezkatillatxuak iñotson. Balciteke, Kay ni an, jauregian, nazala jakitean, jakin orduko, gaztelutik urtetea.

Beleak bere buru baltza mugidurik, eta umetxuari mezedez eskatu autsan, bertan mugidu be egin barik itxaron egiola. Bertatik egazka aldendu zan.

Gerdak ez eban jakin inoiz ze denpora itxaron bearko eban, baña belea itzuli zanean guztiz berandu zan.

Kraa! kraa!, belea karraskatu eban. Olan umetxua! Nire emaztegiagandik bere itzalik zintzoenak opatzen dautzudaz, eta baita be, berak bere sute, sukaldetik zuretzat artu dauan ogitxu au. Ooo! Ez zaitetz arduratu! An ogia ugari da ta zu zalantza barik goze izango zara.

Bere arazotzaz, esan bear dautsut ezin izango zarala sartu, zu oiñutsik, ortotzik, zabiltz ta an dana da girgillikeri ta aundikeria. Beraz, jauregia zaintzen dagozan gudariak ez dautzue euren aurretik etxe barrura igaroten itxiko. Baña orregaitik, ez zaitetz atsekabetu, asmauko dogu zelan edo alan bertara, jauregira, sartzeko erea. Nire emaztegiak etxe atsetik jauregira sartzeko elbide bat ba daki. Eta elbide orretatik artez-arte, zuzen-zuzen, errege-logelatara joango zara.

Au esanik, gazteluko baratzerantz abiatu ziran. Apur bat geroago, Gerda arri-mailla batzuz aurrean egoan, aurrez-aurrez egoan. Arasa baten ganean esku-tximits bat biztuta, argitan, eta apur bat gorago tranpal baten bela-otzandu bat eroapentsu zerbait, zeozer, itxaroten. Bela-eme bat zan, Jakiña, umetxuak laguntza izan eban belearen emaztegia.

Guztiz atsegintsu naz nire apal-otseintzak eskeintzerakoan, guztiz apal belearen emaztegiak esan eban. Nire senargaiak, beroregandik guztiz ondo berba egin daust, berorretzaz begikotz itz egiten dau. Zuen arazoa benetan biotz-bigungarria aurkitzen dot. Goazen ba, artu eizu zure eskuetan tximist-argia au ta jarraitu eistazu. Ez izan bildurrik, emendik ez dabil inor...

Baña Gerda ez egoan bat be nasai, ba da bere atsean, orma ganean, kerizpe bakan batzuk ikusten ziran, batzuetan zaldi bat abiada itzalean, lauoinka, iruditurik, beste batzuetan basurde bat, basatasun izugarriaz erasoten.

Belearen emaztegiak nezkatillatuaren artegasuna nabariturik, ikusten eban guztia ameseta bat zala azaldu eutsan.

Lo-gizon ospetsuaren asmamenak daroez aurakaz, inoan belea. Eta gizon ospetsuak beti dira eiza-aldiak gogoratzen.

Guztiz,... guztiz bakan... aldiska ta ikeratuta, Gerdak inoan.

Bai, alan da. Eta uste dot, umetxu maitea, inoiz goi andigarriak lortzen ba dozuz, zure biotz-emonkorra agertzeko aukerea izango dozula.

Orretzaz egon zaitetz guztiz ziur, Gerdari erantzuteko astirik emon barik, belea erantzun eban.

Lenengo sartu ziran gelan, ormak oil-gorri bizi lora arrotzak pitxituta irudituz ertzatuta egozan... Gero beste gela batera igaron, geroago beste batera. Gerdak zearkatzen eban gela bakoitza, bata bestea baño apain eta girgir-oparotsuagoak ziran... Euretarike baten, nezkatillatua ango oparotasuna ta aundikeria ikusirik, arrituta, erdi-amesetan bezela ao zabalik geratu zan. Azkanean logelara eldu ziran. Eta zelako logela!

Logela osoak, arrain-kuskur bat irudituz, bere barnean egizko, bene-benetako,

izugarria agertzen eban. Bertan, gela guztiz aberats aretan, Gerdak, larrosa-erbatz aundi bi iruditzen ebezan ogetxu bi ikusi ebazan. Lenengoa guztiz margo zuriduna zan, eta beratan printzetatzuak egiten eban lo. Bestea gorritzeka ta Gerda oge onetarantz abiatu zan, Kay bake ta atsegintsu ikusiko ebalu ustean. Ogetxu lilluragarri-rrira urreratutik, bere ganean apur bat kirikatu zan... ames-eten negargarria nezkati-llatxuentzat! Ez, ez zan Kay beratan lo egoana, printzipea baño. Onek Kayren antzera sama baltzizka bat eban. Barriro gela aretatik itzalak igaron ziran, zaldunak euren zaldiak lauanka irudituz, illuntasun aretan Gerdantzat arrigarria zan ikuspegi au. Onetan lo egoana izartu.

Egi-egia, Kay ez zan. Printzipeak Kayren antza saman uts utsik eban, baño Kay bezela gazte ta ederra zan.

Bere oge zuritik, printzetatzuak bere begiak zabaldu ebazanean agerraldi a ikusi eban eta zer jazoten zan jakin gura izan eban. Gerda atsekabetuta, saminkiro negarrez asirik, printzipe ta printzetatzuari bere kondaira edestu eutsen eta bere naigabean bela bikoteagandik izan eban laguntza.

Nezkatilla errukigarria! biak batera esan eben.

Alkarizketan jarraiturik, beleen buruz izugarrizko goralpenak izan ebezan, eurari adierazoz, orduan ez egozala bat be asarraturik, baño ori bai, geiagotan jauregira ixillean ez zirala sartuko, zin egin bear izan eben.

Alan da guztiz be, printzipeak esan eban, sari bat merezi dozue.

Bai orixe, printzetatzuak, baiezatu eban. Azke izan gura dozue, zuentzat atsegintsu diran tokietara egazka joan zaitezen? Ala Erregetxean betirako lantoki on bat gura dozue, suteko, sukaldeko, ondikiñakaz ordainduta?

Bela bikoteak ez eban ezer esan, ixil-ixilik geratu ziran, gogarte labur baten ondoren, gazteluan lan-toki on bat gurago ebela erantzun, ba da biak be, egazti biak, urte asko ebezan euren egoen ganean eta zoritxarrez eta aldia be, zer ikusi leitekean ez jakiñik, batera ta bestera egazka ibilteko ez ziran bat be egokiak.

Gerda lo-gura zan, loak erdi-illik egoan eta printzipeak biotz-onez bere oge berbera opa eutsan, bera, printzipea, beste gela batera gaba emoten joanez.

Gerdak bere eskutxu txikiak alkaturik, eguneroko otoiak egin eta nasai-nasai lo egin eban. Bere amesetatan barriro be, itzalak ormatatik laun-laun laprast egiñez, baño apur bat geroago itzalak apurka-apurka argitzen joiazan, azkenean zeruko aingeruak irudituz biurtuta. Aingeruak bultz egiñik edur-narra bat eroen narraz, eta bere ganean, edur-narra ganean, Kay bere adiskide maitea kiñuka joian.

Jakiña, guzti au, ames uts uts zan, eta ameseta guztiak bezela, Gerda izartu zan orduko ezereztu ziran.

Biramon goizean, nezkame batek burutik oiñetara, seda, raso ta oil-guriz jantzi eban eta Printzipeak eurakaz jauregikideak izatea gura ebalu adierazo eutsen. Baña Gerdak Kayez egotea, gura eban eta barriro bere billa joateko, Kayren billa joateko, laguntza eskatu eutsen.

Olan izanik, narruzko txartres eder bat, oski eder batzuk edurtzerako ta ganera



KAY EGOAN TOKI-
RA JOATEN LAGUN-
DU EGIOLA GERDAK
BELEARI ESKATU, ERREGUTU
EUTSAN, ETA BELEAK ONTZAT
ARTU EBAN, BERE EMASTE-
GAIARI BAIMENA ESKATU
ONDOREN...



BAÑA ZORITXARRA, PRINTZIPEA EZ ZAN KAY.
ERREGE-ERREGIÑA IZARTU ZIRANEAN, GERDAK
JAZORIKOA EDESTU EUTSEN.



GAZTELUAN GERATZEA ERREGE-ERREGI-
ÑAK ADIERAZO EUTSEEN, BAÑA NEZKA-
TILLATXUAK BERE ADISKIDE MAITEA BILLA-
TZEA ERABAGI EBAN. NARRUZKO ERO-
GAIN BAT, OSKI BIKOTE BAT EDURRERA-
KO, ZALDI-BURDI URREZKO BAT BERE ZAL-
DIAZ, BURDI-GIDARI, MORROI BI JAN-
ORNI UGARI OPA EUTSOEN. BELAK
EGUN ARETAN ESKONDU ZIRAN... ETA
BELA-ARRAK BOST MILLA BITARTEAN
LAGUNDU EUUTSAN. GUZTIZ MAITE
EBEN...



zaldi bat eta urrezko zaldi-gurdi a bere ate txikitxuetan Printzipearen armarría margoztuta eroala. Baña guztia au, Printzipeak ez eban naikotzat artu ta euren mendean ezarri ebazan morroi bi ta gurdi-gidari bat. Zaldi-gurdira igoten be, printzipeak, andra-gizonak, eurak lagundu eutsoen eta belea, egun beratan bere emaztegi az eskondua izan zana, bidalian bost millan laguntzeko eskeiñi zan.

Bela-andreak bere ego baltzak astindurik, Gerda agurtu eban, biotz-biotzez sentitzen eurakaz joan eziña. Bada berak, bele-andreak buruko miña eban, bear ba da bere egin-bear barriari larregi jateko era eban ta ziurki onek, larregi jateak kalte egin eutsan.

Printzipeak, jan-edari ornitzeakaz, ez ziran aitzu, otsarakada txikitxu bat gozokiz beterik eta zingí-bereziko ogi bat, zaldi-gurdi barneko aulkipean ezarri autseezan.

Agur Gerda, agur!, Printzipeak oiuka iñoen.

Eta Gerdak bere buru txikitxu polita, leiotillatik atarata, bere eskutxua mugidu eban azken agurra egiñik. Bitartean gela-andrea negarrez geratu. Apur bat geroago, bost lenengo millak igaro ebezanean, nezkatiñla maitea, bere biotzean ain maitekiro sartu zan nezkatiñlatxua agurtu bear izan ebanean, bela-arra be negarrez egoan, Eta, beraz, zelako negarrak!

V

Nezkatiñlatxu lapurra

Baso kerizpetsu bat zearkatukeran, inguru arcitatik ebiltzan masuri ugariak, ustegabe oiú ikaragarri bat egin eben.

Begira, aditu zelako zaldi-gurdi ederra!

Zelan dizdiratzen dauan!

Urrezkoa da! Urrezkoa! Goazen bera jabetzen!

Eta txistu bera be baño ariñago, gure nezkatiñlatxua, Gerda, lapur gaizto oneikaitik atxilotua izan zan. Lapurrak, mausariak, ostera ez ziran izan ain errukitsu, morroi biak eta gurdu-gidariagaz, irurak il ondoren nezkatiñlatxua basoko abaro naspillatsuenara eroan eben. Bertara elu orduko, taldeko nagusiaren emazteak, andratzar izugarri bat, zaldi-kimalako bizarrak ta betauleak bere begiak estaltzen ebezala, marmaratu eban:

Ze lodikote ta guri dago nezkatiñlatxua! Ongaiñlu edo pepotorian abazuzituko dogu, saltzatuko dogu!

Baña orduan andratzar aren alabea bitartean, tartean, sarturik esan eban:

Ez, ez dot gura al daizun, ba da niretzat gura dot, beragaz jolastu al izateko!

Andra aren alabea guztiz alditsua zan eta ganera gaiztoa. Bururatuten jakon guztia egiten eban eta Gerdaren zaldi-gurdia ikusirik, Gerda bere ganean, zaldi-burdien ganean, ezarriazo eban, eta basoko arriarte batetik lapurtxuak Gerdagaz ariñketa baten urten. Lapurtxua, andratzar aren alabea, Gerda ariñako luzea zan, baña aurpegi baltzicka ta begirakune goibelkoa.

Zu nigaz ona ba zara ta nigaz iñoiz be asarratzen ez ba zara, zelan edo alan lortuko dot il ez zaiezen. Zelan daukazu zaldi-gurdi ain ederra? Bear ba da erregiña anbat zara?

Ez, Gerdak erantzun.

Eta orduan Gerdak, bere gertaera guztiak, bere kondaira osoa, edeztu eutsan, Kay maitea aitzuta itxi barik eta zenbat maite eban adierazoz. Bere edeztutzea amaitu ebanean, negarrari emon eutsan eta bere lagunak, lapur txikitxuak, bere negar malkoak txukatu eutsazan.

Apur bat geroago etxetzar batera eldu ziran, etxe itxura txar, gaiztokoa benetan. Lapur-talde aren egoitza zan. Bertan guztia zan ezotasuna, guztiz zaarra, alde guztietatik arrakalduta egoan, tarte guztietatik, bitarte guztietatik, aizea sartu. Teille-tuko zulo batzuetatik nozean bein, nozbaiten, egazti-arrapatzaileak agertzen ziran. Gela illunetatik txakur aundi batzuk ebiltzan, oneik atzipen-txakurrak ziran eta auzi, zaunka, egitea eragotzita eben. Ori bai, otso gozez illen antzera, usterik-gabe norberan ganera etozan.

Areto aundi baten, Gerdak su eder bat ikusi eban. Ke-zulopean lapiko aundi baten zerbait, zeozer, egosten eukien. Bitartean erregallu eder baten erbi guri korda bat erretzen ziarduen, erbiek apurka apurka, geldiro-geldiro, urre margoa artzen eben.

Gaur gabean nigaz eta nire abereakaz lo egingo dozu, nezkatilla lapurtxuak esan eutsan.

Jan eta edan eginda gero okollu batera baztertu ziran. Lazto-oge zatar baten ganean oe-aurreko oil loi batzuk zabaldu ebezan. Gerdak usotxu bi be ikusi ebazan, ormakako baten ezarrita erdi-lotan egozan. Nezkatilatxu biak eurakana, usotxuakana, urreratu ziranean, egazti areik euren egoak mugidurik egaz iges egin eben.

Danak dira neureak, neureak! lapurtxuak esan eban. Eta ortxe dago nire adiskide "Blae" be, jarraitu, bere adarretatik izotz-orein bat oratzen eban bitartean. Begira, begira, ze polita dan! Tupizizko gangar au daroa, neure operari bat da. Ondo be ondo lotu bear dot, beztela iges egingo leuskit eta iñoiz geiago ez neukę ikusiko. Jaa, jaa, jaa! Ba dakizu gaba bakoitzean zer egiten dodan? Nire aizkorearen muturragaz zirikatzen dot eta bildurrez erdi-illik geratzen da, ba da uste izaten dau ilgo dodala gero jan daidan.

Nezkatilla aren gaiztokeria ikusirik, Gerdá arritu zan. Gero aiztoa oge-aurreko-pean estaldu ebala ikusirik, itaundu eutsan.

Gabero egiten dozu lo olan, aizto ori or, ogepean, estalduta?

Bai, lapurtxuak erantzun. Iñoiz ezin lei jakin zer jazo leitekean. Baña esaidazu, esan eidazu, zergaitik joan ziñan ludian zear, ludia zeartzen? Zure adiskide Kaygaitik uts-utsean izan zan?

Gerdak barriro bere kondaira, bere jazokera guztiak, edestu eutsazan, eta uso batzuk lotan urrukatzen egozan bitartean, alkar-izketan jardun eben. Apur bat geroago, lapurtxua lo sakon-sakon baten geratu, osterá Gerdak gau aretan ezin eban egin lorik, il ez egian izugarritzko bildurra eban.

Kezulopeko suaren inguruan mausariak, lapurrak, edaten abeslari egozan. Andik lasterrera, luzaro barik, usoen urrukada maitegarriak entzun ziran. Gure izkuntzara itzulirik, apur bat gora-bera olan iñoen:

“Kay ikusi dogu, Edur-erregiñaren edur-narran joian, baso ondo-ondotik igaro zan, guk abia geunkan zugatzetik guztiz ur. Bere arnasea izan zan gure txorikuma guztiak il ebazana, gu biok bakar-bakarrik geratu giñan. Gu izan ezik beste guztiak il ziran.

Gerdak burua jaso eban eta usoei begiratu, esanez.

Zer diñozue?, guztiz artega iñoan. Zergaitik ez daustazue esaten dakizuen guztia? Edur-erregiña norantz joian? Norantz bideratu zan?

Laponiara bear bada, lurralde gogor eta izoztua, urte osoan edurra kendu barik egoten dan lurraldetara.

Izotz-oreiña atxilotuta dauan nezkatillatxuari, itaundu eiozu.

Baña abereak, izotz-oreiñak, berbea arturik aurretu, ta Gerdan itaunari itxaron baño lenago, berak esan eban.

Jakiña da, Laponian otz izugarriak izaten dirala ta edurtze aundiak. Arrigarrizko toki aretan, Edur-erregiñak udaro bere etxeauntza ezartzen dau. Baña bere jauregitik iparburuko ebo urrago da.

Non? Non?, guztiz atsalkoi Gerdak itaundu eban.

Izaro urrun baten, Spizter deritxona.

Biramonean Gerdak, usoakandik entzuneko guzti-guztia lapur txikitxuari edestu autsan. Nezkatilla-lapurtxuak bene-benetan zin egin eban, Gerda laguntzen saiatuko zala.

Taldeko gizonak urtetean, nire ama bakar-bakarrik geratuko da, nezkatilla lapurrak ixilean esan eban. Orduan nire amak, oitura dauan bezela, zurrutada gozo ta luze bat egingo dau ta ziurki lotan geratuko da, lo-zorrotxuan, egunero egiten dauan bezela. Orduan izango da garaia zuk alde egin daizun, zu aldendu zaitez. Ikusiko dogu ia lortzen dozun alde egitea, iges egitea.

Guzti-guztia jazo zan lapur txikiak esan eban bezela, lez, eta onek izotz-oreiri iñotsan:

Bein eta barrero nire mendi-aiztoakaz zu ikaratzea atsegin izango litzaket, baño ez, azke itxiko zaitut. Azkatasuna itzuliko dautzut, zure laterri Laponiaraño ariñeketan joan zaitez. Baña mezede baten ordeiz izango bearko dau, Edur-erregiñaren jauregi nagusira Gerda eroan eizula, beratan antza danetik eta entzun dodanetik bere adiskide Kay bizi da.

Bai, zergaitik ez, zelan ez, azkatasuna, izaki baten altxorrik bereziena da, poza siñistu eziñik, azke izango zala antzutean, izotz-oreiñak iru bira aidean egin ebazan eta agindua betetzeko gertu egoan. Lapur txikiaren guraria lortzeko. Nezkatilla-lapurrak izotz-orein lepota igoten lagundu eutsan, gero ondo be ondo lotu eban, izotz-oreiñak ariñeketan egiñez lurrera jauzi ez eiten eta beraz sauritu. Orrez ganera urdai-azpiko apur bat eta ogia opa autsazan bidaldian gozez il ez eiten.

BASO BAT ZEARKATZEAN, TXORITXU BATZUK
ATXILOTU EBEN, BURDI-GIDARIA TA
MORROIAK MENPERATU ONDOREN. NAGU-
SIAREN ALABEAK BERA, GERDA, BIZIRIK ITXI
EGIELA ESKATU EUTSEN, GABA ARETAN BERA-
GAZ JOLASTEKO...



KAY EDUR-ERREGINA-
GAZ IKUSI EBELA,
USOTXUAK ESAN EU-
TSOEN, IZOITZ-ORIÑEK
LAPONIAN BIZI ZALA
ESAN EUTSOEN. NEZ-
KATILLA-LAPURRAK
LAGUNTZA OPA EU-
TSON GERDARI, ETA...

IZOITZ-OREIÑA, AZKE
ITXIKO ZAITUT, GERDA
EDUR-ERREGINAREN
GAZTELURA EROATEN
BA DOZU.



IZOITZ-ORIÑE
LAU-ANKA ARIN
ETA INDARTSU ABIATU, GERDA BERE
LEPOAN EROALA. LATERRI AZKO ZEARKATU
ONDOREN, AZKENEAN LAPONIARA ELDU
ZIRAN...

Gerdak bere ongillea biotzez agurtu eban, eta izotz-oreiñak pozez, saltu bat egiñik baso artetatik izugarrizko ariñeketa baten abiatu zan... Lurralde areik laster itxi ebezan ostean, eta ozin, mendi ta ibarrak arin zearkatuz. Gerdak, geroago ta urrago, otsoen orroak argi-argi entzun al izan ebazan. Ipar-aizearen txistu zorrotza be entzuten zan. Eta goian, ortzian, zeruan, gorri-miñezko erresel aundi batek dizdiraturik, guztia gorri-gorri ikusten zan.

Nire laterri maiteko argiak dira, izotz-oreiñak azaldu eban. Ez dozuz ikusten bere sorgin-dizdiraketak?

Bere laterri urrun a, geroago ta urrago eukala ikusirik, geroago ta abiada aundia-goan, izotz-oreiña joian, azkenean bere erri maitea, Laponia, garetzirik. Nezkatilla lapurtxuak emon eutsazan urdai-azpikoa ta ogia, ordurako Gerdak amaitu ebazan.

VI

Emakume bi. Laponia ta filandetarra

Izotz-oreiñak bere bidali gogotsua txabola itsusi baten aurrean amaitu eban. Bere barnean, su-gar eder baten aurrean laponiatar andrazko bat ikusi al izanik. Emakume au arraiña erretan egoan. Izotz-oreiñak leiatsu, andra oneri nezkatillatxuen kondaira osoa edestu eutsan, baita be aurreraturik bere mezua adierazoz, benetan berantzat argitasun au garrantsitsua. Bitartean Gerda erdi-otzak illik berbarik be ezin eban egin, itz be egin eziñik egoan.

Damu naz, sentitzen dot, laponiatarrak iñoan. Baña zure bidali guztiz neketsuaren amaia ondiño ez da eldu. Edur-erregiña aldi onetan Finlandian aurkitzen da, Finlandiako lurraldetan, bere menpe-lur zabalak ikustatzen eta gabero argi urdiñak biztuten... Baña ez zaitetz orregaitik arduratu, nire laguntza izango dozu, nik lagunduko dautzut. Paper-orririk emen ez daukadan lezkero, makaillo legor-legor baten eskutitz bat idatziko dot, eta zuk filandiatar nire adiskide bateri eroango dautsazu ta berak nik al dodan baño obeto azalduko dautzu, jakin-araziko zaitu.

Laponiatar emakumeak esan eban bezela egin eban. Makaillo legor-legor baten lepoan, lepo ganean idaztea amaitu ebanean, eskutitza Gerdari emon. Bereala izotz-oreia lau-anka ta ijutika abiatu zan, bere zama berezia beragaz eroala. Mendi-lamiaren dizdira urdin, eder eta lilluragarriak, Ipar-lurraldetako amaibako gaba argitzen eben.

Arterako baño bidali azkoz neketsuagoren ondoren, filandiatar andrearen etxe txikitxu aurrera eldu ziran. Egoitza, etxea, ate bakoa zan ezker, kezulotik deitu bear izan eben.

Euren deadarretara, andratxuak beingoan urtenik arrera guztiz begikoa izan eben eta gure lagun biak barrura eroan ebazan. Su-gar eder baten alboan ederto beroturik, bereala bizkortu ziran. Filandiatarra, egia esan, apur bat loia ta tolasgabea iruditzen eban. Laponiatar bere adiskidearen eskutitza bereala irakurri, iduntsi, eban. Esan dogun bezela eskutitz au, makaillo legor baten lepoan idatzia izan zan. Andratxuak

LAPONIATAR EMAKUME BATEK EDUR-ERREGIÑA FILANDIAN EGOALA AZALDUKIK, MAKALLO LEGOR BATEN BIZKARREAN, BERTAN, FILANDIAN, BIZI ZAN BERE ADISKIDE BATENTZAT ESKUITZ BAT EMON AUTSON, BA DA ZIUR ZAN BERTARA ELDUKERAN BERE LAGUNTZA IZANGO EBALA...

25



EDUR-ERREGIÑA GANE-
RATZECO AMABI GIZON
BATEN INDARRA
BEARKO DOZU.

FILANDATARRAK ESAN EBAN LEZ,
IZOITZ-OREIÑAK GERDA MALLUKI
OLESI BATERAÑO EROAN. EDURMAL-
KO LODIAK ZEMAKARI URRERATZEN
ZIRAN, BAÑA NEZKATILLATZUAK OTOI
EGIN EBAN...



ETA BERE ARNASEA AINGERUAK EUREN
BURU-BABES ETA ZIDARREZKO ERREDOL
BIURTURIK EDUR-MALKOAK EZERESTU EBE-
ZAN ETA GERDA EDUR-ERREGIÑAREN GAZ-
TELURAÑO EROAN.

eskutitza irakurtea amaitu ebanean, barriro izotz-oreiña nezkatillatxuaren kondaira edestuten azi zan.

Zuk bear dozu, umetxu maitea, filandiarrak esan eban, amabi gizonen indarra, zure guraria, lortu daizun, zeozer berezia artzea. Orrelan Edur-erregiña menperatzea al izango dozu ta beraz zure adiskide Kay maite bir-eskuratu.

Amabi gizonen indarra!, guztiz arrituta Gerdak esan eban.

Ori, ori, baieztatu eban izotz-oreiñak.

Filandiarra alase baterantz joan zan eta bertatik larruki bat artu ta biribildua zabaldu, marra bakan-bakanduna zan eta emakumea bera irakurri gurean ebillen. Larritasunak eraginda bere bekoki zimeldun aretatik izerdi dariola zan. Irakurte ostean, izotz-oreiari deiturik, biak txabola aretako okullu batera joan ziran, eurak biak bakar-bakarrik, eta toki aretan zan ixiltasunean esan eutsan:

Kay txikitxua ondiño bizi da, bizi da bai, Edur-erregiñaren Jauregi Nagusian. Izugarri ta oparotsu dan leku aretan, gura, nai, ta ames egin leikean aiñako dauka, pozik bizi da, ludian tokia a baño leku atsegingarriagorik ez dagola uste daualako.

Mutil gizajoa! antzirika izotz-oreiak esan eban.

Ez dozu larritu bear. Ez zaitetz larritu, filandiar emakumeak jarraitu. Ori da, bere biotzean beira zatitxu txiki-txikitxu bat sartu jakolako. Eta atara edo kentzen ez jakon bitartean, arterako gizontasun izatera ez da biurtuko. Eta Edur-erregiña betirako bere jaun-andra ta jabea izango da.

Lagundu eiozu Gerda txikiari, berak bere aldetik bere adiskidetxuari lagundu daion, izotz-oreiak mezedegarri esan eutsan.

Tamala dot baña beragaitik ezin dot ezer egin, berak orain dauan, daukan, onbidea baño besterik ezin neikio eskuratu. Ausnartu eizu apur bat, izotz-orei laponiatarra! Begiratu eiozu Gerda txikiari! Ez dozu ikusten nire zital-edarien bearzanean orain ez dala aurkitzen, berak alduntasun naikoa daualako? Begiratu eizu zelan abere, egazti ta gizonak bearturik diran, bere mendu ta zaintzen. Beragan onbide erion zerbait da eta onbide indarra bera baño be altsuago da. Beraz ez dago bere alduntasunagaitik barbarik, itzik, egin bearrik, ba bere biotz apalean daroa ta bertan, zalantza barik, jagon, zainduko dau, bere erru-gabetasuna dauan bitartean. Bera bakar-bakarrik, naiko da iñoren laguntza barik, gauza da Edur-erregiña aurkitzeko, bere garaipean ezarri ta Kayri bere biotzean eradonduta daukan beira zatitxua kentzeko. Gerdak ezin ba dau egin, gureztat azkoz be gaitzago izango da lortzea. Entzun eizu, filandiar emakumeak jarraitu, emendik bi milla bitartean Edur-erregiñak dauka bere baratza, eta zuk nezkatillatxua bertaraño eroan zeinke. Troka baztar baten aurkituko dozun maulluki-latesi baten nezkatillatxua itxi eizu ta bereala itzuli zaitetz.

Minutu batzuk geroago Filandiar emakumeak nezkatillatxuari lagundu eutsan izotz-oreiaren ganera, lepora, igoten eta onek astirik galdu barik lauanka abiada itzelean urten.

Abiatu orduko, Gerdak bere oin eta eskuetan otz ikaragarri bat nabaritu eban. Bere edur-oskiak eta esku-narruak aiztu jakozan!

Filandiatar emakumenera itzuli gaitzezan!, erreguz esan eutsan. Baña izotz-oreiak ez eritxon egoki itzultea, ta bere bidean lenagoko baño abiada aundiagoan mallukilatesiñaro jarraitu. Toki onetara eldu ziranean, bertaraño eldu ziranena, izotz-oreiak gure nezkatillatxua, tamalez, bide alboko edur izoztuan itxi eban...

Bildurrez erdi-illik eta guztiz otzez izoztuta, Gerda ariñeketan abiatu norantz joan ez ekiala ta edur-malko aundi batzukaz topo egin eban, Edur-malko oneik goiko edoietatik ez ziran jauzten eta gertaera onek nezkatillatxua guztiz arrituta ezarri eban. Edur-malko areik gizaki bizidun bezela aurrera ta aurrera oiñez joiazan. Nezkatillatxuarantz urreratzen ziran bitartean, aundituak ziran, geroago ta aundiago dirudien. Bear ba da, Edur-erregiñaren indar-aurrelariak ziran? Bere gudari edo ertzaiñak?

Eta edur-malko areik zelako itxura miraragarriak iruditzen ebezan! Batzuk oillar luma bizkordun izugarritzkoak iruditurik, beste batzuk suge borobilloak eta beste apur batzuk lukutzar edo zapo lodi ta iguingarri, izugarritzko begirerakadadunak irudituz. Baña ori bai, danak zuriak ziran, edurra bera aiñako zuriak. Ortzi-muga urrunetaraño zabaltzen ziran, otsein eta morroi menpeko zintzoak, itsu-itsuak. Edur-erregiñaren morroi oneik olakoak ziran.

Beingo baten, Gerdak ze bide artu ez ekian. Azkenean bere eskutxuak alkartu ebazan eta Aita-gure bat otoi egiñik, bere gorputz osoa, soin osoa, otzak eta bildurrak eraginda ikaraz eban. Ain itzala, ain gogorra zan toki aretako otza, nezkatilla gizajeak, bere arnasa ber-bera bere abotik urten orduko lurrunka, biurturik ikusi al izan eban. Arnasea apurka-apurka, geldiro-geldiro, trinkotzen asi ta minutu batzuk geroago egiazko aingeru batzuen itxura miraragarria iruditu. Oneik aundituz-aundituz, beko lur gogor eta izoztua jo eben. Guztiak euren buru ganetan buru-babesa eroen eta euren eskuetan zidarrezko erredol ederra... Gerda otioz egiten ziardula, aingerutxuak zenbakiz geituak ziran, eta azkenean, Gerdak Aita-gure otoia amaitu ebanean, aingeru-samalda izugarriaz inguratuta ikusten zan. Aingeru oneik edur-malko ikaragarri areik eraitsituta millaka zatitxutan ezereztu ebezan. Bereala aingerutxuak nezkatillatxuaren oin eta esku txikitxuak igortziaz bere gorputz osoa berotu al izan eben. Eta nezkatillatxuak otza beragandik aldendu ebanean, eta bere gogoa bizkorturik, Edur-erregiñaren Jauregi Nagusirako bidea artu.


Baña bitartean, zer egiten eban gure Kay txikiak? Ez eban asmatzen, ez, ziuarki, ze ur aurkitzen zan bere adiskidetxu Gerda. Ze ur Edur-erregiñaren egoitzatik. Baña ikusi daigun zer egiten eban Kayk lurralde areitan...

VII

Edur erregiñaren jauregi nagusia ta beratán jazoten zana.

Jauregiko ormak, ate ta leioak, edurtze ta aize otzak eraginda edur izoztuaz gogortuta, arririk gogorrena bezela, egozan. Edurra zan euren ganetan ikusten zana, baña otzaren otzez arri biurturik. Eun gela baño geiago, guztitarikoak, errege-etxe

EDUR-ERREGIÑAREN ALBOAN
OTZ ETA GOGOLARI EGOAN.
GERDA BERE AURRERA ELDU,
TA EZ EBALA EZAGUTZEN
KONTURATURIK NEGAR
BATEN GERATU. BAREALA BERE
ARNASEAK KAYREN BIOTZA
BEROTURIK EDUR-ERREGIÑA
MENPERATUA IZAN ZAN...



ONETAN, IZOITZ-ORIÑE BEESTE ABEREKIDE
BATEAZ AURKITU EBEN ETA EUREN GANEAN
IGONIK ALDENDU BIDEAN, ORDURAKO ALAR-
GUNDUTA EGOAN BELEAZ
BERBA, IZI, EGIN EBEN...



EUREN AITA-AMAK ETA AMAMATXU EGO-
ZAN URIRA ELDU ZIRAN... ETA BETI BIZI IZAN
ZIRAN ONTASUN ETA ZORIONTSU...

izugarritzko arek eukazan, eta guztiak ipar-aldeko eguzki dizdiratsuak argituta. Etxe osoan, otza ta bakartasun ikaragarria zan jaun eta jabe, ori bai, izugarritzko dizdiraz lagundurik. Ez da aitzutekoa bertan zan azperaldia, toki aretako oarkirik bereziena.

Jauregi ta gazteluetan jazoten dan bezela, naizta errege-etxea izan, batzar, dantza ta jai aundikirik toki aretan ez zan ospatzen. Ospatu ba ziran, lur-buruko otsoak, eurak bakar-bakarrik, euren atseko anka-ganean dantzatuaz euren itxura lerdena erakutsiko eben. Egazti-ergel (pinguino) ta itxastxal, foka, be ez ziran epetzen, batzar-alai ta jandantzak egiteko. An ezin zeinkean ikusi ezer atsegingarririk, eta areto antzeko leku aundi-aundi baten, beste guztiak bezela edur izoztuaz inguraturik, zati askotan apurtua izan zan ozin eder izoztu bat egoan. Zatitxuak bata besteagandik bardin-bardiñak ziran, edozeiñek esan eitekean, ertilari anbatek egiñak zirala.

Edur-erregiñaren tokirik bereziena a zan. Bere bidali luze ta luzarotatik eltzen zanean toki a izaten eban bere egoitza bere nekeak atsedenduteko. Ete dakizue zergaitik zan? Jakitun-izpilluaren ganean jezarten zala uste izaten ebalako. Zekula ludian izan danik izpillu eder eta ondo-egiña.

Kay txikiak Edur-erregiñaren menpeko biurtu zanetik, bertan jolasten eban. Izaki, gizaki, otz, ainbatzaille ta menperakoi utsa biurtu zan. Alan da ze, bere jolasik bereziena edur zatitxuak alkartuaz eurakaz esaldi batzuk egitea izaten zanh. Baña iñoiz, iñoiz be, ezin izan eben lortu “Begikotasun” itza zatitxuakaz idaztea.

Kai maitea! Bere biotza izotz-zati bat bezela izoztua zan. Edur-erregiñak esaten eutsan, Betikotasun itza idazten ba eban, bere buruaren, bere izakearen, jaun eta jabe izango zala ta ganera oiñ-orratze polit eta guztiz barri batzuk opako eutsazala.

Naizta alegin guztiak egin, mutikotxuak ezin izan eban lortu bere guraria. Egun baten Edur-erregiñak esan eutsan:

Ara Kay, Egoaldeko lurraldetarantz urten bear dot. Beingoan urten bear dot bertako lurralde beroetara. Ba da leku batzutan nire egitaden bearzanean sarritan aurkitzen diran, batez be mats-ondo ta limoi-ondoak aurrerako urteetan uzta ugari-tsuagoak izan dabezan. Igali geiago euki daien.

Edur-erregiñak, Kay gaztea jauregi izugarri aretan bakartasunik aundiñean itxita, joan zan. Bitartean Kay bere izotz zatitxuakaz jo ta ke ebillen, berantzat ain garrantsitu, ain ardura aundikoa zan, itza idaztea lortu gurean, “Betikotasuna”.

Une onetantxe, jauregiko ate nagusitik Gerda oldarka, zeñetan, jauregian, zekula ta beti, aize izotzak gudari batzuk bezela bere zaintza egiten ebal. Nezkatiillatxua ez zan bat be uzkurtu ta otoitxu bat egin ondoren, aize izoztuak unetxu beratan, lo joateko guraria euren guztien, aize izoztuek, artean sortu eban bezela tolestu ziran. Gerdak guztiz nasai, amaibako areto iñor-gabe areik, zearkatu al izan ebezan. Azkenean Kayaz aurrez aurrez topo egiñik.

Kay maitea! Azkenean aurkitu zaitut! nezkatiillatxuak oiuka esan eban.

Baña bera, Kay, azpaldian bezela otz, urrun, bere izotz zatitxuen ganean, kezkatu, berantzat aztikerizko biurtu zan itza, izotz zatitxu areikaz idatzi gurean...

Gerdak, bere antziñako adiskide maitegandik izan eban abegi ain otza ikusirik,

samiñez negarrez luzaro ziardun. Aa gauza mirraragarria! Gerdan negar-malko bat mutikotxuaren bular ganera jauzirik eta indar geldiezin batek eraginda bere biotz barnean sartuaz izotz-zatitxua urturik, bertan aokatu zan ta beira zati txikitxua ezereztu eban.

Kay pozez beterik, bere begietan len galduriko alai ta oztargisuna berbiztuaz, bere adiskide maitea agurtu eban eta onek, Gerdak, antziñako abesti zaarra abestu:

*Larrosak ederrak dira, baña zimeldu eta ilten dira
Gu ez gara ilgo ta egun anbatan Jaungoikoa ikusi dogu...*

Abesti maitearen arazoaz, Kay be negarrez asi zan. Ain luze ta sakona izan zan bere negar-aldia, bere negar-malkoak sortu eben uriol edo ur-oldarraren indarrak eraginda begian eukan beira zati txikitxua, egoan lekutik kanpora atara eban, begitik kanpora atara eban. Orduan bai, Gerda ikusi ta ezagutu eban.

Gerda!, pozez beterik esan eban. Non nago? Non egon zara ikusi ez zaitudan aldi luze onetan, ain luzaro? Guzti au ze otz dago, Gerda!

Eta biak euren eskutxuak alkartu ta krutzaturik dantzan gardun. Ze zorientsu ziran une aretan. Eurak inguratzen ebezan izotz zatitxuak be, aintzat arturik bikote aren poztasuna, eurak alaitasunez bira-biraka dantzatu eben. Geroago nekatuta barriro lurrean etzun... eta ustegabe, naigabe, "Betikotasun" itza idatzi al izan eban.

Begira, Gerda, begira! Kayk oiuka iñoan. Oraintxe gogoratzen naz, zelan egun baten Edur-erregiñak esaten eustan itz ori, Betikotasun itza, izotz zatitxuakaz idatziko neban une beratan, ber-beratan, neure buru ta gogoaren jaun eta jabe izango nintzakela ta ganera, berak oiñ-orraze barri ta polit batzuk opako eustazala...

Jauregi nagusitik alkar eskutik oratuta urten, Gerda berba ta berba ixildu barik ziardun, Kayri bere amamatzaz, euren etxe, teillatutxua eta larrosa bien buruz itz egiñez. Egoitz otz, illun, aretatik urten ebenean, aize izotztua bera be gelditurik, unetxu labur baten lur-buruko lurralde izotzotua be ludiko toki atsegintsuenetariko bat biurtu...

Malluki-esparruen arrimen bat izan eben, bertan, beste bere sendiko bat lagun, nasai ta baketsu, Gerdaren adiskide izotz-oreia eurei itxaroten egoana. Gerdak agurtu ondoren, eta eurak biak alkar-ezagutueraziz, Gerda ta Kay izotz-orein ganean ezarri ziran.

Etixeratatuzkeko bidalia guztiz atsegintsua, zorientsua, izan zan. Izan be luzaro, norberan etxetik urrun, zendi, senide ta adiskideakandik bananduta, erbesteratuta izan eta egun baten gauza guzti oneik barriro eskuratuz gozatzea, ames-zoragarria da.

Lapurren, mausarien, basotik, baso albotik, igarokeran, Gerdak laguntza izan eban nezkatillatxua aurkitu eben, eta berak azaldu eutsen zelan bere ama ta taldeko beste guztiak, gaiñerokoak, erbesteratutak izan zirala, baña erbesteratutak euren gogoz.

Nik, jarraitu eban lapurtxua izanekoak, nire bizitza arteztu, zuzendu, dot, orain nire biziera guztiz ongarria da. Betirako ona izan gura dot, lengo bideetara ez naz geiago joango. Zuzen, langille, biotz-oneko nezkatilla bat aurrerantzean izango naz.

Azko be azko poztu zan Gerda, onu guztiz maitegarriak emon edo esan eutsazalako, eta izotz-orein bizkar ganean Kayez batera bere etxetxurantz abiatu ziran. Orduak geroago, barrero ustegabe arriturik geratu. Karraka-ots bat entzunik Gerdak burua jaso eban... eta an bere begien aurrean, an, ber-bertan belea egoan. Beleak esan eutsan zelan bere emaztea il zan, bere saman inguratuta eroan girgil baltza erakutsirik.

Eta Printzipeak? Gerdak itaundu.

Beste laterri batera joan ziran.

Belea agurtuz euren bidean joan ziran. Eurak aurreragotuten antzera, Udabarri be bere lora, txori-abesti ta eguzki argi ta dizdiratsuz bere lenengo agurak emoten ebazan.

Bereala, baso ertz bat zearkatukeran kanpai-ots bat entzun eben.

Gure uriko kanpiaiak dira Gerda!, Kayk iñotsan.

Eta alan zan, mutikoa ez egoan oker, andik laster, eleizetako kanpai-dorreak ez urrunegi, agertu ziran. Euren aita-amak bizi ziran sapa-gainaren teillatua be ikusi ta ezagutu ebela be, uste izan eben.

Ordu-erdi geroago euren etxeetan sartu ziran. An, larrosa alboan, guztiz eder eta azita egozan larrosa-ondo alboan, amamatxuk une beratan Idazti Deunan esaldi au irakurten eban.

“Umetxulakoak ez ba zarie biurtzen, gure Jaun eta Jaungoikoaren Erreiñuan ez zarie sartuko”.

Eta amamatxuk irribarre gozo-gozo bigun bat egin eban umetxuak ikusi ebazanean. Bere indar guztiakaz besarkadatu, negar-malkoak, bitartean, pozaren pozez izuriaz.

Abestu daigun, Kay abestu daigun! Iñoan Gerdak.

Eta abesti zaarra abestukeran:

Larrosak ederrak dira, baña zimeldu egiten dira

Gu ez gara iñoiz ilgo eta egun anbatan Jaungoikoa ikusiko dogu..., iñoiz baño obeto bere adieraztea, abestiaren adieraztea, ulertu eben.

Gero gizaseme aundiak izan ziranean, baña biotzez beti umetxuak, nasai, Ontasunaren bidean jarraiturik, euren biotzetan etengabeko Udabarri epel, nasai ta baketsua eroela, bizi izan ziran.

NEZKATILLA ARTZAIÑA TA KEDAR-GARBITZAILEA

Etxe baten bere eskaratz, sute edo sukalde-aurrean, ordutegi zaar-zaar bat egoan, antziñatako zaarregi bat, ziurki biramama anbaten ondorena. Ordutegi bakana zan, antziñako gauzarik geienen antzera.

Bere urte ugariak eraginda guztiz baltzituta, idi-biotzez alde guztietatik inguraturik estalduta. Lora oneik trebetasun bereziaz landuta orein edo basauntzen buruak iruditurik, ordulariak arasa antzeko zerbait sortzen eban. Bere barnean gizon baten irudia, au be zurez landurik ikusten zan. Irudiak gizon osoa agertzen eban, gizona gorputz osoz. Baña zelako irudia!

Egia esan, itxura barregarria eban, ba da gizon-irudiaren arpegian irribarretxua izan gura ebana, kiñu ganorabako bat zan. Orrez ganera irudiaren oiñak, gizonarenak izan bearrean akarranak ziran, bekokian adar txikitxu batzuk eukazan eta okotzean bizarra iruzoko bat goibera agertuz. Irudi arek lenengoz begiratzean eta arinka, deabru txiki baten antza, besterik ez eban adierazoten. Geroago, irudia bein eta barriro begiratuaz, eta etxekotu edo senidatuaz, len esan dodan bezela, deabru edo zerbait barregarriaren antza eban. Ordulariaz eta bere barnean egoan gizon-irudiaz, geien etxekotuta egozanak etxeko umetxuak ziran, eurentzat zenideko beste bat zan. Mariskalburusagilenengo, "Teniente nagusia" deitzen eutsoen, izena naiko gaitza esateko ikusten dozuen lez, eta orrek, izenak, berorrek uts utsean zeozer, zerbait, adierazo gura eban. Gela baztertxu baten ordulariak bere bizia emoten eban. Irudia segaillezko nezkatilla-artzaintxu baten aurrez-aurrez aurkitzen zan. Ler edo piñuzko oin baten lerdan bere gorputz txikerra ta biguna ageturik. Iguingarri ta deabru antzeko irudi aren ondoan nezkatilla-artzaiña zoragarrienetarikoa zan, bere kapel politagaz, bere oski txiki zurituakaz eta bere makillatxuaz, artzain-makillatxuaz.

BEIÑOLA ETXE BATEN ORDULARI
ZAAR ZUR-LANDU IZUGARRI BAT
EGOAN. UMETXUAK MARISKALABO-
LENENGO DEITZEN EUTSOEN...



SARRERA-GELAN NEZKATILLA-ARTZAIN, KEDARKEN-
TZAILLE TA BURUA MUGITZEN EBAN TOSKAZKO TXI-
NATAR BAT EGOAN...

ORDULARIAK IKARAGA-
RRIZKO SARATAK EGITEN
EBAZAN, ZUR-LANDU IRU-
DIA AZKO MUGITZEN ZAN
ETA MARISKALABOLENEN-
GO... NEZKATIL-ARTZAIN
ETA KEDARKENTZAILLEAK
IGES EGITEN EBELA.
ZUTOINPEAN BIKOTEA
BABESTU ZAN...



Beragandik eta ez urrunegi, beste arasa baten ganean, irugarren antzezki bateko egoan, bera be segaillez egiña, kedar-garbitzaille bat zan, kedarra bera baño be baltzagoa, gorputz osoa, eban baltz baltza. Baña alan da guztiz be, txukun eta dizdiratsu inor ez bezela, ba da kedar-garbitzaillea zala, iruditu uts-utsean egiten eban, bere ogi-bidea ez zan kedar-zuloak garbitzea, berak ez eban irabasten eguneroko ogia langintza loi, zikin, orretan. Batek errez asmau eitekean, iruditxu a egin eban ertiliariak, opil berberagaz eta bera asmakisuna olan izan ba zan, bardin-bardin errege edo printzipe bat egingo ebal. Baña olakoa zan Kedar-garbillatzea, arro ta dotoregia bere langintzarako. Arazo zan etxeko anbatek arasa ta irudi-oiña urreratzen ebazanean, iruditxu biak maitasun itzez eta txeraz beterik agurtzen ziran, gero alkar-izketan jarraitzeko. Egia esan, bikote polota egiten eben edo lortzen eben, biak ziran gazteak, toska bardin-bardina-gaz egiñak eta biak ziran kutun eta auzkorak.

Izaki edo irudi guzti oneikaz, gela beratan, beraz gelakideak ziran, txinatar aguretxu bat egoan, irudi onek zeintasun edo berezitasun bat eban, bere burutxua mugidu al izaten eban. Iruditxu au mai txiki baten ganean egoan, nezkatilla-artzaintxuagandik naiko ur eta baita be kedar-garbitzailleandik. Txinatarrak, nezkatilla-artzaina bere illobea zala baieztatzen eban, eta baiezatu ez eze zin be egin, baña gertakisun ori inoiz ezin izan eban adi-erazi. Orrez ganera, bere nezkatillatuaren aitita zala baiezatu ta zin egiten ganera, artzaintxuaren etorkisuna iragarri gurean ausartasunez sarritan itz egiten eban, zozergaitik zan sortaldekoa. Guzti au jazo zan, kedar-garbitzailleak nezkatillatuari itz-gozo edo limurkeri batzuk esan eutsazan egun baten, Txinatarrantzat egun orretako kedar-garbitzaillearen jokaerea ez zan izan bat be egokia.

Gauza bat ba dakizu, illobatxua? txinatarrak esan eban, bere begi txikiak adi-adi nezkatillatxuan ipiñita. Kaoba-zurezko, kaoba bene-benetako senar edo gizon bat izango dozu. Mariskalburusagilenengotenientenagusia ren emaztea biurtu edo izango zara. Aberatsa da, altsua da, ordularia be berana da. Zuk ez dakizu baña ordulari barnea zillarreriz beterik dago, zidarrezko mai-ontziz beterik.

Zekula be ez! Zekula be ez! artzaintxuak inoan.

Arasa zaar eta illun orretan bizirik, samintasunez ilgo nintzake! Zekula be ez ! Ganera entzun dot, or arasa orren barnean beste amaika iruditxu geiago dagozala, gordetzen dirala, guztiak nezkatillak ganera. Zer egin neike nik, ainbeste nezkatillaren artean?

Amabiko bat osotu, txinatarrak erantzun eutsan.

Egun batzuk joan ziran eta alako gaba baten sorkaldetarrak nezkatillatuari esan eutsan bere itxurea, nezkatillatuarena, apaindu egiala, ba da ordulari arasa sarataka asiko zan une beratan, irudi barregarri aren, kedar-garbitzaillearen eta nezkatillatuaren eskontza izango zala. Biar alkar-eskonduko zirala.

Ez, ez, zekula be ez!, nezkatillatuak oiuka eta oiuka inoan.

Txinatar agureak nezkatillatuaren deadar eta oiuei jaramonik egin barik, bere burutxua oitura eban bezela mugido eban, bere begi txikitxuak erdetsirik eta olan

TXINATARRA IZARTURIK EUREN ATSEAN
JOATEKO GERTU EGOAN...



28

BIKOTEAK AZKATASUN BIDEA ARTU EBAN, TEILLATURA ELDUKERAN, BERA, NEZKATILLEA, LUDI AUNDI AREN AURREAN BILDURTURIK ZUTOINPERA ITZULI GURA IZAN EBAN. TXINATARRA EUREN ATSEAN JOAN ZAN ETA ORDUAN ZATITU...

BERRISTU EBEN, BAÑA ARREZKO EZ EBAN BURUA MUGITZEN. ORDULARI IRUDIAK NEZKATILL-ARTZAINAGAZ ESKONDU AL IZANGO BALITZ ITAUNDU EUTSON. TXINATARRAK, GUZTIZ GOIBEL, EZ EUTSON ERANTZUN. ETA BIKOTETXUA GUZTIZ POZIK. ORDUTIK AUERRERA, NEZKATIL-ARTZAINAK EZAGUTZEN EZ EBAN EZER EZ EBAN GURA IZATEN...



geratu zan. Bitartean nezkatillatxuak bere arpegi atsekabetsua itzuli eban bere biotz-
maite ez ebanerantz, au ez zan besterik kedar-garbitzalle dizdiratsu ta dotorea baño.

Iges egin daigun!, kedar-garbitzalleak ixil-ixilean esan eban. Aldendu gaitzean
emendik! Egoera guztiz neketsua da zuretzat!

Ederto atezaiñak iñoan, intziri aundi bat egiñez. Ba zenkie zelako bildurra dodan
Txinatar orretan eta beste irudi itsusi ta izugarria orregaz bizi ta ibilli bearra!... Ixil une
bat egin ondoren eta lurrerantz begiratur, zorobio txiki baten antzekoa izan eban eta
saurituta min egiteko bildur zala esan eban.

Ez eizu bildurrik izan, neuk esango dautzut zer egin bear dozun zure toskaz egiñak
diran ointxu politik apurtu ez daizuzan, Kedar-garbitzalleak iñotsan.

Eta arreta aundiz adierazo eutsan zelan bere oin txikitxuak ezarri bear ebazan
idulki ganean eta baita be iñotsan zer egin bear eban gero, geldiro-geldiro beratatik
jaitseiteko, ezertariko miñik edo kalterik izan barik, altzarien anka luze batetik ziri-ziri
narraz egiñez.

Baña bereala ordularien-arasan izkanbilla itzela sortu, orein edo basauntz guztiak
euren buruak luzaturik, gure adiskidetu biak igeska nondik joiazan begirutzen
egozan. Orduan, "Mariskalkabolenengo.... ak" deabrutxu bat bezela oiuzantso
ikaragarriak egiñez eta ikotika, oiuka iñoan:

Iges egin dura dabe, iges!

Au entzutean eskonge biak guztiz arriturik, orain utsik zan irudi-oiñetarantz joan
ziran bere azpian estaltzeko. Toki aretan txirpillot-ertile bat aurkitu eben eta lau-
berrogeiko edo kartak jokorako. Jazo zana izan zan, aldi aretan ertile saio bat egoan
antzokian eta ikatz-argi erregiñak, biotz-erregiñak, espatak eta bastoak, antzoki txiki
aretako lenengo jearleketuan egozan, idi-biotz, tulipan, lira-ostoakaz gurkalari
aizeztuten. Euren atsetik sota-kartak buru bi eukezela adierazoten, bata gorantz eta
beste berantz. Antzokian iruditzen eben jost-irudi saioaren gaia, gazte bi, eskongek,
eskondur ezin izan ziranean buruz zan.

Artzaintxuak bere arazo ber-bera ertile-saio aretan iruditurik ikusita, negarrez
luzaro ta mamintsu ziardun.

Aaa ezin dot geiago!, bere laguntzailleagana begiraturik eta biotz-miñez bere
naigabea adierazota, esan eban! Bereala emendik ateratzen ez ba nozu, biotz-ikerak
eraginda ber-bertan ilgo naz!

Kedar-garbitzailleak bere laguntxu liraiña kanpora urten egian, lagundu eutsan,
baña zoritxarrez andik urtetan asi ziranean, Txinatarrak bere lo-zorrotik izartuta egoan,
ta bere gorputz zolia mugidu eban.

Txinatarra!, nezkatillatxuak oiuka iñoan Txinatarrak dator!

Gauza bat bururatu jat, kedar-garbitzailleak esan eban. Egia esan, gizontxu au
naiko azkarra zan. Baztar orretan, or dagon lorontzi aundi ori ikusten dozu? Ba,
beratan estaldu geinteko eta toki orretatik guztia ikusi, berak geu ikusten ez gaitun
bitartean. Eta iñor gu gagozan tokira, gure estal-tokira, urreratzen ba da, bere
begietara lurra botako dautsogu.

Aaa alperrik izango litzake! artzainak esan. Ez dakizu lorontzi ori txinatarrak dala ta sortaldetar agure orren alde dala beti? Ez, ezin gaitake estaldu or. Iges egitea baño beste urten-biderik ez dogu, iges ludian zear...

Eta gerturik zara nire atsetik ludi-zabal zear joateko?, kedar-garbitzalleak inñotsan. Bai gertu naz.

Kezulo ori baño beste biderik ez dot ezagutzen emendik urteteko. Ausarten zara bide ain illun eta iguin orretatik urteten?

Bai, zergaitik ez, guztirako naz gerturik. Txinatar agure ta ordulari-irudi izugarrien erpetan jauzi baño gurago dot edozein beste arazo.

Orduan, ba aurrera!

Kedar-garbitzalleak nezkaitillatxua eskutxutik kezuloraño eroan eban. Artzaintxua asieran zalantzas beterik egoan, baño unetxua ez zan izan luzarorako, bere lagun on aren atsetik ausarti kezulotik gora joan zan, igon eban.

Begiratu eizu or goian!, gizonak esan eutsan, kezuloaren azkena adi-arazik kezuloa kedar beterik egoan. Ikusten dozu tintoil dizdiratsu ori? Zeru-goienean eskegita dagon argi-izartxu bat da. A zerua da, umetxu. Kementsu artzaintxua, aurrera!

Eta nezkaitilla artzaintxua minutu bateko atsedetik artugabe, arrastaka beti gorantz joian, zeru goian dizdiratzen eban argitxua jaretti naian, gurarian, gogotsu ta bioztun.

Bidea guztiz loi ta baltza izan zan, goratze guztiz neketsua, toskaz egiña dan iruditxu batentzat, eta artzaintxua toskaz egiña zan. Baña kedar-garbitzalleak eutsirik eta bere laguntzagaz kezuloaren azkeneraño eldu ziran. Gero minutu batzutan jezarrita geratu, euren nekea arintzeko atsedetik apur bat artuaz.

Ze ikuspegi ain ederra! Igesle bien buru ganean zeru edo ortzi guztiz ederra, millaka izar txiki dizdiratzen ebela. Euren bean, euren oinpean, uriko teillatu ta zapaiaik urrunetaraño zabaltzen ziran. Zein izugarri ta lilluragarria ludia, Jauna!... Ludiaren aunditasuna, artzaintxuak zekula be ez eban asmau ain aundi ta zoragarria izan leitekela. Eta ain ezerezetat bere burua aintzat izanik, kedar-garbitzallearen sorbaldea bere burua zutikaturik, negarrez luzaro ziardun. Bere negar-malkoak ain ugariak izan ziran, bere otxarkinezko ugeltxuak be bere margo zoragarria galdu eban...

Ba dakizu? intziri ta intziri bitartean esan eban. Nire barnean betirik izan dot ludi zabala ikusteko gogo bizi-bizi bat eta bere aunditasun osoan zear ibilliaz, bere urrunetariko mugaraño eldu. Baña orain nabaritzen naz, konturatzen naz, or bean, irudi-oiñen ganean, arasa orren ganean, zein atsegintsu ta zorionsua nintzan. Egia ba da guztiz maite nozula, mezedez barrero eroan naizu gure lengo tokira. Barrero itzuli gura dot nire tokira.

Alperrik izan eban Kedar-garbitzalleak nezkaitillatxuari ulertu-azotea, beranduegi zala atzera itzultea, egin eben bidali, bitartea ezerezteko eta lenengo... irudi izugarria egoala. Alperrikoak izan ziran bere laztanak nezkaitillatxua lorindakatzeko. Artzaintxuak alkartu ebazan bere esku txikitxuak eta erregutuz, azkenean, jakiña, bere lagunak amor-egin eban, naizta bere eretxiz ausartasun alperriko bat izan.

Berriztu eben euren bidalia, oraingoan zuzen-bide ezbarदिनेan eta arterakoan bezela neketsu. Kezulotik zirika jaitsi kedar eta ke baltz eta illunetatik sute edo sukaldera eldu arte.

Azkenean burdin-xafla edo supin baten ganean euren oiñak ipinteko aurkitzen ziranean, zeozter, zerbait, bakana gela aretan nabaritu eben. Ezer be ez zan entzuten, ezer be ez. Ixiltasun izugarritzko bat zan ango jaun eta jabe. Euren buruak atara ebezan apur bat eta... aa zan ikuspegi arrigarria! An, gela erdian txinatar agurea etzunda, millaka zatitxutan apurturik egoan. Iogeleen atsetik eurak arrapatu gurean urten ebanean mai txikitxu batetik jauzita, za-zati egin zan.

Artzaintxuak ordularira begiratzean “Mariskalbelenengo...” bati bezela zutik, zutunik, tente bere lekuan ikusi eban, naizta gogoketatan eta kezkatu zala dirudi. Artzaintxuak bere minduta ebazan esku txikiak igortzi ebazan.

Ze zoritxarra, nire Jaungoikoa! naigabetuta esan eban. Nire errugaitik txinatar agurea il da!

Nazaitu zaitez, kedar-garbitzalleak esan eutsan. Txinatar-irudia errez konpondu leiteke. Ez zaitez arduratu geiago, kegarbitzalleak esan eutsan, ba da eraski apur bateaz eta eroapena lagun, batuko doguz zati guztiak... txinatar agureagandik ondiño ergelkeri anbat edo beste entzun al izango dogu.

Eta alan zan, txinatar agurea berriztatua izan zan. Etxeko ugazabaren aginduz lan au, barriztatzea, egin eben eta iruditxua barritan baño ederragoa egoan.

Egun baten ordulari-irudi parragarri arek txinatarrari esan eutsan.

Zugan arrokeri ta buru-erizkeri zerbait nabaritzen dot. Zati-zati izan ziñanetik ona, arroputz baten egikerak dozuz. Zugaz alkar-izketa bat izateko, egiteko, ez dot nabaritzen ziorik. Eta ondiño arazo bat zuzengabe geratzen dan ezkerero, au da nire eskontza artzaintxuaz, azkenez gura dot, ia beragaz eskondu naiteken ala ez, erantzun daistazun gura dot.

Artzaintxu ta Kedar-garbitzalleak arrituta begiratu eutsoen txinatar agureri, ba eurak, txinatarra jauzi zanetik ezin zala mugidu ez ekien.

Jakiña, txinatarra ixil-ixilik geratu zan, orrez ganera ezergaitik ez eban autortu gura izaten, ezertariko bultzagallugabeko iruditxu bat biurtu zala.

Toskaz egifneko bikote zoriontsuaren bizitza barriaren asiera, olan izan zan. Egian eta nasaitasunean oiñarrituta bizi diran gizakien zoriontasuna lagun izanik. Ori zan gure artzaintxuak jabetu izan ebana; “Ezagutzen ez dan gauzarik ez nai izan”.

ARDAGAIZKO KUTXATXUA

Aurrez abiatu,! Eskuma! Ezkerra! bat, bi...!

Gudate batetik etorren gudari batek bere bidalian aurreratzen zan. Garrikoan espatea ta bizkar-zorroa lepoan.

Gutziz pozik egoan gudaria bere etxera itzultzen zalako. Egia esan ez da gitxiagotarako, guda zital batetik, guda guztiak dira zitalak, etxera itzultea.

Bidean ibilli ta ibilli, bildurra bera be bildurtzeko bezelako aurpegia eukan zorgin zaar bateaz topo egin eban. Bere aurpegia gutziz itsusia, motza, ta illuna zan.

Oola gudari! atsoak irribarre bat egin gurean, kiñu arrigarri bat egiñik. Ezpata polita daroazu. Zuk gura ba dozu,... nai dozun, gura dozun, beste diru euki al izango dozu.

Aa bai! Zelan? gudariak itaundu, erdiz txantxetan erdiz benetan.

Gutziz erreza da, jarraitu eban zorgiñak, bere begi aundi ta maltzurak, pozez zabalduaz. Zugatz-enbor ori, enbortzar ori, ikusten dozu? Barrutik gutziz utsik dago. Adarrateraño igoten ba dozu, orduan zulo aundi bat ikusiko dozu. Beratatik sartu eta zugatzaren barnera jaitsi zaitez.

Eta zelan urten bertatik?

Nire laguntza izango dozu. Zure garrian lokarri bat, soka bat, lotuko dot eta zeuk gura dozunean, zeuk aginten daustazunean, goratuko zaitut, jasoko zaitut.

Baña or barruan, Zer egin bear dot?

Aberastu gudaritxu, aberastu! Zeuk gura dozun diru gutzia artu bertan! Zugatz barne ondoan, eunkada argiak eraginda, areto aundi dizdiratsu bat ikusiko dozu. Toki orretan iru ate, errez idegi al izango dozuzenak ikusiko dozuz, ba da euren giltzak bakoitzaren zerralluetan aurkitzen dira. Lenengo atea idegiten dozunean, gela aundi baten erdi-erdian zurezko kutxa bat ikusi al izango dozu. Kutxa au okaiñez beterik dago.

BIDETIK, BERE ETXERA ITZULTEN ZAN GUDARI
 BAT JOIAN ETA SORGIN ZAAR BATEAZ TOPO
 EGINIK, ONEK
 ESAN EUTSAN
 EGIN LEIKELA...

ABERASTU, ABERASTU LEITEKELA,
 ARDAGAIZKO KUTXATXU BAT
 NONBAITEN AURKIITEN BA
 EUTSON...

29



ATSOAREN ESANARI JARRAITURIK, TOKI BER-BERARA
 GUDARIA ELDU ZAN. TXAKURTZAR BATEK TOKI AU
 ZAINTZEN EBAN. TXANPONAKAZ BETE EBAZAN BERE
 SAKELAK ETA URTETERA
 ABIATU ZANEAN...

ARDAGAIZKO
 KUTXATXUA
 AURKITU
 ZENDUAN?

INIRE BURUAI
 IAIZTU
 JATANI



BARRIRO ITZULIRIK ARTU
 EBAN. ATSOAK EZ EUTSAN
 ESAN GURA ZETARAKO
 GURA EBAN ETA GUDA-
 RIAK BERAGAZ GERATU.
 ATSOA NAIGABETURIK
 IL ZAN...

Arraioa! gudariak esan eban, irabaste polita!

Ez, ez, ondiño ez dot amaitu, itxaron eizu apur bat. Arazoa ez da ain erreza. Kutxa ganean txakur bat etzunda dago, tee-ontzi bezelako begi batzukaz. Orregaitik ez eizu izan bildurrik. Eskerrak nire amental urdiñ oneri, arrizku guztiak uxatu al izango dozuz. Lurrean amentala zabal-zabal ezartzea naiko izango dozu. Artu eizu txakurra ta nire amental urdiñ onetan ipiñi eizu, olan egiñaz naikoa da. Orduan kutxa idegi zeinke, eta bertan dagozan txanpon guztiak edo al dozuzanak artu zeinkez.

Zidarrezko txanponak gura, nai, ba dozuz, bigarren atea idegita, bertatik sartu bearko zara. Bertan, errotarri bezelako begidun txakur bateaz aurkituko zara.

Arraioa! gudariak geroago ta arrituago iñoan.

Baña orrez be, txakurtzar orreaz be, ez izan bildurrik. Artez-arte, zuzen-zuzen, urreratu beragana ta nire amental urdiñan, txakurra ezarri eizu. Ondoren zeuk gura dozun edo al dozuzan txanpon guztiak artu al izango dozuz.

Arrigarria! Gudariak esan eban.

Baña itxaron apur bat. Orain dator onena, arrigarriena, sorgiñak jarraitu eban. Urrezko dirua, txanponak, gurago ba dozuz, irugarren atetik igaro barrura.

Eta an zer egin bear dot?

Bere begiak eleiz-nagusiko dorrearen bezelakoak diran txakurtzar itzal beteaz topo egingo dozu. Ori bai da, ludiko gudaririk ausart eta adoretsuena bildurtzeko añaiko txakurtzar bat. Baña ez eiozu jaramonik egin, eta ez ikeratu be. Ipiñi eizu zure amentalean eta txakurtzar orrek ez dau zirkiñik be egingo. Gero gura dozuzan edo al dozuzan txanpon guztiak eroan al izango dozuz.

Ba, guzti ori ez da guztiz txarto, gudariak pozez esan eban.

Eta nik ordez zer gura dozu egin daitzudan? Ba da zure txosten orrek neurri bat izango dau, beintzat nik uste dot.

Bai, sorgiñak esan eban, mezede bat egin bearko daustazu, garrantsigabe bat, guztiz txikia.

Ez, ez da dirurik. Ez dot gura dirurik emon daistazun. Nire amamak azkenengoz zulo orretan sartu zanean, bertan aitzuta itxi eban ardagaizko kutxatxu bat bear dot.

Gudaria, unetxu batzutan gogoratzen geraturik gero atsotxugana itzulita, zugatz zuloan sartzeko gertu egoala adiearazo eutsan.

Gura dozu nire garrian lokarria lotu? atsoari esan eutsan.

Poz-pozik gudari adoretsua. Eta nire amental urdiñ au artu eizu. Bera barik, ezingo dozu lortu ezer...

Zugatzaren adarretaraño gudaritxuak arrastaka igon eban eta enbor-zulotik zirika jaitsi zan bere ondora. Lokarria ondo eutsita eroala, beingo baten, areto eder eta aundi baten aurkitu zan, beratan sorgiñak esan eutsan bezela, eunkada argi-ontzi baño geiago dizdiratzen egozan.

Adoretsu lenengo atea, gudariak idegi eban. Arraioa! Aurrez aurrez etzunda egoan txakurtzar bateaz topo egin eban. Onek, etorri-barría ikusi orduko, tee-ontzi bezelako bere begiak gudaritxuan ipiñi ebazan.

Adiskide, txakur eder bat zara, gudariak esan eutsan, naitasuna adierazo gurean. Bitartean sorgiñaren amentala lurrean zabaldu, bere sakel guztiak beteten ziardun. Au egin eta gero, kutxatxua ertsirik, bere ganean txakurra ipiñi eban eta bereala, unetxu bat be galdu barik, bigarren aterantz abiatu.

A bai, zan, a, an ikusi eban txakurtzarra bene benetan itzela! Aunditasunean lenengo bezelakoa, baña bere begietan..., begiak, bai, egiz ziran errotarrilakoak. Gizon nasai, ausarta, ta adoretuena, bera be, arritu, ikeratu, al izateko bezelakoak.

Adiskide, olan ez eistazu begiratu, ba da itsututa geratuko zara! gudariak esan eutsan, berak iñondik ez eban adorea agertu gurean.

Arraioa! Zelan ez neban izango bildur apur bat, ba da txakurtzar a gudea bera baño izugarrikkoa ba zan?

Lenengo txakurragaz egindako gauza ber-bera egin eban, sorgiñak emon autsan amentala lurrean zabaldu. Zidarrezko txanponakaz betetuta kutxatxu au egoala ikusirik, atera ta bota ebazan bere sakeletan eukazan tupiñezko txanpon guztiak eta soñekoan sakelek ez eze, opularda edo kasa eta motxilea be zidarrezko txanponakaz betetu.

Irugarren atea bere aurrean aurkitzen zan. Zer egin? Ate au, bildurrez baña, idegitzera abiatu zan.

Baña, arraioa, zelako bildurra izan eban ba! An egoan beste txakur ikaragarria bat, arteroko bezelakoa bai, aundiago ez, baña bere begiak benetan ziran eleiz-nagusiko dorreak baño aundiagoak. Berari adi-adi egoan, begi-zuloetan bere begiak birakabiraka, gudaritxua jan gurean.

Arratsalde on!, agurtu eban gudariak, eskumako eskua burura errotan ebala. Gudaria ain larri ta estu aurkitzen zan txakurtzar arean aurrean, eta egia esan, ez ekian zer egin eta ez ze egokera itxuratu.

Gudariak baimena eskatu eutsan bere amentala lurrean ipiñi ta zabaltzeko, ondoren txakurra beratan ezarri eban. Bereala kutxatxu idegirik, ikuspegi urrez dizdiratsu arek eraginda, bere begiak be dorreen antzera aunditu ziran. Amesetan zala uste izan eban. Leku baten ainbeste urre egotea eziñekoa zala uste eban. Baña ikuspegi zoriontsu au begiratzen ez eban galdu gura astirik, denporarik, bildur zan bere amentalaren, sorgiñaren amentalaren, altsutasuna galdurik, bere zenera etorrita egin eikion kalteaz. Alan da ze, bereala asi zan, zidarrez bete ebazan bere sakelak, txapela, kasaka ta motxilea utsiturik, oraingoan urrez betetzen, baita be oiñezturik bere oskiak be bete ebazan. Ostaz ostaz ibilli al izan zan, baña zoriontsua sentitzen zan. Berak sartukeran aurkitu eban bezela itxi eban guztia ta sorgin-atsotxuari deitu eutsan goratu egian, jaso egian.

Lokarritik, sokatik, tinkaitu eizu!

Aurkitu zenduan nire ardagai-kutxa?

Aa nire burua! Aiztu jat!

Barriro enbor zulotik jaitsita, kutxatxua aurkitu eban eta al izan eban bezela sakel baten sartu ta atsoari deitu eutsan.

Emen daukat! Igon naizu!

Sorgiñak zugatz-enborratik atera eban. Orretarako bere indar guztiak bear izan ebazan, ba da gudariak ekarran urrea bera baño be astunagoa zan.

Eta orain zer egingo dozu toska kutxatxuaz?

Ori ez da zure ardurea, sorgiñak erantzun. Zuk or daukazu zeure urrea ta kutxatxua nirea da, emon bear daustazu.

Ba, beragaz zer egin gura dozun jakin arte ez dautzut emongo, gudariak iñotsan. Ez zaituz leiatu, ba da ez dautzut esango, sorgiñak erantzun.

Ba orduan or geratzen zara zure kutxatxu barik, eta gudaria aldendu zan.

Sorgiñak guztiz asarraturik eta bekoki baltzez, iñondiko zemankutzak esan utsazan, baña gudaria, atsoaren esanari jaramongabe, nasai-nasai aldendu.

Ain aundia izan zan sorgiñaren asarre ta naigabea, andik egun batzuk geroago ta jazokisun orreik eraginda, aldigaizto bat izan eban eta ordu batzuk geroago il, gorpua zan.

Ordurako gudaria, andik egoan uri urrenera elduta aurkitzen zan. Bertako arros-tetxe edo ostaletxerik onena billaturik, beratan geratu. Dirua ugari eukan lez, gela ta bazkaririk onen eta garestienak eskatu. Dirua ba eukan bai, ordaintzeko.

Biramonean soñieko aundiki ta garestienak, eta baita be txarolezko ozkirik dizdiratsuenak erosirik, zaldun aberast, galantanetariko bat biurtu zan.

Uri aretako notiñak, pertzonak, beste toki askoetakoen antzera barritsuak ziran, eta arin zabaldu, zelan urira gazte eder eta lerdan bat eldu zala, gazte andizki edo noble bat.

Uri aretako notiñak, pertzonak, siñist-arazita gazte andizki bat zala, bere buruz alkar-izketan ziarduren. Erritarrak beragaz, gudariaz, berba, itz, egiten ebenean euren laterriaren aunditasunak azaltzen eutsoezan eta zelan erregeak alaba eder eta lirain bat ebala, eta baita be bere aitak, erregeak, gaztelu kerizpetsu ta illun baten atxilotuta ebala. Gaztelua toskaz egiñaz zan eta arresi guztiz goiakaz inguratuta.

Egun baten bere aitari, erregeari, igarri-azo eutsoen bere alabea gudari arront bateaz eskonduko zala ta ori gertatu ez eiten eta bildurak eraginda erabagi ori artu eban, bere alabea gaztelu aretan atxilotutzea.

Zer ez neunka emongo bera ikusteagaitik! gudariak bere baitan esaten eban.

Baña ba ekian au eziñekoa zala, ta bere urrea ikusteaz pozatzen zan, eta ez gitxi, ta beragaz, bere laguntzagaz, bizi nasai ta errezagaz. Antzerki ta jai guztietara joaten zan. Zaldi-gurdi, zaldi ta otsaiñak ebazan, baña ez jakon aiztuten bere dirua txiro ta beartsuen artean eralgitea, ba da bere txiro izaneko egunak, bizi-bizirik be gogoan ebazan eta ondo baño obeto ekian zenbat naigabe, goze, otz eta bakardadeak ezeukiak jazan bear izaten dabezan.

Adiskide asko ebazan, nik lagunak esango neuke, adiskidetasuna gauza bat da eta ezberdintasun bat laguntza, dirugana, bere ingurura, asko batzen da, baña ori ez da adiskidetasuna. Danak goraltzen eben, zaldunen eredia zala esanez. Baña egun zoritxarreko bat eldu zan, berantzat zorigaiztokoa, bere urrea urtu zan, bere diruak

GUDARIA ALDI BATEN ABERATSA IZAN ZAN.
TXIROTU ZANEAN, USTEGABE, ZARTADA BAT
ARDAGIZKO KUTXATXUARI EMONIK...




TXAKURTZARRA, BERAK
GURA EBAN DIRU GUZ-
TIA EKARRIZ...

BARRIRO ABERATSA IZANIK. ORDUAN JAKIN
EBAN ERREGEAREN ALABEA GUDARI BATEAZ
ESKONDUKO ZALA.



TXAKURRARI
DEITU TA...

TXAKURRAK PRINTZEZATXUA
EKARRI TA GUDARIA BERAGAZ
MAITAMENDURIK GERATU ZAN.
PRINTZEZATXUA
BERE AITA-
AMARI AZALDU
EUTSEN
JAZORIKO GUZTIA,
AMES BAT
DALA USTE IZANIK...



erazi ebazan eta bere zorion guztien amaia ikusi eban. Bere lagunak, ez adiskideak, ba da adiskiderik ez eban, urrundu jakozan. Egoitz barri batera aldatu bear izan eban, zapai-gane batera joan zan bizitzen eta guztiz goi egoalako ta mailladi edo eskillera larregi igon bear izaten zalako, bere lagunak ez jakozan joaten ikusten, unorea ebela atxikia ipiñirik.

Irabasirik ez eukan lez eta ez ezelako etorririk be, gaba baten argiziri bat erosteko dirurikgabe aurkitzen zan. Ain egoera larri ta estuan aurkitzen zan, lenago ospetsua izan zan gudaria. Orduan sorgiñaren toska-kutxatxuagaz gogoraturik eta beratan argiziri bat egoala jakiñik, atera eban kutxatxua sakeletik, idegi ta zurruntzi arriaz igortzi orduko, dizdira txiki batzuk eraginda atea zelán idegiten zan ikusi, eta te-ontzi bezelako begiak eukazan txakurra sartzen ikusi eban.

Bere arritasuna aundienetarikoa izan zan, baña ondiño aundiagotu zan txakurrak zer iñotson entzutean:

Zer agintzen dau nire Jaunak?

Baña egia da ala amesetan naz?, gudariak bere arritasunetik urten eziñik esan eban. Kutxatxu onen alduntasuna amaibakoa da. Beronegaz neuk gura, nai, dodan guztia lortu al izango dot?

Txakurragana itzulirik agindu autsan:

Ekarri eidazu dirua!

Entzun orduko gudariaren agindua, txakurra ariñeketa baten urten eta beingoan toskaz-txanpon beteriko zorro bateaz itzuli.

Onelan jakinazo eban gudariak kutxatxu onen alduntasuna. Ardagai-kutxatxuan atzamarragaz baten jotén ba eban zidarrezko kutxatxuko txakurra zan urteten ebana eta iru bider atzamarragaz jotén ba eban urrezko-kutxatxuko txakurra agertzen zan. Onelan bere antziñako aberastasun guztia birlortu eban. Gaztelu eder bateko gelatan bizi zan eta bere antziñako lagunak joakozan parkezke eskaturik.

Baña egun baten atxilotuta egoan printzetzatxu txiki az gogoratu zan. Nezkatilla-txu ori iñok ikusi al izatea, izan leiteke?, asmatzen eban bere baitan.

Orduan arda-kutxara urreraturik, atzamarragaz jota, deitu eban. Bereala tozka-kutxako txakurtzara agertu zan.

Zer agintzen dau nire Jaunak?

Printzetzatxua ekarri zeinkedazu, naizta une labur baterako baño ez izan?

Txakurraren erantzuna, ariñeketa baten urtetea izan zan eta gudaria konturatu zanerako, txakurra gure printzetzatxua lepoan ekarrela itzuli zan...

Bene benetan nezkatilla eder eta liraiña zan, zuri ta kirrua, zuri aurpegia ta ulez kirrua, egizko printzetzatxua bat bezela. Gudariak bere eskutxu bat arturik, itzaltasun aundienagaz mozu bat ezarri eutsan. Ondoren txakurrak printzetzatxua barriro lepoan arturik aldendu zan.

Biramonean, printzetzatxua gozaltzen egoan bitartean bere aita-amari, erregei, ameseta bakan bat izan ebela edestu eutsan.

Zelan txakutzar batek bere lepoan etxe eder batera eroan ebala. Etxe beratan gazte

eder eta lerdin bat bere begira egoala. Gaztea nire begira luzaro egon zan, ondoren nire eskua arturik beratzen mozu bat ezarri eban. Guzti au egiñik txakurrari gazteak agindu eutsan, barrero eroan naiala. Itzuli nedilla nire etxera. Beingoan nire etxean aurkitu nintzan.

Erregeak, euren alabatxuaren amesetea entzunik luzaro barreka egon ziran, baña alabatxuak, gudari bat izan zala edestu eutsenean, ez ziran izan ain nasai. Orregaitik gaba aretan, printzetzatxua bere gelara lo joan zanean, nezkame zorrotz eta luze bat, nezkatillatxu lirain aren alboan gaba osoan zain egon zan.

Nezkatilla-ebasketa barrero jazo zan. Gudariak bere guraria ezin izan eban galgatu, nezkatilla ikusteko guraria galgatu, ta txakurrari deiturik, nezkatillatxua barrero ekarri egiala agindu eutsan.

Txakurra printzetzatxua egoan logelara eldurik, nezkatilea lepoan artuta, gudariaren egoitarantz ariñeketa baten urten. Nezkamea aulki apatz baten, ortozik egoan printzetzatxuaren zain. Arrituta idegi ebezan bere begiak eta arin bere oiñetakoak ipiñita txakurraren atsean urten. Nezkamea txakurra etxe baten sarturik estaldu zanean, urreratu zan etxeko atera eta beratzen ardigai zati bat artuta ezaugarri bat ezarri eban. Ate aurrean, sarreran, krutz bat egiñik, nezkamea nasai joan zan lotara.

Txakurra printzetzatxuaz itzultera gaztelura eldu zanean, minutu batzuk geroago izan zan, eta konturatu zan kurrutz aregaz eta berak be, txakurrak be, ardigai zati bat artuta uri aretako etxe ta ate guztietan kurutze bardiñagaz oartu ebazan. Orrelan baieztatu eban, txakur zintzoa ez eze abere azkar eta begi-zorrotzekoa zala.

Biramon goizean argitu orduko, nezkame-nagusia erregeakana joan eta gabeaz jazorikoen barria emoten.

Erregiña sutsu agurtu ta zorionak opa ondoren irurak urten eben, nezkame, morroi eta gaztelu-gizonak lagun ebezala. Talde osoa txakurra sartzen ikusi eben etxerantz abiatu zan. Etxe onen aurrean, etxe aurreko atean, esan dogun bezela, igeltsoz eginda kurutze bat egoan.

Emen da!, bera zala lenengo ikusi ebana ta, erregeak pozik esan eban.

Ez maite, emen da, erregiñak inñotsan.

Parkatu errege ori, an da.

An da! Emen da! An da! Ate guztietan igeltzoaz eginda kurutz bat egoan eta erregeak nabaritu ziran, konturatu ziran; atsipen zorritzarreko bat izan ebela, maltzurkeri bat, zaintzalea zirikatzeko.

Barrero gaztelura itzuli ziran, baña erregiña, andra azkar eta asmara izanik, kezkatu egoan. Beti garaille urtetea atsegin izaten jakon. Andra ekinkor eta asmakorra be ba zan eta jokaera berezi bat bururatu jakon, arazo orretan ongarrria izango zana, ziurki.

Gaztelura sartu zanean, bere gelan bakar-bakarrik geraturik bere urrezko artesiak eta sedazko oial zatitxu bat artu ebazan. Eurakaz zorrotxu bat egiñik artagaraoz betetu eban. Zorrotxuari azpian, beko alderdian, zulo txikitxu bat egin eutsan, baña beratatik, zulotik, artogaraio igaroteko aiñakoa, banan banan, ez moltzoan.

Gaba eldu zanean eta pritzetzatxua lotan egoanean, alabatuaren garrikoan ugel edo garrikoan, zorroa loturik, nasai bera be lotara joan zan.

Arterako gabetan oitura zan bezela, gaba aretan be gudariak txakurrari deiturik, printzetzatxua ekarri egiola eskatu eutsan. Betiko arintasunagaz txakurrak bete eban agindu au.

Gaba aretan txakurraren maltzurkeriak uts egin eban, galtzaille izan zan, ez zan konturatu, zelan printzetzatxuak bidean zear artagarao eraiten joiala, bidean banan banan garaoak, artogaraok, ezartzen ebazala.

Biramonean, lan erreza izan zan nezkatillatxuak aurreko gabaren zati on bat non emon eban jakitea. Artez-arte, zuzen-zuzen, bertara joan ziran eta gudaria expetxetua izan zan erregearen aginduz.

Naigabetuta, mutil gizajoa espetxe illun eta loi baten, giltzepetua izan zan, bere printzetzatxua, bere andrea, emaztea, izango zala ames egin ebana, geiagotan ikusteko itxaropen barik.

Biar urkatuko zaitue!

Eta gudariaren gorputz osoa, burutik oiñetaraño, otz-ikaraz dardaraz izan zan. Bere zoritxarren zaindaria aitzuta itxi ebalako, jazoten jakozan ezbear guztiak. bere ardagaizko kutxatxua bere eskuetan baleu, arazo ori errez zuzendu al izango leuke. Baña bere zorigaiztorako ez eban kutxatxua aldean.

Biramon goizean, notintsa aundia ikusi eban ariñeketan bera urkatuko eben tokirantz joaten. Nontzebarri aldra aundi bat zan eta euren artean mutikotxu bat be ariñeketan joian. Mutikotxuaren abiedea ain aundia zan, bere oiñetatik abarketatariko batek urten eutsan eta abiedeak eraginda espetxeko leio baten bealdera jaurtia izan zan. Leio onen burdin-aga bitartetatik gure gudaritxua kanpora begira egoan.


Zu mutiko! oiuka gudariak esan eutsan. Ez zaitetz joan ain arin eta entzun eistazu. Errial bat irabasi gura ba dozu, nire etxera joan bearko dozu ta bertan aitzatu itxi dodan ardagai-kutxatxu bat ekarri bearko daustazu. Baña Joan zaitetz eta itzuli tximistea bero baño be ariñago, bestela ez dozu ikusiko errealik! Errialtxu ori!

Mutikotxua oiñetako-konpotzaille-ikaslea zan eta aste osoan be ez eban irabasten errial bat bere lanean. Alan da ze, tximistea bezela arin urten eta pozik ganera, diru apur bat irabasteko aukerea ebalako. Bost minutu barruan mutikoa ardagai-kutxatxuaz an izan zan gudaritxuan aurrean.

Uri kanpoan, uritik kanpora, gudaria urkatzeko izan zan tokian, urkabera eraiki eben aundi bateaz, eta bere inguruetan, moltsoka notintsa nozenbarritsua batu zan, lekuri onenak artu gurean alik ondoen jazoki izugarria a ikusi al izateko. Gudariak izan ziran, bakean eta ezbeartxar gabe izateko arduradunak, ba da olako jazokeratan, sarritan moltsoka ta aldran indarka joanez, ume, andra, zaar ta indargabeak zapalduak izaten dira.

Tokirik berezienean Errege ta Erregiñantzat ziran, euren aulki-apatzak ezarrita egozan. Onak be urkapen ori antzerki bat balitza lez, ikusi bear ebeen ez dakit euren gurariz, gogoz, ba zan ala alabearrez. Euren alboetan, errege-erregiñaren, alboetan,

ERREGEAK ASALDU-
TURIK, GUDARIA
ATXILOTU EBEN.
URKATUA IZANGO
ZAN ETA ZORITXA-
RREZ BERE KUTXA-
TXUA AIZTUTA
ETXEAN ITXI EBAN...



31



OGEI ZENTIMU
IRABASI GURA
BA DOZUZ,
JOAN ZAITEZ
ARIÑEKETAN
NIRE ETXERA TA
ARDAGAIZKO
KUTXATXUA
EKARRI EISTAZU...



URKATZEKO UNE BERATAN, KUTXATXUAREN BITARTEZ,
BERE IRU TXAKUR ZINTZOAK AGERTU AL IZAN EBAZAN
ETA BAKEAN ITXI EBEN. GEROAGO PRINTZETZATXUAZ
ESKONDURIK ETA ONA ZAN EZKERO ZORIONTSU TA
ERREGE ON BAT IZAN ZAN...

morroi, nezkame ta gazteluko lagunak ugari. Aurrez-aurrez, auzi-epaillek euren auzi-gizonakaz.

Gudaria ekarri izan ebenean, eta gertaera edo egikisun izugarri ori egiteko, guztia gerturik aurkitzen zanean. Gudaria urka-tokian lokarri edo sokea bere samez inguratzen ebala, errudunak, gudariak, azken-mezedo bat eskatu eban. Oitura au laterri geienetan gaur arte da. Naizta laterri onetan oitura au ez izan, erregea gizon guztiz ona ta biotz-zabala zan eta orregaitik aintzat artu eban gurari edo eskakisun au. Erregeak azken-pipakada bat erreten itxi, zillegi, eutsan. Olan zan gudariaren naia, guraria, errekin-pipakada bat erretea.

Orduan izan zan gudariak bere sakeletik ardagai-kutxatxua aterata, beratan lenengo baten jo eban, gero birritan eta azkenean iru bider. Beingoan, iru txakutzar begi izugarridunak euren aurrean izan ziran.

Adiskidetxuak, ez eizue itxi eskegi naien! Gudariak iñoan.

Erregua alperrikoa izan zan, urkatzallea iges egiten lenengotarikoa izan zan. Ustegabeko agerraldi a ikusirik, notintsa osoa astrapaladan toki aretatik aldendu. Errege-erregiña bakar-bakarrik geratu ziran.

Txakurrak errege-erregiña egozan lekura urreratu ziranean, erregeak gudariari parkatzen utsola arin esan eban eta eurakaz, txakurrakaz, joan leitekela. Txakurrak baketsu apur bat baztertu ziran, eta erregeak euren zaldi-burdietan igon eta aldendu, jauregirantz joanez.

Gudaria guztiz pozik eta alai egoan, eta bere zorionaaz ausarti, baña txakurrakaitik izan ez ba zan, galdua izango zan!

Gudaria bere zorionaaz azkartuta, jauregirtz abiatu, printzetatzuaz eskontzeko baimena billa edo eske. Gudaria errege-erregiñagandik on-artua izan zan eta bere guraria, naia, baimena nezkatillatxuaz eskontzeko, lortu. Orrez ganera iru txakurrak be eskon-jatorduan maikideak izateko baimena eben.

Jai eta jolasketak aste osoan iraun eben. Txakurren izugarrizko begiak izan ez ba ziran, jai-kide guztiak atsegintsu izango ziran, ba da gudaria naizta gudari-arrunt bat izan, azkenean danak maite eben.

Erregea iltean, onek bere ondoren, errege, barria izendatu eban eta bere alabeaz batera erregetza zorientsu bat izan eben.

IDA TXIKITXUA TA BERE LORAK

Aa nire lorak! Nire lora errukagarriak!, guztiz goibel Ida txikitxuak esan eban. Guztiak dagoz zimelduta, ilda. Atzo txorta eder bat zan eta gaur bere orri guztiak guztiz zimelduak dagoz. Eurak ikusirik negar-malkoak urteten dauste. Zergaitik jazo ete da guzti hau?

Aulki-apatz baten jezarrita egoan ikasle gazte batentzat zan itauna. Idak maite eban ikaslea, ba da jakituna zan eta gauza asko egiten ekian. Artesi ta orritxu bateaz gauza polit-polit batzuk moztuten dauz, dantzari, biotz, etxetxu txikiak euren ate ta leioakaz, gazteluak... pitxi maitegarriak. Mutiko aregaz, ikasle, aregaz ederto jolasten zan.

Zergaitik dagoz olan nire lorak? barriro itaundu eban.

Ikasleak umetxuak erakusten eutsan lora-txorta zimelari begiratu eutsan.

Ba dakizu zer jazoten jaken?, ikasleak erantzun. Bart guztiak dantza-tokira joan ziran eta orain guztiz nekatuta dagoz.

Baña zer diraustazu! arrituta Ida txikiak esan eban. Lorak ezin dabe dantzatu.

Ori esaten dabe eurak,lorak, ezagutzen ez dabezan notin guztiak edo geienak. Nik dirautsut, gaba illuntzen danean eta danak lotan dagozanean, eurak, loratxuak, atsegiñez jolasten dabe ta gabero non edo an, dantzaldi anbat izaten dabe.

Umetxuak dantzaldi orreitara joan leitekez?, Idak itaundu.

Jakiña, zergaitik ez. Edur-malkoak bezela, bardin.

Loratxuak non dantzaten dabe? umetxuak jarraitu eban itaunka.

Ez zara joan inoiz uriaren inguruetako-lurraldetara? Erregeak Udan euren egoitza izaten daben gaztelu ederra aurkitzen dan tokira? Erregeak baratz eder eta aundi bat daukie, guztia lorez beteta, baratz baztar baten ozin aundi ta ur gardendun bat, beratan inon diranik lepatut polit-ederrenak uger ibiltzen dira. Toki aretan loratxuak batzen dira euren jolas eta dantzetan.



INIRE LORATXU GIZA-
JEAKI GUZTIAK IL DIRA...

BA DAKIZU ZERGAITIK?
JOLAZTEN,
DANTZARA, JOAN
DIRALAKO ETA
ORAIN GUZTIZ
NEKATUTA DIRA...

IKASLE GAZTEAK, GABEAN
LORAK ZER EGITEN EBEN

EDESTU EUTSAN. ERREGEN GAZTELUAN ZER
EGITEN EBEN...



ETA AGIREKA-
DARIK INOK EZ
DAUTSE EGITEN?

INOK EZ DAKI. EGUN-
SENTIAN, GIL OTSA EN-
TZUN ORDUKO GUZTIAK
ALDE, IGES, EGITEN
DABE...

BAÑA ZELAN IZAN
LEITEKE LORAK BERBA,
ITZ, EGITEA?

KIÑUEN BIDEZ ULERTZEN
DIRA. BEGIRATU EIZU AIZEA
DANEAN ETA IKUSIKO,
DOZU ZELAN ORRI-
TXUAK MUGITZEN
DIRAN..

MUTILLAK AIDARI KALERA JOIALA ESAN
EUTSAN ETA AGINDU LORATXUEI ESAN
EGIELA LORAN ARAZOA.

Ida txikia, apur baten ixil-ixilik gogoratzen geratu zan.

Ain zuzen be, atzo egon nintzan bertan, nire amagaz bildalitxu bat egiten eta gogoratzen naz, zelan loratxu bat be ez nebala ikusi. Ainbeste lora egoten dan toki aretan, zugatzak be orritxu bat be barik egozan. Non egozan ba?

Gaztelu barruan, baieztu eban ikasleak. Udagoiengan, aldi onetan sartukeran, erregeak eta bere inguruetakoak, nezkame, morroi, guztiak, gaztelua itxiten dabenean, baratzeko lora barruetan sartzen dira. Aldi orretan, barruan astia obeto emoten dabela, uste dot. Ikusi bear zeunkez. Larrosarik ederrenak errege-aulki apatzetan jezarrita egoten dira ta toki aretako loreen errege-erregiñak izaten dira. Maitelariak aldamen bietan, zutik, tente ezarrita, txanbelanak irudituz. Gañerako lora guztiak dantza-taldea da, edo izaten da. Moredin eta azpelarrak andereñoak dira, zitori ta idibiotzak, beti lerdin eta itzaltsu, Jaungoikoaren agindu-pean eta bear bezela dantzaten daben guztien ama zentzundunak dira.

Eta lora txikitxu onei, iñok ez dautse agirekadarik egiten erregearen gaztelu dantzaten dabelako?, Ida txikitxuak arrituta itaundu, galdetu, eban.

Ara, begiratu eizu, ikasleak jarraitu. Iñor konturatzen ez danean, ez da ezer jazoten. Eta ain zuzen be, iñok ez daki orretzaz ezer. Batzutan gazteluko etxe-zaiña, gaztelua zaintzeko arduratuta dana, gabean sartzen danean, beragaz eroaten dauan giltzmoltsoak egiten dauan saratak entzunik, loratxu guztiak ixiltzen dira ta ariñeketan gazteluko erresel astunen ostean estaltzen dira. Lantzean bein, euren burutxuak ateraten dabez, ate-zaiña nondik dabillen jakiteko. Etxe-zaiñak orduan uste izaten dau, bertan, aun barruan lora usaña sumatzen dauala, baña ezin dauz ikusi..., arazo oneri ez dautso jaramonik egiten.

Ederki! Ederki!, Ida txikiak esan eban, bere eskutxuak alkaturik. Eta nik be ezingo dodaz loratxuak ikusi?

Zuk bai ikasleak erantzun. Baña aditu eizu ondo. Gaztelura itzulten ba zara, sartu baño lenago, leio batetik kirikatu eizu eta ziurki ikusiko dozuz.

Gaur zitori eder bat ikusi dot, bellegia, oria, izan da ta bes-aulki apatz baten ganean nagiak-kentzen egoan. Andrazko eder eta lirain bat izan da ta nire eretxiz batan baten, norbaiten, begira, zain, egoan.

Esaidazu, ikasle, Idak guztiz artega esan eban. Landare-baratzeko lorak be toki aretara joan leitekez? Baña ziur, ain urrun joan leitekez?

Bai, zergaitik ez. Eurak gura ba dabe, egaz joan leitekez, txori txiki batzuk izango balitza bezela... Ez zara iñoiz begiratu margotsu diran txirpillota lirain eta polit orreitan? Loratxuak dirudi, ez? Ba da noiz edo noiz, noizbaten, izan ziran eta orain euren lora-ostokaz aizea astinduz, euren enborretatik azkatuaz egaz egiten dabe. Baña gauza bat dirautzut, Landare-baratzeko lorak erregearen gazteluan, bear ba da, zekula be ez ziran egongo, aukerarik izan ez ebelako edo ango, gazteluko, gaba-jai ederren barririk ez ekielako. Nik esango dautzut Landara-jakintzako irakasle-nagusia arrituta zelan ezarri al izango dozun, ba dakizu alboko etxean bizi da... ba dakizu, ez? Ederto bere baratzera joan zeinteke, bein barruan izanik, ez dozu besterik agin bearrik, lora

bakoitzari esan bearko dautsozu, zelan gazteluan gabero dantzaldi eder eta alai bat ospatzen dala. Orduan zure barria artu dauan loratxua beste bategana joango da berari barri ori emoten, eta olan bata besteari esanez, azkenean baratza lora barik geratuko da.

Irakaslearen arritasuna ikustekoa izango da, baratza loratxu bat be barik aurkitzean.

Ida unetxu baten oldozkor geratu zan. Azkenean itaundu eban.

Baña zelan da lora batek beste bateaz berba, itz, egitea? Alkarrizketan egotea? Lorak ezin dabe berbarik, itzik, egin!

Zuzen zagoz, erantzun ikasleak, baña ez ezizu aitzu lorak, naizta miñik ez euki berba, itz, egiteko, beste berezitasun batzuk dabez alkar-ulertzeko, kiñu ta beste olako oarki batzuk. Zuk ez dozu ikusi iñoiz, batez be aize apur bat danean, aize-ziri bat danean, zelan lorak batak besteagana urreratzen diran, euren lora-osto ta orritxuak mugiduaz? Ba orixe da eurak erabilten daben izkuntza alkar-ulertzeko, eta izan zaitez ziur, guk geure izkuntzaren bitartez ain ondo, eurak orrelan ulertzen dira.

Landara-baratzeko irakasleak lorean izkuntza ulertzen dau?, Idak itaundu.

Ziur-ziur naz, irakasleak lorean izkuntza ulertzen dauala ta lorakaz ulertzen dala. Au baieztzeko orain esango dautzut egun baten zer jaso zan. Lorailleko goiz eguzkitsu baten, irakaslea baratzean atsedentzen egoala, ustegabe asto-bedar edo kardu zakar bat, Udabarriko larrosa eder bateaz limurkeriketan ebillen. Baña irakaslea, gizon jakitun eta bikaiña bera, ez eban ezelan be zillegi egikisun ori ta bere esku zabalagaz karduari belarondoko itzal bat emon eutsan. Kardu zital eta mendekariak bereala, ziztakada irakasleari emon eutsan. Ordutik ona ez dozu ikusiko gure irakaslea eskuekaz karduei ukutu bat be egiten. Bere makillegaz ukututen dautse.

Txantxetako da! Idak barreka esan eban.

Une beratan izaki gogaigarri bat berbetan asi zan, ikustaldi bat egiten etorria zan, urrean, eta antza zanetik, ikasleaz ez zan bat be adiskide. Bera an ikusteak, ikaslea ikusteak, min eragiten eutsan, eta olan iñoan:

Zelan ausartzen zara olako unetxu bateri, burugabekeri ain itzelak siñisaraziten? Zure irudi zoroaren ameskeri utsak dira guzti orreik!

Baña ikasleak ez-entzun egiñik ez eutsan erantzuna emon. Beste alde batetik. Ilda loratxuakaitik ikasleak esan ebanagaitik, eta luzaro, egon zan orretzaz oldoztuten. Loratxuak, zalantza barik, euren burutxuak makurtzen ebezan, gabean dantzan luzaro ibilliak eragiten eutsen nekeagaitik. Gaba osoan, unetxu baten be geratu barik dantzan ibilligaitik. Gaixorik izango ete dira? Bada-ezpada, Ildak, loratxuak artu ebazan bere eskuetan, mai txiki baten ganean egozan jostailu batzuen ondora maitasunez eroan. Mai txiki onetako kutxatxutariko baten pitxi politak egozan. Ume-seaska txiki baten, bere andrakilla bereziena, Sofia lotan egoan.

Parkatu Sofia, Idak esan eban, beingoan jagi bearko dozu ta gaurko gabagaitik kutxatxuan egin bearko dozu lo. Loratxu erukigarriak makaldu dira, eta bearrezkoa dabe zure seaskatxuan, ia biar goizerako atsedent apur bat arturik, apur bat bizkortzen ba dira.

Adei larregi barik, Idak artu ta jaitsi eban bere andrakillatxua, ta onek guztiz asarratuta, berbatxu bat be ez eban egin, egikera onegaz bere naigabea adierazo gurean, bere seaskatxutik urten bear izan ebalako. Nezkatillatxuak orduan lorak ogeratu ebazan, seaskatu egongo litzake obeto; maitasunez soñez-estali, geldi-geldi egon eitezela aginduz eta beingoan eta ekarriko eutsela esanez, alik arifien osatu eitezen. Bereala leioetako erreselak ertsi, itxi, ebazan.

Olan eguzkiak euren begitxueta ez dau joko, umetxuak esan eban, ama-ordezko maitagarri batek bezela.

Egun oso aretan, Ida txikia ikasleak esan eutsan guzti guztia gogoratzen egon zan. Ogeratu baño lenago, Idak leioko beiratatik begiratu gura izan eban, bere amamaren lora eder eta usaintsuak egozan lekura. Eta eurak entzuteko abotsagaz esan eban:

Aa ba dakit nora joango zarien gaur gabean! Dantza-tokira!

Apur bat geroago, bere ogean ogeratuta, luzaro gogoratzen egon zan, zein ikusgarria izango litzaken gaztelura joan eta loratxuen dantza bakana ta lilluragarria begiz-ikustea...

Aaa nire loratxuak! umetxuak iñoan. Baña egongo ete ziran iñoiz an!

Azkenean aingeruak eurak ain nasai egin eban lo. Gabarik geiena, amesetan emon eban, bere loratxuak eta euren dantzak, ikaslea ta berak edestu eutsazan gauza guztiakaz amesetan.

Ustegabe izarturik, apur bat agondurik eta aterantz begiratz bere asmakisunetan ziardun. Baña aterantz arretaz begiratu ebanean, konturatu zan erdi-idegita egoala ta bitarte aretatik bere belarrietara, pianu soñua eltzen zala, eresi-soñu polit lirain bat joten eban, Idantzat berak zekula entzun ez ebalako soñu gozo ta biguna. Nire loratxuak dantzanten egongo dira?, gogoratu eban Idak, zelan guztako litzaket eurak ikustea! Baña ogetik urteten ez zan ausartzen, alboko gelan lo egozan bere aita-amak izartu ez egizan.

Aaa nire gelara loratxuak sartu gura balebe!, iñoan.

Baña ez, loratxuak bere gelara ez ziran sartu, baña soñua ate bitartetik entzuten zan. Nezkatillatxuak bere jakin-gurea jasan eziñik, jagi zan ogetik, eta ixil-ixilik beatzganean atera urreratuta ate bitartetik kanpora begiratu eban.

Orduan zer zan a....: ikuspegi zoragarria ta lilluragarria bere aurrean agertzen zana!

An, illargiaren argi-zidarrezutako argipean, tulipan eta bitxi-gorriak, lerro aundi bi agertzen eben. Leio-barren guztia itxi eben eta lorontziak uts-utsean bertan aurkitzen ziran. Loratxuak poliki-poliki krutzeratuta, dantza ikusgarriak egiten ebazan, euren biraka ugarietan, batak besteari euren orritxutatik oraturik... Piano aurrean, soñu-tramankullu au joten jezarrita, zitori bellegi, ori, lodikote bat. Idak, uste izan eban, zitori lodikote ori, non edo non, nonbaiten, Uda aretan ikusi ebala, baña ez zan gogoratzen non, baña ikasleak esan eban esaldi bat gogoratzen eban: "zitori au Linda andreñoaren irudi ber-bera da".

Ikasleak itz oneik esan ebazanean, danak barre-zantzoka asi ziran, baña Idak une aretan argi-argi ikusten eban, zitori onek eta Lina andreñoak alkarren antza ebela.

ZEAZKATXUAN OGERATU-
TEKO, IDAK NEZKAKILLA
KENDU BEAR
IZAN EBAN.

TAMALA DOT,
SOFIA...



GABEAN IDA IZARTU TA JAGI SOIÑU
LILLURAGARRI BAT ENTZUNDA. ARETORA
BEATZ-GANEAN JOAN ZAN ETA...

33



AN LORA GUZTIAK DANTZAN ETA JOLASTEN
IKUSI EBAZAN. ZEAZKATXUAN ATSEDENTZEN
EGON ZIRANAK BE, EUREN OGETXUA ITXIRIK,
GERTU EGOZAN...

JOLASTEKO. SOFIA-NEZKAKILLA BE
IZARTU ZAN.



Zitoriak piano-soiñua, Lina lez bardin-bardin joten eban, alde batera eta bestera begiratzu eta soiñua gozotu buru-sabuka lagundurik.

Lora guzti areitatik nezkatillatxuaren adi, bat be ez egoan. Baña onetan umetxuak nabaritu eban, zelan azpelar urdin bat maiatik geldiro-geldiro urtenda, bizkor andra-killaren seaskatxura urreratzen zala. Seaska onetan, otsaratzu onetan, makal ziran loratxuak aurkitzen ziran. Oneik euren ogetatik jagirik, gaiñerokoei kiñu bat egin eutsen, eurakaz dantzatu gura ebala adierazoturik. Loratxuak osatukeran, euren gaixoetatik osatuta, sendotuta, margoa aldatuta eben eta gogotsu ta alai jolasten jarraitzeko.

Intxaur-apurtzalle agurea, gizasemea, gizona, iruditzen ebana ta beko-matrailla apurtuta eukana, itzeltasunik beroenagaz lora dotore areik agurtzeko, bere jezarlekutik jagi zan. Ordurako loratxuak euren edertasun eta margo bizienak agertzen ebezan, euren gaitzak gaiñeratuta, alai, osasuntsu ta jolasten jarraitzeko gertu egozan.

Une beratan, ots bat entzun zan, mai ganetik lurrera zeozer, zerbait, jauzi ba zan bezela. Idak begiratu eban eta ikusi eban, zelan saltu bat egiñik, urkizko errege-makillea lora-txorta artera sartu zala. Ze txantxagarri egoan, argizirizko andrakillatxu bat bere lepoan eroala, onek lasto-txapel margodun bateaz bere burua apaintzen eban!

Loratxuak txantxeta onegaz atsegintsuak ziran, iñasterizko errege-makillea orpoketa saratatsuz lagundurik dantzaten. Loratxuak dantzatu ezin eben mazurka-dantza zan errege-makillak dantzaten ebana, ba da loratxuak bigunegiak ziran dantza ori egiteko.

Argizirizko andrakillatxua asko azita, luzetuta, goi egoan, eta errege-makilla apaintzen eben ingi edo paperezko loratxu guztiak goi-gaiñeratuz, esan eban: Zelan da berori gauza, umetxu bateri olako burugabekeriak siñistu-azoteko? Zure buru ameslari orren gogoketa edo ames zatar batzuk baño ez ba dira! Idak une aretan ikusi eban argi, zelan argizirizko-andrakilla arek bene-benetan aitaturako gizasemea iruditzen ebala, ba da iñoiz baño bellegi, ori, eta bera bezela iguingarri ta gogaikarri egoan. Paperezko loratxuak euren iztar argaltxuak alkar jo eben, eta orduan andrakillatxua kizkorturik betiko neurrira biurtu zan.

Ze polit eta atsegingarria zan ikuspegi a! Ida txikiak, azkenean, barre egiteko guraria jazan eziñik barra-algaraka egoan.

Bitartean errege-makillea dantzaten jarraitzen eban eta antzekidea bearturik egoan bardin-bardiña egiteko, baña azkenean, beste lorak eta batez be Sofia andrakillaren otsaratzua, seaskatxuan, atsedentzen egon ziranak, onen alde urtenda, errege-makilleak amor egin eban.

Beste jostaillu batzuk lagun, Sofiak lo egiten eban kutxa txikitxuan, sarata aundi, ots aundi bat, entzun zan eta Sofiak arritasunez alde batera eta bestera begiratu eban.

Dantzaldi bat! Jakin gura neuke dantzaldi onetara zergaitik ez dausten deitu!, Sofiak guztiz asarratuta esan eban.

Intxaur-apurtzalleak bildurkiro urreraturik dantza egitera deitu eutsan. Baña berak

SOFIAK DANTZATU GURA EBAN ETA INTXAURAPURTZAILLEAK DEI EGIN BE, BAÑA BERA BARREKA TA ISEKAZ ERANTZUN. MALTZURKERI BEREZI BATEN BIDEZ LORATXUAKAZ DANTZATU AL IZAN EBAN.



ORDUAN LORA BI ELDU ZIRAN ETA JAJA AMAITU ZANEAN DANTZATALDEKOAK ZIRAN...



IGABON GUZTIO!!

IDA OGERATURIK, IKUSI EBAN GUZTIAZ AMESETAN IZAN ZAN.

BIRAMONEAN ARTEROKO EGUNEAN BAÑO ZIMELAGO AURKITU EBAZAN LORAK.



KUTXATXU POLIT BATEN SARTU TA BERE LENGUSUAK LAGUN, IDAK BARATZEAN LURPERATU EBAZAN. LENGUSUAK BALLESTA-DANBADA BATZUK JAURTI EBEZAN, ILLETATAN EGITEN DAN BEZELA...

ez-ikusi egiñik, atsea emon eutsan eta irribarretxu baten ondoren esan eban. Bikote polita dantzarako!

Orduan kutxatxuaren ertz baten jazarri, loratxu anbatek dantzaten aterako ebala uste izanik, baña alperrik zan. Sofia apurka-apurka artegatzen joian eta astul txiki batzuk be egin ebazan, ezen! ezen! ezen! Baña iñor be ez, beragana iñor be ez zan urreratzen. Ordurako intxaure-apurtzallea dantzaten egoan, eta egia esan, ez eban egiten ain txarto, dantzari naiko trebea zan. Eta iñongo loratxurik Sofiagana urreratzen ez zan ezker, kutxatxutik bere gorputza lurrera jauzten itxi eban, toki aretan sarata aundi bat sorturik. Orduan bai, orduan loratxu guztiak joakozan apal ta maitekiro bere albora ajolaz betetuaz. Bere ogean lo egin eben loratxuak esker-itx beroenakaz agurtu eben, oge bigunkarri, bikaiña eukala ta beratan lo ederto egiten dala, esanez. Illargi, irargi argiz beterik egoan gela erdi-erdira eroan eben, eta beragaz, urrengo eguneko eguzki dizdiratsuak argitu arte, dantzatu eben.

Ida beingoan konturatu zan, loratxu artean Sofia guztiz zorionsua zala, ba da bere arpegian iñoiz be ez zan ikusi alako poz itxurarik, bere jabetxuaren aurpegian poz, alaitasun agertzen zan. Orrez ganera, entzun eban zelan, bere dantza-lagunei bere ogetxuaz geratu leitekezela iñotsen, ba da bera kutxatxuan be ederto aurkitzen zala. Esku-zabaltasun onek argi ta garbi agertzen eban, Sofia une aretan zein zorionsua zan.

Baña loratxuak erantzun eutsoen:

Andrakilla on bat zara, Sofia, ta naizta zure orpakisuna biotzez eskertu, ezin dogu ontzat artu, ba da biar, luzeenean etsi, ilgo gara. Gure bizia laburra da, ederra bai, baña laburra. Ida txikitxuari esaiouzu baratzen lurparatu gaizala, kanariotxua lurperatu eban leku ber-beratan, datorren urtean iñoiz baño be, zekulakorik, eder eta usaintsuen berbiztu gaitez.

Ez, ez zarie ilgo! Sofiak guztiz mozukaturik esan eban, negar egiteko zorian egoan.

Bereala, ustegabe, gelako atea, iñok bultzatu barik idegi ta beratatik lora moltso, lora polit eta liraiñak sartu ziran. Sofiarentzat ulertu eziñekoa zan, lora areik, zein baratsetik etozan, nondik, zelan eta zergaitik agertzen ziran toki eta une aretan. Berak susmatu eban, erregearen gazteluko baratzekoak izango zirala. Lenengo sartu ziranak larrosa eder eta lilluragarriak batzuk ziran euren burutxueta koroi bat eroela. Onak zalantza barik errege ta erregeiña, gero euren atsetik krabeliñ, zango-gorri, asto-illi ta lo-belarrak euren lekaren bitartez puts-egiñik, soiñu izugarri ta amesgarri bat sortzen ebela. Ugarteño zitori ta iazintu urdiñak, euren barnea txilliñez beterik eukiko balebe bezela txillintzen ebela. Ze soiñu gozo ta amesgarria!

Loratxuen jaia amaitu zanean, guztiak gaba on bat alkar-opa eben. Guztiak lerroan kanporantz urteten asi ziranean, Ida txikia, otzez erdi izoztua zana, ixil-ixilik iñori ezer be esan barik eta iñok ikusten ez ebala, ogera joan zan. Beingoan loak arturik, ikusi eban guztiaz ames egin eban.

Biramon goizean, ogetik jagi zanean, lenen-lenen egin ebana, jostailluen gelara

joatea izan zan. Andrakillaren ogeko erreselak kendu ebazanean, loratxuak aurrerako gabean itxi ebazan lez aurkitu ebazan, baña askoz be zimelagoak egozan.

Kutxatxu beratan Sofia lo-gogor gogor baten egoan. Zugatz-enbor bat bezela lo egiten eban.

Ez zara gogoratzen, esan bear daustazunagaz?, Idak “egun on” bateaz agurturik, itaundu eutsan.

Baña Sofiak ez eutsan erantzun, ondiño lotatik guztiz urtengabe egoan.

Guztiz ona ez zarala, uste dot, txikitxuak minduta esan eban. Baña ez ziran zugaz ondo agertu guztiak, eta ez zinduezan eurakaz eroan dantzaten eta jolasten? Esker gaiztokoa zara, Sofia.

Baña andrakillak ezer esan barik jarraitzen eban.

Idak biotza samíñez kikilduta, txori ta lorak margotuta eukazan kutxatxu bat artu ta lora zimelak, illak, beratan ezarri ebazan, esanez:

Ez da benetan il-kutxa polita? Zuentzat eziñ ohea da. Beluago, beranduago, noruegatar nire lengusuak etorriko dira ta lagunduko dauste zuek lurperatzen. Olan datorren urtean, Udabarrian berbiztuten zarienean, izan ziñien baño be askoz eder eta usaintsuagoak izan zaitezen.

Noruegatar lengusuak arratsaldean eldu ziran, mutiko azkar eta begikoak, Adolfo ta Jonas eritxenak. Euren aitag emoneko, bezuza, opari lez, ballesta edo azaga batzuk eroezan eta arratsalde beratan lengusiñatxuari erakutsi eutsuezan.

Berak, lengusiñatxuak, loratxuen kondaira edestu eutsen eta baratzera biotz-pozez lagundu. Mutil biak aurretik joiazan euren azaga edo ballestak lepoan, atsetik Ida bere eskuetan kutxatxua eroala. Atxurtutako il-obian kutxatxua ipiñi baño lenago, beso bero-bero bat emon eutsan gero lurrez barriro izkutatuz. Noruegatar lengusuak euren ballestakaz, jaurtiketa batzuk egin ebezan, supin edo kañoirik ez eukelako.

LOKARTUZALE ZAAR BATEN KONDAIRA

Ludi onetan ez dot uste izango dan, Lokartuzale zaartxuak beste kondaira politik dakianik. Eta zelan edestuten dauz, gero!

Gaba illuntzen danean, umetxuak ondiño afaria guztiz amaitu baño lenago Lokartuzalea etorten da, maillaki edo eskillerea, ixil-ixilik igoten' dau, orretarako kaltzerdi lodi-lodi batzuk daukaz, eta atea idegirik, edari aizestu bat umetxuen begietara jaurtitzen dau, orrelan euren betezak ixiten jakez, eta ezin dabe ikusi. Orduan euren ostean ezarrita, euren kokoteetan puts egiñik, buruetan astuntasun antzeko bat nabaritzen dabe ta burua xukin ganean ipinteko guraria izaten dabe. Umetxuak orduan ogera kezka ta asarre barik joaten dira. Zuzen be, ori da Lokartuzaleak gura izaten dauana.

Ogeratuta, euren begitxuak ondo irtsegita, geldi-geldi dagozanean, orduan izaten da agureak bere kondairak erdestuteko sasoa.

Bera beti oge aurrean jezarrita geratzen da, ondo jantzita, margo muga-gabeko sedazko longain bateaz. Margoa antzekoa, baña ez urdiña, ez gorria ta ez bellegia, oria. Besape bakoitzean aterkin bana daroaz, bata oial ganean argazki politikaz eta bestea guztiz baltza. Lenengoa ume on, ikazle-zale ta adikor eta ameseta eder ederrak izaten dabezen umetxuan ganean zabaltzen dau. Eta bestea beste aterkiña, guztiz ez-bardin diran umetxuen ganean, au da oker, ezjakin ta nagi diran umetxuen ganean. Oneintzat gaba luzea izaten da ta goizeetan ogetik jagiten diranean, ameseta politik ez dabe izaten edestuteko. Gaba osoa joaten jake ilda ba ziran bezela.

Lokartuzaintzaleak Yamar eritxon mutiko bateri egin eutsazan ikustaldiak orain edestuko dautzuedaz eta aste oso orretan edestu eutsazan ipuin guztiak. Asteak zazpi egun dauan ezker, ipuiñak be zazpi dira.



LOKARZAINZAILLE ZAARRA YALMAR UMETXUA IKUSTERA JOAN ZAN ETA ASTE BETE OSOA EGUN ZAN BERAGAZ. ASTELENEAN LOGELA BARATZ BATEN BIURTU TA ZUGATZEEN IGALIAK ALMIBARREZKO GOZOKIAK ZIRAN.



ONETAN, YALMARREK BERE EGINBEARRAK GORDETEN EBAZAN KUTXATXUAN EROSTA BATZUK — ZIRAN. LOKARZAINZAILLEAK IDEGIRIK, BILDUMA BAT TXARTO EGOALA NABARITU EBAN.



AGURETXUAK ZENBAKIEI ONDO EZARTZEN IRAKATSI TA LIBURUTXUKO IZKIAK AZTERTU EBAZAN. BAÑA YALMAR IZARTU ZANEAN, BERAK ITXI EBAZAN AIN OKER AURKITU EBAZAN...

ASTELENA

Yalmartxu soñiekoz ondo estalduta ezarri zanean, Lokartuzaintzaleak esan eutsan.

Orain egingo dodan guztiaren adi-adi egon zaitez, ba emen aurkitzen dan guztia zeozer, zerbait, izugarritzko baten biurtuko dot.

Bereala, lorontzi aundietako lorak, zapairañio jasoten ziran adardun zugatz keriz-petsuetan biurtu ziran eta gela guztian egozan, zabaldua, itzalpegi eder bat irudituz. Adarrak, larrosak eurak baño be lora eder-eder eta usaintsuagoakaz beterik egozan. Euren igale-barneak, eztiz beteriko gozoki guragarriakaz, eta kanpotik urrea bera bezela dizdiratzen.

Yalmarrek, ikuspegi arrigarria a begiraturuz, begiak guztiz idegita ebazan, zabalzabalik, baña bereala zizpuru errukigarri batzuk entzun ziran, umetxuak ikastetxeke bere liburuak eukazan kutxatxutik urtetan eben.

Zer jazoten da or barruan? Lokartuzaintzaileak esan eban, bereala mairantz joanez eta kutxatxua idegirik.

Ain saratatsu ebiltzanak, arbel-ziri ta arbela izan ziran. Euren zizpuru-miñak baten biotza kikilduta itxiteko lakoak ziran, eta guztia zan kopuru baten utsagaitik. Arbelziriak bere indar guztiaz tiraka egoan, arbelari lotuta zan loturatik, utsa zuzendu gurean, baña alperrikoak ziran bere alegin guztiak.

Yalmarrek idazten eban kuadernotxutik be, zizpiru samiñak entzuten ziran, beratan, lenengo orriaren asierean, izki-aundi bateaz asiten zan iragarkai bat egoan eta bere atsetik izki-txikiak. Yalmarrek egindako izkiak kezka ebiltzan, ba da naizta naiko antzekoak izan iragarkiarenakaz, guztiak okertuta egozan eta eurari egokien lekutik kanpora ezarrita. Iragarkiaren izkiak beste ulertuazo gura eutsen, zelan ezarrita egon bear eben, baña jakiña, eurak bakarrik, izkiak eurak bakarrik, laguntzgabe, ezin ziran arteztu, zuzendu.


Eziña dogu, ezin gara artezago, zuzenago, ezarri! zotinka iñoen.

ASTEARTEAN, LOKARZAINZAILLE ZAARRA
BERE ZOZI-IRETXOAZ LAUKI BAT IKUTURIK
EGIZKO IKUSPEGI BIURTU EBAN. GERO
YALMAR ARTU,
ETA...

36



UMETXUAK, BASO ARTETIK ARIÑEKETAN JOIAN IBAIRA ELDU AR-
TE. AN TXALUPA TXIKI BATEN EZARRI-ITXASORATUZ EBILLEN.
ZUGATZAK IPUINAK EDESTEN EUTSOEZAN...



GAZTELU BATERAÑO
ELDURIK BERTAN SARTU
ZAN, ARETO AUNDI
UGARI ZEARKATURIK
BERE ANTZIÑAKO
AMA-ORDEZKOA AUR-
KITU EBAN. ONEK
ANTZIRA LO EGITEKO
ABESTEN EUTSAN
ABESTI POLIT A ASI
JAKON ABESTEN.

Nik zuzenduko dot arazo au, Lokartuzaintzaleak esan eban. Neuk emongo dautzuet senda-txartel bat, olako arazotarako guztiz egokia dana.

Ez, ez dogu gura, nai, olako edabe zantarrrik! oiuka esan eben izkiak.

Orduan gudari-ibiltea irakatsiko dautzuet.

Olan egin eban aguretxuak.

Bat! Bi! Bat! Bi! Zuuuuutik!

Lokartuzaintzaileak irakatsi eutsezan jardunketa guztiak ederto, zintzo egiten ebezan, eta azkenean berak baño obeto. Azkoz politago.

Gaba joan zan eta egun barri bat argiratu, Lokartuzaintzalea be aldendu ta Yalmar ogetik jagi zan. Orduan mai ganean egoan kutxatxura abiatu, idegita beratan aurkitu ebazan, berak itxi ebazan lez, izkitxuak makal eta indarga.

ASTEARTEA

Yalmar ogeratu zan orduko, Lokartuzaintzale zaarrak, sorgiñagazka bat be ba eukan, eta beragaz gelako altzari guztiak ukututa, danak batera alkar-izketan asi ziran, zalapar itzela sortuz.

Guztiak euretzaz, euren buruz, berba, itz, egiten eben, bakoitza norberaren arduradun uts-utsik zan. Guztiak baztertxu baten iñok jaramonik egin barik aurkitzen ziran, txistu-ontzi izan ezik. Au, txistu-ontzia, okoillu baten ixil-ixil-ixilik, mutua balitz bezela, beste guztien txistuak artzen.

Gela aretan, arasa ganean, argazki bat urre-margodun lauki baten egoan. Argazkiak, lurralde orlegi zugatz-tantai sendoakaz iruditzen eban, bedar artean loratxu liraiñak eta baso, ibai urtsu batek zearkatzen eban, gaztelu baten ondotik igaroz, bere urak itxasoa besarkatuz.

Lokartuzaintzaile zaarra, berak be sorgin-ageaz jo eban laukia ta au bereala bizitzara biurtu. Txoritxuak urrez beteriko zugatz-adarretan, euren txio txio eztiitsua-kaz inguru a alaitzen asi ziran. Zugatzaren orritxuak aize-ozkirri gozoak astinduz, ibaiak be abestu eban bere muru-mur biguna. Edoi zuri ta illun-nabarrak eguzkia estaltzen eben eta loratxuak euren usain ez-bardin eta lilluragarriakaz egoitza lurrindu.

Lokartuzaintzaileak, bere besoetan Yalmar arturik, lauki barruan ezarri eban. Umetxua bedar, belar, ganetik zuzenbide-gabe abiatu ta ibai ur gardendun bateraño aldu zan. Bertan gorri-zuriaz margotuta ontzitzu bat egoan, bere zidar irudi ziran aize-oillakaz.

Yalmar ontzitzu barruan ezarri ta au, ontzitzua, urrezko sei lepatutek eroan. Lepatutek euren buru ganean izartxu bat eben. Ibaitek zear, zugatzak edestuten eutsoezan kondairak entzuten egoan, lapur eta sorgin ipuiñak, baso lo-bedar eta bitxilorenak. Txirpillotak, mitxeletak, beste batzuenkandik entzundako ipuiñak, iratxon eta silfideen guztiz zoragarriak.

Itxasontzituaren atsetik, zidar eta urrezko ezkardadun arraintxuak uger, iger, egiñez joiazan. Txori luma urdin eta gorridunak ziran aurrekideak, talde bitan lerroturik. Eltxo ta euli-mandoak, Yalmarren buru ganean edoi zalapartari ta saratat-sua irudituz ebiltzan.

Ze bidaldi atsegintsua, Yamalrrentzat izan zan! Tarte batzutan, basoa illuna zan eta izugarria, ta beste une batzuetan, argitasunez beteriko baratz eder baten irudia. Ibai luze aren ure ganetik joanez, gaztelu eder eta bikain baten albotik igaroten zan. Gaztelu onen leioetan, ipuin-printzetzaren antzera, bere antziñako adiskide nezkatilla ikaslekideak egozan. Yalmar euren albotik, guztiz ur igarotean, irribarrez agurtzen eben eta besoak luzatuz, gozoki ugari ta gozo-gozoak eskeintzen eutsoezan. Gaztelu aurrean, bere ate-nagusiaren, aurrean eta gazteluen zain, egiazko printzetzak. Oneik euren urrezko espatak jasorik, Yalmar ikusi orduko agurtzen asi ziran.

Ibaitik igaro ondoren, ez ekian zelan, baña areto argitsu batzuk zearkaturik, uri ta erri ezezagun batzuetara eldu. Azkenengo ikustatu eban errian, andra bat oiuka beragana besoak zabalik urreratu zan. Umetxutan bere ama-ordezko izan zan andrea ta bera ain maite ebana. Berak, andreak, egindako abesti beragaz zeazkaten eban Yalmar txikitxua zanean, lo egian. Eta abesti onegaz agurtu eban. Au zan abestia.

*Beti zaitut nire gogoan
Yalmar, nire maitea
Zure zitori gogoan dodaz.*

*Zure moteltasun alaiak
Nire arimea barrez bete eusten
Jaunaren Jaun-aulki alboan
Aingeruen abestien bezela.*

Ama-ordezkoak, Yalmar bere besoetan eukiten ebanean, txoritxuak euren abesti bardin-bardiña eresten eben, loratxuak be euren laztoetan dantzaturik, guztiak alaitasun itzelgarriaz emoten eben bizia. Lokartuzaintzaileak bere ipuiñak edezten eutsezen bezela, bardin-bardin.

EGUAZTENA-EGUAZKENA

Ze euritsua zan gaba a! Lotan be Yalmarrek euriaren otsa leioetan jorik entzuten eban. Eta Lokartuzaintzailea leiotik sartu zanean, bere alboan, leio alboan, ozin aundi bat sorturik, etxe alboan itxasontzi bat be gelditurik egoan.

Etorri gura dozu nigaz, Yalmar?, iratxotxuak esan eutsan. Urrunetako uri ta laterri politak ikusiko doguz eta biar goizean itzulita, emen izango gara.

Yalmarrentzat ez zan oldoztu bearrik, eta beingo baten bere soñeko barrienagaz, ontzi barruan aguretxuaz batera ontziratuta aurkitu zan.

Beingoan atertu eban, eta uriko urez ondaturik egozan kaleetatik bare-bare joan ziran. Eleizara eldu ziranean, eurak inguratuten ebazan urak, itxaso-zabal bat zan. Etxeak apurka apurka estaldurik, azkenean itxas-aundi, ozeano deritxon baten barneratu ziran.

Andik laster, laterri beroago baten billa joiazala amiamoko aldra bat ikustatu eben, lerroan joiazan, eta euretatik lenengokoa, lerroan lenengo joiana, urrunuten ia ikusi eziñekoa zan, osteraz azkenengoa indargabetuta moteltzen, guztiz atsean aldragandik geratu zan. Alako baten, leertuta, guztiz nekatuta, itxasontziko soka baten ezarri zan, baña an be eutsi eziñik, zirika, narrez, apurka apurka itxasontziko zubira jauzi zan.

Bertako gizon batek adikatuta aurkiturik, bere oillotokira eroan eban. Oillotikian, oilloak ez eze aate ta indi-oilloak be bizi ziran, eta amiamoko errukigarria atxilotuta bezela geratu zan.

Klo! klo! klo!, zein geldoa dan! Baña ze geldoa! klo! klo! klo! Ze izaki barregarria! Ondo begiratu dozue lagunak beragan!, barreka iñoen oilloak.

Talde aretako nagusia, oillotokiko jabea, indi-oilloa zan eta bere ego luzeak astindurik, amiamokoagana urreratzen abiatu zan arroputz-aundiki bat iruditurik eta esan eutsan.

Nor zara zu, izaki bakan ori?

Amiamokoek erantzuna ez eben itxaron aateak, eta euren "Kuac" "kuac" sarata-txuakaz zalapart ikaragarri sortu eben:

GABA ARETAN EURIA UGARI IZAN ZAN. NAIZ TA LO EGON, YALMARREK EURI TA EKAITZAREN OTSA LEIOKO BEIRATAN ENTZUTEN EBAN...



ETORRI GURA DOZU NIGAZ, YALMAR? URRUNE-TAKO LATERRIAK IKUSIKO DOGUZ.

37



YALMARREK AZKE ITXIRIK, AMIAMOKOAK BIZTZEZ ESKERTU EBAN. IZARTU TA GEIAGO EZ ZAN EZER JAZO.



AGURETXUAZ LEIATSU URTEAN EBAN YALMARREK. ONTZIRATU ZIRAN ETA BIDALDIAN AMIAMOKO ALDRA BAT IKUSI EBAN. EURETARIKO BAT ITXASONTZIAN JAUZI.

Kuaa! kuaa! kua! Ze ergel ta ketoa dan!

Amiamokoak Afrika buruz itz, berba, egin gura eban. Bera urtero joaten dan lurralde eder, bertako txuntur ospetsu, ango basoen margo dizdiratsuatnaz eta basozaldi bat bezela ariñeketan egiten dauan egalper egazti buruz, berba, itz, egin eban, ango edertasun ta giro argitsua azalduz.

Baña oillotokiko biztanleak ez eutsoen jaramonik egin, eta barriri indi-oilloa asi zan berbetan.

Ez da egia, lagunok, danok batean ergel bat bezela ezarri dogula?

Danak ados egon ziran eretxi orretzaz eta amimokoak eurakan iñoiz geiago ez gogoratzea erabagi eban, ostera asmatzen egoan, zelan lurralde aretatik iges egin Afrikarantz egaz joateko.

Iñoiz amaitzen ez diran anka batzuk daukaz! indi-oillarrak esan eban. Zegan arrea, adiskide?

Aate ta oilloak barriri batera barre algarak egin ebezan, baño amiamokoak ez-entzun egiñez aurrera jarraitu, lelokeritzat arturik eta jaramonik-gabe. Jokaera au ez zan izan indi-oillarraren guztokoa, eta apur bat asarratutik garrats esan eutsan.

Jazoki onetan adeitasunik ez dozu agertu, irribarretxu bat egitea ez jatzun izango bat be gaitza, ostera sarritan ez dozu izango eukerea txantxa ta jostari ain bikaiñak entzutea, beste alde batetik, izan leiteke zure aditzeren barruan ez izatea. Ez da ez, berezi-berezia gure lagunaren aditzea, Glo!, glo! glo! Barre onegaz amaitu eban.

Danantzat txantxetako une aretan an jazoten zana, baño Yalmarrerentzat ez, ba da oillotokirantz abiatu bertako atea idegi ta amiamokoari deitu eutsan. Au beragana, Yalmarregana, bere albora beingoan joan zan.

Amiamokoa luzaro atsedentzen egon zan eta gero burua makurturik eskerrak emonez, bere ego luzeak astindurik, egazka lurralde beroetako bidea artu eban.

Oilloak au ikusirik guztiz asarretu ziran, aateak ouka ziarduen ta indi-oillo errukagarria, zain-dardara eraso bat jasan eziñik.

Yalmarrek begirekada gogor-gogor bat egiñez, esan eutsan:

Biar erreko zaitugu, ondoren bazkari eder bat egiteko.

Orduan, bat-batera, izartu zan eta ez zan jazo besterik.

EGUENA-OSTEGUNA

Gaur zuretzat ustegabekeri bat dot! Lokartuzaintzaile zaarrak esan eban:

Eta bere eskua zabaldurik, sagutxu bizkor, ule urdin-nabardun bat erakutsi eban.

Zure amaren jaki-gelako sollairuan, zeinetan euren gaztelu eder eta polita, egoitza bezela daukien, izango dan sagutxu bi oneen eskontzara zuri dei egiten natorkizu.

Baña ni an zelan sartu al izango naz? Yalmarrek itaundu eban.

Ori neure arazoa da, Lokartuzaintzaileak inñotsan. Txikitu egingo zaitut.

Orduan bere sorgin-makillagaz ukuturik, Yalmar atzamar baten neurrikoa biurtua izan zan.

Orain gudariak bere beraunezko soñnekoa itxi daitzula, ba da guztiz egokia ikustea, olako batzar garrantsitsu batera joateko, izakera polita iruditzen dau.

Yalmarrek, Lokartuzaintzaile zaarraren argitasun guztiak zeatz bete ebezan, eta jantzita aurkitu zanean, guztiz dotore eritxon egoala.

Zuzenean egon zan.

Sagutxuen egoitzara eldu ziran, eta eskongai baten amagaitik on-artuak izan ziran.

Mezedez jezarri zaitez emen! Yalmarrerri esan eutsan, bere amak, egun batzuk aurrerago galdu eban titarea eskeñiz.

Poz-pozik andre!, baño nigaitik ez zaitez orren beste arduratu, arren.

Gero egoitza erakutsi nairik, zure arteko bitarte batzuetatik argitua zan bidebarnetik eroan eban.

Ez dau benetan usain gozo-gozoa?, sagutxutariko batek esan eban.

Sagutxu gazteak, etxea koipez igortzen guztiz lantsu ibilli dira azkenengo egunetan, ba da, garbitasuna baño gauza oberik ez dago, andra-sagutxuak inñotan. Olan eskontza opa bear zan areto nagusira eldu ziran, beratan estegukide guztiak alai egozan. Eskumara sagu-andrazkoak, alkar-izketa saratsu ta mamintsuan, eta eskerretara sagu-gizonezkoak euren suurpeko uleak apaintzen arduratsu.

Andik asti labur baten, eskongaiak euren jarraigoak lagun, eldurik areto erdiandian ezarri, bakoitza bere gaztai zatian jezarrita. Jarraigoak euren aldamenetan.



AGURETXUAREN ZOZT-IRETZOAREN BITARTEZ
YALMAR TXIKITXUA BIURTURIK, BERAUN-GUDA
RITXUAREN SOIÑEKOA JANTZI EBAZAN...

38



LILLURAGARRIA IZAN ZAN ESTEGUA. GERO YALMAR BERE ETXERA ITZULI POZ POZIK, AINBES-
TE NOTIN BEREZI TA AUNDIKIA EZAGUTU AL IZAN EBALAKO.

Eskongaiak euren arpegietan zorion utsa agertzen eben. Euren ankatxuak krutzaturik, laztantasunez begirekada lilluragarriak alkarganduz.

Saguak ugalkorrek dira, zendi umetsuak izaten dira, alan da ze, estegura geroago ta estegukide geiago eldu ziran, azkenean areto aretan guztiz gaitza zan mugidu be egitea.

Aretoa ta barne-bideak urdai-koipez gantzututa egozan, eta ori izan zan sagutxuen, estegukideen, asierako lenengo jakia, onkeri edo mai-azken lez, eskurik-esku idar, illar, aundi bat izan eben. Idarra legortua zan eta beratan eskon-barrien len-izkiak zirizkatuta egozan. Au izan zan estegu-gozokia.

Jaikide danen eretxiz, jai guztiz bikaiña ta alai-ederra izan zan.

Yalmar bere gelara itzulirik, bere betiko neurria lortu eban, eta uste eban merezi izan ebala unetxu aretarako bere neurria galtzea, ba da onelan izaki berezi batzuk ezagutu al izan ebazan.

OSTIRAL-BARIKUA

Eziñekoa da ain-beste notin adiñekoak, eurak lo dagozan bitartean, ni euren alboan egotea gura dabenak! Lokartuzaintzailleak esan eban. Eta batez be euren giza-barnea garbi ez daben guztiak. Biotz-miñaz eta errukigarria deiten dauste, esanez: aguretxu begiko ori, ezin dogu lorik egin, gaba osoa emoten dogu gure egikisun iratxo-obengarrizkoak uxatu eziniñik. Zergaitik ez zatozkigu gure iratxoak ainatzen eta lo zoriontsu bat eginazoten? Ganera nire serbitsu edo morroiketa ordez, nire leioan dirua itxiten dauste.

Ara, esan eban Yalmarrek, nik jakin gura dodana da, ia zer egingo dogun gaur gabean.

Gaur gabean beste eskontza bat dago, Lokartuzaintzaileak guztiz oldozkor esan eban, naizta gaba bitan erreska jai bardiñak izan, uste dot jaikidea izatea atsegin izango jatsula. Hermantzaz da, zure arrebearen gizonkil aundia. Berta andra-killagaz eskontzen da. Eskontzen diran egunean, emaztegaiak urteak be betetzen dabezen ezkerro, jai ikusgarri ta guztiz alaiak izango dira, ziur, bezuza edo opari be, ugari egongo da. Ikusgarria benetan.

Ba nekian ori!, Yalmarrek apur bat atsekabetuta esan eban. Nire arrebeari jantzi barri bat egiten dautsen bakoitzean, bere andrakillatariko anbatek, urteak betetzen dauz edo eskontzen da. Eun bider gitxienez eskondu dira.

Aa, orregaitik oraingoa eundebatarrena da! Egunero ez dau opatzen batek, norberaren eundebatarren eskontza! Oraingoa zekulako jaiak izango dira! Oparotasuna jaki-edarietan iñoiz bezelakoa izango da!

Yalmar au entzunik apur bat bizkortuta, danak jostailu-gelara joan ziran. Andrakillaren etxea edo egoitza, argitsu agertzen zan, eta atean, sarreran, beraunezko gudaritxuak euren izkilluakaz zain. Eskongaiak, mai-anka bateaz baliatuz, arduratsui lurean. Egia esan arduratzeko, arduratuta egoteko, zio naikorik izango eben.

Lokartuzaintzaile zaarrak, amamaren jake bat jantzirik eskondu ebazan. Eleizkisuuna amaitu zanean, bertako altzari guztiak batera, abesti eder au abestuten asi ziran:

GAUR
GABEAN ZER
EGINGO
DOGU?

GARA. ZURE AIZTEAREN GIN-
ZONKILLA TA BERTAREN
ANDRAKILLA
ESKONTZEN DIRA.

YALMAR ETA AGUREA JOSTAILLU-
GELARA JOAN ZIRAN ETA BERTAN
LOKARZAINZAILLEAK BIKOTEA
ESKONDU EBAN.

ZER EGINGO DOGU? ATSERRIRA
BIDALDI BAT EGITEN JOANGO
GARA?

ESKON-BARRIAK EZ ZIRAN
LEZ ALKAR-ADITZEN,
OILLO-LOKA BATERI BERE
ONUA ESKATU
EUTSOEN, ETA
ELAI
BATEK...



BAI, OIILLOKEA ZUZEN DA, ERAZOIA, DAU,
BERE ERRIA GUZTIZ POLITA DA. AREA PILLORA
JOANGO GARA TA
BIDALDIK EGITEN
AZA-LURRALDETARA

ETA OLAN ZUZENDU
ZAN A RAZO AU...

*Gora eskongaiak, gora gora
Aizeari opa daiogun gure abesti polita...
Naizt gor, mutu ta itsuak izan...
Ze ardura, leba da!
Gora, gora! oi u egin dagigun
Bizi osoan alkar maite izan daiela
Naizta euren biotza laztokoa izan...*

Bereala, bezuza edo opariak eldu ziran. Janari, jakirik, ez eben gura izan, ba da eukezanakaz naiko eben bizi al izateko.

Bat batean, zenargaiak itaundu eban:

Zer egingo dogu? Zelaieta baten etxetxu bat akuran artu, ala ludian zear arrotz-erritik bidali zoragarria egin?

Eztabaida aundia sorturik, eta alkar-eretziaz ontzat artzen ez ebezan ezkerro, azkenean laterri askotatik ibillitako ta bertako lurralde polit asko ikusiko elai bateri itauntzea, erabagi eben. Baita be bertan egoan oillo-loka zaar zaartxu bateri, gitxienez bost-txitakadaren ama izandakoa.

Elaitxuak lurralde beroak, zelan goraldu ez ekian. Lurralde eder eta aberatsak, iñoan, eurentan maasti zabalak, maaaz-garaorik aundi ta mamintsuenekaz, aize epel eta atsegingarri ta mendi-magalak zekula ikusi ez diran margo dizdiratsu ta berezienakaz.

Elaitxuak bere azalpena amaitu ebanean, oillo-lokea berbetan asirik, iñoan: Beiñola nire txitatxuekaz ortu eder baten aitzu eziñeko Uda emon neban. Beratan area beterizko zulo bat egoan, zulo onetan nire txitatxuekaz astrakan egiten neban eta baita be, ortu onen alboan beste bat, beste ortu bat, aza zizur batzukaz, geuk gura genduanean sartu ta urten bertatik egiteko. Aa, jakingo ba zeunke! Ze baratz ain samur eta biguna!

Ara, emen be ez da egoten ain txarto, batan batek esan eban.

Dana da oituratzea, iñoan beste batek. Guztia zan eretxia.

Baña emen otz aundia da, oillo-lokeak esan eban.

Azaentzat orixe da onena ba, elaitxuak iñoan.

Jakiña, oillo-lokeak erantzun eban. Ganera, ondo begiratu ezkerro, emen be nozean bein, eguraldi ona izaten da. Ezaidazue, nor ez da gogoratzen orain lau urte izan genduan Uda bero ta argiagaz? Bost aste iraun eban Uda aregaz? Gogoratzen zarie ez? Beroan beroz arnasea be ezin zan artu! Orrez ganera, lurralde beroetan egoten diran basa-piztirik ez daukagu. Bai, bai, bene benetan, gizaseme gaiztoa izan bear dau, gure erria itsusi ta gogaitzat eukiteko. Emen bizitzea merezi ez dauan gaizto zital bat! Azkenean oillo-lokeak, bere berbeta minduaz negarrez amaitu eban.

Ara, guzti ori ondo dago, elaitxuak naiko artega esan eban, baña zer esan zeinke zuk, txango ta bidalien atsegiñatzaz?

Oillo-lokeak orduan, intziri aundi bat eginda, jarraitu eban.

Ni be bidali anbat edo beste egiña naz... Bein baten, laztozko otsaratxu baten sartuta, amikako bat milla egin nebazan. Zintzotasunez esan bear dot, bidaldi edo txangoak egitea ez dala bat be atsegintsu, beintzat niretzat.

Oillolokea bide zuzenean da, errazoia dau, Bertak esan eban. Menditan gora ta bera ibiltea ez da niretzat atsegintsu, eta orregaitik ate ondoko area-moltsora joatea erabagi dot. Bertatik geldiro-geldiro bidali laburtxu bat egin, azaz beteriko soletaraño elduaz.

Olan, eztabaida edo alkar-izketa au, izaki onen artean amaitu zan.

LARUNBATA

Egun aretan, Lokartuzaintzaileak Yalmarreri deitzeko agindu eban orduko, onek ogetik itaundu eban:

Gaur gabean ipuin polit bat entzungo dot?

Tamala dot, Lokartuzaintzaileak esan eban, baña gaur ipuiñetarako ez dot astirik. Ondoren bere aterkiña zabaldu ta jarraitu eban, Begiratu eizuz txinatar oneik!

Egia zan, aterkin osoa txinatar ikuspegi bat zan, zugatz urdiñak, baso nabarillunak, zubi bakan eta ederrak eta burua sestokari mugitzen eben txinatartxukaz.

Biar jai-eguna dan ezkerero, ortzi osoa garbitu bear dogu, Lokartuzaintzaileak esan eban.

Ara, lenen-lenen auzoko eleizako dorrera joan bear dot, onek izan bear dau nire lenengo egikisuna, iretxoak bertan bizi ba diran jakiteko. Trebeak dira ta leiatsu dabiltz kanpaiak labaindutzen, euren otsa, kanpaien otsa, argiago izanik, kanpaijorraldia obeto, errezago, entzun daiten.

Gero landa ta lurralde zabaletara joan bear dot, aizeak bedar eta orrietako autsa ondo astitzen ba dau ikusten. Naiz ta, egia esan, niretzat bearrik, lanik, neketsu ta astunena, zeruko izarretara, eurak dizdiratsu ipinteko, igon bear dodanean izaten da. Ba dakizu zelan egiten dodan? Eurak zenbatu ondoren, nire altsoan ezarten dodaz, baña ondo be ondo begiratzuz zulo txuak non daukiezan, gero eurak barriz lengo tokietan uts barik ezarri al daidazan.

Ori egingo ez ba neuke, izartxuak ezingo ziran zeruan eutsi ta orduan ortzian izar-koloka larregi ikusiko litzakez.

Une aretan, Yalmarren oge ondoan orman eskegita egoan argazki zaar batek, Lokartuzaintzailean bakar-izketan sarturik esan eban.

Eeee zu! Ez nozu ezagutzen ala? Yalmarren eren-aitita naz eta bere senide, aidea, izanik, asko poztuten naz nire illobatxuari ain gauza ta ipuin politik edestutea, baña ezin dot ontzat artu, bere burutxuan ainbeste gogai edo asmakisun, ergel eta geldoak.

GAUR GABEAN LUDI OSOA
GARBITU BEAR DOGU, BA DA BIAR
JAIA DA. GAITZENA,
GOGORRENA, IZAR-
TXUAK DIZDIRATSU
IPINTEA DA...



IEZ ZUI YALMA-
RREN ERE-AITON
BAT NAZ, ETA ATSE-
GIN AUNDI DOT
IKUSTEAN JOLASTEN
DOZULA BERAGAZ,
BAÑA ERGELKERIRIK
EZ EIOZU
EDESTU...



IONDO DAGOI ZU ZEN-
DIAREN SORTZAILLEA IZAN-
GO ZARA, BAÑA NI ZU BA-
ÑO ZAARRAGOA
NAZ...

ETA TXIRO TA ABERATSEEN
ETXEAK IKUSTATZEN DODAZ
ETA BA DAKIT ZER EGIN BEAR
DODAN ETXE TA TOKI BAKOI-
TZEAN.



ONDO DA, NIK
NEURE ERETXIA
ESAN DOT BESTE
BARIK...

ORDUAN
YALMAR IZARTU
ZAN...

Esate baterako, izartxuak ezin doguz gure eskuekaz oratu dizdiragarritsu ezartzeko. Ori guzti eziña da.

Ondo dago eren-aitita jauna! Lokartuzaintzailleak esan eban. Ondo dago! Zendi onen burua zu zarala ikusten dot, baña zure aldetik be, ez dozu aitzu bear, ni emen, ikusten nozun toki onetan, zu baño zaarragoa nazala. Ain zaarra ze, erroma ta gretziatarrak be Ames-Jaungoikoa deitzen dauste. Iragan-aldiak be koska edo kalterik egin ezin leikoen izaki bizi bat, ba da bera bezelako zaartasun bat dodalako.

Beti ibilli naz baterik bestera guztien etxeak ikustatzen, txiro ta aberats, sendo ta gaixo, apal ta altsuak, eta ondiño bardiñean jarraitzen dot. Eta ondiño geiago, ba dakit zelan jokatu andi ta txikien arazoetan.

Naikoa da, naikoa da! eren-aitaren argazkiak esan eban.

Nik ez dot besterik egin, nik neure eretxia agertu dot.

Unetxu beratan Yalmar izartu zan.

IGANDEA

Gabon! Lokartuzaintzaileak esan eban.

Yalmarrek be agurtu eban eta ondoren bere ogean agonduta, bere eren-aititaren argazkia begiratzuz, bere baitan iñoan:

Nire asabeak, Lokartuzaintzailearen berbaldia, itzaldia, geldi-azoko dau?

Une labur baten, olan ixil-ixilik geraturik, agurea lengo gaia arturik, barriro bere bakar-izketa noiz asiko dauan, bildurrez. Baña ori ez zan lez jazo, ez zan ezkerro jazo, Lokartuzaintzaileari, leka baten bizi ziran bost iderren kondaira edestu egiola, eskatu eutsan, eta baita be, aatetxuan atsean ebillen oillar-ankatxuena be. Josteko orrotz, bere neurrigaitik, irazki-orrotza dala uste ebanena, edeztu egiola eskatu eutsan.

Ez, Lokartuzaintzaileak esan eban, orretariko ezer edeztuterik ez dot uzte. Edes-tuko dautzudana, uste dot, zuretzat zeozer, zerbait, obe ta irakatzki eder eta aundiago bat dauana izango da. Nire anaia, ni bezela, Lokartuzaintzailea deritxona erakutsiko dautzut.

Zu bezela bardin!, Yalmarrek oiuka iñoan, eta egia esan arrituta.

Bai, bardin. Baña bera, egunero edo obeto esanda, gabero, notin edo pertzonak ikusten joan bearzanean, bere bizi osoan bein bakarrik eurak ikustera joaten da. Orduan, ikusten joaten dan notin edo pertzonea, bere zaldiaren lepoan arturik, berak dakizan ipuin bakar biak edestuten dautzaz. Euretarike bat guztiz polita. Zekula iñok azmau ez daualako ipuin polita. Eta bestea ostera, guztiz itsusia, itsuzin itsuziz edestu eziñekoa.

Orain nire anaia ezagutzeko aukerea izango dozu, beste Lokartuzaintzailea batzuk oneri, nire anaiari, izan eskiar bateaz deitzen dautsoe, Eriotza.

Ikusten dozu? Ez da ain itsusia. Ez da liburuetako argazkietan argitaratzen daben aiñakoa, orreitan, liburuetan, ezurtza bezela beti agertzen da. Ikusten dozu bere opalardan ederra zidarrezko azpakaz azpildaratuta? Husaren soiñeko edeer eta polit bat da, longain baltza bere lepotik dindilizka ta bere zaldiaren anka ganean, ikur izugarri ta dizdiratsu bat bezela... Ikusten dozu? Begiratu eizu zelako lauankadakan doan!



GAUR, YALMAR, NIRE ANAIA IKUSTERA TA EZAGUTZERA EROANGO ZAITUT. ERIOTZA DERITXO TA IPUIN BI DAKIZ. BATA POLITA DA, TA IZAKI ONANTZAT DA, BESTEA GAIZTOENTZAT GUTZIZ MOTS ITSUSIA.



NIK USTE DOT ERIOTZA LOKARZAINZAILLE ON BAT DALA. EZ NAU IKARATZEN BAT BE.



ONDO EGIN NEBAN ONU ORREEKAZ OAR-TZEA. ILLOBATXUARI IKASKAI EDERRA ADIERAZO DAUTSO.

BAI, EDERTO SEME, BANA ZURE BILLA ETORTEN DANEAN IKAS-OAR ON BAT EROIOZU. AU DA AOPEKOA.

Yalmarrek ikusi eban, bai, beste Lokartuzaintzaillea, zelan edoi baltz ganetik arinka, adin eta mail guztietako andra ta gizonezkoakaz joiiala- aberats, txiro, duke, antzergilleak, apalak...

Aldizka gelditzen zan, atxilotuta eroazanei begiraturaz, aldatu egiten ebazan, batzuk aurrean eta beste batzuk atsean ipiñirik. Danari banan banan itaunduten eutsen:

Ona izan zara?

Bai, ona izan naz, erantzuten eban, galdetua izan zanak. Orduan baietz orren agerbidea edo txartela eskatzen eban.

Itxi eidazu zure oarkiak ikusten, gogorki agintzen eban.

Bakoitzak bere txartela irizpenagaz agertzen eutsan.

Bikain edo "notable" edo "sobresaliente" eukien zoriontsuak, bere zaldi ganean ezarririk, ipuin polit bat edestuten eutsen. Gero zoritxarrekoak izan ziranei, ontzakoa edo "aprobado" bat bakarrik edo ondiño txarrago. Uts-urten edo "suspense" atera ebanei, betiko ipuin guztiz itsusi ta gogarri a edestuten eutsen.

Eta zelako negarrak eta oinkadak, eta zelan jaitsi gura izaten eben zalditik ipuin izugarri a entzutean!

Baña berandu zan, ezin izaten eben ezer egin, ba da ondo lotuta egozan eta ezin ziran mugidu ezelan be.

Yalmarrek esan eban.

Uste dot Eriotza, Lokartuzaintzaille on bat dala. Ez nau bildurteri. Ez dot ezelako bildurrik!

Jakiña, umetxua, ez dautsozu bildurrik izan bear! oiuka Lokartuzaintzailleak iñoan. Baña ori bai, alegindu zaitez beti ikas-agiri onak lortzen. Orrek izan bear dau zure arazoa. Yalmar maitea.

Eren-aititaren argazkia alkar-izketa au entzuten egoan eta guztiz atsegin eta zoriontsu, irribarre gozo bat bere espanetan agertu eban.

Arraioa!, ixilka esan eban. Lengo gabeen txist egiteaz ondo jokatu neban. Norberen eretxia azaltzea beti izaten da egokia. Ikaskai guztiz polita izan da nire illobatxuarentzat...

Nasaitasun-intziri bat egiñik, barriro ixildu zan.

Au da Lokartuzaintzaille zaarraren kondaira. Atsegin izan jatzue? Ez zaiteze arduratu, bear ba da gaur gabeen izan leiteke zuen albora joatea, ta beste kondairatu bat edestu.

PULGARTZILLA

Aldi baten, nezkatilla txikitxu bat gura eban andra-baserritar bat izan zan. Andra errukigarri orrek, nezkatillatxu ori noiz etorriko dan azperturik, sorgin zaar bateri aolkua eskatu eutsan.

Zer egin bear dot nezkatilla txikitxu bat izan daidan?, itaundu eutsan.

Ara, ori, guztiz erreza da, sorgiñak erantzun. Eutsi au, artu eizu au, eta lorontzi baten barruan ipiñi eizu.

Baña au, garagar-garao bat baño ez ba da! baserritarrak esan eban.

Bai, ba dakit, baño abereak jaten daben garagar-garao ez da, ez eizu aiztu. Zuk egizu esan dautzudana, ta ikusiko dozu...

Milla esker baserritarrak esan eban eta garagar-garaotxua ordaindu gurean, zidarrezko txanpon bat eskeiñi eutsan.

Ettxera eldu orduko, bere ortuko lurrez beteriko lorontzi baten barruan garaotxua ezarri eban. Eta gauza arrigarria, beingoan lora lirain bat erne, sortu zan, idi-biotz antzeko loratxu polit bat. Bere erbatzak ertsiak eta estuak ziran, ba da ondiño lora-kuskua zan.

Ze lora ain ederra! andratxuak iñoan, mozu bat arrimenez lora erne-barriari emonez.

Une beratan, lora-kuskua zabaldu zan sarata edo ots txiki bat egiñik. Bai, a idi-biotz bat zan, zalantza barik, baño lora-begien ule-gurizko oinpeko baten jezarrita, ume txiki-txikitxu bat agertzen zan. Txikitxua bai, baño azkarra ta liraiña. Baserritar-andreak, uste-gabe, barre-zantzo bat egin eban.

Pulgartzilla! iñoan. Pulgartzilla izango da izena! Andik aurrera Pulgartzilla txikitxua guztiz nasai egon eiten, andra-baserritarrak bear zan guztia antolatu eban. Intxaur bat zabalduarik, mozkol-erdia garbitu ta barrua utsiturik, ba eukan nezkatilla-txuentsat bere otsara, seaskatxua. An eukan ba, nezkatillatxua lo-gura zanean lo

BEIÑOLA BASERRITAR-EMAKUME BATEK NEZ-
KATILLA TXIKITXU BAT GURA EBAN. SORGIN
BATEK GARAGAR GARAO BAT EMON
EUTSAN ETA EREIN EBAN. TULIPAN
EDER BAT ERNE ETA, BERE BARRUAN...

IAAA, ZER POLITA DANI
PULGARTZILLA DEITUKO
DAUTSAT...

42



INTXAUR AZAL ERDI BATEAZ ZEAZKATXU BAT
EGIN. EGUN BATEN, ETXEAN SAPO AUNDI BAT
SATURIK PULGARTZILLA BERAGAZ EROAN EBAN,
BERE UMEARENTZAT, SAPOKUMENTZAT, JOSTAILLU
BAT BEZELA IZAN EITEN.



NENUFAR BATEN GANEAN EZARRI
EBEN, ETA PULGARTZILLA IZARTU
ZANEAN...

IEZ EIZU NEGARRIK EGIN, POLIT
ORRI GOIBEL ETA ASARRE EGON
ZAITZEN EZ DOGU GURA.

NENUFARREN LASTOA EBAGI-
KO DOGU TA JOAN AL
IZANGO ZARA...



egian, bere ogetxu txiki-txikia. Bigungarri bezela, aurkitu al izan ebanik lili-ubel orririk onena aukeratu eban. Estalki bezela, larrosa lora-osto bi. Pulgartzillak olan asi eban bere bizitza.

Gabero mozkol-intxaurrezko seaskatxuan ogeratzen zan eta eguna jan-toki gelako mai ganean jolasten emoten eban. Mai onen ganean baserritarrak azpil bat urez beterik ezarrita eukan, eta beratana uretan sartuta lora-txorta baten laztoak. Azpilleko uretan, idio-biotz bat iger egiñik, uger egiñik, itxasontzi txikitxu bat balitza bezela. Orritxu onetan Pulgartzilla oituratuta egoan bertan ezartzeko. Ze atsegintsu izaten jakon baserritarrari, olako, unetan nezkatillatxua, zaldi-ule zuri bi arraun bezela arturik, itxasontzitzu aretan arraunka ta arraunka ikustean nezkatillatxuak, baserritar arek zekula entzun ez eban abots gozo, lillugarriaz, abesten eban.

Pulgartzillak, baratzera joten eban gela baten lo egiten eban.

Leio onek, beira bat apurtuta eukan eta beratatik, egun baten, zapo lodi, itsusi, didziratsu bat sartu zan. Umetxua guztiz nasai lo egoan seaskatxu alboan ezarri zan.

Aaa, aa, ze umetxu ain eder ta polita nire umetxuaz jolasteko!, zapoak iñoan, bere ondorengoak bakar-bakarrik ortu ondoko ozintxu baten guztiz azpirtuta astia emoten ebala gogoratuz. Eta birritan asmau barik, Pulgartzilla egoan intxaur-mozkola artu bere eskuetan eta ortura eroan eban. Leiotik, beira apurtuta egoan leiotik salto bat egiñez, kaletik zear joan ziran.

Uff, eta ze itsusia zan zapoaren semea be! Bere aita-amak bezelakoa. Barri-etorria edo eldua, ikusi ebanean eta ganera lotan etorralla, ez eban jakin zer esan, eta krokada batzuk baño ez ebazan egin.

Kroak, kroak, kroak! Au izan zan zapokumeak egin eban itzaldi guztia.

Ez iezu ainbeste sarata egin, ergel ori, amak agindu eutsan. Ez zara konturatzen umetxua izartu zeinkela? Gogoa beti izan bear dozu, umetxu ori, bezalutzen lumea bezela ariña dala, eta ondo ez ba dogu zelatatzen igez egingo dauzku.

Zapo-andreak bere burua igortzi eban zoezer gogoratu gurean, bere izketan jarraituz.

Ba dakit zer egingo dogun! Gure ozin-nagusiaren erdi-erdian dagozan igel-bedarretariko baten ezarriko dogu, ta izaro baten bezela, bakar-bakarrik bakanduta izango da. Bertan, guztiz ondo izango da ta iñora iges egiteko bildurrik ez dogu izan bear. Bitartean, guk oziñaren ondarrean, or bean, berantzat gela eder eta zabal bat atonduko dogu. Gero geure zendiko bat bezela, zendikoa balitz lez, arrera begiko, bikain, ospetsu bat egingo dautzogu.

Egia zan; amak esan eban bezela, zapo-amak esan eban lez, ozin erdian igel-bedar batzuk egozan, geienak azi-aziak ziran baña urruneratuta egoan bakar bat, danatarik aziena zan. Zapo-aitak, igel-bedar aundi au, Pulgartzillak lo egiten eban intxaur-mozkola beratara aldatzeko, aukeratu eban.

Biramonean, umetxu txikia, goiz goizeti izartu zan. Urez alde guztietatik inguratuta ta lurretik ain urrun bere burua ikusi ebanean, atsekabez beterik negarrez asi zan.zer izango da nigaz?

Apur bat geroago, ur-ganean zapo-aita ta zapo-semea agertu ziran. Ordurarte umetxuaren gelatxua atonduten ibilli ziran eta euren lana amaitu ondoren ur-ganeratu. Umetxuaren gelan, inge-orri orlegiakaz eta ur-zitori erbatz batzukaz apainketa izugarriak egin ebazan. Zapo-andrea be agerturik, irurak igel-bedarretarantz urreratu, beratana, aize-indarrak eraginda kuluzkadaka egoan intxaur-mozkola ikustera joan ziran.

Ara emen, gure seme ederra, ao-bero esan eban zapo-andreak. Beragaz uste dot ondo, izango zarala, adiskideak izango zariela ta ez zariela bat be azpertuko. Guztiz ona da, ta gugaz ozin onen ondoan, bean, zoriontzua izango zara.

Kroak, kroak, kroak! Zapo-semeak ez ekian beste ezer esaten, urrean. Bere izketa guztia ori izaten zan.

Beste azalpen barik, Pulgartzillaren seaskatxua artu eben eta uger, iger, narraz oziñaren albora eroanez, igel-bedar ganean, umetxua ezarri.

Gero etorriko gara zure billa, zapo-andreak iñoan.

Pulgartzilla bakar-bakarrik geratu zanean, negarrez atsegin-gabe luzaro egon zan.

Inguru aretatik ugaritsu ebiltzan arraintxutariko batek, bere burutxua uretatik atara ta umetxu ain ederra ikusirik, arrituta gogoratu eban, itsusi ta iguingarri zapokume arek alako, ain polit, bigun, jolas-lagunik, ez ebal merezi.

Ezelan be ez, nire adiskideak!, oiuka arraiñeak esan eban, bere lagunei, bitartean begirazoten utsela. Olako burugabekeririk zillegiko dozue?

Danak batera esan eben ezetz. Orduan igel-bedarraren lazto inguruan batu ziran, eta bere ganean Pulgartzilla egoan. Arraintxuak aginkada bat emen beste bat or, azkenean laztoa ebagi eben.

Zoriona adiskidetxua! umetxuari oiuka esan eutsoen, pozez eta alai intxaur-ontzia jabegabe, urak eramanka, baña azke ikusi ebenean.

Umetxuak bere besotxuak jaso ebazan eta bere gaizkatzailei eskerrak emon eutsezan, bide batez agurtuz. Geroago andik guztiz urrun aurkitzen zan, zapo-zendiak atrapau ezin izango eben lekuan.

Ikusiko dozue zer jazo zan. Oziña, errekatxu baten errekatzen zan eta au, errekatxua, ibai aundi baten, zeñek uri notintsu bat zearkatzen ebana. Orregaitik, Pulgartzillak bidali luze-luze bat izan eban, urrunetako lurraldetara elduz.

Bere bidali osoan, txirpillot, mitxeleta, bat izan eban lagun. Txirpillotatxua, guztiz entzinduta urez-joian igel-bedarraren orritxu baten ezarri zan eta biak adiskide benebenetakoak egin ziran.

Egun baten txirpillotatxuak, iñotsan.


Nik zirgatuaz azkoaz be ariñago ur-narraz joan geinteko.

Aa, bai! Pulgartzillak esan eban. Izugarria izango litzake! Baña ez zara larregi nekatuko?

Ez uste izan, emakumea, txirpillotatxuak erantzun. Ara, ekarri eidazu zure ugala, garrikoa.

Pulgartzillak bere ugela emon eutsan, bere mutur bat txirpillotatxuan lotu ta beste

TXIRPILOTA, MITXELETA, BATEK LAGUNDURIK
PULGARTZILLA ARIÑAGO JOAN ZAN. BAÑA
XIRRISTA BATEK NEZKATILLATXUA ATXILOTU TA
ZUGATZ BATEN ADARRIK GOIENERA EROAN
EBAN. XIRRISTA-ANDRA. PULGARTZILLA MOOTSA
BAÑO MOTSAGOA ZALA...



ETA BAZTARTURIK ITXI EBEN. NEGUA
ELDU ZANEAN, BABES LEKU, ABAROA
BILLATU BEAR IZAN EBAN...

BASA-ERRATOI BATEN ABIAN AURKITU. BERAK ETXETXUA GARBITZEN
EBAN. EGUN BATEN ERRATOIAK ESAN EUTSON...



ZATORRA ETORRIKO DA NI
IKUSTERA. GUZTIZ ABERA-
TSA DA. BERAGAZ JOAN
ZEINTEKE TA ZORIONTSUA
ZEURE BIZI OSOAN
IZANGO ZINTZAKE.

EMEN EDERTO
NAGO.

muturra, igel-bedarraren orrian, egaz joango balitzake bezela arin, urganean narraztu ziran.

Baña onetan, alabear zoritxarreko bat jazo jaken. Bertatik igaroten zan xirriztatzar batek, saltukada bat egiñik, bere anketatik Pulgartzillari oratu eutsan eta beste saltukada ondiño aundiagoaz, zugatz baten adarrean ezarri eban. Toki aretatik umetxuak ikusi al izan eban, zelan txirpillotatuak etsipenezko alegiñak egiten ebazala, ugeletik azkatzeko. Bitartean orritxua, ostotxua, korrontak eraginda ibai berantz joian...

Pulgartzillak, ze samintasuna izan eban! Bere zoritxarrak baño geiago samintzen eban, bere adiskide zintzoari jazoten jakona ikustea. Igel-bedarrean orriari lotuta, iñoren laguntza-gabe ezingo zan azkatu, ta neke ta gozez ilgo zan.

Xirriztatzar arek, Pulgartzillaren ardurarik ez eban, umetxuaren samintasanak eta nekeak ez eban arduratzen eta beingoan zugatz aren orpoan, baztar abarotsu aretan egozan lagun guztiei deitu eutsen.

Danak, Pulgartzilla burutik oiñetara begiztatu eben, eta xirrizta-andereño ainduztak, euren ajar luzeak eskarge mugitzen ebezan, eta iñoen.

Ze itsusi-itsusia dan!

Baña ikusi dozue bere garria? Begiratu zarie bere garrian? Anka bi baño ez ba daukaz! Ja! ja! ja! baño gizaki bat dirudi!

Ala ere, bakoitzak bere baitan, xirriztar guztiak, nezkatillatxua benetan polita zala onezten eben. Pulgartzillatxu atxilotu eben xirriztar zaarrak berak be, bere taldekide bateri onetzi eutsan. Baña bai, batak eta besteak, egiaren ota ixildu gurean olakorik ez eben esaten. Beti ebiltzan oiuka, Pulgartzilla, itsusi baño itsusiago zala esaten. Xirrizta zaarrak be, ain beste entzunez itsusia zala, azkenean berak be uste eban, ala zala. Eta xirrizta-andrearen gurariak ontzat arturik, barriro, Pulgartzilla bere eskuetan arturik, bitxilora baten ezarri eban.

Pulgartzilla errukagarriak, zelako negarrak egiten ebazan! Egia izango da, ni ain itsusia izatea? bere baitan esaten eban edo gogoratzen eban, xirriztak be arbiatzen ebela ikusirik. Bera, ludiko izakirik bikain eta ederrena zana, ogia bera baño be obeagoa ta larro-ostoa baño biotz aundiago eukana!

Udabarria amaitu ondoren, Udea bere egun argi-luze ta berotsuakaz agertu zan eta Pulgartzilla, baso itzel aretan bakardade arrigarri baten, egon bearko eban. Egun baten euria zan eta nezkatillatxua buzti-buzti egin zan. Orduan txabola edo antzeko zeozerlako aterpe bat eraikitzea erabagi eban. Gogoratu, euri ta ekaitz egunak naiz beroaldiak, atsedentsu ta nasai emoteko, txabola bat, abaro egokia izango litzakela. Orretarako, obeto al izan eban lez, agerdi-lili orri, osto bat teillatu antzera zabaldurik, orripe orretan bedar legor zatitxuakaz oge eder bat egiñaz. Gela aretan, erdi-erdian ogea ezarri eban.

Loratxuetatik eriskatzen eban eztiuz, elikatzen zan eta goizero orritxu ganeetan aurkitzen eban garao, izaten zan bere edari. Egoitza ta biziera polita Udako egualdie-tarako.

Dana joakion ederto, Negua bere egun illun, euritsu, ekaitzduna agertu arte. Neguaz otsa ta edurrak eldu ziran, izotza ta gaba luzeak bakardade aretan bizitzeko. Aizeak zugatzetako orri guztiak, indartsu astindurik lurrera bota ebazan orbela bihurturik, eta baso osoa, iñoiz baño illunago, oiartzun izugarritz beterik. Aize-txistuak, zugatz adar eta xutzur legorrerak indartsu astinduaz soñu negargarria iruditzen eban. Bere txabolatxua, bere egoitza, be legorturik otzak kikildutako lazto baten antzera bihurturik. Pulgartzilla errukigarria, gozez eta otzez, ikaraz dardaraz, erdi-illik egoan.

Geroago ortzi-goitik edur ixil-zuria dariola, lurraldea irudi barregarriakaz baltzitu eban. Eta jakina, Pulgartzillak eban neurriaz, edur-malko bakoitzak, geuri ontzi aundi bat edo balde urez beteriko bat buruan ganetik jaurtiko baleuskigu-lako ondorena eragiten eutsoen. Arinuketan orbel legor baten tximurrean abaro aurkitu gurean joan zan, baño bere gorputzean ez egoan berorik eta otz eta gozeak eraginda dardaraka jarraitzen eban.

Gogogabe, erdi-illik, Udako eguraldi berotsuetan garitze izaneko lurralde batetik abiaturik, beingoan baso-arratoi baten etzangua aurkitu eban, eta apur bat geroago bere atea zan zulo aurrean egoan.

Ze zoriontsu bizi bear da or barruan! Pulgartzillak gogoratu eban, arratoiaren egoitzara sartzeko zulotxua ikusirik.

Atea joten, deitzen, be ez zan auzartzen, bertan, zulo aurrean, geldi-geldi geraturik, eskekotxu bat ate aurrean amoina noiz artuko geratzen dan bezela. Berak bear eban laguntza, zorionez, laster eldu jakon. Minutu batzuk geroago, erratoitxuak leiotik bere burua agertu ta nezkatilla ain polit eta txikia ikusirik, esan eban.

Errukigarria! Sartu zaitez nire etxean, emen berotuaz apur bat bizkortuko zara ta gero zerbait, zeozer, bazkalduko dogu.

Pulgartzillak asmau eban bezela, egoitz barruan giro bero-beroa zan, ba da gela guztiak naiko babestuta egozan. Orrez ganera, erratoi, erratoi-zaldun oso-osea zan, biotz-onekoa, aletegi ondo ornitua, sute edo sukaldea ona ta jaki-toki ohea. Umetxua arratoiri, guztiz begikoa izan jakon eta Negu osoan bertan geratu leitekela esan eutsan.

Emen egin bearko dozun guztia, erratoiak jarraitu eban, etxea isustu ta nozean bein niri ipuin bat edestutea izango da. Ba dakizu, ipuñak atsegintsu jataz.

Pulgartzillatxuk abegi onez artu eban, eta egia esan, arratoitxuaz astia ez joakon txarto. Arratsalde baten arratoiak esan eutsan:

Nire adiskide zatorra etorriko jat ikustaldi bat egiten, astero egun baten etorten da. Nire adiskide on bat da, ta ni baño azkoz aberatsagoa. Au baño bizi-leku, egoitz, aundi ta zabalagoa dauka, bizikari geiagoaz betetuta, ta izatez, itxuraz, narruzko soñeko dotore ta aundiki bateaz apaintzen da, beira bat bezela dizdiratsua. Beragandik izango bazintzake on-artua, zure zorion eta alabearraren oiñarria izango litzake. Baña agirian izan eizu, itsua da ta ez zaitu ikusiko. Niri ain atsegin jatazan, zuk dakizuzan ipuñak edestu eiozuz, nire onua da.

Baña Pulgartzillak, izaki ori, zatorra, ez eban ain aintzat artzen eta arratoiaren egoitzara aldu zanean, Zatorra eldu zanean, bere soñeko baltz-dizdiratsu ta gain-

EGUN BATEN ZATORRAREN ETXERA, ONERI IKUSTALDI BAT EGITERA JOAN ZIRAN. BERTAN ITXURAZ ILDA ZAN ELAI BAT AURKITU EBAN. BAÑA PULGARTZILLAK BERE BIIOTZA DANBADAKA EGOALA NABARITU ZOIÑEKOTU TA ONDO ZAINDU, JAGON, EBAN...



NEGU OSOAN PULGARTZILLAK ELAIA JAGON, ZAINDU, EBAN...



UDEA ELDU ZANEAN ALDE' EGIN EBAN. NEZKATILLATXUAK EZ EUTSAN LAGUNDU GURA, ERRATOIAZ ESKER-TXARREKOA IZAN EZTEKO...

EGUN BATEN... ||
PULGARTZILLA, BARRI GUZTIZ ON BAT DOT. ON ZATORREK BERAGAZ ESKONDU ZAITEZAN GURA DAU.

NIK EZ DOT GURA ON ZATOR BERAGAZ ESKONTZEKO.



gaiñekoaz, ia ez eutsan jaramonik egin. Arratoiak, zekulako goralpenak esan ebazan bere auzokide aberatsa buruz, bere aberastasuna, gaitasun eta jakitasuna goraldurik.

Tamala da, eguzkia zalea ez izatea! Arratoiak jarraitu eban. Antza zanetik. On Zatorragaz adiskidetasun berezi eban. Lorak be ez jakoz guztatzen, baña ori jazoten jako euren alaitasuna, eguzki ta loraen alaitasuna, iñoiz ezin izan daualako ikusi. Izaki edo gauza ain dizdiragarriak, politik, lilluragarriak ikusi eziña, izan be negargarria da.

Apur bat geroago, Pulgartzillari billera a bizkortzeko, abesti bat abestu egiala eskatu, erregutu, eutsoen, eta umetxuak, “Egaz, egaz egin xirrizta” eta “Lekaidetxua solora doa”, abestu ebazan. On Zatorrak, umetxuaren abots gozo ta biguna entzun ebanean, beragan lilluratuta geratu zan.

Aa ze lagun zoragarria izango neuke, neure etxera eroan al izango ba neuke!

Baña ez eban geiago ezer esan eta adierazoten be ez emon. On Zatorra isaki guztiz zentzunduna zan, eratsua.

Egun aretatik aurrera, Pulgartzilla ta arratoituaren arteko artu emonak alde batetik eta On Zator bestetik ugaritu egin ziran, ba da onek, zatorrak, bere egoitzatik, etxetik, arratoituaren bizi-lekura menzulo luze-apain bat eraiki eban. Zatorra orretarako, menzuloak egiteko, guztiz trebea da. Eta olan bere adiskideak gura eben guztian, joan eitekezan zatorrari ikustaldi bat egitera.

Egun baten Negu-erdi inguruan, bere adiskidei aolkatu eutsen bere etxeko barne-bide baten txoritxu bat ilda aurkitzen ba eben, ez eitezela arritu.

Baña egizko txoria da?, Pulgartzillak itaundu eban.

Bai da, zatorrak erantzun eutsan. Txoritxu bat bere moko ta egoakaz, eta ezpai barik il zan. Batan batek, norbaitek, nik oraintsu iraike dodan menzuloan, ango lurretan, lurperatu bear izan dau.

Pulgartzilla txoria ilda egoan lekutik igaro zanean, esan eban, tamalez elai polit bat da, elai kutun, errukigarria bat ilda, bere egotxuak otsez bularraren ganean kizkurtuta ta bere burutxu ta ankatxuak luma artean erdi-estaldurik. Bai, ziurki, otz eta gozez il bear izan eban. Nezkatillatxua guztiz goibel geratu zan, gogoraturik, txoritxua bere txio-txio alai ta politikaz, beste aldi baten astia atsegintsuago egiten eutsana, izan leitekela.

Baña On Zatorrak, Pulgartzillaren asmakisun au ez eban on-artu. Bere txerpakaz aiergabe bazterturik, esan eban:

Txori jaiotea, zori txar bat da! arraioa! Onek txio-txiorik geiago ez dau egingo. Olan dira orreik, txoriak, Udan abestu ta abestu geratu barik eta Negua eltzen danean, gozez edo otsez ilten dira. Eskerrak nire semeak, iñoiz izaten ba dodaz, ez dira izango txoriak!

Errazoia dozu, adiskide, arratoiak esan eutsan. On Zator Jauna, arratoiak bere jakitasun ugariakaitik, gizon ospetsu ta aundi bezela eban. Ni zugaz naz, bero danean ain beste txio txio egiteak, zetarako balio dautse? Gero Negua eltzen danean ez ba daukie ogi zati txikitxu bat be euren mokoetara eroateko?

Pulgartzilla alkar-izketa onetan ez zan sartu, baña zatorra ta arratoia apur bat

aldendu ziranean, bera naiko atseratuta ta elaitxuaren burua erdiz-erdiz estaltzen ebezan lumatxuak bazterturik, ertsita, ixita, eukazan begietan mozu bat emon eutsan.

Gero zatorrak arrotz-maillagunei bere etxeko jan-edari bikaiñak opa eutsezan. Pulgartzilla gabea ogeratu zanean, ezin izan eban lorik egin, elaitxu zoritxarrekoa, goze ta otsez illa izan zana gogoratuz. Ez eban ondo artzen, elaitxuagaitik, naizta il ondoren izan, zerbait, zeozer ez egitea.

Bear ba da, bere baitan esan eban, bera izango da, joan dan Udan bere txio txio alaiakaz agurtzen ninduana.

Eta ogetik jagitea erabagirik, txistu baño ariñago, arratoiaren gelan aurkitu eban algodoi apur bateaz beteturik, bedar-zimelezko burusi eder bat egin eban eta beragaz zorigaitzeko txoritxu illa estaldu, berantzat, txoritxuarentzat, berotasun apur bat lortu gurean.

Azkenengo agurra egin barik, Pulgartzillak txoritxuagandik ez eban gura aldendu ta unetxu baten bere burua txoritxuaren bularrean ezarri eban. Orduan... txoritxuaren biotzkada txiki, bigun-bigunak nabaritutuz, arrituta geratu zan. Zer zan an jazoten zana?

Ba, xoilki, egaztixua otsez ez gozez ilda ez egoala, makalduta, zorobiotuta baño. Eta nezkatillatxuagandik artu eban bero apurragaz bizkorturik, apurka apurka bizitzara etorrela.

Txori ain aundi baten ondoan ain txikitxua ikusirik, nezkatillatxua guztiz bildur-tuta aurkitzen zan. Baña bere biotza maitasun sutxua zan, emonkorra ta bere zindotasunak adoretu biurtzen eban eta une onetan be olan jazo jakon eta elaitxua guztiz sendotu, osatu, arte itxarotea erabagi eban.

Umetxua elaitxuaren zain luzaro egon zan, eta azkenean ikusirik txoria ez zala bizkortzen, bere ogeko estalki bero bat txoriari bere gorputz ganean ezarri eutsan. Gero bere logelara joan zan.

Biramonean, illuntzean barriri elaitxua ikustera joan eta bizirik aurkitu eban, baña makaltasun arrigarriaz, bildurgarriaz, bere begitxuak be, bere gaizkatzallea agurtzeko, ezin ebazan idegi, zabaldu.

Milla esker Pulgartzilla, elaitxuak abots ia ezin entzunekoaz esan eban. Eskerrak nigaitik egin dozun guztiagaitik. Emen, bero-bero ederto aurkitzen naz, eta uste dot, laster eguzkiaren izpi bero ta gozoakaz, egazka beraganantz joateko gertu, guztiz sendotuta, osatuta, egongo nazala.

Ezer gura dozu? Pulgartzillak itaundu eutsan.

Ur apurtxu bat, bear ba da, elaitxuak bigunki ta ixilean esan eban.

Pulgartzilla agindu au betetzen, mezu au betetzen, arin joan zan. Lara-erbatz baten ur apur bat ebala, gure umetxua arin itzuli zan. Ura edan ondoren, egaztixuak, apur bat bizkorturik, azaldu eban, zelan sasiarte batetik igarotean, arantza bat ukutuaz, ego baten sauri bat egiñik lurreratuta, geratu, bear izan ebala, biotz-miñez ikusten bere zendia, bere anai-arrebak, lurralde beroago batzuetara joiazala. Zori-txarreko alabear onek, il zorian ezarrita, batan batek, norbaitek, ilda uste izanik lurperatu ebala.

Pulgartzillak Negu osoan txoritxua zaindu eban, maitasun osoz eta mizkeriz

beterik jagon, zaindu, be. Zator eta arratoiari ez eutsen ezer esan, ba onei elaitxua begi-
onez ez eben ikusten.

Udabarria bere egun argi-alaiakaz agertu zanean, landa, baso, mendiak loraz bete
ziranean... orduan elaitxua egazka azkatasunaren aize lilluragarriak gozaten joateko,
gertu egoan. Bere babespetzalleak, Pulgartzillak, zatorrak egin eban mezuloa aunditu,
zabaldtu, eban, elaitxua miñik izan barik, lurpe aretatik urten egian.

Aa Pulgartzilla!, alkar-agurtzen orduan, elaitxuak esan eban. Zergaitik ez zatoz
neugaz?

Pulgartzilla, lenengotan zer egin erabagi eziñik egoan, baña gero ezetz esan eutsan.
Ez eban ondo ikusten, ez eban ondo artzen, zator eta arratoiari ezer esan barik, alkar
agurtu barik, alde egitea. Pulgartzillak egite ori, igesketa bat bezela artzen eban eta
beraz, bere eretxiz ez egoan bat be ondo.

Agur, agur, Pulgartzilla eder eta maite ori! elaiak iñoan.

Bere egoakaz aizea astindurik, ortzi urdiñerantz igonda, Pulgartzillagandik alden-
duta, une batzuk geroago edoi txiki baten ostean estalduaz bere lorratzik be ez zan
ikusten.

Orduan Pulgartzillak egazti txiki areri izan eutsan maitasunak eraginda, negar-
malkoakaz bere jantzi polita buzti eban.

Eguraldi ona eldu zanean, arratoiak umetxuari kalera, kanpora, urtetea debekatu
eutsan, bere egoitz txikian euki gura eban.

Arrizkutsua da, Pulgartzilla, iñotsan. Gizonak, gizasemeak, kanpoko lurraldetan
garia erein dabe ta laztoa naiko azita dago. Gariak sortzen dauan baso orreitan galduko
zintzake.

Albiste orrek, umetxua guztiz naigabetuta itxi eban, ba da berak kanpora urten gura
eban, eguzkiaren izpi beroak bere gorputz txikia astinduz eta zeru urdiña ikusirik,
atsegin apur bat lortu gura eban, baña bera, umetxua, esanekoa zan eta amor egiñik,
arratoi-zuloan geratu.

Uda-erdi inguruan arratoiak esan eutsan.

Albiste, barri, on-eder bat esan bear dautzut, Pulgartzilla. Ba dakizu zure mandatu
nok egin dauan? Ba, On Zator ber-berak, beraz aukera guztiz eder bat zuretzat, emen,
inguruetan, oba eziña. Bera, On Zatorra, zugaz lilluratuta da, zure zilleitasun, eder,
garbi ta langilletasunatzaz berba egitea, bere jardunaldi bereziarena da. Baña jakaña,
zure gauzak, altzariak atondu bear izango dozuz. On Zator lako gazte, ospetsu ta ain
aberats bateaz eskontzeko ezer ez da naiko.

On Zator, ber-bera, izan zan arazo au zuzendu ebana. Biramonean lau amarau
alogoratu ebazan eta egun bat galdu barik, asi ziran gau ta egun, Pulgartzillaren jantzi,
soiñeko, oil guztiak atondutzen. Berak, Pulgartzillak, bitartean oial guztietan azpadu-
ra politik egiten ebazan. Baña geroago ta goibelago egoan, zoritxarra... Zator batek
izan bear bere mandatu egiten joan zana! Berak zaldun aindiputz, aberats arentzat, ez
eban maitasunik, narru dizdiratsudun auzokide a ez eban maitatzen.

On Zator ostera, urratz bezela nasai ta baita be iraunkor, gaberoko ikustaldi bat

egitera joatea, oituratuta egoan eta orduan bere egitamuak azaltzen eutsazan. Nik bere amesak esango neuke, olako unetan, geienetan, amez-zoragarriak izaten dira, guztia margo alai ta itxaropentsuzko beirakaz begiratua. On Zatorrek, Uda azkenerantz eskondu gura eban, orduan, esaten eban, ondiño lurak berotasun larregi eukan eta aitz edo arkaitz baten añako gogortasuna.

Pulgartzilla errukigarria, goibeldasun aren artean, guztiz auldurik egoan eta argiziri baten su-argi txikia bezela erezeztuten joian. Ostera bere adiskide ain on, eskeroneko elaitxua bere gogotik ez eban alde egiten. Berak be, elaitxuak lez, zator-zulo aretatik urten, urten menzulo aretatik, eta egazka goiko zeru urdiñerantz, eguzki zuzenbidean, iges egin al izango baleu!

Sarritan arratoiaren egoitzarantz ariñeketan abiatzen zan eta an, iñok ikusten ez ebalá, abo-zabalik, ango itzaltasuna, ango oparotasuna begiraten erdi-zorobioturik geratzen zan. Ilustratu ta ukutuaz al eban gauza guztiei, bere adiskidetzua noiz etorriko zain egoala... Baña elaitxua, adiskidetzua, ez zan agertzen eta zekula be ez ebalá ikusiko gogoraturik, bere biotz-miña ta samintasuna, amaibakoa zan.

Gaba baten, jakin-arazi eutsan, lau aste barruan, On Zatorregazko eskontza izango zala. Orduan Pulgartzilla bere biotz-miña ta atsekabea jasan eziñik eta negarrez, autortu eban, berak ez ebalá maite iñongo zatorrik.

Ba! arratoiak esan eban, ume ergel eta mizkez baten apetaldiak! Ez zintzake nigaz ondo izango, nire adiskideaz ez eskontzea erabagiten ba dozu. Ara, oldoztu daigun, non izango dozu nire adiskide On Zator baño senargai ospetsu ta aberatsagorik? Erregeak berak be nire adiskideak baño soin-gain bikañagorik ez dau eroaten. Orrez ganera, zure etorkisuna zeure bizi osorako ziurtzen dozu, ba dakizu bere jaki-toki beti ondo orniduta egoten da ta janaririk egoki ta gozoenakaz.

Ludi onetan zorion-aldi ta zori-txar guztiak euren azkena, amaiera, izaten dabe, ta eldu zan Pulgartzillantzat zan egun negargarria, On Zatorreaz eskondu bearra.

Zatorra zekulakorik dizdiratsuen eldu zan, Pulgartzilla beragaz betiko eroateko gertu. Zatorraren zendian oitura dan lez, andik aurrera Pulgartzillak lurpean bizi bearko eban, menzuloa izango zan bere egoitz barria. Umetxu zoritxarrekoa guztiz atsekabetuta, zer egin ez jakiñik egoan.

On Zatorregaz joan baño minutu batzuk lenago, arratoigandik agure ginda, betiko aldendu baño lenago, eguzki ta ortzi urdiñari azken-agur gozobero bat opa gura izan eban. Eta ixil-ixilik, beatz ganean, menzulo zan bere egoitzako atera urten eban. Garia soloetan ebagita aurkitzen zan eta lurraldeak lazto utsa ziran. Pulgartzillak apur bat aldenduta, lora-bedar bat bere eskuetan artu eban eta negarrez, samintasunez beterik iñoan:

Agur, agur!... Iñoiz, egun anbatan, elaitxua ikusten ba dozu, guztiz maite dodala ta iñoiz beragaz ez nazalá aitzuko, esan eiozu, esaiozu!

Bat batean bere burutxua zerura begira ezarririk, amaigabeko ortzian eskegita bezela egoan eguzki dizdiratsu ikusirik, esan eban:

Agur, eguzki maitea! Zator menzulo illun eta baltz onetan atxilotuta, zure argi alai ta itxaropentsua ikusi eziña, arazo gomutagarria izango da nireztat!

ESKONNTZA-EGUNA ELDU ZAN ETA PULGARTZILLAK, ARGI TA LURATXUEI AZKEN AGURRA-OPA-GURA EUTSEN.



BAÑA ORDUAN... ZER JAZOTEN JATSU PULGARTZILLA, ETORRI ZAITEZ NEUGAZ?

PULGARTZILLAK ELAI GANEAN IGON ETA BIAK EGAZKADA ARIN BATEN ABIATU ZIRAN...



45

BARATZ BATERA ELDU TA BERTAN PULGARTZILLAK LORA-ERREGA EZAGUTU EBAN. ONEK BE PULGARTZILLAGAZ ESKONDU GUREAN BERE NAI, GURARIA, ADIERAZO EUTSAN. ALKARREGAZ ESKONDURIK GUTIZ ZORIONTSUAK IZAN ZIRAN...



Une aretan, jazoki zoragarri bat Pulgartzillantzat jazo zan. Menzuloan, zatorzuloan sartzeko gertu egoan une beratan, txio-txio lilluragarri bat bere buru ganean entzun eban:

Qui-bit, qui-bit, qui-bit!

Gorantz begiraturik, bere gaizkatzaillea izan zan elaitxua, egazka lurretik naiko ur, ikusi eban.

Zergaitik zagoz ain goibel, Pulgartzilla? egaztixuak itaundu eutsan.

Orduan umetxuak, jazoten jakon guztia edestu eutsan, zelan zatorragaz eskondu gura eben, naizta bere guraria, naia, ori ez izan. Betirako lurpean bizitea bear-arazirik, txorien txio-txio bigunak, abestiak, entzun eziñik... aize osasuntsu ta eguzkiaren argitasun alai ikusi eziñik...

Au esatean, barriro be bere matrail larrosa margodunetatik negar-malkoak agertuz.

Beingo baten elaitxua, egazka lurreratu zan eta nezkatillatxua alboan ezarri.

Ez zaitetz larritu, umetxua!

Negua ur dago, Pulgartzilla, egaztixuak esan eban, eta unetxu bat be galdu barik, laterri, lurralde, beroagotara joan bear dot. Etorri zaitetz nigaz goazen! Igon zaitetz nire lepora ta zure ubelagaz, lotu eizu zure gorputza nireagaz. Laterri eder ta eguzkitsutara eroango zaitut. Euretán Udabarria amaibakoa da ta loratxuak egunero irribarre gozoaz, eguzkia agurtzen dabe. Zuk gaizkatu ninduzun, Pulgartzilla, ta orain zatorragandik urrun eroango zaitut.

Bai elaitxu maitea, zugaz joango naz, umetxuak esan eutsan.

Eta elai ganean igonda, bere lepoan ezarririk, ikusi eban lumarik aundienari bere gorputz txikia lotu eutsan. Orduan elaiak egazka urten, ibai ta itxaso ganetik, edurrez zurituta beti egoten ziran mendi-tontor goietatik, baso kerizpetsu ta abarotsuenetatik eta baita be, ozin aundi ederrenen ganetik, lurralde begoago batzuetara.

Pulgartzilla, naizta egaztiaren luma bero ta leunetan, guztiz kukuluduta joan, bere begi aurrean egoan ikuspegi zoragarria zeaztasunez begiratzen eban.

Azkenean, Pulgartzillak amesetan be asmau eziñeko lurralde eder eta lilluragarrietara eldu ziran. Lurralde guztiz beroak, ortzi urdin bizi-biziak, eguzki bero-beroa kizkilduteko bezelakoa, larra orlegiak, limoi-ondoaz eta laran-ondoaz beteriko baso abarotsuak. Lurralde areitan, aizeak mirto ta esker-aien uzain gozoa eben eta umetxuak landa ta zelai loratsuetan, txirpillota aundi ta margo dizdiratsunakaz jolasten.

Elaitxuak egazka aurrera jarraitzen eban eta ikuspegia geroago ta ederragoa agertzen zan. Azkenean euren bidaliaren elmugara eldu ziran. Ozin guztiz urdin garden baten ur bazterrera, baso basatiz inguratua, ta baso onen erdi-erdian, nabarri zuri dizdiratuzak eraikitako jauregi eder-eder bat. Barne-bideak eutsiten ebezan zutoin luze ta lardenak, ain-bedar uzaintsuakaz estalduta egozan, eta euren ganean, zapaian, elaitxuak euren abiak egiten ebezan. Euretari bat, abitariko bat, Pulgartzilla bere lepoan eroan ebana zan.

Ara emen nire etxea, Pulgartzilla, elaitxuak esan eban, bere abitxura eroanda. Baña

emen ez ba dozu gura bizitea eta gurago ba dozu, baratzean dagozan larrosatariko baten mez-ontzi batera, eroan zaidazan, bertan betirako geratu zein teke, ta amesetan be zekula asmau eziñeko zoriona izango dozu.

Aa ze lilluragarria! Jakiña joan gura dodana!, Pulgartzillak esan eban, pozez ainbeste zoriontasun siñistu eziñik.

Zutpiñetariko bat lurrerata iru zatitan aurkitzen zana, ia estalduta egoan ainbeste sasi, orbel ta laztoz abaro bat egiñik, eta lazto ta bedar-zaar bitartetatik, Pulgartzillak iñoiz asmau be ez ebazalako lora polit, lilluragarri batzuk, euren orri margotsuak agertzen ebezala, ikusi al izan ebazan. Lora eder aundiak, eta margo bigundun bereziak.

Loratxu aren barruan, barnean, bera bezelako izaki bigun, guri bat egoan. Gaztetxu zuri, ule kirruduna, bere sorbaldean ego dizdiratsuak, bere azala gardena ta bere burua urrezko koroï eder batek apaintzen eban. Lora-aingerua zan eta orrez ganera bera bezelako izaki txiki-txikitxudun erri bateko erregea. Izaki oneik auzoko lora-kuku-luak izan ebezan egoitza.

Erregea, bere etxe alboan ain txori aundi bat ikusirik, arritu zan, baña nabaritu zanean, umetxu ain polita ta liraiña ekarrela, bere poz eta alaitasuna amaibakoa izan zan. Ba da iñoiz ikusi ez ebalako nezkatilla ederra zan. Eta ain biotz-ikara aundia izan eban, nezkatillatxua ikustean, bere koroï berbera Pulgartzillaren burutxuan ezarri utsan eta loratxu guztien erregeiña izan gura ba eban, itaundu.

Pulgartzillak espai barik baieztatu eban eta bereala lora lilluragarri guztiak eta bertako andra-gizonak be, opari berezienak opa eutsoezan. Danatarik onena, oparirik onena, ego zuri dotore batzuk izan ziran. Eurakaz Pulgartzillak, bere sorbaldean ezarrita, beste izaki guztiek bezela, egaz al izango eban.

Pulgartzilla lora-erregeaz eskondu zan eta jazokisun au ospatzeko, baratzean jai politak izan ziran. Bere abitik elaitxuak bere txio-txiorik gozo ta politenak, eskonbarrien goralmenez, eresi ebazan. Naizta bere biotz-barnean samintasun aundi bat izan, bere adiskide ain zintzogandik alenduta bizi bear izango ebalako.

Eskontzean Pulgartzillak bere izena aldatu bear izan eban. Izen ori ez da polita, erregak esan eban. Zuretzat ez da egokia, zu ain polita eta ederra izanik. Gaurtik aurrera Maya izango da zure izena.

Agur, agur! Laster arte!

Lurralde bero areik itxita, elaitxua, barriro Dinamarkara joan zan. Mari edo mamu-ipiñak dauazan gizonaren etxeko leiopé baten eukan bere abia ta gizon areri, Pulgartzillak izan ebazan samin-atsekabe ta poz guztiak, edestu eutsazan.

Qui, Qui, Qui!

Orregaitik, eldu dira gugana, dagikuz, orain azaldu doguzan jazoki guztiak.

PRINTZETZA TA ILLARRA

Beñola, urruneko laterri baten Printzipe bat izan zan. Onek bere erregetzarako andra bat bear eban erregiña izateko, au da beragaz eskontzeko benetako printzetza bat bear eban. Aldi aretan ez zan guztiz erreza olako neskatilla bat, lurralde aretan aurkitzea. Errege-odol eban emakume bat.

Printzipea bidali ugari egiñeko gizona zan, laterri azkotan egonekoa, baña ezagutu ebazan printzetza guztiak, bere eretxiz, zeozeren, zerbaiten, utsa eben. Esan leiteke, errege-printzetzak ez zirala.

Azkenean printzipea guztiz apal ta naigabetuta erriratu zan, bere printzetza maitagarria, bere amesetako guraria lortu barik.

Luzarotxu egon zan bere aitaren jauregian. Gaba baten izugarrizko ekaitz bat izan zanean. Euri mamintsua edoi-illunetatik, dariola, abazuza, aize indartsua, iñuztari argitsuak, trumoi zoiñuaz lagundurik. Ekatziz gogor eta bildurgarria, egun aretakoa, obeto esanda gaba aretakoa.

Ustegabe norbaitek, batan batek, atean dei egin eban, atea jo eban eta erregea berbera idegiten joan zan. Arrituta geratu zan an ikusi ebanagaz, atarian bildurrez beterik eta bere jantzitxu polita buzti-buztia, printzeza lerdan eta erakargarri bat aurkitzen zan. Itxura benetan errukagarria nezkatillatxu arena. Soiñeko ta oiñetakoak urez ondatuta, bere ule kirru luzeak ure dariola, iturri bat iruditurik. Naizta eder eta polita izan, ez eban ez, printzeza baten antzik, orregaitik erregeak lenengotan ez eban siñistu, berak, printzetzatxuak apal baña kementsu baieztatzen ebana.

Nik jakingo dot egia ba da, bere baitan esan eban erregiñak.

Erregiña guztiz maltzurra zan eta iñori ezer be esan barik, arazo onetzaz, jauregian printzetzatxuentzat aukeratuta egoan gela aundi batera abiatuturik, ogean egozan jantzi ta soiñeko guztiak kendu eta oge beratan, illar edo ider, eder-eder bat ezarri ta bere ganean ogei lonbardi eder eta beste ainbeste oge-gain ipiñi ebazan.

ANTZIÑA, EGIZKO PRINTZETATXU
BATEAZ ESKONDU GURA EBAN PRINTZIPE
BAT EGOAN. EGUN EURITSU BATEN, JAU-
REGIRA PRINTZEZA GUZTIZ EDER BAT
ELDU ZAN...



ERREGIÑEAK JAKIN GUREAN BENE BENETAN
PRINTZEZA BAT BA ZAN, BERE OGEAN, PRINTZE-
TZATXUAREN OGEAN BURUSIPEAN IDAR. BAT EZA-
RRI EBAN. BIRAMONEAN...

EZIN IZAN DOT LORIK EGIN. NIRE
OGEAN ZEZOR GUZTIZ GOGORRA
EGOAN.



ETA PRINTZIPEA BERAGAZ ESKONDU, BA
DA EGIAZKO PRINTZEZA BAT UTS UTSEAN
IZAN LEITEKE AIN BIGUN ETA ADIKORRA.

Printzetzatxuak oge berezi onetan gau aretan egin eban lo. Biramonean, goizean gozaltzeko maian jezarri zanean beteraztun agertu zan, baña alan da guztiz be polita egoan, izan be, polit eta ederra zan.

Erregeak adikorrez, gaba zelan emon, igaro, eban itaundu eutsoen, eta Printzetzatxuak zintzotasuna eban bere doetariko bat, eta oneri dagokion bezela erantzun autsen.

Neure bizi osoan ez dot izan iñoiz olako gaba ain txar bat! Zeozer, zerbait, gogor bat egonda nire ogean eta odoluriz bete dau nire gorputza. Jaungoikoak jakingo dau zer izan dan!

Erregiñeak jauregiko biztanle guztiei aurretizik esan eutsen zer egin eban idar, illarragaz, eta orduan guztientzat argi egoan, nezkatillatxu a benetako, egizko, printzetzatxu bat zana. Euren eretxiz ogei lonbardipean ezarrita dagon idar, illar, txikitxu baten gogortasuna sentitzen dauana, benetan notin, pertzona, berezi bat izan bear dau. Egizko, benetako, printzetza bat uts utsik izan eiteke ain adikor, gizatsu.

Printzipea, berak asmau ebalako printzetzatxua bat zala ikusirik, beragaz eskondu zan. Illar, idarra, Eri Erakustokira eroan eban, eta bertan, uri nagusiko Erti Erakustokian egin bear dau, batan betak, norbaitek, andik kentzeko zirizkada anbat izan ez ba dau.

Au bai, bai da bene benetako ipuiñ bat!

BERE GIZONAK EGITEN EBANA, ONDO EGIÑA ZAN

Orain edestuko dautzuedan ipuiña, txiki-txikitan entzun neban, baña orduan baño orain azkoz geiago guztatzen jat.

Ipuinakaz pertzona edo notin on eta adikorrakaz, bardin bezelakoa jazoten da. Zenbat eta denpora geiago igaro, obeagoak izaten dira. Eta au olan izatea zorion bat da.

Iñoiz egongo ziñien, ez, egurats edo izarpean eta baita ikusi be etxeantzeko oillotoki anbat, bere teillatu zaarra erdi-jauzirik, bere artekatik goroldio edo eta-bedar ugari azitzen dala. Bere orma erdi-okar eta leio txikiak, leio guztiz txikietatik, leiatil bat uts-utsik idegi leitekena. Oillotokiko atear ez dira aokatzen. Saretz aundi bat dago bere adarrakaz etxetar zaarra babestu gurean. Orma berreanean, alboan, ur-bildegia txiki baten aate bat bere txitatxuekaz eta jakiña, txakur bat lotuta ezezagun guztiei auzika, zaunka egoten dana.


Onen antzeko etxe baten andra-gizon bi bizi ziran, naizta guztiz txiroak izan, euren lurgintzarako zaldi bat euken, eta beraz laguntza berezia bizi al izateko. Ostera zaldiak, sarritan gozez il ez eiten, bide ondoko bedarrak jan bear izaten ebazan.

Baserritarra beragaz urira joaten zan, eta bein baño geiagotan bere auzokidei, edozein mezede orde, zaldia itxiten eutsen. Oneik, auzokideak, be urira euren barazki ta beste gauza batzuk eroateko, zaldia bear bearrezkoa izaten eben.

Baña egun baten andra-gizonok asi ziran asmatzen, oldozten, ia oba izango ez balitz, zaldia saldu edo trukatu abere edo zeozer, zerbait, oba bategaitik, euren burua arazo onetzaz ez zan argiegi, ez ekien zer egin.

Zuk jakingo dozu nik baño obeto, andreak iñotsan gizonari, gaur azoka eguna da. Gaur da gure urian azoka bereziena, zergaitik ez zara bein baten erabagitze? Zuk egiten dozuna, zuk egingo dozuna, saldu naiz trukatu, niretzat ondo egiña izango da.

BASETXE GUZTIZ APAL BATEN NEKAZARI TXIRO BATZUK BIZI ZIRAN. EUREN ONDASUN GUZTIA ZALDI BAT ZAN. EGUN BATEN ZALDIA SALTZEA ERABAGIRIK, EURETARIKO BAT ZALDI-GANEAN AZO-KARANTZ ABIATU ZAN.



LENENGO BEI BATEGAITIK TRUKA EBAN ZALDIA, GERO ARDI BATEGAITIK ETA GEROTXUAGO ANTZAR BATEGAITIK.

URIRA ELDU ZAN BERE OILOAZ ETA EDANTEGI BATEN SARTURIK, BERATAN ZORRO AUNDI BAT EROAN GIZON BAT AURKITU EBAN...



NIRE ANTZARRA GURA DOZU OILLO EDER. ORREGAITIK? ORDEZ ORDEZ EMONGO DAUTSUT.

ARA, EZ DERITXOT AIN TXARTO...

NIRE OILLO EDER AU ZORRO ORREN ORDEZ EMONGO DAUTSUT, GURA DOZU?



ARA BA, ONDO DAGO, SAGAR UZTELAK DIRA.

Gizonak eretxi au ontzat artu eban eta bere andreak, bera baño trebea zan onelako gauzetan eta, zapil bat bere saman, gizonaren saman lotu autsan. Gizona jai nagusi batera joango balitzakela bezela apaindurik. Gero kapela eskuillaturik, mozu sarata-tsu bateaz agurtu eban.

Egutaro guztiz beroa zan, kizkaltzeko bezelako egun beroa. Azokarantz joiazan bidegilleak izugarrizko autsa astintzen eben euren ibilkeran.

Gure baserritarra, saldu edo trukau egiteko asmuz eroan zaldi-ganean arro joian, bere andreak beti esaten eutsana gogoratuz, “zuk beti dakizu zer egiten dozun”.

Baserritarrak, azoka-zaleen artean, bei polit bat eroana nabaritu eban.

Bei zolia da, baserritarrak iñoan bere baitan, esnetsua zalantza barik, truke niretzat onuratsua izango litzake, zaldiaren ordez bei dotore orregaz nire etxera gabean joatea.

Eta geiago barik, beiaz joanari, oiuka deitu eutsan.

Zu adiskide! Naizta uste izan, zaldi bat beia baño etxerako onuragarriagoa dala, uste dot, gaur egun niretzat beia obeto etorriko jatala. Gura dozu trukatu daiguzan?

Nigan ez dozu eragozpenik, zeuk nai, gura, dozuna, beidunak esan eban.

Eta aldaketa edo ordezketa beingoan egin eben.

Baserritarrak bere elburua bete eban eta etxera itzulteko be gertu egoan, baña bein etxetik urten ezkerro, azokaraño eldu bear dot, iñoan. Eta bere bei erosi-barria traillan eroala, azokarantz abiatu zan.

Gizona bizkor joian, arinka, eta ardi bat eroan beste gizon baten ondora beingoan eldu zan. Ardi lodi-lodi bat zan, eta bere ardiulea zuri ta mea.

Atsegintsu izango nintzake arditxu bateaz, iñoan berantzat baserritarrak. Etxeko aureko larran barruti ederra egoten da, ta bertan Negurarte elikatuko neuke. Gero Negua eldukeran barrura, kortara sartu. Bear ba da beia baño egokiagoa izango litzaket.

Ardidunagana aurreraturik, esan eutsan.

Gure abere biak gura dozu aldatu daiguzan?

Ardidunak pozik on-artu eban baserritarren guraria au, ta onek bere ardi zuriaz azokarantz jarraitu eban.

Baña andik laster gure nekazariak, bide-zior batetik etorren beste baserritar bateaz topo egin eban, onek bertan saltzeko asmuz antzartzar bat eroan.

Ze egazti ederra daroazuna! Ez litzake txarto egongo, nire etxe ondoko ur-askan anka batetik lotuta, olan nire andreak etxeko ondakiñakaz, jakingo leuke zer egin. Sarritan entzun dausat esaten, antzar bat ba geunka! Eta orain aukera ederra dot, nire maitearen guraria, naia, betetzeko. Gura daustazu nire ardiagaitik trukatu? Nire ardiatz trukatu?

Zelan ez, erantzun eutsan. Onelan gure gizona antzar bateaz bere bidean jarraitu eban.

Baserritarra urira eldu zanean, notintsa ikaragarria urreratzen zan azkorantz. Azokara eldu baño lenago, baserritarra lur-sagar edo patata solo baten ondotik igarotean, oillo bat bere anka baten eraztun bat eroala ikusi eban. Egaztiak andragizon aldra aundi bat ikusirik, iges egin eban.

EDANTEGIAN BASERRITARRAK BERTAKO BIZ-
TANLEI BERAK EGIN EBAZAN ALDAKUNTZ
GUZTIAK AZALDU EUTSEZAN. AREK BARRE
ALGARAK EDERRAK IZAN.



¡ETXERA ELTZEN ZARABEAN
ZYRE ANDREAK KONPON-
DUKO ZAITU! ¡IKUSIKO
DOZU ZER DAN ONAI!

MOZU BAT EMONGO
DAUST ETA EGIN
DODANAZ ADOS
EGONDO DA.

INGALATAR BATZUKAZ ESTABAIDA LABUR BAT
ONDOREN JOKATU EBAN BERE SAGAR UZTEL
ZORROA BESTE ANEGA BATEKO ZORRO
URREZ BETERIKO BATEGAITIK, AU INGALATE-
RREENA ZAN, ANDREA ASARRATUKO BA ZAN
ALA EZ.



48

ZALDIA SAGAR
UZTEL ZORRO
ONEGAIK TRUKATU
DOT.

¡IEDERTO
EGINAI!

INGALATARRAK URREA EMON EUTSOAN.
ARRITUTA EGOZAN...



¡ATSEGINTSUA DA OLAN IZATEAI BETI TXARRETIK TXA-
RRAGORA, ETA AIN ZORIONTSU...

¡ORI ORDAINZEKO
DIRURIK LUDIAN EZ
DAI!

Gure baserritarra oilloa kar, kar, kar eta bere egoak astintzen ikuzi ebanean, esan eban. Olako oillo ederrik neure bizitza osoan ez dot ikusi! Erriko abadearen oillo-lokea be ez da ain aundi ta ederra. Olako egazti bat elikatzea ez da bat be garesti, ta bear ba da, antzar bat baño egokiagoa etxerako izango da.

Bere aurrez aurrez egoan oilloaren jabea eta beragana urreraturik, esan eutsan.

Gura dozu truke egin dagigun? Nik emongo dautzut nire antzarra ta zuk emongo daustazu oilloa.

Ara, ez dot ikusten guztiz txarto, ondo dago, besteak erantzun eutsan.

Azkenean gure nekazaria urira eldu zanean, ainbeste ibilliaz eta truke egiñez, guztiz nekatuta egoan. Nekatuta ez eze, egarriz be erdi itorik egoan, orregaitik atsedean apur bat artu gurean eta bide batez bere egarria azetu, edantegi baten sartu zan.

Edantegira sartukeran, bertatik zorro bete-bete bateaz urteten eban gizon bateaz topaturik, itaundu eutsan:

Adiskide, zer da zorro orretan daroazuna?

Sagar uztelak, ostatariak esan eutsan. Bai, edantegi beratako ostataria zan.

Tamala da! Nire andreak ikusiko baleu! Igaz, gure ortuko sagar-ondoak sagar bat uts-utsik euki eban eta nire andreak arasa baten gordeta luzaro eukirik, uzteldu jakon eta jaurti bear izan eban. Alan da guztiz be, nire andrea pozik egoan, ba da etxe osoan umo-uzain gozoa itxi eban. Zorro bat bete sagar uztel orain ikusiko baleu... eroango baneuskio... Bene benetan guztako litzaket eroatea!

Zer emongo zeuskit zorro bete onegaitik? ardao saltzailleak esan eutsan.

Zer emon neinkezu? Nire oilloa izan ezik...

Ederto! Zeure da zorroa, ardantegikoak, poz-pozik esan eban.

Eta olan baserritarra, sagar uztel beteriko zorro aundi bateaz jabetu zan.

Beragaz, zorroaz, edantegi batera sarturik, sutondoan itxi eban, eta jan-edaten bertan geratu zan. Sua bizi-bizia zan, areitz mukur ederrak egozan erretan eta ingurua ederto berotzen eben, baña bera ez zan konturatzen berotasun onegaz.

Edantegian atserritar ugari egoan, abere-saltzaille, aberedun eta salerosle mota guztietakoak eta baita be ingalatar bi diru-txartelez ondo orniduta.

Baserritarra edantegira sartu ta sagar-zorroa itxi eban lekutik, une batzuk geroago, uzain gozo-gozo bat bertako biztanleak nabaritu eben.

Zer da ori?, ingalatarratariko batek esan eban. Sagar-zorroa dago erretzen?

Orduan baserritarrak beranak zirala esanik, asi jaken kondaira osoa edestuten, zelan zaldi bateaz etxetik urten ebal ta bidean bei bateaz aldatutik, truke egiñik, eta au ardi eder bategaitik eta olan eta olan egin ebazan aldakuntza guztiak, sagar-zorroaz jabetu arte.

Au entzutean barre algarak izan ziran edantegian.

Zure etxera eldutean zure andreak zekulakoak esango dautzuz! beste ingaletarrak esan eban.

Nire andreak? Txitik be ez!, baserritarrak erantzun. Mozu bat, bai, emongo daust, ziurki, eta nik egiten dodana ondo egiña dala, esango dau.

Zeozer jokatu gura dozu? Guk urrezko upeltxu ori jokatu dogu, ingalatarrak iñoan.

Anega bateaz naiko dot, ba da nik neure sagar-zorroa, neure andrea ta neu tartean izanik, ez daukat beste ezer jokatzeko.

Ederto! naikoa da, eta orain joan gaitez zure etxera zure andreari kondaira au edestuten.

Ostatariak, edantegikoak, zaldi ta zaldi-burdia ate aurrean gertu eukazan eta beratan baserritarra ta ingaletarra jezarri ziran, sagar-zorroa eurakaz eroela. Zaldia ariña zan eta baserritarraren etxera beingoan eldu ziran.

Etxe aurreko atarira eldu orduko, baserritaren andrea bertan egoan, bere gizona noiz ikusiko zain, eta berotasunez alkar agurtu eben. Andreak besarkatzen eban bitartean, irri-barre egiñik iñotsan:

Jakiña, jakiña, zuk gauzak ondo egiten dakizu. Eta zelan zure artu-emonak?

Zaldiaren trukez bei bateaz jabetu nintzan, baserritarrak esan eutsan.

Eskerrak Jaungoikoari! baserritar-andreak esan eban, olan esne gozo benetakoan edan al izango dogu ta ganera gaztai ederrak eta koipea eukiko doguz jateko.

Bai, bai..., baserritarrak moteltasunez iñoan. Baña gero beia, ardi eder bategaitik aldatu dot.

Aa bai!, ondiño azkoz be obeto! andreak oiuka esan eban. Zure buru-argitasuna itzela da benetan, batez be artu-emonetarako trebe-trebea zara. Ardia elikatzea ez da izango arazorik, etxe aurreko solo ta landetan barruti ederrak daukaguz. Ganera gaztai bardin eukiko dogu ta esnea be bai. Beiagandik atera ezingo genduan artillea alkondara ta kaltzerdi bero-beroak egiteko, ardiak emongo dausku. Zuk ez dozu utsik izaten, zure egikisunak, beti dira ondo egiñak.

Ara, baña, ikusiko dozu..., geroago ardia, antzar bategaitik trukatu dot.

Ara zelan, aurten Gabonetako jaietan antzarkia jan al izango dogun. Ederto egin dozu, zu beti zara ni ederretzi gurean. Orain antzarra azke itxiko dogu, ibilli daitela landa guztietatik zear elikatzen, geiago loditu daiten, Mikel Deun eguna arte. Ondo daritxazu?

Baña antzarra oillo bategaitik aldatu dot, baserritarrak iñotsan.

Oillo bategaitik diñostazu? Ori bai mantxunga itzela! Oilloak arrautzak ipinten dauz eta oneik gaur-egun garestia dira. Ganera euretatik, txitatxuak eukiko doguz, txita ugari, oillotoki eder eta egaztitsu bat lortu arte. Beti gura izan neban oillotoki aundi bat.

Baña oilloa sagar-zorro umo, uztel betagaitik trukatu dot.

Ederto egiña, emoidazu mozutxu bat! Gauza bat esan bear dautzut, andreak jarraitu eban, gaur etxetik azokarantz urten zenduanerako, asi nintzan asmatzen zer guztako litzaket geiago gaur gabean afaltzeko, eta mullo batzuk erabagi neban, mullo batzuk bedar uzaintsuakaz. Baña zoritxarrez ez neukan ez urdai ez arrautzarik. Orduan erriko irakasleagana joan nintzan, etxe aretan jakitokia ondo orniduta daukie ta. Baña zuk ba dakizu bere andrea, ikaslearen andrea, ze zekena dan. Nire guraria agertu neutsan, eta ara emen bere erantzuna.

Beingoagaitik emongo dautzudaz. Esakera arek asa-erazi ninduan. Ludian ete da aren aiñako izaki zeken eta lukurragorik? Apaltasunez esan neutsan, gure ortuan ez geunkala ezer ez da sagar uztel bat be. Onelan nire eskakisuna zindotu gura neban.

Baña orain, sagar bat ez eze, zorro bete-bete bat opa al izango dautsada... Ja, Ja, Ja! Zure txantxe-asmakisunak barre-eraziten nau, maitea! Bene-benetan, zuk gauzak ederto egiten dakizu. Eta au esanik, andra-baserritarrak bere gizonari natraillean mozu saratatsu bat emon.

Ingalatarrak geroago ta arrituago egozan. Azkenean esan eben:

Atsegintsu gara gauzak olan ikusteaz. Zoritxarretik, txarragora ta biak beti zoriontsu. Olan izateak zenbatueziñeko balioa dau. Ludi osoko urre ta diru guztiak baño azkoz be balioagotasuna da ori!

Matraka ta asarrearen orde, naizta bere egikisun zuzengabeak, mozu maitegarriak artu ebazan ezker, ta dema betetzeko, baserritarrari, ingalatarrak, anega bat urrezko txanpon emon eutsoezan.

Egia da, olako emakume, andra, batek, bere gizonak egiten dauan guztia ondo egiña ikusi, ta bere senarra gizonik azkar onenantzat izaten dauan emakume batek, bere gorputz-astuntasuna urretan baño geiago balio dau.

Ara emen, niri edestu eusten ipuiña, ume txikia nintzala. Nik zuei edestu dautzuet, eta ba dakizue, gogoan izan beti andra-baserritarra, bere senarra, gizona, ainbeste goraltzen ebana.

EDURREZKO GIZONKILLA

Edurrezko gizonkilla guztiz pozik egoan. Otz-pozgarri onegaz, bere baitan esaten eban, nire gorputza atsegiñez beterik dirudi. Ezetz? Begiratu eizue, begiratu zelan aizeak nire soin-atalak sendotzen dauazan, beste andra-gizon guztiak otzak-illik aurkitzen diran bitartean. Eta begiratu eizue, zelan eguzki-txirrist dizdirak alegintzen diran ni itsutu gurean! Naizta alegin guztiak egin nire begiak ertsi-eraztea ez dabe lortuko!

Jakin bear dozu, irakurle, edur-gizonkillak oillezko begi baltz, dizdiratsu bi eukazala, bere ago orde zarrantza zaar bat, bere erpak agin banaka bat agertu. Edur-gizonkil nondik etorria izan zan? Ez dozu igarten? Bai... bai, auzoko mutikotxuak euren jolasketatan edurrez egindako gizonkil bat zan. Bere eraikitzea, talde osoak alai ta saratatsu ospatu eban, txilintxu ta birlari otzak eraginda.

Geroago eguzkia ortzi-mugan estaldu ta bere orde zillargiaren, iratargiaren, biribiltasuna goibel eta zurbil agertuz.

Ara!, edur-gizonkillak esan eban, barriro ikustean, uste izanik eguzkia ber-bera zala, baña bere beste aldetik. Ara, bira da beste aldera!, esan eban. Azpertu da nire adi egoten ta orain ez da len bezela nire adi-adi, guztiz itsututa itxi gura izango baneu bezela. Baa! Nigaitik goi orretan betirako geratu leiteke eskegita! Nire inguruan jazoten dan guztia ikusteko argia emoten daustan bitartean... Aa mutiko orreik bezela mugidu ta saltuka ibilli al banintzake, dantzatu nire egille orreik bezela! Ozin-nagusi izozturaño eldu al izatea pozgarria izango litzaket, ta eurak lez, izotz ganetik ozin alde batetik besteraño narraz joan. Baña ni, gizonkil au, errukagarri bat naz! Oinkada bat be ezin ba dot egin...

Orduan larrain aldetik txakur zaunkada batzuk entzun ziran. Bertan bizi zan txakur zaar bat zan. Beti egoitz barruan bizirik eta bertako ezotasunak eraginda, txakurra guztiz erlats egoan.

MUTIKOTXU BATZUK EDURREZKO GIZONKILLA
BAT EGIN EBEN. OTZA AUNDIA ZAN ETA A,
GIZONKILLA, GOGOR AURKITZEN ZAN...

ADISKIDE, LUZARO EZ
DOZU IRAUNGOI JIKUSIKO
DOZU EGUZKIA DIZDIRATZEN
DANEANI!



BIRAMONEAN, EGUZKIA URTEKERAN,
SORTALDEAN, IZOTZAK BERE IZPIAK DIZ-
DIRATZEN EBAZAN, GIZONKILLA GUZTIZ
EDER ETA GALANTA GIZONKILLA IRUDI-
TUZ...

EZ NAZ ARRITZEN ZUK EZER BE
JAKIN EZTEAZ, EZERTARIKO GAUZA-
RIK JAKIN EZTEAZ. IATZO JAIO
ZARAN LEZI OSTERA NI...



ARA, ALA, ZUK
DAKIZUZANTARIKO
GAUZAK EDESTU
EIDAZUZ...

Guau! guau! txakurrak zaunka, auzika, egin eban, edur-gizonkilla urrunetik begiratu. Luzarorako ez zara, adizkide! Eguzkiak irakatsiko dautzu mugitzen, ez zaitaz orretzaz arduratu! Zure antzeko gizontxuak, ikaskai au urtero, Negu guztietan, ikasi bear izaten dabe... Zuk uste dozun baño ariñago guztiak, ezereztu ziran eta zuri be ori jazoko jatzu.

Ez dot ulertzen, edur-gizonkillak, txakurra begiratu. Adi-erazi gura daustazu, or dagon argi orrek bere dizdirakaz niri uger, iger, saltuka ta narratzen irakatsiko daustala, mutiko orreik egiten daben bezela? Au esanez, edur-gizonkillak zerura bere oilezko begiakaz illargia begiratu eban.

Jakiña!, zaunkatu eban txakurrak. Naizta ez izan arritzekoa, ba da lur onetan ez dozu azturarik, Or goian ikusten dozun ori illargia da! Apur bat lenago ikusi dozuna eguzkia izan da! Gauza ez-bardin bi dira eta biar..., biar ikusiko dogu!

Edur-gizonkillak ez eban ondiño ezer ulertzen.

Zer izango da biar ikusiko dodana?, apal apal itaundu eban.

Biar barriro eguzkia ikusiko dozu eta, arraioa, ziarri, ariñeketan ikasi daizun, izango da, ikustea izango da, zelan ziri-ziri errekarantz arin-arin joaten zaran! Eguraldia aldatuko da, ez zalantzarik izan.

Diraustasunik ezertzu be ez dot ulertzen. Bere artean gizonkillak asmautzen eban, txakur orrek diñostanik ezer ez dot ulertzen. Baña zerbait ona ta garrantzitsua diñostala, nabaritzen dot. Ori bai, eguzkiarentzat ez nazala bat be begikoa, ori argi ikusten dot. Eta zergaitik izango da, ori, ezer txarrik iñoiz egin ez ba dausat?

Txakurrak barriro, zaukaka esan eban:

Guau, gau!

Ondoren txakurrak egin ebezan biraka bi edo iru ta azkenean txakurtokian etzunda lo-zorrotxuan geratu zan.

Bai, txakurra zuzen egoan, eguraldia aldatu zan. Biramon goizean laiño illun, lauso lodi batek onguratzen eban guztia. Apur bat geroago aize izoztu batek astindurik, otza zitalagoa zan.

Baña eguzki-sortzean, ze zoragarria!, lurraldea, lei-izoztuaz jantzirik, koral edo edormin beteriko baso dizdiratsu bat dirudi.

Ze ikuspegi zoragarria!

Apurka-apurka, eguzkiak bere izpi dizdiratsua iraurrik, norbaitek izar txiki-txuak an-emenka ezarri ebazala dirudi...

Ikusgarria da!, alboko etxeko baratetik urten eban nezkatillatxu polit batek esan eban. Nezkatillatxu a gazte bat lagun ebal joian.

Nezka-mutil biak edur-gizonkillaren aurrean geratu ziran, bertatik arrigarritzko dizdirakaz argiratuak ziran zuzat-adar-buruetara begiraturik.

Udan olako ikuspegi eder eta politik ezin leitekez ikusi, benetan zoriontsu, nezkatillatxuak esan eban.

Gazteak, edur-gizonkilla eskuaz erakutsirik, maltzur-irribarrez esan eban.

Baita be eziñekoa da Udan onen jaseko izakirik ikustea... Ja, ja, ja!

Nezkatillatxuak beste barre algara bateaz baieztatu eban mutillaren urtekerea ta biak edurre kaltz-eraziriz kaletik zear aldendu ziran.

Nortzuk dira izaki bi orreik? edur-gizonkillak txakurrari itaundu eutsan. Ziurki zuk ezagutuko dozuz, ba da zu luzarotik emen bizi zara.

Bai ondo be, ezagutzen dodaz, txakurrak arropuz antzera esan eban. Bera, nezkatillea, or ikusten dozun polit eta lerdan, baten baño geiagotan opa daust azur eder bat aragi naikoaz, lepoan maitasunez, bitartean, igortzita. Nire aldetik, eurakaz guztiz ona naz, ez dodaz iñoiz zaunkatuko. Nire adiskideak dira.

Bai, bai, ori ederto da, baño nortzuk dira? edur-gizonkillak jarraitu eban.

Eskongaiak dira, baño zuk orretzaz ez dozu ezer ulertzen. Zuk ez-jakin utsa zara, ez dakizu ezertxu be. Gua. Gua. Gua. Zuk ez dakizu zer esan gura dauan eskongai itzak, berbeak, zer adierazo gura dauan. Azur ber-berari aginka egiñik, txakur toki ber-beratan laster biziko diran bikote bat da. Ulertu dozu orain?

Eta gulako, gu bezelako, izakiak dira?

Ergel ori! Txakurrak asarratuta esan eutsan. Ugasabaren senideak, aideak, dira. Ez naz arritzen zurè jakingabetasunagaitik, ezer be ez jakiteagaitik. Atzo jaioko ba zara! Ostera ni... Nik bai, ba dot aztura! Eta urte ugari. Orregaitik etxe onetako guztia dakit eta etxeokaz ezagutzen dodaz. Aldi zoriontsu ta ospetsuak ezagutu dodaz, orduan, emen izarpean, eztalkigabe, kate onegaz lotuta otzak illik gau ta egun egotea edo eukitea, ez eben zillegitzen. Areik bai, izan ziran niretzat egun zoriontsuak Gua Gua Gua! Eta jasan bear izaten dodan otzagaz!

Ludi onetako gauzarik onena, otza da, edur-gizonkillak esan eban. Ara, edestu eistazuz dakizuzan gauza guzti orreik. Zu adiskide, zergaitik zure kate, lokarri ori, narrazten dozu ainbeste? Sarritan bildurra eragiten dozu.

Gauza bat ba dakizu? Txakurrak esan eban. Ni len txakurkuma polit eta azke bat nintzala esaten dabe. Aldi aretan ule-gurizko etzat-aulki apatz baten lo egiten zillegita nengoan, eta ondiño geiago ta oba, nire andra-ugasabaren altzoan. Orduan, sarritan mozukatzen ninduen, muturra be esku-zapi orratz-landun bateaz garbitzen eusten! Kutuna deiturik, ez dakizu zelako txerak eta zenbat laztantasan izaten nebazan. "Leal", "Zintzo" ori zan nire izena. "Leal", "Zintzo" ederra ta maitea esaten eusten. Baña egunak eta illak arin joaten dira ta eurakaz urteak. Gaztaro zoriontsuak nigandik alde egin eban, zaartzaroa eldu jatan. Andi egin nintzan, azi nintzan, ulea aldatu ta izterrak, anakak, luzaturik..., orduan etxeoentzat jolaste izaterik zoztor izatera biurtu nintzan. Orduan giltzazaiñaren menpeko izendatu ninduen eta etxe-azpi bat nire azur zaarrak atsedentu egien. Amaitu ziran niretzat miskez-egunak. "Leal" "Zintzo" ederrentzat ez zan txerarik. Ostera, an jabetasun zerbait neban, gauza azkoren jabe nintzan.

Ara, apur bat kirikatu zaitez, eta zagozan lekutik, ni egun baten jabe ta jaun izan nintzan gelako leioa ikusi al izango dozu. Giltzaiña be bertan bizi zan, eta naizta bere egoitz-gela goikoak ain aundiak ez izan, ez dagoz guztiz txarto, batez be zoritxarrean jauzten asi dan txakur batentzat. Beiñek bein, etxeko jauntxo-txikien naikeri ta

NI GUZTIZ POLITA NINTZALA ESATEN DABE TA TXIKITAN ABEGI ONA IZATEN NEBAN, BAÑA GERO AZI NINTZAN, AUNDIA EGIN NINTZAN, GUZTIENTZAT ZOZTOR BAT NINTZAN. EGUN BATEN ASARRATU ZIRAN NIGAZ ETA TXAKUR-TOKI ONETAN LOTU NINDUEN, GUA GUA...

50



ETXE BARRUAN, BARNEAN, EDERTO EGOTEN ZAN. BEROGALLU EDER BAT EUKEN ETA BERAZ BERO BERO EGON...

GUZTAKO LITZAKET ORAIN BEROGAULLU ONDOAN EGOTEA...



EGUTARAOA EPELDU ZANEAN, GIZONKILLA URTURIK ISUSKI TA BURDIRAZKO ANDAI, PALA, BAT AGERTU ZAN...



GIZONKILLAREN BIOTZA AZTARRIKARI BAT ZAN. ORREGAITIK IZANGO ZAN BEROGALLUGAITIK ERAGARKARRITUA?

ankerkeriak, ez nebazan jasan bear izaten. Janaria be, ez zan guztiz txarra. Neguan gilzaiñak egun osoan bero-gallu aundi bat biztute eukiten eban eta ni bere alboan kukulduta, naiko atsegintsu nintzan. Adiskide, berogallu a zelan gogoratzen dodan orain! Guau, guau, guau! Neguan beroa, bizitza erdi baño geiago da.

Berogallua?, edur-kizonkillak itaundu eban. Berogallua polita da? Bear ba da nire antza dau?

Keto ori, zer diñozu? Guztiz ezbardia. Zu zuria zara, ta berogallua itxas-lapur baten giza-barnea baño baltzagoa, sama luze-luze bat dauka.

Orma baten amaiturik, beratatik, bere samatik, keak urtetzen dau... Aaa! bere alboan ezarri zaitez, nai eskumara nai eskerrerantz, eta gozoki egongo zara. Ezin dozu ikusi zagozan toki orretatik?

Edur-gizonkillak leiotik begiratu eban eta txakurrak azaldu eutsan antzeko zerbait dizdiratsua ikusi eban. Bere barnean, zeozer laño, muga-eziñekoa sentitzea sortu zan, ez ekian ziurki zer zan. Ludiko giza-seme guztiak, naizta edur-gizonkilla ez izan, sentitzen bat zan.

Eta toki ain ederretik, zergaitik alde egin zenduan?, txakurrari itaundu eutsan.

Adiskide, ez neban beste urten-biderik, abereak esan eban. Etxetik jaurti ninduen eta emen lotu, kate onegaz txakurtoki iguingarri onetan. Ba dakizu zergaitik? Nagusiaren sema zaarrenari aginka egin neutsolako. Baña jazoki au izan zan, ostikada bateaz jaten nengoan azurra kentzen ausartu zalako. Aa bai?, esan neban nire baitan. Azurra azurragaitik! Baña eurak nire aginkadea doillorkeri bezela artu eben, naizta nire egikisuna, neure eskubideak babeztzeko uts-utsean izan zan. Eta arrezkero emen nago, kate onegaz lotuta. Nire bereratasuna ez eze nire abotsa be galdu neban. Ez zara nabaritu nire moskor izkuntzagaz? Guau, guau! Nire kondaira errukigarria ori da.

Baña edur-gizonkillak ez eutsan entzuten. Edurgizonkillak, ixillean eta oldozkor, giltzaintzailearen gelara begiratzan, adi-adi egoan. Zutik, lerdan, bera ain goi zan berogalluaren gelara. Bere alboan ze ederto egon bear da!

Nire barnean, zerbait, zeozer, berezia, arritzekoa, sentitzen dot, esan eban. Berogallua dagon lekura eldu al izango ba nintzake! Ziur naz, nire guraria beteko litzakela. Nire arima osoaz bere alboan atsedan apur bat izatea gura dot.

Ezingo zara sartu, edozelan be, bear ba da, sartu al izango ba zintzake, zure galmena izango litzake, txakurrak dirautso.

Baña edurgizonkillak ez eutsan ulertzen. Zelan, ori olan izan leiteke, txakurrak ber-berak, bere ondoan, berogallu ondoan, ederto egoten zala ba iñoan? Bera aurkitzen zan lekutik, berogallua egoan gelatxua abegi-oneko ta atsegingarria agertzen zan. Beratatik bero dizdiratsu urtenez. Gelako atea idegi ebanean egur geigo sartzeko, edur-gizonkillaren bular eta burua gorri-gorritz margotu ziran.

Aaa, ze ederto! Or barruan, ze ederto egon bear da! iñoan.

Gaba luzea izan zan, baño edur-gizonkillantzat ameseta bat bezelakoa. Oialezko bere begitxuak gela atsegingarri aretatik ez ziran aldunduten, gaba osoan bertara adia-adi egon zan. Bere adimenetik zori guztietariko amesetak igaro ziran.

Biramoneko eguraldia, aurrerako egunetakoa baño izoztsuago izan zan. Etxeko leioetako bairak be, izoztz lañotuta egozan, orregaitik edur-gizonkilla berogallua ezin eban ikusi.

Orduak aurrera joiazan, baña edurra ez zan urtutzen. Egokera aretan, edozein beste edur-gizonkilla bat, guztiz atsegintsu izango zan, baña gure ipuiñekoa, mur-mur eta asarre egoan.

Txakurrak arrituta begiraten autsan.

Adiskide, ez zaitut ulertzen, zure burugabeko jazoki ori jazoko balitzake, zure galmena izango litzake. Zergaitik ez zara saiatzen gogoketa ori zure burutik bazterzen? Gero bira bi edo iru egin ebazan, eta jarraitu: "Egotaroa aldatuko da".

Olan jazo zan. Eguraldi guztiz otz arein ondoren, apurka apurka gezaltzen asi zan, edur eta izotza urtuten. Beraz, edur-gizonkilla be, edurra zan ezkerro, geldika geldika argaltzen. Naizta zoritxar ori izan, bere gorputzetik aienatxu bat be ez zan entzuten, zalantza barik, bere azken orduen aztarren txarrena. Azkenean, goiz baten edur moltso bat biurturik agertu zan. Apurka apurka urturik, zutik, iñarra uts utsik geratzen zan. Inguru aretako umetxuak, iñarraren inguruan edurra trinkatuz, beste edur-gizonkilla bat egiteko asmuz, ebiltzan. Eta iñarrari lotuta sukaldetako, suteetako, sua bizkortze-ko ibiltan dan burruntzi bat ezarri.

Txakurrak guztia arrituta begiraten eban eta iñoan. Ez ete da au, iñoan, edurgizonkillak berogalluaren suagaitik izaten eban erakartzearen zioa? Zalantza barik, olan izango da, ba da biotz orde zurruntzi bat eukan. Guau, guau! Berantzat guztia amaitu zan.

Txakurrak bere mozkor-abotsaz, zaunka jarraitu eban. Uda azkena urreratzen zala ikusirik eta Udabarri bat etorrela, landa, zelai loratsu ta umetxuen abesti gozoakaz baratzearen alaitasuna osotzen zala. Loratxuak euren irribarrez eta eguzkiaren izpi dizdiratsuakaz edurraren arerioak izanik, egutarao aldatzen eben.

*Jantzi eizuz larra zure jantzi-bitxi orlegiak
Udabarriari abegi ona egiñik;
goizaro larratxoriak eresitzen dau
eguzkia kizkaltzen asi da.*

*Txoritxuak euren txio-txio alaiak
Zugatz ganean euren abia, ezarriko dabe,
Kuku nabarrak urki gurian,
Eta kuku nabarrak urki gurian.*

Eta edur-gizonkilla iñok ez eban gogoan.

ZORI-KALOTXAK

I

Kondaira au Kopenhaguen asi zan. Sortalde kalean, Errege-azokatik ez urrun. Etxe polit baten jabearen adiskide batzuk batu ziran, Jabearen ospakisuna on-arturik, astia atsegintsu emoteko bere etxean bildu ziran.

Batzarkide erdiak, itxi gora-bera, karta-jokoan jo ta ke ziardun. Bitartean beste erdiak, astia emoteko, beste era suspertsuago bat nok eskeiñiko eban zain egozala. Mota guztietako gaiak erabilli ebezan auren alkar-izketan, azkenean euren gaia kondairatzaz izan zan eta batan batek, norbaitek, sarritan entzun dan esaldia esan eban: "Joaneko aldiak, leen-aldiak, edozein aldia baño azkoz obeagoak izan ziran".

Batek baiezten eban Erdi-aldia onena izan zala, eta Knap aoulku emalleak, burudun opea ebanak eretxi au on-artu eban. Etxe beratako andrea eretxi bardifñekoa izanik, bereala bere alde jarri zan eta biak garratz gaizkitu eben. Orainaldiaren alde agertu ziran idaz-lan batzukaitik.

Aulku-emaillaren eretxiz, aldirik zoriontsuena ta onena, Jon erregearen aldia izan zan, eta luzaro jardun eban izketan bere eretxia egiztatu gurean.

Etxe barneko areto aundi baten, alkar-izketa au zan bitartean, gizategi-aurrean, ikusleak euren kapel, makilla ta soin-ganekoak itxiten ebezan tokian, nezkame bi beste alkar-izketa saratatsu baten egozan, bat zan gaztea eta beste adiñekoa. Zaarra ez dot esan gura, bada andrazkoak ez dira iñoiz izaten.

Lenengo baten, andra-aundi edo nezka-zaar anbatan andere-lagunak dirudi, baña zeastasun geiagoz begiraturik, euren itxura, tankera ez zan arrunta, euren jazkera ta ibillera diñak, euren eskuak luze-guriak eta euren jantziak dotore ta garestiak. Hada bi ziran. Euretariako bat, Zori ber-beraren mezularia, eta adiñekoa, jaseko, itxura, itxura itun eta odol-otz, gauzetan ipinten dan Ardurea ta ondo eginda geratu daitezcan, alegintzen dan, arreta zan.

KONDAIRA KONPENHAGEN AZTEN DA, PERTSO-
NA BATZUK BATUTA EGOZAN ETXE BATEN. ONEE
ALKAR-IZKETAN ZIARDUN...

ALDIRIK ONENA, ERDI-ALDIA IZAN
ZAN...

BAI,
EDERTO



NEZKATILLAK MAMU, HADA,
BI ZIRAN. GAZTEA ZORIONA
ZAN, ZAAARRA ARRE-
TA.

51



KALOTX ONEEK ITXI BEAR
DODAZ OIÑESTARATZEN DAUA-
ZANAK, BERAK GURA DAUAN
ALDIAN BIZIKO DA.

TXARTO EGITEN DOZU. ZU BAÑO
ZARRAGOA NAZ ETA DIRAITSUT
KALOTX ORREK IPINTEN
DAUZANA, ZORI-GAIZTO-
KOA IZANGO DALA.



IBAA...! EMENTXE
ITXIKO DODAZ ETA
IPINTEN DAUZANA
GULTIZ ZORIONTSUA
IZANGO DA.

Egun aretan izaneko gora-berak akar azaltzen ebiltzan. Ardurea gauza bakanakaitik arduratzen zan, esate baterako, gizon ospetsu bateri saiatu-araziz, beste gizon apal eta deduzko bat berotasunez agurtzen, edo kapel barri bat euri-zaparrada batetik babestuz. Ostera gazteenak, zeozer, zerbait, garrantsitsu, berezia egin bear ebala baieztatzen eban.

Ara, gaur nire urtebetzea da, ba dakizu, ez?, esan eban. Ospatzeko, Kalotz batzuk emon daustez eta eurak opari lez gizarteari emon bear daustedaz. Euren kemenak eraginda, eurakaz doan ber-berak gura izan eban aldi ta tokira joan al izango dau, joan leiteke, eta onelan ludian zorion-utsa jaretzi.

Zaarrenak, irri-barre maltzur bat egin eban.

Zu baño zaarragoa naz, zuk baño urte geiago dodaz eta ondo dakit, aurkitzen dauazanak, aldetik kendu arte, ludiko izakirik zori-gaiztokoena izango da.

Lelokeria! gazteak esan eban. Ementxe, bertan itxi bear dodaz eta ikusiko dozu ze zorionsua, aurkitzen dauazan gizona, izango da.

Zori-mezulariak olan ebiltzan alkar-izketan.

II

Aolku-mezularien ustegabeko gertaldia

Bere taldekideak agurturik, Aolku-mezularia urtetzen asi zanean, berandutxu zan eta errege Jon-aldia gogoratuz, erdi konkorturik, erdi zorobiotuta joian eta alabearrak gura izan eban, bere kalaproiak ipiñi bearren, Zorionarenak ipintea eta eurakaz bere etxerantz urten.

Artizkerizko kemenak eraginda, bere gogoak beti ames egin eban toki ta aldietara joan zan, eta onelan bere oiñak bidarriko lupetzetan ondaturik, bidean aurkitzen ziran zikinkeri guztiakaz bere oiñak topo egiten eben, ba da aldi aretan, garbitasuna ez zan bat be zeatza.

Aaa, ze txarrikeria, loikeria! Zergaitik kale-arriak kendu dabez? Zergaitik itxi dabe kalea ain illun? Ze izugarri aurkitzen zan!, izan zan lenen-lenen esan ebana.

Illargia ondiño ez zan agertu ta lañoan illuntasuna lagun, ez zan ezertxu be ikusten. Kale-ertz batera eldu zanean, lauki bat Andra Mari bere Umetxua besoetan ebala, iruditez eben lauki baten aurrean egoan argi-tximist epelarantz, begiratu eban.

“Benetan ertil-lan berezi ta ikusgarria da”, esan eban Aolku-mezulariak. Zelan aitzu ete dira izenpetzeaz?

Luzaro margo-laukia begistatzen egon ondoren, bere bidean aurrera jarraiturik, zuzenbide ezbaridiñean, antziñako erara jantzita joiazan gizon batzukaz topo egin eban.

“Koko-jantzi dantzaldi anbatetik etorri bear dabe, baña benetan doaz barregarri. Barre eutsi eziñik, Aoulumezulariak, aurrera jarraitu eban.

Bereala ango ixiltasuna, danbolin eta txitu zoiñuak aldatu eban, laguntalde bakan



ERDI-ALDIAN BIZI IZAN GURA EBAN AOL-
KARIAK, KALOTXAK IPIÑI EBAZAN ADI-GABE,
ETA URTEN EBAN ETA BERA INGURUAN
ZANAGAZ GUZTIZ ARRITUTA
EGOAN...

ZANPANTZAR-DANTZA
ANBATETIK ETORRI BEAR
DABE, BA DA BARREGA-
RRI DOAZ JANTZITA.



ZER
JAZOTEN DA?
NON DAGO ZUBIA?
¡ONEK LUPETZE BAT
DIRUDI!



TXANPORRAUK KALTE EGIN
DAUST. EMEN SORGIÑAK DIRA TA
GAIXORIK AURKITZEN NAZ.

bat euren zuzien argitasunegaz albotik igaro ziran. Lerroan, lenen-lenen danboril-jotzailleak zuzi aundi batzukaz eta euren tresnak trebetasunez jota, doiñu lilluragarria entzuten zan. Euren atsetik oiulariak kurutz ederrakaz. Eleiz-biri edo lerro aren buru eleiz-gizon bat zan.

Aoul-menzulariak, uste eban amesetan zala, ikusten ebana siñistu ezifiekoa zan, beintzat berantzat, eta azkenean alboan ur egoan ikasle bateri itaundu eutsan, ia nor zan eleiz-gizon a.

Zelandiako Gotzaiña da!, apur bat asarratuta erantzun eutsan.

Gure Aolku-mezularia nasai geratu zan.

Zergaitik jantzi da Gotzain Jauna, panpa-bitxi antzera?

Besteak asarragarri burua mugidurik, aldi beratako jakitasun-beraldia gaitzespen bezela.

Aolku-mezulariak Gotzaiñatzaz gogoratzen Sorkalde kalea zeartu eban eta Zubi Nagusi platzara abiatu. Bertatik, Zubi Nagusitik, egunero igaroten zan Kastillo Platzara joateko, baña egun aretan ez eban aurkitu zubirik, eta ustegabe, ibai estu-estu baten bazterrean aurkitu zan. Ibaian txalupa baten gizon bi norbaiten zain egozan.

Gura dau berorrek beste aldera, Ranbla auzora eroatea?, eurretarike batek itaundu eutsan.

Ranblara? Aolku-mezulariak esan eutsan, errukagarri a, ondiño ez zan konturatu beste aldi baten bizi zala.

Ni Kristian Kay'ra noa, Prado kalera.

Gizon biak ao zabalik geratu ziran.

Baña, esaidazue, jakin lei zer jazoten dan gaba onetan? Zer egin dabe zubiaz? Alkeizungarria da inguru au lupetze bat egiñik eukitea. Eta argi guztiak amatatuta egotea.

Alperrik zan, zenbat eta berba, itz, geiago egin, gitxiago ulertzen eutsoen.

Ez dot ulertzen zuen erriko izkuntza, azkenean esan eutsen, eta naiko asarraturik beste bide bat artuaz aldendu zan.

Zubi-kalea be ezin izan eban aurkitu, eta guztiz sumin-arazita, esan eban.

Lotsagabekeria! Au bai, zakarkeria uri onetan ikusten dana! Baa! Egin daikedanik onena, troika bat artzea izango da.

Baña, ba, bai... Non dabiltz troiak? Inguru aretan bat be ez eban ikusi.

Kristian Kay'ra eldu gura ba dot, Errege Azoka Barrira troika bat billa itzuli bearko dot.

Alan egin eban, Sortalde kalera itzulirik, bere asierara eldu zaneke, edoi moltso artetik illargia bere izpi makalakaz agertu zan.

Arraioa! Jaseko etxea eraiki dabe emen!, bakana da benetan. Sortalde Ate kalean aurkitzen zan eta kale au, Sorkalde kalea beste muga egoan.

Errege Azokara eldu gurean, ondiño idegita aurkitzen zan aterka batetik igaro zan. Baña zoritxarra, sastraka batzuk or-emenka eukazan larra bat baño ez eban aurkitu ta au zubi-bide baten ondoan egoan. Baita be ikusi ebazan, olandatar itxasgizon batzuk ontziratuta gidaritzen ebezan txalupa zaar eta baldar, berezitasun eta arretaz lerrotuak.

Aolku-mezularia geroago ta arrituago egoan. Emen sorgin talde bat da, bestela ni mozkortuta nago, bere barnean esan eban.

Bene-benetan uste izanik, gaixorik egoala, bere burua galduta ebala, gibelatu zan, atseratu. Orduan, kaleetatik igarotean, etxe ta etxetegian itxuratan begiraturik, arritatura konturatu zan, kareore ta zotz batzukaz egiñak zirala. Euratariko azkok lapatzeko teillatu txiro bat eukela.

Aa jauna! Aolku-mezulariak mor-mor esan eban. Antza danetik, txaporraua ez da niretzat atsegingarria, kaltegarria baño. Ori ontzi txikitxu bat baño artu ez dodala. Baña Zer? Non ikusi da, txaporraua arrain-gorria jateko? Gure andra-ostataritari esango dausat, eroskisaltzaillaren andreari. Bai, gertu naz, makaltxu aurkitzen nazala danari autortzeko. Bere asmakisunetan apur bat geraturik, abots gogor eta saratsuz, itaun au egin eban. Baña, barregarria izaten ba naz? Baleiteke ogeratuta izatea.

Gauza guzti oneik gogoratzuz, billa ta billa gelditu barik, etxea noiz aurkituko ibilli zan.

Au izugarrienetarikoa da! Sorkalde kalea bera be, ezin dot ezagutu. Et dendak? Baña Jauna, denda bat be ez da ikusten! Alde guztietatik etxe zaar eta zarkullak. Bai, gaixorik egon bear dot, orretzaz ez dot espairik, zalantzarik. Non eta da saleroskaisaltzaillaren etxe zoragarri ori? Baña ez ba da lengolakoa!... Albokoan notintsa aundia da, lagun asko dago.

Aa, Aa, ez naz ondo aurkitzen!

Atari aundi erdi-idegita egoan batera eldurik, etxe barnean argi txiki bat ikusi eban. Aldi aretako osta-etxe bat zan, edantegi ta osta-etxe biak batera. Areto edo gelanagiak, olandatar edari-leuku andi bat eritxon. Bezero ugari, itxasgizonak, Kopenhaguetarrak eta ikasle batzuk jazarrita, alkar-izketa bizi-bizian egonik, ez ziran konturatu Aolku-mezularia sartu zala.

Onek, etxeko andra-ugazabearengana urreraturik esan eutsan:

Parkatu andrea, baña... Uste dot, tupustean apur bat makaldu nazala, eta mezede bat eskatu bear dautzut. Deitu zeinkio berebildun bateri, Prado kalera eroan naian?

Andra-ostataria adi-adi geratu jakon, goitik bera begiraturik, deushtar izkuntzan erantzun eutsan, eta orduan gure gizonak, danestarra ez ebala ulertzen, uste izanik, barriro itaun ber-bera deuschar izkuntzan egin eutsan.

Andreak argi ikusi eban atserritarra zala, bai bere jantsiketarik eta baita be bere izkuntzagaitik. Makal itxuraz aurkitzen zala ikusita, itxas-ura bezelako osaki bat atondu eutsan, gozamen ona ez eukan baña on eragin eutsan.

Aolkumezulariak intziri luze bat egin eban, eta bere burua bere eskuartean ezarrita, berari jazoten jakozan gertaretzaz gogoratzen jardun eban.

Apur bat geroago, ostatari-andrea orri aundi bat begiratzen egoala ikusirik, itaundu eban.

Gabako egunkaria, ez?

Andreak ulergabe begiraturik, orria emon eutsan. Koloniako urian, eguratsean, izugarrizko agerkunde bat iruditzen eban ezelkiz egiñeko argazki bat zan.



Aaa, antziña-antziñakoa da! Aolkumezulariak esan eban, antziñako adigarri bat, bakana zala ikusirik apur bat bizkortu zan. Jakin leiteke nondik atera dozun olako gauza bat? Argazkia guztiz garrantzitsua da, naizta berak adierazoten dauna, ipuin bat baño ez izan... Ostagiak guztiz argi azalduta agertzen dira orain, lurburu-argiak eraginda, eta ziurki ots-agia, eguratseko tximistak eraginda dira.

Berba, itz, oneik entzutean bere alboan jezarrita egozanak, burua itzulita, abozabal zabalik geratu ziran. Taldeko batek kapela kendurik, zentzundun esan eutsan: Gizon jakitun bat zara, urrean, zaldun ori.

Ez, ez, antzekorik be ez. Aolkumezulariak erantzun eutsan. Nik beste batzuk esandakoa barrizkatu baño ez dot egiten.

Apaltasuna, doe, onbide, txalogarria da, Jauna, beste taldekide batek esan eban. Nire aldetik, zure azalpena onelan luzatuko neuke "mihi secus videtur". Naizta jazoera onetan, ez dot eragozpenik neure "judicium" gordetzeko.

Esango zeuskit, mezedez, nor edo nondiko gizon jakitun ospetsuaz alkar-izketan nazan? Aolkumezulariak, kezkatu ta zalantzaz beterik, iñotsan.

Bai, zalduna, Teologi batxiller bateaz, gizonak erantzun.

Aolkumezulariak, uste izan eban, oldostu eban:

Ergel arroputz ori! zalantza barik, erriska bateko irakaslea, besterik ez da. Jutlandia Iparraldean edozein lekutan aurkitu leiteken, gizon arlote, barregerri bate-tariko bat da.

Errizkako irakaslea zala uste zanak, barriro bere txanda izanik, jarraitu eban.

Naizta orain ez garan aurkitzen "in locus docenti", esan eban, adikortasun apur bat izan eizu gugaz eta mezedez erregutzen dautzut, azaldu dagiguzala ikaskai bat guztioi, ba da oker ez ba naz, zu antzin-jatorkietan trebea, azko ikasikoa zara. Ez da olan, Jauna?

Bai, ori bai, Aolkumezulariak esan eban, egia da, gai orretzaz guztiz zalea naz, antzin-liburu azko irakurten dot, baita be autortu bear dot, gaur-eguneko idazleak be onartu ta euren liburu ta irakurgaiak be irakurten dodazala, ipuin-idazleak izan ezik.

Ipuin-idazleak esan dozu, Jauna? Teologi batxillerrak arrituta esan eban.

Bai, ipuin-idazleak. Esan gura dot, oraindar-ipuiñak, nobelak. Neure-neure ere-txian, ipuin edo nobela larregi dogu, eguneroko bizitzan, beste barri batzuk idatzi bearzen barik.

Aa bai! irribarreka besteak esan eutsan. Guztiak asmamen sakona dabe, ta errege-etxean oituratuta dagoz olako liburuak irakurten. Erregeari, Sir Iffven eta Gaudianen ipuin-liburuak, atsegin izaten jakoz. Liburu onein gaia Errege Arturo ta bere Ol-Biribilleko zaldun ospe ta adoretzuatzaz da. Liburu zoriontsu orretzaz, bere errege-gizonakaz, erregea, txantxetan ibiltan ei da.

Ondiño ez dot irakurri, Aolkumezulariak esan eban. Oraintsu argitaratu izango zan, ziur. Nok argitaratu dau? Bear ba da, Heibergek?

Ez, Teologi batxillerrak esan eban. Heibergek ez da izan argitaratu dauana, Gotfred Von Gehmenek baño.

Aolkumezularia guztiz arrituta geratu zan.

Gotfred von Gehmenek! iñoan. Antziña-antziñatariko izena da ori! Ara, itxi eidazu gogoratzen... Dinamarkako lenengo irarlaria ez eritxon olan?

Bai, alan da, beste gizonak erantzun eban. Gure lenengo irarlaria da, danatarik ospetsuena.

Une areta arte, guztia guztiz ondo joian. Ordutik aurrera euren alkar-izketa naastatzen asi zan. Oraintsu, milla ta laraundelarogeta lauan izan eban izurrite negargarria, euretariko batek azaltzen ziardunean.

Aolkumezulariak uste izanik beazun-izurritetzea zala euren alkar-izketa gaia, estabaidan asi ziran bakoitza gai ez bardiñetzaz egozala izketan nabaritu gabe.

Beste solaskide baten eretxiz, kaiatuta egozan itxasontziak izan eben Ingalaterra-tar itxas-lapurren eraso-aldia be egun gitxi barruan izana zala uste eban, eta Aolkumezulariak, milla ta bederatzireun da bateko urtean jazoriko gertaeratzaz egoala izketan, berbetan, uste izanik, Ingalaterratarren aurka berbetan asi zan. Arrezkero alkar-izketa ez zan bat be atsegingarria, estabaida larregi eta gogorkeri apur bat be bai.

Azkenean Batxiller errukigarria, ezjakin bat bezela agertzen zan, eta Aolkumezulariak zeozer, zerbait, esaten ebanean, beragandik aritu-saratatsuaz onartua izaten zan, gauza izugarriak edo ipuin-sortak norbaitek edestuko balebe lez. Egoera gaiztoa betetzeko latinkeriak be ugari ziran eta Aolkumezulariak buruko miñ aundi bat izan eban.

Andik laster ostararia agerturik, Oalkumezularia egoan tokirantz abiatu, bere osasunagaitik itaunduten. Baña Aolkumezulariak ez eutsan erantzun, bere eskuekaz logune biak zakatuz.

Ortzi Deuna! asmau eban. Non sartu naz?

Ia, ostatari-andrea, Bremen pitxar eder batzuk ekarri eiskuzuz!, taldekide batek oiuka esan eban. Zaldunak gugaz edango dau!

Ain oiu aundiak entzuckeran, gelan nezkatilla bi, euretariko bat txapel margo txikiakaz beteriko bateaz bere burua apaintzen ebana, sartu ziran. Eta biak arduratu ziran garagardoa ugari edaraziten. Aolkumezularia orduan, ikeraz dar-dar asi.

Zer da au? itaundu eban.

Baña ez eban beste urten-biderik, opa eutsoen garagardoa-pitxerra edan bear izan eban. Edatea amaitu ebanean, len baño be makalago aurkitzen zan, eta batan batek, norbaitek, irribarrez, garagardoa burura igon eutsala esan eutsoenean, bene-benetan siñistu eban.

Troika bat billatu daistela! oiuka asi zan. Troika bat billatu daistela!

Errusiatar izkuntzan dago berbetan, iñoan batek.

Ja, ja, ja! Ara non, orain errusiatarra dan!, batzuk oiuka iñoen.

Aolkumezulari errukigarria! Berebizi osoan notin edo pertzona arrunt eta ezjaki-ñagorik ez eban ikusi...

Etxe aretako ikusgaia jasan eziñik, ba da ludiko gauzarik zeken eta loitsu iruditzen jakon, maibe batetik ixilka iges egin eban, bere asmua urtekerako atera eltzea zan. Baña ate ondoan, ia kanpoan, aurkitzen zanean, oiñetatik oratu eutsoen, eta...

Orduan Aolkumezulariari eldu jakon une zoriotsua. Kalotxaktatik tiraka izan ziranak, eurakaz geratu, euren eskuetan kalotxak geratu ziran eta bereala ameskeria amaitu.

Aolkumezularia arrandiz argitutako kale baten aurkitu, etxe eder eta goi baten aurrez aurrez, berantzat guztiz ezaguna zana. Sorkalde kalean egoan, kale-egalean etzunda.

Bere aurrean, jezarrita, lo nasai-nasai, gaba-zaiña egoan.

Jaunak gaizkatu nagilla! esan eban. Au da lotsea! Olan, jauzita kale erdian, amesetan izan nazan artean, egon ete naz? Au da Sorkalde kalea. Bakarra!

Eskegita egozan argi-ontziak eragiten ebezan izpien argitasun zoragarria, arrituta begiratzen jardun eban luzaro.

Zelako argitasuna! Ze oparotasun eta zenterik!

Txanporrau edontzi a kaltegarria izan jat, ez naz bat be ondo aurkitzen.

Apur bat geroago, zaldi-burdi baten ezarrita, bere etxe aurreraño beratan joian. Bere etxe aurreko atari aundi aurrean zaldi-burdia itxi eban.

Azkenengo aldian izan ebazan estu-aldi ta naigabeak gogoraturik, bere biotz-barnetik bedeinkatzen eban orain-aldia. Bere akatz eta mingostasun guztiakaz be, antzin-aldia baño azkoz be obeagoa iruditen jakon.

III

Gau-zaiñaren gertaerak

Ara! Kalotx bikote bat! gau-zaiñak esan eban. Zalantza barik, or goian bizi dan tenientearenak izango dira, ba da bere etxeko atea ondoan dagoz.

Gau-zaiña gizon zintzo, deduzkoa zan, eta bere lenengo eragiña, berak jabetzat uste ebanari eroatea izan zan. Ondiño onek bere gelan argia biztuta eukan, baña bear ba da, beste auzokide batzuk izartu leikezala ta, apur bat geratu zan, eta ikusi ebazan leku beratan kalotxak itxi.

Aa zelako berotxua olako kalotxatxuetan oiñak sarturik! esan eban, eurekan bere begiak adi-adi, ta berantzat oiñetako areik, ongarririk izango litzakezela gogoraturik. Zure onegaz egiñak dira.

Ezin izan eban jasan zirikaldia ta azkenean kalotxak ipiñirik, bere oiñetan ederto sartzen jakozala, nabaritu eban.

Neurétzat egindako bezelakoak dira, ta intziri bat egiñik, jarraitu eban.

Aa zelako ludi au ta luditarrak! Kalotx onein jabeak, ogeratuta bero-bero ta atsegintsu egon al izanik; gurago dau kalean biraka, ara-emenka, astia emon. Jakiña! Ez dau ez andra ez umerik... eta olan gabero urten leike ta berak gura dauana egin... Ni be zoriotsua izango nintzake, bera izan al banintz! Eta, arraioa, zelan guztako litzaket!

Gurari au bere amesetan asmau eban orduko, bereala, teniente ber-bera biurturik,



GAU-ZAIÑAK KALOTXAK AURKITUK, TENIENTE BAT IZAN GURARIK IPIÑI EBAZAN. BEREALA TENIENTEN ETXE BAKARREAN AURKITU. BAÑA BERE BAITAN ESAN EBAN, GURAGO EBALA GAU-ZAIÑA IZAN ETA ZENDI BAT..

BEINGOAN BURURATU JAKÓN ILARGIAN, IRETARGIAN, BIZIA GUZTIZ BAKANA IZAN BEAR EBALA TA BERE ALBORA BEGIRATU EBANEAN URI BEREZI BATEN ZAN ETA BERTAKO BIZTANLEAK ZELAN EBILTZAN EZTABAIDA GOGORREAN...



LUDIAN BIZTANLEAK IZATEA, GAI IZANIK.



BITARTEAN, GAU-ZAIÑAREN GORPUTZA KALEAN ETZUNDA AURKITZEN ZAN. OSAETXE EROANIK KALOTXAK KENDU EUTSOEZAN. BEREALA, GAU-ZAIÑA BIJURTURIK OSAETXETIK ARIÑEKETAN URTEN.

bere gelan, bere idaz-maia aurrean jezarrita, eskuetan tenienteak ber-berak idatzitako orri bat eutsiten, aurkitu zan. Irakurten egoan orrian olerki batzuk tenienteak idatziak ziran.

Nok ez dau bere bizian idatzi eresitxu anbat? Orretarako, norberen arimea garbi ta ameslari izaten dan unetan, bere gogoak edo asmakisunak, orduan idatzi bear dira.

Tenientearen olerkiak olan iñoen:

NOR IZAN LEINTEKEAN ABERATSA!

*Ni umetxu nintzanean,
Aberats ta gudaburua izatea amestu.
Bular-txiki ta espata garrikoz apaindu
Eta errege-zaintza soiñekoz
Azkenean teniente izatera eldu
Aberastasunatzaz... Aa biotz-samintasuna!
Nire begietatik estalduta izan dira
Eta uts-utsik Zugandik Jauna itxaroten dodaz.*

*Gau amesetan umetxu bateri,
Nire besoetan artzen nebala, nire alboan nabari
Nire eresi-lora ta intziriak opariaz
Bera zoriontsu zala jakin neban.*

*Nire aberastasuna bere begi ta irribarreak
Maitasunari eresirik zoriontsu ni,
Ez neban urrerik, ez neban orren ardurarik.
Zer izan zan aldi aretzaz? Non da Jauna?*

*Ni aberats banintz, gaur ez neukez izango
Nire arima samintze-negargarriak,
Nigandik zoriona uxaturik
Nire Bakea, nasaitasuna eroanez.*

*Iñoiz zugana nire kondaira samiña eltze ba da
Gaba illunak nigan sortua
Gudalburu amesak bezela gogoratu eizuz,
Zeiñentzat zoriona zekula ez itzuliko.*

Ziurki, gudalburuak eresi areik idatzi ebazanean, maitasun utsegiteak eraginda antzin-aldia baten izango zan, ba da gaur egun, zentzundun gizon batek olako eresirik ez dauz idazten. Gudalburu, txiro ta maitamendu, zalantza barik iruzoko negargarria da.

Leioako beiran burua eutsiten eban bitartean, gudaiburuak onelan gogoratzen eban. Iñorgabeko kalerantz begiratu, intziri sakon-sakon batek bere barnetik urten da.

Kaleko gau-zain bera be, ni baño azkoz zoriontsuagoa da, ezpai barik, gomuta eban, ez dau ezagutzen nire kezkarik ta ez nire bakartasuna... Egoitz bat dauka, andra bat eta ume batzuk dauz, bere poz-samiñak eurakaz ainbanatu leiz. Nik aldatu al izango baneu nire bizitza beragaitik, bere opa ta itxaropenekaitik aa ze zoriontsua izango nintzake!

Eta esan eta egin, bereala, tenientearen gurariak eraginda, gauzaiña barriro benetako gauzaiña izatera biurtu, ostera bera, tenientea, gauzaiñaren gurariak eraginda, gauzaiña biurturik gertu zan.

Ze ames zentzungabea! esan eban. Ostera bakana ta erakuzgarria, ba da beti gura izan neban tenientea izatea, gomutagabe, neure nortasuna galdurik, aldaturik, beti euren mozu ta txerakaz mizketzen naben andra ta seme batzuk galtzen nebazala.

Eta barriro jesarri zan, gertaera doatsu bat ebal, ameseta izugarria batetik iges egin ebalako, ulertu eziñik, ameseta ain benetako areik, zelan al izan ebazan.

Unetxu aretan, izar-koloka batek ortzia zearkatu eban. Gauzaiña izartuta adi-adi geratuz.

Izartxuen gora-berak, izatea, jakingarria izan bear dau, beti dira zerutik jauzten eta ondiño bertan, zenbatu eziñeko beste geratzen dira. Urragotik ikustea guztako litzaket, bai jauna, ta batez be illargia, beragaitik nire andreak soñekoak garbitzen dautsazan ikasleak, biztanleduna dala esaten dau. Ori txepelkeri bat baño ez da, baño ez litzake txarto izango, saltukada aundi bat egiñik, bertan aurkeztea, naizta neure gorputza emen bean itxi.

Benetan da egokia, esaldiak esan baño lenago gogoratzea, eta batez be Zorionaren kalotxak aldean euki ezker, arreta geiagoz bizi bear da. Ba da orain ikusiko dozue gauzaiñ errukigarriari zer jazo jakon.

Jakiña da, bultsi edo itxasontzi batek, lur-nagusi batetik beste batera joateko, asti edo denpora laburra bear dabela, ostera abiada au, arintasun au, argiaren bide-egitearen lastertasunagaz bardinketu ezker, barekillo baten abiada dirudi. Argiaren izpiak emeretzi billoi bider ariñago joaten dira. Eguzkiak eunde berrogeta bederatsi kilometrotako bitartea ibilteko, zortzi minutu ta segundo batzuk bear dauz. Arimeak lastertasun aundiagoaz egiten dauz bitarteak, auzokide bat bere etxetik albokora aldatuko balitz bezela.

Gauzaiña, segundu gitxitan, illargira aldatua izan zan, danok dakigun lez, ludia baño gai ariñagoaz egiña da, illargiatzaz gagoz berbetan. Gauzaiña, erakoa dan bezela, illargi ganean dagozan millaka sumendizulotariko batera jauzi zan. Sumendizulo onen ganean, goia, garbi-toki edo konketa antzekoa zan, eta bere sakontasuna kilometro bat ingurukoa, bere ondarrean, barnean, uri bat egoan. uri onen zuritasun zelakoa zan jakin-eraziteko, iruditu eizu edontzi bete uretan arrutza-zuringoa, onelan antza apur bat euki al izango dozu, uri aren eta inguruan antz edo irudi bat. Guztiz zuri-

zuria zan. Goi. Goi-erdi, dorre, teillatu ta etxe geienak, laño ataltxukaz, aizetan astindurik.

Eta an, urrun urrunean, ortzian dindilizka bezela, gure ludia, gure izarbela.

Gauzaiñak, beingoan izaki berezi batzuk illargian nabaritu ebazan, espai barik bertako, illargiko, gizasemeak ziran, luditarren antzik ez eben, guztiz ezbaridiñak .

Izkuntza berezi bat be ba eben, eta naizta siñistu eziñekoa izan, gauzaiñaren arimarentzat ezaguna zan, eurakaz, illargarritarrakaz, ederto ulertzen zan.

Illargitarrak, illargiko gizasemeak, ludiko bizi-bide, egutaro ta bere bizia eta olako gaien buruz jarduten eben, eta geienak uste eben, ludian bizitzarik ez egoala ta beraz biztanlerik be ez. Baña guztien eretxia zan, illargarrentzat ludiko eguratsa arnas-artu eziñekoa izango zala. Geienentzat illargian zan, uts utsean biztanleak ebazana ta Ortz osoko biztanleen jaioterria.

Bitartean, Sorkalde kalean, gauzaiñaren gorputza geldi-geldi egoan. Bere aiztaga jauzi jakon eta sabel ganean bere eskuak krutzatuta eukazan. Bere ikusmena, bere arimea illargira adi-adi.

Gauzaiña, ze ordu da? bidekari atseratu batek itaundu eban. Erantzunik ez izanik, bein ta barriro egin eban itaun bardiña. Azkenean, erantzuna lortu gurean, gauzaiñari bere surretik tiraka bat egin autsan eta orduan gauzaiñaren gorputza, orekea galdurik ilda lurrera jauzi zan.

Gorpua jauzierazi eban gizonak guztiz arriturik, laguntza eskatu eban, eta bere lagun batzuk etorkiozan. Jazokera negargarri onen gora-berak, argiketak, artu ebazan, eta biramonean gauzaiñaren gorpua uri aretako osaetxeko gorputegira eroan eben.

Polito izango zan bere arimea, gauzaiñaren arimea, bere gorputza billa Sorkalde kalera itzuli ba zan eta an ez aurkitzean, ertzain-etxe batera joan eta geroago, osaetxera.

Baña arimak ez dira ergelak, leloak. Zuzengabekeriak eurak, arimak, osterantzen dabezan gorputzak egiten dabez.

Gauzaiña osaetxera eroan ebenean, lenen-lenengo bere kalotxak kendu eutsoezan eta orduan, jakiña, bere arimeak gorputzara itzuli bear izan eban, eta beraz, gorpua berbiztu. Bizitzara ekarri.

Gauzaiñak, zekula bere bizian alako gau izugarriarik ez ebala izan, esan eban. Kezkatsu ta larri egoan, ostaetxetik urten arte, ta zorionez bertan aiztuta bere kalotxak itxi ebazan, Zorion-kalotxak.

IV

Ikasleen larritasunak

Kopenhaguen bizi diran guztiak, Federiko Osaetxearen sarrera ezagutzen dabe, baña kondaira au irakurten dabentzat eta uria ez ezagutu, zeaztasun edo azalpen bat egingo dogu.

Kalera joten dauan aldea, osaetxekoa, ataga itzelakaz inguratuta dago, buru-sare goi bateaz. Burni-sare orren atagak, bata besteagandik, bertako ikasleek urtetzeko beste bitarte daukie. Obeto esanda, osaetxetik euren jolasketa, gau-erralduta igez al egiteko. Gaitzena burua igarotea izaten zan eta arazo onetan, beste azkotan bezela, buru txikitxudunak errezago zuzentzen eben arazoa. Zeaztasun edo azalpen onen ondoren, joan gaitezkan kondairaren arira.

Ikasletariko bat, buru aundikoa bera, baña ez buruduna, aunditasunean bere burua aundi zan, baña bere zoritxarrerako ez zentzuntasunean, gaba aretan bere ikaslekidea-kaz joateko arduratuta egoan. Gaba euritsua, iñoiz euririk izan ba da, egun aretakoa zan, baña eragozpen aun ez eze bere buruen aunditasunarena be, ez zan izan berantzak eragozpenik naiko, bere gurarian aurrera, asmau eban bezela, jarraitzeko.

Atezaiña nekarazi barik, burdin-saretik urtetzeko, luzaro egon zan asmatzen. Onetan, atezaiñak aitzuta itxi ebazan kalotxak ikusita, bereala oiñeratu ebazan. Ederto jatorkidaz oiñetako oneik! Naizta euritse polita izan, oski oneikaz, bilurgabe ibilliko naz!

Eta geiago barik burdin-sarerantz abiatu zan, bertatik urtetzea saiatur. Iñok iñoiz olako igesketarik Osaetxe aretatik, ez eban egin.

Guztia burua igaro al izatea da, esan eban.

Bere asmakisuna bururatu orduko, burdin-saretik urtetea saiatu eban, eta egia esan bere burutzarra labanki, naiko errez, burdin-sare beste aldera igaro zan. Aurrera jarraitu baño lenago, esan bear dogu, bere burua aundia ez eze, gogorrenatarikoa zala. Lenengotan, ikaslea guztiz pozik izan zan, baña gero izan ziran izatekoak.

Burua izango zala gaitzena beste aldera igarotzeko, uste neban, eta ara non, gorputz aundiduna izanik, orain nire bular, sorbaldak dira eragozpen beste aldera joateko.

Gero lenagoko lekura itzuli gura izan eban, bere burua burdinsare artetik atera, baña bere alegin guztiak, alperrikoak izan ziran. Zorion-kalotxak naspil politan ezarri eban, baña berak asmakisun guztiak ixil-ixillean egiten ebazan. Eragozpide aretatik urtenda bere guraria betetzeko, ez jakon ezer bururutzen, egoera larri aretatik urtetzeko ez eban ikusten urten-biderik. Buruz, zentzunez, saiatu bearrean, orroka-dak, eta zezen baten antzera murruze, besterik ez eban egiten, eta onelan ez eban ezer onik lortzen.

Euria, ura ugari edoietatik dariola, ta aa bere zoritxarra!, kaletik iñor be ez joian. Bakartasun ixilla nabaritzen zan. Bera egoan lekutik naiko ur aurkitzen zan denda baten ate-txillina joteko aukerarik ez eban, eta urrengo eguna argitu arte itxarotea baño, sasoi orretan alboko lantegi batera, bertako auzokide bat, burdinaroztegi batera, joaten zanean, langilleak ikusirik, atera egian.

Ordu orretarako, langillea lantegira joan baño lenago, ordurako, goiz-goiz ikaste-txera joaten ziran umetxuak, euren erosketatara joaten ziran nontxebarriak eta itxas ta itxas auzoko langilleak, ikusita izango zan. Aa bai ikuspegi barregarria berantzat!

Jaun eta Jaungoikoa! oi ugin eban. Zoratu bear naz! Odolak burura igoten daust!



OSAGILLE IKASLE BATEK KALOTXAK AURKITU EBAZAN ETA EURIA ZAN LEZ, POZIK JANTZI EBAZAN. URTEN GURA IZAN EBAN BAÑA BURNI-SAREA GOIA ZAN ETA BERE GORPUTZA EZIN IZAN EBAN ZEARTU BURNI-AGA BITARTE-TIK.

55

BIRAMONEAN BARRIRO JANTZI EBAZAN KALOTXAK ETA AN-TZOKIRA JOAN. LENENGO LERROAN JEZARRITA EGOZAN NOTIÑEN BARNEAN SARTZEA BURURATU JAKON, EUREN BIOTZETAN. ETA ELEIZ-NAGUSI, TXARRI-TOKI, ISPIILLUZ BETERIKO GELA TA ORROTZ TOKI BATEN IKUSTEN ZAN...



ZORATUTA ZARALA USTE IZANIK, LURRUNEZ URESTATZEN JOAN ETA IGER-ZAIÑA ARRITUTA GERATU ZAN, BILLOSTU BARIK EGIN GURA EBALAKO. BIRAMONERARTE ZORION KALOTXAK EZIN IZAN EBAZAN KENDU.

eta beingoan azke ez ba naz, azkatzen ez ba naz, ez dakit zer jazoko dan, jazoko jatan. Emendik urten al baneu!

Baña zergaitik ez jakon lenago bururatu guraria au esatea? Bere guraria adierazo orduko, une beratan, burdin-aga izugarri areitatik azke aurkitu zan eta larritasun arek eraginda, zorobioturik, bere gelara abiatu, geiago bertatik urtetzeko asmugabe.

Baña guztia ez zan emen amaitu.

Biramonean, ondiño iñok ez ebazan kalotxak eskatu. Gabean Kannibe kaleko antzokian antzerki saio bat egoan, eta ikasle antzerki-zalea izanik bertara joan zan, aurrerako eguneko gertaldikeria gogoan izan barik. Jakiña, bere kalotxakaz joian. Kaleko ezotasuna jasan al izateko, benetan egiten jakozan onek atsegingarriak, eta ganera guztiz erosoak ziran.

Antzerki saioan “Grannyren Betaurrekoak” eresa, oguzi eben.

Eresi onen esatez, notin edo pertzona batek, eurakaz bere aurrean ezartzen zan beste baten gogorapen guztiak, jakin leikezan, orrez ganera bere etorkisuna be argi adierazoten eban.

Ikasleari gogai ori, asmakisun ori guzta jakon. Olako tresna bateaz jabetuko balitzake, bear ba da, notin edo pertzoneen biotzetan sartzea guztako leikio, azkoz be atsegingarriagoa iruditen jakon.

Esate baterako, iñoan bere baitan, lenego lerroan dagozan andra ta gizonezkoen biotzetan jazoten dana, ikusi edo jakin al izango baneu, denda aundi, saleroskai ugaridun batzuk ikustatzen nabillela irudiko litzaket. Ziurki, eskumako aren biotza, moda-denda bat biurturik da. Bere albokoarena, bear ba da, denda uts eta garbitasun-gabea. Egongo ete da denda anbat saleroski apaingisakoakaz? Jarraitu eban. Zalantza barik, lenengo lerroan dagozan notin edo pertzoneen biotzak neure gogoaz zearkatzea guztako litzaket.

Eta kalotxak beti menak, esaneakoak, agindua betetzeko beti gertu egozan, eta agindu oneaz be bardin egin eben. Eta olan, ikaslea ezereztuta, lenengo lerroan egozan andreen biotzetatik zear bere bidalian joian.

Lenengokoena, andra batena zan, eta ikasleak uste izan eban, erakus-toki baten egoala, azurgintz erakus-toki baten, bere ormatatik dindilizka igeltezko gorpuzkiak, erakusgai ondo erroldatuak, andrearen ezagun eta adiskideen eta griña txar guztiek aztarne bereziki erroldatuta.

Urrengokoaren biotza, au be andrea zan. Eleiz-nagusi bat dirudi, ta garbitasun-uso zuriak aldare nagusiraño igez egin eban, baña an luzaro egoteko astirik ez eban, ba da albokoaren biotzari ikustaldi labur bat egin bear eutsan. Bere belarrietan ondiño eleiz-soiñu gozo ta bigunak ebazan, eta len baño onago sentitzen zan, batez be len baño duiñagoa urrengo deun-tokian sartu al izateko. Beratan, sapa-gaintxiro zorigaiztoko baten bizi zan ama bat zan. Baña eguzkiak, gure Jaun eta Jaungoikoak luditar guztientzat argitzen dauan eguzkiak, leio loraz eta landaraz inguratuta egoan batetik sartu. Txoriak zugatz-ondo oneitan, txori margodunak, euren txio txio alai ta gozoakaz alaitzen eban, ama gaixo errekugarriak otoika Jaungoikoari erregututen eutsan bitartean, bere alabatxua bedeinkatu egiala.

Apur bat geroago, notintza aundia egoan okalategi-denda baten, makurturik, lau-anka sartu, eta begiratzen eban toki guztietan ez eban ikusten okelea baño. Gizon aberats baten biotza zan, gizon itzal-aundiko ta eragillea, zalantza barik, bere izen eta zuzenbidea, urrutizkin edo telefonoan, liburuan aurkitu al izango dozue. Gero, gizon onen andrearen, emaztearen, biotzen aaturik, txarritoki loi, zikin, bat besterik ez zala, txarritoki uts-utsa zala nabaritu eban. Gizonaren argazkia aize-orratz ordezeko egiten eban atekaz zer-ikusit ebana. Onelan argazkiak bere arpegia itzultzen ba eban, atekak bere idegi edo irtsi egiten ziran.

Gero urrengo biotzena, izpillutegi edo, izpillu gela bat aurkitu eban, Rossenbur-goko gazteluan ikustatu leikezalakoak. Izpillu oneik, guztiz, osoz, aunditzen eben eta bat batean, ugasabaren norberekeri kazkarra, gela erdian siñisgabeko jaungokotasunaz jezarrita, ber-beraren aunditasuna ederretsi, besterik ez eban egiten.

Urrengoaren barnean sarturik, uste izan eban, orrotz-ontzi baten barruan orrotz zorrotz-zorrotz batzun tartean aurkitzen zala.

Ezpai barik, nezka zaar baten biotza zan, esan eban.

Baña oker egoan, aundiki, itzaldun eta jakitun baten biotza zan, gaztea bera, gizarteak gizon ospetsu ta jakintsua bezela iduritzen ebana, baita be biotz-onekoa.

Ikasle errukigarria, lenengo lerroko azkenengo biotzetik, zorobiotuta urten eta bere zorobiotasunak eraginda, eziña zan berantzat bere gogaiketatan barneratzea ta bere adimen oldarkoi ondorena izango zala, uste eban.

Nire Jaun eta Jaungoikoa! guztiz larrituta esan eban. Bene-benetan zoratu bear dot, eta ganera emen jasan eziñeko beroa da. Burua odolez betetzen jat. Bereala une aretan, aurrerako gaban izan ebazan estutasunak gogoratzen ebazan, osaetxeko burdinsarean urten eta sartu eziñik izan ebazanak.

Ezpai barik, larritasun aren ondorio da, ziur! samiñez esan eban, eta beluegi, beranduegi, izan baño lenago, alde-aurrezko zerbait egin bearko dot. Eta Errusitar urrestaldi bat egingo baneu? Ederto etorko litzaket... uste dot... Oltza ganean etzunda egotea guztiz atsegintsua izango litzaket!

Eta bat-batean, lurrun urberoaren burdi-osta baten ganean, kalotx eta guzti jantzita aurkitu zan. Eta ura, ugari ta beroa, zapaitik arpegira dariola izan eban.

Orduan, uretan ondaturik, urrestatzea, leiatsu erabagi eban. Igeretxeko arduradunak, arrituta oiui zantzo bat egin eban, gizon bat uretara jantzita sartzen ikusi ebanean, baño ikaslea nasaitasun jabe zan eta arduragabe esan eutsan.

Ez larritu dema txiki bat baño ez da!...

Bere etxera eldu zanean, sorbalda ta samea mostratxa apur bateaz igortzi eban, zorotasun arriskuak uxatu al izateko, araokatzeko.

Biramonean, bere sorbalda osoa zauri bat zan, orduan bere Zorion-kalotxak bere oiñetatik kendu ebazan.

Gure irakurleak aitzuta izango ez daben Gau-zaiñak, kalean aurkitu ta osaetxean geratu ziran kalotxak gogoratu ebazan. Ariñeketan eurak, kalotxak, billa abiatu, eta ertzain etxera eroan ebezan, ba da iñor ez zan agertu eurak jabetzen.

Bardiñak, neureak lako bardin-bardiñak dira, bertako langille batek, kalotxak ikustean esan eban. Eta bereala, bere kalotxan alboan ezarri. Alabear zoragarria, iñoan. Oski-egille trebeen batek be, euren ezbardintasuna ezin izango leuke nabaritu.

Une beratan ate-zain bat sartu zan.

Erri-gizon jauna, bere eskuetan paper batzuk eroazan gizonak esan eban.

Orduan erri-gizonak etorri-barriaz itz egiteko, bere burua itzulirik bere kalotxen billa joan zan. Bañá eziñekoa izan jakon ezagutzea, ez ekian zeintzuk ziran beranak, eskumakoak ala eskerrekoak. Eta beranak, ziurki, buztiak izan bear ebala ta, oneik oiñetaratu ebazan.

Bañá naizta eziñekoa eretxi, oker egoan. Ertzaiñak, poliziak, be noizean bein, euren egikisunetan uts izaten dabe.

Oiñetaratu ebazan kalotxak, sakelean orri batzuk gorde, besapean beste batzuk ezarririk, guztiak etxean irakurteko asmuz, kalera urten eban. Eguzkia, argi-argi, ikusgarria zan eta egutaraoa benetan lilluragarria.

Une aretan ez ekian zein zuzen-bidea artu, ta asmakisun labur batzuk ondoren Frederiksburgoko baratzerantz joatea erabagi eban, bidali txiki bat egiñik izterrak luzatzeko.

Gizon guztiz nasai ta zentzunduna zan, eta ez da arritzekoa ta gitxiago maiseatzea, ain-beste ordu, ain luzaro, bere idazgelan, mai baten aurrean jezarrita egonda, ibillaldi bat egiteko guraria izatea. Asieran, gizon menperakoi baten antzera abiatu, tolesgabe, ezeren arduragabe ta beraz, kalotxei euren doe berezia ta sorginkerizkeria egiteko aukerarik izaten itxi barik. Baratzaren erdiko-etorbidean bere adiskide bateaz topo egin eban, dinamarketar gazte olerkari bat zan eta onek atserrira joateko gurari bizi-bizia agertu eutsan.

Eta barriro joango zara? erri-gizonak itaundu eutsan. ¡Zoriontsua zu adiskidea! Gutariko edozein baño azkeago zara. Gu beti gara eguneroko lanari lotuta.


Bai, lotuta bai, baño lotutasun orren bitartez, eguneroko ogia ta bizi-bide ziurtatuta..., olerkariak iñotsan. Zu biarko arduragabe bizi zeinteke, ta zaartarora eltzen zaranean, zeure etxera bialduko zaitue, bizitzeko besteko zaar-zari bateaz. ¡Ez da txarto, ez!

Bai, bai, baño... Zuk nirea baño bizi ohea daroazu, naizta egia izan esan dozuna, erri-gizonak iñoan. Benetan izan bear dau atsegintsua, mai baten olerkiak idazten ezartea. Ludi osoak gorezten zaitu, ta zeuk gura dozuna egin zeinke, iñori zeure egin-bearrak azaldu bear izan barik. ¡Aa jakingo ba zeunke, ze gogorra dan, auzi guztietan esaten diran ergelkeriak entzun bear izatea, epail-gela baten alabearrez, mai baten jezarrital!



AZKENEAN KALOTXAK KOMISARI BATERA ELDU TA BERTAKO LANGILLE BATEK OIÑETARATU EBAZAN. EURAKAZ URTEN EBAN KALERA TA OLERKARI ADISKI-DE BATEAZ TOPO EGIN. GERO OLDOZTU EBAN...

IZELAKO GIZONAK OLERKARIAKI & ZORIONTZUAK EURAK, AMAI BAKO AZKATASUNA IZANIKI NIRI GUZTAKO LITZAKET OLERKARIA IZATEA...



USTEGABE KONTURATU BARIK, BERE GAZTAROA GOGORATZEN ASI, ALDIAK OLERKIZ JANTSIZ. ZEKULA EZ EBAZAN IKUSI GAUZAK GOIZ ARETAKO EDERTASUNAZ...



AMESETAN EGONGO NAZ? EGAZKA NOALA SENTITZEN DOT... IELAITXU BAT IZATEA ATSEGIN IZANGO LI-TZAKETI

Olerkariak irribarre bat egin, mugidu bere burua ta bere aurrekoaren eskuak estutu. Besteak be bardin egin eban, abegi onez agurtu, biak ziran eretxi berezidunak, eta eurari eutsita egozan.

¡Zelako gizonak, olerkariak!, bere adiskidea etorbide-ertz baten estaldu zanean, erri-gizonak esan eban. Guztiz atsegintsu izango litzaket, olerkaria izatea, ta ziur naz... euretariko azko baño ospetsuagoa izango nintzakela, il-eresi ta erostak gai izanik, idazten daben azko baño ospetsuago.

Gomutapen labur onen ondoren, ixil-ixilik geraturik, zeru urdin dizdiratsura begiratuta, esan eban.

¡Ze egun eta eguraldi zoragarria olerkari batentzat! Bakana da, urte azko da gaur bezela biziak niretzat olako edertasunik izan ez dauala...

Azaltasun edo zeastasun oneikaz, irakurleak alegin aundi barik iragarriko dau, gizon a olerkari biurtua izan zala. Gertaera ta jasokisun askotan, barregarria izango litzake, asmakisun oneik agertzea. Olerkaria izaki berezi bat dala esatea, geldokeri bat da, baña azko izaten dira onein artean, olerkaritza bizi-bide lez dabenak, baña olerkari, olerkari izatea, zeozer, zerbait, azkoz be sakon eta jakitunagoaren jabe izatea da. Beste alde batetik, olerkaria oroimen izugarriduna da ta beraz errez izaten jako, bere adimenen buruz, gogaiak eta eretxiak, argitasunen itzen bidez adierazotea. Beste iñok, eurak bezela egin ezin dabeen. Baña izakera ikasgabe batetik, olerkari izatera aldatzea sarritan ustegabe jazoten da, eta au izan zan erri-gizonari jazo jakona.

¡Ze uzain gozoa!, leiatsu uzainduz, iñoan. Uzain gozo onek gogora dakarst, izeko Laurak arasa baten eukan amatxi-liliz beteriko lorontzia. Ni orduan umetxu txikia nintzan... ¡ume errukigarria bat! ¡Tamalez gogoratzen dot, eskertzarrekoa nire izeko Lauragaz izan nazala, iñoz gogorapen bat be ez dot izan beragan! Laura izekoa, andra on eta zintzoa zan. Anteparra alboan bizi zan eta beti eukan amabitxi lora-txorta bat. Eta Neguko otz eta edurrak eltzen ziranean, beti eukiten eban adar eze edo barriztako bat otzetik babestuta. Gogoratzen naz, zelan nik, txakur-aundiko txanpon bat, leioko beira baten zakatzen neban, leioak izotzez beterik itsututa egoten ziranean, kalea ikusi al izateko, ordurako bioleta lora uzaiña nabaritzen zan. ¡Areik bai, ba ziran aldiak!.. Txanponak eragindako zulotxutik, nire aurrean, umetxu baten begien aurrean, ikuspegi zoragarria agertzen zan. Anteparako ur izoztuetan, txalupak geldí-geldi egozan, edurrez apaindurik eta bertako itxasgizon gabe. Gogoratzen naz, zelan bela bakar batek bere abaro antzeko egoitza ontzi-tantai baten eukala.

Baña Udabarria eltzean, guztia biziz betetzen zan. Orduan, anteparako urak estaltzen eban edurra ta izotza urturik, karraskada saratatsunak egiñik arrailtzen zan. Itxas-gizonak, Neguko alabearrezko atsedena izan ondoren, euren otzi-azalak istindutzen ibiltzen ziran aldia zan. Eta atonduta eukiten ebezanean, urrunetako laterrietarantz abiatzen ziran. ¡Eta ni beti neure lan-maiari lotuta, uri onetatik iñoiz urten barik!, samíñez, polizi edo erri-gizonak esan eban, ixil aldi laburtxu bat ondoren jarraitzeko; izan be, nire alabearra naiko goibel ta naigabetsua da... Bereala ixilduta, esan eban, ¡Jauna, zer jazoten jat! Olako gauza ain eder eta zoragarriatzaz ez naz iñoiz orain arte

gogoratu. Udabarri-giroa izango da. Udabarriak bere eguraldi argi ta alaikaz, beti eragitzen dau atsegin eta pozarantz. Dana dala, atsegingarria benetan, naizta apur bat asaldagarri iruditu. Sakelean eukazan orri edo paperatara eroan eban bere eskua. ¡Aa ze samingarria!, iñoan. Idazki-agerkai oneik nire bizitza arruntaren zati edo arlo bat dira, eta eurak izango dira, izaturik, nire izate ber-berara itzuliko nabena.

Une labur bat ixilik geratuta, gorde ebazan orri edo paperatariko bat billaturik, zabaldu eban orria, eta arrituta, esaldi au irakurri eban: “One Sigiberta, izu-antzerki len-idatzia bozt atal eta antzerki-aurre bat”.

¡Izki au neurea da! arritasunik aundienagaz esan eban, baña zelan izan leiteke? Baña, zelan idatzi al izan dot izu-antzerki bat? Ia ikusi daigun, emen zeozer, zerbait, geiago dago... “Etorbidean azpikeria edo baraun egun bat”, irri-antzerkia. Nondik atera dodaz nik gauza oneik, nire Jaun eta Jaungoikoa? Batan batek, norbaitek, nik jakin barik nire sakelean sartuko ebazan. Bai, ez da ezpairik. Zer dago emen? Baña eskutitz bat ba da?

Bai, alan zan, antzerki-gizon batek bialdu eutsan eskutitz bat zan, adierazonik, bere antzerki-lanak on-artuak ez zirala izan, esanez.

¡Arraioa! erri-gizonak esan eban. Ez dot ulertzen, ez dakit, zer eta zergaitik izan leiteken...

Gutziz nasgarri, aulki luze baten jezarririk, bere asmamen zoragarrietan, jarraitu eban. Ia konturatu barik, oar-gabe bezela, aulki alboan egoan bitxi-lora bat zuzterkatu eban. Barrero be orduan jazo zan, ordu luze baten Botanika-irakasle batek bere ikaskaiaz jakin-arazi ezin dauzkun arazoa, loratxuak une labur baten azaltzen dauzku, diñozku. Bitxi-loratxuak, bere sortzetik asita, bere kondaira edestu euskun, zelan eguzkiaren sorginkerizko argiaren bitartez, bere erbatzak zabaldu ta soldurik, uzain bigun eta gozo bat emoten daben.

Gero gizonak, bizitzan izaten diran borroka gogorrazaz gogoratu eban, arimaren biotzkadak eraginda sortzen diranak. Loratxuen maitaleak, aizea ta argia dira, batez be argia. Argi-eza loratxuetan, euren iltea da, eriotza, euren erbatzak zimelduta, koldartuten dira, eta orduan aizearen besoetan lo geratzen dira.

Argiak, gugan edertasuna sortzen dau, loratxuak esan eban.

Baña aizeak, arnasa damotzue, olerkariak iñotsen.

Andik ur, ozin eder baten umetxu txiki bat jolasten egoan, makilla txiki bateaz ura astinduten. Ur-tantalak zugatz adarretan joten eben eta euretari dindilizka, eguzkiaren izpiakaz dizdiratzen ziran. Orduan erri-gizonak gogoratu eban, ur-tantal areitan, eta bakoitzean, millaka izaki, eltzar-txiki, jaurtiak zirala. Ur-tantalak jaurtitzen ebezan eltzar-txikien aunditasun edo txikitasuna gizasemeakaz berdikantu ezkeru, guk, gizasemeak, eskutzar ikaragarri batek goiko zeruetan dindilizka dagozan edoiteraño jaurtiko baleskigu antzeko biotz-ikara bardiña, sentitze bardiña, izan bearko eben.

Olerkariak irribarre gozo bat egin eban, beragan nabaritzen eban aldakuntza ikaragarria nabariturik.

Amesetan izango naz?, iñoan. ¡Ez, ez naz amesetan, guztiz izartuta naz! Ingura-

tzen nauen gauza guztien oarpen gardena dot, iñoiz baño azke ta atsegintsuagoa nazan susmapena dot. ¡Azkatasuna! ¡Ludiko ta bizitzaren doe ederrena! Eta erri-gizonak aize-ozkirri gozoaz bere birikiak bete ebazan, adarrik adar zugatz ganetan, txorien egazkadak begiraturaz. ¡Ni baño zenbat obeto bizi dira txori orreik! iñoan. ¡Egaz egin! Bai, egaz egin, ludi onetan gizasemeak egin leikean gauzarik ederren eta olerkariena da. ¡Zoriontsuak egoakaz jaioten diranak eta egaz dakienak! Ixil unetxu bat ondoren, esan eban. Txoria biurtu al banintzake, elai azke bat izatea guztako litzaket... uste dot...

Bereala berba, itz, oneik, egizkotuak izan ziran. Erri-gizonaren brus-luza kendurik, ego bikote bat biurtu zan eta bere soiñeko guztiak luma, bere kalotxak egazti-anka bi ziran. Ber-bera goitik bera begiraturik, barre algara bat egin eban.

¡Ja, ja, ja! ¡Bai, egia da, amesetan naz, olako gauzak amesetan uts-utsik jazoten dira! ¡Baña ze ames bakan eta zoragarria!

Orduan, etorbide alboko esparruetako abaro orlegi ta ezeetara egaz egiñik, nekatu arte abeslari jardun eban, baña bere abestietan ez zan eresi bat be. Olerki-barnedeia, alde eginda eban, ba da bere kalotxak birritan errezkadan, ezin eikion bere laguntasuna emon. Olerkaria gura izan eban eta olerkaria izan zan. Txoria biurtze gura eban eta txoria izan zan, baña bere aurrerako nortasuna galdu eban.

¡Atsegingarria da!, iñoan. Egunak dauazan ordu guztietan, idaz-gelako mai aurrean jezarrri al izango naz eta lan egin, paper arruntz moltso baten artean, samaraño betetuta egongo naz. Baña gabeam ames egin al izango dot, nire eguneroko bizi arrunt eta ezerezkotik aldendu, iges egin eta Frederiksburgo baratzeke elai azke ta alai bat biurtuta. Gai onen buruz, gai onetzaz, erri-antzerki jator bat idatzi neike. Eta, ziur, ¡ospetsua izango litzake!

Bere egoakaz aizea astindurik, eta bere ankatxuakaz bedar eze mamintsuak joteraño egazka jaitsi zan. Gero urduri bere burua mugitzen eban, etxe-mail batetik bestera egazka joan, landara batetik bestera ta guztiak, afrikako data-ondo añaikoak eretxiten jakozan, data-ondo bezelako aundi, ikusgarriak. Bereala, elai biurturiko erri-gizonaren inguruan, illuntasun uts-utsa zan. Zer jazo zan? Txoriak, zoezer, zerbait, astun eta aundia bere ganera jauzi jakola, nabaritu eban. Zuzen egoan, errazoia eukan, mutiko baten itxas-gizontxapel bat zan.


Zirrikada a laburra izan zan, beingoan, bere txapel azpitik sartuta, esku baten igortzea nabaritu eban. Elaiaren gorputz txikia, larregi estutzen eban esku bat, eta egaztitxua guztiz arrituta, oiuka asi zan:

¡Zu, zu, lotsagaldu ori! Ez dakizu ertzain bat nazala ta atxilotu zeinkedazala?

Baña oiua garratz areik, txapeldun mutikoarentzat, txori goibel atxilotu baten txio txio bezelakoa izan zan: Egaztiaren “Quivit, Quivit” errukigarria, mutikoak emon eutsan plaztada bateaz ixildu zan.

Minutu batzuk beluago, beranduago, mutikoa bere beste adiskide biaz topo egiñik, atrapau eben txoria eurei saldu eutsen. Eta onelan erri-gizona barriro uriratu zan.

Eskerrak jasoten jatazan gauza guztiak, gertaera guztiak, ames utsa izan, erri-




UMETXU
BATEK ELAIA
ATRAPAU
EBAN ETA
BEREALA KAIO-

LATXU BATEN SARTU, BETI EZTABAIDAN IZA-
TEN ZIRAN KANARIO TA TXORIBERRITSU
BATEN ALBOAN. EGUN BATEN KAIOLAKO
ATEA IDEGITA GERATU.

ETA URI-GIZONAK URTEAN GURA IZAN
EBAN, BAÑA KATUA ZAIN EGOAN ETA
UNE GAIZT ETA LARRIA IRAUN BEAR IZAN
EBAN. LEIOA EDEGITA IKUSIRIK URTEAN ETA
URI GANEAN EGAZKA IBILLI ZAN, GERO
ETZE EZAGUN BATEN ZUREAN EZARRI.
BERE KOMISARI-GELA ZAN...

57



LEIOTIK SARTURIK, BERE IDAZ-GELAKO MAI GANEAN
EGOZAN PAPER MOLTISO AZTERTZEN ASL...

IZE GAUZA
BAKANAK JAZOTEN DIRA
BATZUETANI



gizonak bere baitan iñoan. Egia izango balitz... ¡Etor kisun ederra nirea! ¡Ikusteko da! Orainsu arte olerkari bat nintzan eta orain, mutil ergek bik atxilotuta nabean elaitxu bat naz. Ikusiko dogu, zelan amaitzen diran nire ames guztiak...

Mutiko biak euren txoriaz, altzari garestiakaz apaindutako gela aundi batera sartu ziran, sarreran, gela sarreran, abegi ona izan eben andra lodi ta itxura alaidunagandik.

Baña zer daroazue or?, andreak itaundu eutsen, bereala su-asarrez mutillei begiratu, eta txoritxuaz ikusirik. ¡Ez, ori ez! ¡Nire etxean ez dot ikusi gura artatxoririk! ¡Eta kalandri edo xirrixta bat izango balitzake!

Elai bat da, mutikotariko batek esan eban.

¡Baa, elai bat! andratzar lodiak esan eban, larra-txori arrunt bat baño ez da.

Azkenean, eztabaida apur bat ondoren, egiune egin eben. Mutikoak egun osoan euren txoria eurakaz euki al izango eben, euren eskuetan, baño gero, leio ondoan kaiolatxu baten ezarri bearko eben.

Burdin-orizko ustai baten zealdoka ebillen berri-txoriagana andratzar lodia urre-ratu zan.

Txori ori laguntzat guztako litzakezu, Marikita?, andreak itaundu eutsan, umetxu onek opatzen dautzue, gaur zure urtebetetzea dalako.

Marikita berri-txoriak, andrearen esanari ez eutsen egin jaramonik, eta bere ustain ganean zealdoka jarraitu eban. Baña orduan, arterako Udan laterri urrun batetik batan batek, norbaitek, ekarri eban kanario polit bat, bere kaiolatxutik txio-txio lilluragariak abesten asi zan.

¡Ixildu zaitetz, saratatsu ori! andratzar lodikoteak esan eban eta bereala kanarion kaiolatxua, zapi zaar bateaz estaldu eban.

Kanario errukigarriak, uste izan eban, une aretan eguraldia aldatu ta kalean edurrez beterik zala.

¡Brrrr, au da otza! bere abestietan ixildurik, esan eban.

Gero andreak, erri-gizona giltzapetu eban, obeto esanda, basa-txori arrunta, berak olan deitzen eutsan, giltzapetu. Kaiola txikitu baten, kanario berri-txori, Marikita, bien erdian.

Berri-txoriak, esaldi barregarri batzuk, besterik ez ekian esaten, noizean bein eta aldizka berba, itz, onek esanez: ¡Ez, ez, ez, nik gizona izan gura dot!

Ostera, naizta geldika geldika, erri-gizona txoria biurtua izanak, berri-txoriaren izkuntza asi zan ulertzen, baita kanarioarena be, onek esaten eban.

Nire urruneko laterrian ikusi ba ninduzuen, data-ondotik data-ondora egazka. Nire neba-arrebaz beti. Ur gardendun ozin-nagusietan egaz-biraka ibilten nintzan. ¡Ze polita da nire aberria! “Trui, piti, piti...”. Bertan berri txori-eme batzuk ezagutu nebazan, guztiak begikoak eta ipuin guztiz barregarriak edestuten ebezan.

Nire erri-aldean berri-txoriak egazti basatiak dira, Marikitak esan eban. Ondiño ondo eziak ez dira. ¡Ez, ez! ¡Gizona izan gura dot!

Etxe aretako andra ta mutillak, erri-txoriaren esakerak entzunik, barre algarak egin ebezan.

Zergaitik ez dozu zuk barrerik egiten?, Marikitak, kanarioari itaun eutsan.

Ez dozu ikusten ze pozik eta alai dagozan nire txantxakaz, batez be andrea ta umeak? Besteen txantxak ontzat ez-artuz, aziera txar eta ezitze txarrago bat agertzen da, beintzat nire eretxia au da. ¡Ez, ez! ¡Nik gizona izan gura dot!

Ez zara gogoratzen gure laterriko kenda-ondoan, bertara joaten ziran nezkati-llatxuak egiten ebezan dantza zoragarriakaz?, kanarioak itaundu eban. Bero aldeko igalien zumo edo ur-gurin gozo-gozoa aitzuteko, gauza izan zara?

Bai, guztia gogoratzen dot, berri-txoriak esan eban. Baña, ba dakizu gauza bat? Emen ederto naz, ia an bertan baño be obeto. Zer gura dozu? Emen jan-edana zurkaizatuta dot, eta ez da gitxi. Ganera bertako biztanleakaitik ondo-artua naz, ondo begiratua. Beste aldetik, ba dakit guztiz azkarra nazana. Zer geiago eskatu nai? ¡Gizona izatea! Zu zara, gizasemeak, olerkaria deitzen dabena, baña nik bizitzazaz jakituri sakona dot eta ludiko lurralde geinetatik ibillia naz. Zu antzerkari bat, izan zeinteke, burutsua ta buruduna, baña artesigabe zara, zurtasungabe, trebetasungabe, ber bearrezko doeak bizitzarako. Doñu biziagia dozu, ta gero andrea bere zapi zuriaz etorten da ta kaiolatxuan ixildu zaitez, estaltzen zaitu. Ostera niri... olakorik egiten ez dira ausartzen, eta guztia da, zuk baño azko geiago balio dodalako, garestiago nazalako. ¡Ni buruduna naz! ¡Jakituna! ¡Ez, ez! ¡Gizona izan gura dot!

Gure laterriak eguzkiaren izpi beroak urte osoan artzen dauz, kanarioak abestu eban. Eta abesten ba dot, eta entzuten ba nabe, ain zuzen be orrexegaitik da, nire laterri maitearenganako erri-miña dodalako. Bertan itxi neban guztiaren oroimenez, nire anai-arrebak, data-ondo orlegi ta abarodunak, oziñetako ur garden leunak...

¡Itxi eizu abesti ain gogo-illun ori!, berri-txoriak, ia bere eroapena erdi-galdurik esan eban.

Zergaitik ez dozu abesten zeozer, zerbait, txantxagarriagoa? Olan egiten ba dozu, ludi osoari egiztatu al izango dautsozu buru argikoa zarala, baita be izaki txantxazalea be, ta zelan ez, buru argiduna, oldozkera ezitsu ta benetakoduna. Gogoratu eizu, danak ez dakiela barre ta irribarre egiten. Or dozuz, begiratu eizu asto, zaldi edo txakur bat. Iñoiz ikusi dozuz abere oneik irribarreka? ¡Ez! Gizasemeak dau uts-utsik barre egiteko almena. Eta berri-txoriak barre algara bat egin eban. ¡Ja, ja, ja! ¡Ez, ez! ¡Gizona izan gura dot! Kanarioak, elai biurturiko erri-gizonari begirakada bat egin eutsan. Eta doñu ixil eta mingarriaz esan eban:

¡Zu be, Egoaldeko txori nabarra, errukigarria gu lez atxilotuta aurkitzen zara...! Eta naizta baso areik otzak eta edurtsuak izan, azkengabeko lañoan dagozan zure aberriko baso-mendien erri-miña dozu, ta beraz bertara itzuli gura dozu. Kanarioak ixil unetxu bat egin ondoren, jarraitu eban. Ikusi dozu? ¡Zure kaiolako atea ertsitea aitzu jake, txori arrunt ori! ¡Ara, egazka iges eizu! ¡Abagune onetan, joan zaitez zure azkatasunaren billa!...

Erri-gizonak, men-egiñik bereala kaiolatik urten, baña une beratan, gela aretako atearen txirriztada bat entzunda, etxeko katua ziri-ziri sartu. Katuak elai azke ikusi ebanean, atrapau gurean beraganatz abiadan joan zan, txoria atrapau ta bereala jateko

asmuz. Kanarioak bere kaiolatxuan egazkada batzuk egin, eta berri-txoria oiuka asi zan, ¡Ez, ez! ¡Nik gizona izan gura dot!

Erri-gizona guztiz bildurturik, katuaren zartadea noiz izango eban itxaroten, eta beraz be egunaren azkena, idegita egoan leio bat jaretsi eban eta beratatik, kale, etorbide, plaza zear, egazka egazka, egaz nekatu arte.

Azkenean, arnasea be artu eziñik, nekatuta, teillatu-erlatz baten atsedentzen gelditu, eta au zoriona, etxea guztiz ezaguna egin jakon eta leio guztiak idegita ikusi ebazan ezker, sartu ta bere antziñako ertzain-gelan aurkitu zan.

Orduan bere lan-maia aurrean jezarririk eta ustegabe, berri-txori abotsez esan eban: ¡Ez, ez! ¡Nik gizona izan gura dot!

Bereala, betiko erri-gizona biurturik, bere lan-maia aurrean, jezarrita, lanean jarraitzeko gertu.

Zer jazo da? Itaundu eban, ameseta luze batetik izartua izango balitzake lez. ¡Ze gauza bakanak jazoten dira sarritan!

Eta olan, ameseta bat uts utsik jazoriko guztia izan zala, uste izanik, paper moltso baten artean sartu zan.

VI

Zorion-kalotxak egin ebenik onena

Biramon goizean goizeti, erri-gizona ondiño ogean aurkitzen zanean, batan batek, norbaitek, atean jo eban, bere gelako atean dei egin eban. Bizileku beratan bizi zan Teologi ikasle bat zan.

Mezedez, zure kalotxak itxiko zeuskidaz? gazteak itaundu eban. Naizta eguzkia argia izan, baratzean ezotasun aundia da, ta errekontxu bat errete a atsegin izango litzaket.

Artu eizuz, zeuk, erri-gizonak erantzun eutsan.

Ikasleak, kalotxak oiñeratu ebazan eta baratzera urten. Zugatz urridun baratza, madari bat eta beste okeran bat. Baña alako uri aundi baten, baratz bat, naizta ezerez utsa izan, bere jabea, aundiki bat bezela begiratua izaten zan.

Goizeko zazpirak ziran. Ikaslea baratzean bidali bat egiten asi zanean, turuta soiñu batek eskutitz-gizonaren etorrera adierazo eban.

Bidaliak egin, nor izan leiteken txangolaria! gazteak esan eban, eskutitz-gizonak eroazan gutunak txangolari bezela iruditurik, eta berri-emoillea, oneik etozan lurralde

ezbardiñak gogoraturik. Ni txangolari lez ibili al baneiteke, nire artega oneik nigandik betirako aldenduko litzakez eta gaba osoan lo ederto egingo neuke, eta ez orain bezela, lorik egin eziñik egon. Atsegintsu izango litzaket Suiza ederra ikustea, baita be Itali argitsua ta...

Kalotxak zintzoki adierazi eben ikaslearen guraria, bereala men egiñik, bere asmakisuna beteturik. Gaztearentzat zorion utsa izan zan, ba da apur bat geiago itxaron ba eban bere guraria betetzeko, Jaungoikoak berak bakarrik daki nora eroana izango zan.

Bein eta barrero gure gizona zal-burdi baten sartuta, beste zortzi bidali lagun Suizako lurraldetatik ibilli zan. Baña izugarrizko buruko min bat eban eta bere buru ta belarrietan durundu zoragarria. Oñak be guztiz minduta ebazan. Alegeñak egin ebazan lo apur bat egiteko, baña alperrikoak, ezin zan lokartu. Ostera ezin zeintekean esan izartuta egoala, beintzat guztiz izartuta.

Bere eskutariko bat, prakatako sakelean sarturik, maillegu-txartela, muga-txartela eguneratuta, ta urrezko txanpon batzuk eroazala, konturatu zan. Dirua bere belauan ganean eroan bidali-kutxaren azalean jozita aurkitu eban.

Zal-burdiaren leiotillatik bere burua atera ebanean, andikizko edo andikiri agertzen zan, bere begien aurrean agertzen zan ikuspegi zoragarriagaz. Ze eder eta olerkia da Suiza! Guztia aundia, itzela zekulakoa. Mendi erpiñak, mendi tontorrak, edoi barneetan ondatzen ziran, une batzuk geroago euren artetik, edoi artetik, agertzeko...

Alpes beste aldetik nire burua aurkitzea guztako litzaket, ikasleak ikeraz asmau eban. Baleiteke an eguzkia beroago izatea ta lurralde oneitan beste otz ez izatea, eta bear ba da, nire maillegu-txartelagaitik diru apur bat lortu al izango dot.

Diru arazoak guztiz arduratuta eben, eta bere aurrean ikusten ziran lurralde eder-politak eta loratsuak ez jakozan ain atsegin izaten.

Ezin izan eban inoiz zeaztu Alpes mendi-talde a zeartzeko bear izan eban astia bere zal-burdian, baña luzaro egin jakon. Gero uste-gabe ikaslea Itali, lurralde alai ta loratsuan, Florentzia ta Erroma bitartean aurkitu zan. Bere begien aurrean Transimeno deritxon ozin-nagusi eder eta polita zabaltzen zan. Sortalde argiak eraginda, zeru ta lur erdian dindilizka, urre-urturiko ozin eder bat dirudian.

Zuzen be, Anibalek Flaminio menperatu eban toki, lurralde, ber-beratan, mastegi eder eta oparotsuak baketsu aziten ziran tokian, eta guztiz ur, alboko mendimagaletatik, umetxuak ugari erdi-billosik, txarritalde edo urdaldeak jagoten, ikusten ziran.

Ez ikaslea ta ez da be beste bere bidalikideak, lurralde arein edertasun eta bakea gozatzeko, ez egozan gerturik. Erri-alde berezi, lilluragarri a adi-gozatzeko.

Euli ta eltxo iguingarri moltsoak "vetturino" berebillen leiatilla idegietatik sartu ziran eta ezin izan ebazan uxatu, mamarro oneik ain ugariak ziran azkenean zugatz adarrakaz be ez ziran izan gauza, aldendu-arazi, ta euren arpegiak, bidaligilleen, arpegiak aundituta, puztuta bezela ebezan. Zaldiak be, izaki txiki onein erazoak jasan bear izan ebezan eta zal-burdiko gidaria beaturik izan zan, zaldi-burditik jaitsi ta, erleuntz-antzeko euli ta eltxo moltsoa, iges eginarazi lortu eban.

Geroago, eguzkia estaldu zanean, lurralde osoko izakiak, ustegabeko otz batek eraginda dardaraz aurkitzen ziran. Txangolariak guztiz nekatuta, gozez eta euren gurari guztia, ostatu batera eltzea zan, bertan afaldu, atsedentu ta gaba emoteko.

Zaldi-burdia, orio-ondodun lurralde edatsu batetik zear arin baño ariñago joian eta azkenean, amabiko bat eskeko elbarritsuak atsedentzen egozan etxeko eta aurrean gelditu.

Benetan zoritzarreko itxurea eben eskeko areik, euretatik errukagarri gitxien zanak, gozearen irudi ber-bera zan. Beste guztiak itsu ta perlesiatuak ziran. Euren eskuak azteridunak edo beso-bakar baten beso-motz, adabuz beteriko soiñeko zaar eta uger batzukaz estalduta.

“Excellensa, miserabili” oiuka esaten eben, esku zauritua edo beso-motza agerturik.

Ostaetxe-andreak arin urten eban, emakume luze, lodi ta zapazta bat. Txangolariak agurtzen joan zan, abegi eder bat egiñez eta txangolariak etxean sartu ziran.

Ate guztiak, soka-alkartze bakan batek eraginda ertsiten ziran, gelako bea, lurra, buzti-errezkoaz egiña zan eta ormak alde guztietatik arrakaltsu. Zapaia, itoin beterik, sailla batzutan zure arjoak agirian ikusten ziran.

Txangolaritariko batek, ikusirik kortea zala ostatu aretako gela argiduna ta garbiena, afari bertan gerta egiala agindu eutsan. Baña ze atza Jauna! Batan batek, norbaitek, aize apur bat sartu eiten, bertako leiotilla batzuk idegi ebazan, baña toki aretara sartu zana, utsik “miserabili” baten besoazur-utz bat izan zan.

Ogeratzeko ordua eldu zanean, txangolariak euren bide-tresna guztiak kortako ate ondoan pillotu ebezan eta bat, euretarike bat, euren zain egoan bitartean, besteak lo egiten eben. Jakiña, ikasleak be izan eban bere zaintxandea.

Ikasle errukigarria! Zenbat gogoratzen eban bere etxe ta baratz txikia! Erri-miñez saminduta bizi zan. Kortan, arnazea be ia artu eziñekoa, eskekoak ganorabako abestietan, bertako atza; danak, bertatik ariñeketa baten urtetzeko gogoa ezartzen eban, iges urrun joateko...

Beroa, zargori zan, eltxo-edoi trinkatu bat, atsedengabe, zirikatzen zital ankerkeriz ebillen.

Batek, norberak, gozputzik ez baleu, izango ez baleu, edo au nonbaiten atsedean apur artzen geraturik, animea, gogoa, eragozpen barik, azke, egazka bitartean jarraiturik, ze atsegingarria izango litzaket, ikasleak gogoratzen eban.

Gogorapen onen ondoren, guztia illun illun geraturik, gure gizona bere etxera aldatua izan zan. Bere gela erdian zerraldo baltz bat egoan, beratan, Teologi ikasle urduri a, eriotzaren lo amaigabea zan. Unetxu aretan bere guraria bete zan; gorputza atsedentzen aurkitzen zan bitartean, bere gogoa, eragozpen-gabe, guztiz azke, azkenengo bidalirantz abiatu zan.

Solonek esan ebana:

“Ez naiala gizasemeak zoriontsutat izan, il-obian atsedentuten ez nazan bitartean”. Eta esaldi onetan siñispena sendotu zan. Edozein gorpu ezilkortasunaren irudia da, eta il-kutxaren irudia, ikasleak egin eban itaunaren erantzun ber-bera zan:



BIRAMON GOIZEAN, URI-GIZONARI IKASLE BATEK BERE KALOTXAK ESKATU EUTSOZAN, BARATZETIK IBILLALDI BAT EGIN GUREAN...

INOR IZAN LEITEKEN TXANGOLARIAI SUIZA ESAGUTZEA GUZTAKO LITZAKET...



BEREALA ZALDI-BURDI BATEN AURKITU ZAN. SUIZA TA ITALIA ZEARKATU EBAZAN. BAÑA GUZTIZ NEKATURIK, GOGORATU EBAN; GOGOZ GURA NEUKA BIDADIA EGIN, EZ GORPUTZEZ...



ETA AU GOGORATURIK, IL-KUTXA BATEN AURKITU ZAN. BERE GORPUTZA ETZANDA EGOAN, ATSEDENTZEN, ETA BERE GOGOA AZKENENGO BIDADIRANTZ ABIATU ZAN. MAMUAK BEGIRATZEN EBEN...

ONERI, BEINTZAT, KALOTXAK BETIRAKO ADEIA EMON DAUTSEE.

OKER ZARA, BIZI EDER-TASUNAK AURKITZEKO AZKARTASUNIK EZ EBAN ETA EURAKANDIK IGES EGIN. BAÑA MEZEDE BAT EGINGO DAUTSAT.

ETA ARRETA MAMUAK KALOTXAK KENDURIK, ERIOTZ-AMESETA ALDENDU. MAMU-ATSOA BE EURAKAZ IGES EGIN EBAN...

*Esaidazu, eriotz-aingeru; zer dago
oiñatzen idegiten dabezan il-obiak baño urrunago?
Igon al izango dau Jakonen animeak eskilleratetik?
ala obitegiko bedarra izango da?*

*Luditarren begirekadaei estaldu daitezela samiñak...
Esaizue, ixiltasunean gau ta egun jasan zenduezan samin-atsekabeak*

eta orain emen etzan zarie ilda.

Ez da egia bizitza astunagoa izan zenduela?

Orduan kudadok mamu eta Zorionaren mezularia agertu ziran, eta biak geldiro geldiro gorpurantz urreratu.

Ikusi eizue, zure kalotxak, emoten dautsoen zoriona! Kuidado mamuk esan eban.

Baña, oneri gitxienez betirako mezede bat egin dautsoe, Zorionak erantzun eban.

Oker zagoz, bizitza onetatik bere gurariz eta iñok orretara biurtu barik, astandu gura ebalako ta beste bategaitik aldatu. Eta ez dakizu zer jazo jakon? bere zoriak eskutatuko eutsazan altxor ugariak aditzeko adimenik ez ebalako. Orain mezede bat egin gura dautsat.

Eta orduan, mamu Kuidadok Zorion-kalotxak kendu autsazan. Bereala eriotz-ames a aldendurik, ikaslea jagi zan.

Mamu Kuidadok beragaz eroan ebazan kalotxak eta iges egin eban, aldendu zan.

BIDALI LAGUNA

I

Juantxun aita gaixorik txarto egoan eta mutil errukigarria guztiz atsekabetuta aurkitzen zan. Ba ekian gaixoa osatu ezifiekoa zala eta bere aitaren egunak zenbatuta egozala.

Beti izan zifian mutil eta seme ona, Juantxu!, bere aitak esan eutsan.

Gelaxuan biak bakar-bakarrik egozan, argi-ontzi baten argi erdi-illuñak argitzen ebala. Argi-ontzia, gau-maitxiki baten ganean egoan. Illuntze aretan, zendikide guztiak batu ziran etxagun itzaldun areri azken-agurra emoten.

Gizonak begirekada nasaiaz laztandu eban bere semea, guztia zan ontasuna, ta intziri sakon eta luze bat egiñik, bere begiak betiko ertsi ebazan, lotan bazegon bezela geraturik. Orduan Juantxu samintasunez beterik negarrez asi zan, iñoiz ez lez, bakartasunik aundienean bere burua ikusirik. Ba da jakingo dozue, ludi onetan ez jakon iñor geratzen; ez, ez neba-arrabarik, eta ez da lengusurik be... Iñor be ez! Gorpuaren aurrean makurturik, otoi bero bat egin, bere aitaren esku otzak mozukatu ta azkenean oge-agatan bere burua zurkaizatuta lo geratu zan...

Biramonean, goizetitxu, beranak ziran gauza ta tresna guztiak batu ebazan. Bere ondasun guztien artean, berrogeta amar txanpon zidarrezko ta laurleko batzuk ziran. Eta gero, bere aitagaz ain ederto bizi izan zan etxetua itxirik, ludian zear bere bidalian abiatu. Baña erria itxi baño lenago, Aitagure bat otoi egiten illerrira joan zan.

Agur aita maitea! esan eban. Beti saiatuko naz, zu aifako ona izaten, zu izan zifialakoa eta eskatu eiozu gure Jaun eta Jaungoikoari lagundu daistala ta ludi onetan nire azkenengo ordu arte, gidari naiala.

Bidean zear aurrera abiatu zan eta bera, aurrera ta aurrera joian bitartean, loratxu politik euren margo alaiak eguzkiak dizdiratuaz ondiño be politago agertzen ziran.

JUANXUN AITA
UNE BATZUK AURRE-
RAGO IL ZAN ETA
MUTIKOA NEGA-
RREZ NAIGABETSU...

NIRE AITAREN AÑAKO
ONA IZAN GURA DOT
ETA OLAN ZERURA JOAN
AL IZANGO NAZ ETA
BERAGAZ EGON. ATSE-
GIN-LEKUA
BENETAN
ZORAGARRIA
IZAN BEAR



59

BIRAMONEAN BERE GAUZAK BATURIK LU-
DIA ZEARKATZEN JOAN ZAN. IZARPEAN LO
EGIN EBAN ETA TXORITXUAK URRENKO
GOIZEAN IZARTU EBEN...



IGANDEA ZAN, ELEIZARA JOIAZAN ERRITARRAKAZ BATERA MEZA DEUNA ENTZUN EBAN. GERO
ILTOKIKO ILOBIAK GARBITZERA JOAN. BEAR BADA BERE AITAK NOIBATEN BARDIÑEKO BEARZANA
IZANGO EBAN EGUN ANBATEN...

Lora-ostoak aize-ozkirriak eraginda kukulatzen ziran, esan gura balebe bezela; Ongi etorria basora Juantxu. Benetan guztatzen jatzu ez?

Baña Juantxuk, bide-zior baten ertzetik bira baño lenago, errirantz bere burua itzuli eban, urruneko eleizaren kanpadorrearantz. Bera bateotua izan zan eleizarantz, eta igandero ta jai guztietatan bere aitagaz mezara joan eta eleiz-abestiak alai ta gogotsu abesten ebazan eleizarantz. Eta kanpadorreko ertz baten eleizako iretxo txikia ikusi eban, bere txapel gorritzka erpindunagaz, esku bat begi ganean ipiñirik adiadi begiratzen... Juantxuk bere eskuaz azken-agur kutuna egin eutsan.

Agur, agur, dorreko iratxo maitea!

Eta egun a Igandea zan, Jaungoikoa ospatzeko eguna. Bertatik urreko eleizako kanpaiak, eleizara etorteko deadarka ziran, Meza Deuna entzutera joateko deika. Juantxu jagi zan, errekatxu garden baten garbitu arpegia eta errirantz abiatu. Eleizara eldu zanean, Jaungoikoaren berbea, itza, eleizkoi entzun eban, bere aita maitearen aldian bere jaioterriko eleizan oituratuta egoan bezela.

Eleiz alboan, erri aretako illerria egoan, eta Juantxuk ikusi eban, zelan illobi batzutan bedarra larregi azita egoala. Orduan gomuta eban, bere aitaren illobia be, bear ba da, arein antzera ajolagabe egongo zala, ba da berak ezingo ebazan garbitu bertako bedar-zaar eta irak. Orduan illobi ajolagabetu areik garbitzea erabagi eban, kendu ebazan bedar txar guztiak, obi-arrietako autsak, kurutzak arteztu ta lora-koroi batzuk ezarri. Bear ba da, beste esku errukitsu batek, bere aitaren illobian bardiña egingo eban, ba nik, zoritxarrez ezingo dot egin, bere baitan gomuta eban.

Basotik urtekeran, Juantxuk abots zoli bat entzun eban, esaten ebala:

Nora zoaz, adiskide?

Ludia zearkatzen, ludia ezagutzen, mutillak erantzun eban, ikusirik, zelan ezezagun bat beragana urreratzen zala.

Neu be, ludia ikustera noa. Gura dozu batera joan gaitезan?, etorri-barriak eskeiñi eutsan.

Ez dot eragozpenik, besteen eretxia, guraria, on-arturik, Juantxuk erantzun eban.

Andik laster, adiskide aundiak ziran, bestea be gizon ona zan, Juantxun aiñakoa. Juantxu arin nabaritu zan bere laguna gizon jakintsua zala, berak baño azkoz geiago ekiala. Ludi zabal osotik azko ibillia zan eta gai guztietaz egiten eban berba, itz.

Zugatzzar baten kerizpean gozaltzen asi ziranean, adiskide biak gozaltzen asi ziranean, eguzkia goi-goi egoan. Orduan eürakana urreratzen, atsotxu bat ikusi eben. Atso zaar-zaartxu bat zan, makilla baten zurkaiztuta guztiz makurturik, konkorduta, ebillena. Amentala tolestuta eroan eta Juantxuk ikusi eban, zelan beratan, amentalean, mimen-txorta bat eta asto-bedar aundi batzuk eroazala.

Atsotxua mutillak egozan lekura eldu orduko, laprastata lurrera jauzi zan, eta samiñezko abots batek bere abotik urten. Atsotxu errukigarriak, bere iztarratariko bat apurtu eban.

Juantxuk atsoa bere besoetan etxeraño eroatea eskeiñi eutsan, baño bere bidali lagunak, bere zorroa zabaldu eta bertatik iztarra osatzeko, berak esan ebanetik, gantzua eukan ontzi bat atera eban.

BARRIO URRENGO EGUNEAN ABIATU ZAN
BERE BIDALDIAN ETA EZEZAGUN BATEAZ TOPO
EGIN...

NORA
ZOAZ ADISKI-
DE?

LUDIA
ZEARTZEN...

NI BE BAI.
GURA DOZU
BATERA JOAN
GAITEZAN.

NIGANDIK EZ
DA ERAGOZPE-
NIK.



IZTAR BAT APUR-
TU EBAN ATSOTXU
BATEAZ TOPO EGINIK,
EZEZAGUNAK GANTZU
BATEAZ OSATU TA EROAZAN IRU
LAZTO ESKATU EUTSOZAN.

60



GABA ARETAN ATSEDENTZEN GERATU ZIRAN
OSTAETXE BATEN. BERATAN JAIA OSPATZEN EGOZAN ETA TXERPOLARI BATEK BERE ANDRAKILLA-
KAZ IKUSLEKIDEAK JOLAS-ERAGITEN EBAZAN...



Zer eskatuko daustazu, osaki orren orde? atsoak itaundu eban.

Amentalean daroazuzan iru asto-bedarrak uts utsik, Juantxun lagunak esan eutsan.

Garestiegi izango jat iztar au osatzea! atsoak, bakan-erara mugidurik bere burua esan eban.

Eta asmakisun onein buruz ausnartzen asi zan. Iru asto-bedar emotea, atsoari, ez jakon bat be atsegin, baña beste aldetik, an bide erdian bere iztar apurtuaz geratzea be, ondiño txarrago eritxon. Orregaitik azkenean, iru asto-bedarrak emon eutsazan.

Bere ezezagun arek, bere iztar apurtua gantzu miraragarri aregaz igortzi eban orduko, atsotxua jagi zan. Gantzu aren almena, miraragarria zan, atsoa oiñez len baño obeto ebillen.

Eta zetarako gura dozuz zuk iru asto-bedar orreik?, Juantxuk bere bidali lagunari itaundu eutsan.

Ba, ikusiko dozu, izuzki arrigarria batzulakoak dira, ezezagunak erantzun eban. Niri guztatzen jatazalako iru izuzki, ba da jakin bear dozu, gizon naiko bakana nazala, alditsua.

Eta euren bidalian jarraitu eben, nasai ta zoriontsu.

Arratsalde baten, Juantxuk, bere eskua luzaturik, zerua erakutsi eban.

Begiratu eizu, zelán zerua edoitzen dan, edoiz betetzen dan, batez be alde aretatik, Juantxuk iñoan. Ze edoitzar illun-illunak!

Ez dira edoiak, bere lagunak irribarreka erantzun eban. Edoiak, eurak baño goragoko aldera euretatik igon eitekezan mendiak dira. Egurats edo arnas-aize guztiz garden baten murgildurik dagozan tokiak. Bene-benetako atsegiña, irritsa, siñistu zeiskit! Ikusiko dozu bertara eltzen garanean...

Baña mendi areik, txangolari biak, uste eben baño azkoz urrunago aurkitzen ziran, eta eurak, txangolariak, egun oso bateko ibiltea, baserri baten aiñako aitz-artetik, zugatzak alkarren-atsean igoten eben tokira eldu arte, egin bear izan eben.

Bidegiñ biak, ostatu baten geratzea erabagi eben, bertan atsedean apur bat izanik, indarrak apur bat bizkortu ta biramonean gogotsu bidean jarraitzeko.

Gaba aretan etxean jai aundi bat ospatzen eben. Txerpolari batek bere gizon-andrakilla jai bat antolatu eban erritarrei erakusteko. Bidegin biak eldu ziranean, ikusleak artega ta urduri aurkitzen ziran, txerpolari aren jai ikusteko.

Juantxuk ikusi eban, zelán lenengo lerroan jezarrita, antzoki aretako lekurik onenean, okela-saltzaille bat egoala bere oiñetan ezarrita txakur ozkari bat ebalá. Eta zelako txakurra, adiskideak! Ain basakeri itxura itzela eban, bere ikuspegi izugarria naiko zan izakirik, gizesemerik, ausartsuena ikaratuteko... Ostera aberea, txakurra, beste ikusle batzuen antzera, nasai ta arreta aundiz, jaialdiaeren asiera noiz izango zan zain.

Azkenean jaialdia asi zan, eta benetan izan zan polita. Beratan erregeak be euren urrezko koroiak eta soin-ganeko garestiakaz tartekoak izan ziran, ba da dirudi zanez aberatsak eta ospetsuak ziran. Nozean beinka, beirazko begiak eta surpeko itzeldun gizonkil batzuk, atek idegi ta ertsiten ebezan, jai-aretoa, onelan aizeztatu eiten. Bataz

ANDRAKILLA LIRAIN BAT APURTURIK, JUANTXUN LAGUNAK BERE GANTZUAZ OSATU EBAN. GE-RO ANDRAKILLAK BERAK BAKARRIK DANTZATEN EBAN...

OLAN ARIEATIK, FIRUETATIK, EZ DOT TEINKATU BEAR IZANGO TA DIRU AZKO IRABASIKO DOT.



TXERPOLARIAREN ESPATEAZ ETA LEPAZUT BATEN EGOAKAZ, EUREN BIDEAN JARRAITU TA OSTATARI BATEK ERREGIAREN ALABEA GUZTIZ GAIZTOA ZALA EDESTU EUTSEN. AU ENTZUTEAN JUANTXU SUMINDU...



61

ONETAN PRINTZEZATXUA BERE JARRAI-GOAZ OSTATUKO ATE AURRETIK IGARO ZAN. GUZTIZ EDERRA ZAN ETA JUANTXUK EZIN ZEINTEKELA GAIZTOA IZAN GOMU-TAU EBAN.



beste jaialdia alaigarria izan zan, baña nok daki txakurraren eretxia, okela-saltzaillearen txakurraren eretxia. Ba da bera, txakurra, erregiñea kriseluekana urreratzen asi zanean eta ikusleen aldariei erantzun gurean, abereak saltuka bat egiñik, erregiñea garritik artu eta... “krik, krak” A itzelenatarikoa izan zan!

Bere gizon-killak erabilten ebazan txerpolari errukagarria, antzoki-oille atsean estalduta, ikara itzel bat izan eban. Eta batez be erregiñagaitik ustegabeko ikara negargarria, ba da bera zan bere andrakilla-antzerkarien artean eder eta baliotsuena. Erregiña errukigarria, txakur amurrutuaren erazoak eraginda, itzinduta geratu zan, eta beraz txerpolaria guztiz naigabetua aurkitzen zan. Baña gero, ikusleak antzokitik aldendu ziranean, Juantxun bidali-lagunak, erregiña aren irudia konpontzea beragain artu eban, barri bat bezela geratuko zala esanez. Eta egia izan zan, atsoaren izterra osatu eban gantzu ber-beragaz burua eta soiña ertxiki ebazan eta bereala andra-killaa osatuta ta alai geraturik. Eta osatu ez eze txergolaria arietatik tiraka ibilli barik, bere esku, beso, iztar, gorputz guztia mugitzen eban. Andrakilla arek, orain erregiña benebenetako bat eritxon, eta ez eban bear besterik berba, itz, egitea baño, ludiko beste izaki batzukaz ulertzeko.

Txerpolariak ez ekian zelan eskertu Juantxun lagunak, egin eutsan mezedegaitik eta pozik zoratuta lez egoan.

Mezedez jauna! esan eban. Nire urrengoko antzerkaldiko irabasiak emongo dautzudaz, nik daukadazan lau edo bozt gizonkil zure gantzu orregaz igortzen ba dozuz...

Ez, ez dirua ez jat bat be atsegin, bidali-lagunak esan eban, garrían daroazun espatea gura dot.

Emen daukazu! txerpolariak iñotsan, bere espatea bere garritik kendurik.

Orduan Juantxun lagunak, bere gantzu miraragarri aregaz sei bat gizonkil igortzi ebazan, eta guztiak barregarri dantzan asi ziran eta bardin egin eben, ostatuan egozan andra-gizon guztiak. Gaba benetan atsegingarria!

Biramonean, egun-sentian, Juantxu ta bere laguna, ostatuan egozan guztiak agurtu ondoren, mendirantz abiatu ziran eta euren magal batetik gorantz igonez, an goi-goian ikuspegi zoragarria eben euren begien aurrean. Inguruetako, urrunetako, etxe, eleiz eta jauregiak, urietan ezarririk, perretxikoak bedar artean egoten diran bezela, begiratu ta ikusi al izan eben. Juantxuk alako edertasunik ludi onetan zekula ez eban ikusi!

Aizea gardena zan, eta giroa atsegingarria-baketsua. Bidalgillen belarrietara eiztarien adar-zoiñuak eltzen ziran eta eguzki-izpiaren laztautasunak eraginda, biotz-samurtuta esan eban:

Ze ona dan gure Jaun eta Jaungoikoa! Ortzi ain eder eta atsegingarria guretzat egiñik!

Bere lagunak, ixiltasunean otoitxu bat egin eban eta bere eskuak batu ebazan apaltasunez. Unetxu aretan, euren buru ganean soiñu lilluragarri bat entzun zan, eta biak zerurantz begiak jasokeran, lepazut aundi bat egaz ikusi eben. Zekula egazti

PRINTZETATXUAZ ESKONDU
GURA EBEN ESKONGAIK,
BERE IRU ASMAKIZUNAK IGA-
RRI BEAR EBEZAN, ETA UST
BAT IZATEN BA EBEN, ITZIN-
DUAK IZATEN ZIRAN, BURUA
KENTZEN EUTSEN. JUANTXU
NAIGABETUTA ZAN ERREGEA-
GANA JOAN BERAGAZ BERBE
EGIN GUREAN...



JUANTXUK BERE GURARIA AGERTU EUTSAN.
NAIZTA ERREGEAK ON-ARTU EZ IZAN
GURARI AU, BERAK JUANTXUK BERE ZORIA
JOKATU GURA EBAN. OSTAETXERA ITZULI,
BERE LAGUNA EGOAN TOKIRA...

IJUANTXU GIZAJOI ZEOZER, ZERBAIT,
GUZTIZ GAITZA EGIN GURA DOZU TA
GANERA ARIZKUTSUA. ARTU EIZU TXANPO-
RRAU EDONTSI AU TA JOAN ZAITEZ
LOTARA...



JUANTXU LO EGOAN BITARTEAN, BERE LAGUNA IKUSI-EZIÑA
BIURTURIK PRINTZETATXUAN ATSETIK JOAN ZAN. AU
TOKI GUZTIZ BAKAN BATERA ABIATU. BERA EGO
BALTZAKAZ EGAZKA JOIAN, LAGUNA LEZA-
PUTZENAKAZ...



bateri entzun ez jakolako soiñu-eresi lilluragarria entzuten zan, lezaput aundi aren eresi zoragarria, gozo, biguna, entzuleak zorobiotuta itxirik.

Baña apurka apurka, egazti aren abestia makaltzen joian eta azkenean bere burua egaztiak albo batera itxi eban jauzten eta bidalien oiñetara jauzirik, ilda geratu zan.

Ze ego ikusgarriak daukaz!, Juantxun lagunak esan eban. Ezin-beste, olako ego batzuk azko balio bear dabe, neuk eroango dodaz.

Eta zarrastada bateaz, txerpolariak emon eutsan espateaz, lepazutzeri ego biak kendu eutsazan.

Ain aldapatz zan mendi-magal aretatik goruntz jarraitu eben. Ordu luze azko geroago, dorrez bizkortuta egoan uri bat urrunetan, zidarrak eguzkiaren argiaz dizdiratzen dauan bezela, dorreak agertzen ziran uri bat ikusi eben. Uri erdi-erdian, erregea bizi zan jauregia egoan. Jauregi au, arrinabarrez eraikia zan.

Bidagille biak uri-kanpoko ostatu baten gelditu ziran, beratan apur bat garbiturik, uri eder aretan sartu baño lenago, atsedean apur bat artzeko. Ostatariak, erregea gizon zintzo ta ona zala agertu eutsen, iñoiz iñori txarrik egin bakoa. Baña bere alabea, printzetza txikia gaiztoenatarikoa zala.

Ederra da bengan, ostariak esan eban. Baña zetarako dau, zetarako balio dautso, printzipe ta andiki ospetsu azkoren eriotza il-arazi dauan, sorgin bat baño ez ba da? Bere eskontzarako esku-eskatzea ostopogabe da, ta aundiki, printzipeak eta baita be edozein erritar eskongek on-artzen ebazan. Berantzat danak dira berdiñak. Senargaiak, berak, nezkatiilla-sorgiñak asmatzen ebazan iru gauza igarri bearko ebazan. Orretarako printzetzak ber-berak, gazteluan aurrez aurrez izanik, senargaia beragan aurkezturik, iru itaun egingo eutsoezan gai orren buruz. Zeatz eta ondo erantzuten ebanagaz eskonduko zan. Eta olan andra-gizon oneik batera laterri osoan aginduko eben, bertako biztanle guztiak euren menpean izanik, erregearen eriotza ondoren, erregea ilda gero. Urte luzarotan erregearen bizia Jaungoikoak zaindu beei! Baña... Zoritxarrekoa igarten ez ebana! Beingo-baten gure printzetza ederrak, ber-berak, bere burua kentzea aginduko eban.

Printzetza madarikatua!, Juantxuk arrituta esan eban. Atsoaren asto-bedar areikaz zekulako zartadak emongo neuskioz! Arrai-arraioa, Aa bere aita izango banintz!

Berba, itz, oneik esan orduko, atarian egoan notintsua guztia asi zan oiuka: Gora, gora, gora!

Amabiko bat nezkame ederrak, euren soiñ-ganeko agertu-araziten eta eskuan urrezko idi-biotz bat eroanez, printzetzaren alboan zaldi eder ganean joiazan. Au be, printzetzatxua, zaldi ganean, edurra ber-bera bezelako zaldi zuri baten ganean. Bere esku baten, eguzki izpi bat izango balitz bezela dizdiratzen eban zartailu bat. Sorbaldatik, printzetzaren, sorbaldatik, dindilizka eroan soiñ-ganekoa, millaka txiripillo, mitxeleta, ego bakan eta lilluragarriakaz ertzatuta egoan, eta bere bekokia txinkotzen eban buruntza, zeruko izarrak aiñako dizdiratsua zan. Baña bere aurpegiaren edertasunak bere soiñeko apaïn, dotore, aundikiak itzalpetuten eban.

Juantxuk begiztatu al izan ebanean, atsegabetasun bakan bat izan eban. Ba da

JUANTXUN LAGUNAK PRINTZEZATXUAK EGITEN EBAN GUZTIA IKUSTEN EBAN. GERO OSTAETXERA ITZULI TA BIRAMONEAN...

63

AMES BAKAN BAT IZAN DOT. PRINTZEZATXUAREN OSKI BURUZ IZAN DA. ITAUNDU EIOZU BERE ASMAKISUNA ORI BADA.

OLAN EGINGO DOT ETA USTE DOT GARAILLE IZANGO NAZALA, JAUNGOIKOGAN SINISTEN DODALAKO.



PRINTZEZATXU GUZTIZ EDERRA ARRITUTA GERATU ZAN BERAGAZ ESKONDU GURA EBAN ESKONGAIK BERE ASMAKISUNA IGARRI EBALAKO. OSTERA ERREGA ALAI TA POZ POZIK. JUANTXU URRENGO EGUNERAKO DEITUA IZAN ZAN.

PRINTZEZATXUAK BARRIRO IRATXOA IKUSI EBAN, AU ZAN BERE NEZKATILLA GAIZTOA BIURTZEN EBANA, TA ONEK ESAN EUTSAN EGIN BEAR EBANA.

ORAINGOAN EZ DAU EGARRIKO. GOMUTAU EIOZU NIRE BURUAZ ETA IKUSIKO DOZU.



printzetatzua, bere aita, Juntxun aita, il zan gabea, amesetan ikusi eban nezkamearen irudi ber-bera zan. Eta orduan, aurpegi ain eder aren aurrean, ostarariak esan ebana, guztia eziñekoa iruditzen jakon. Ezin eban onetzi gizaseme ain eder a, sorgin zital bat izan leitekela eta gitxiago bere asmakisunak igartzen ez ebanei burua kentzea agindu leikela.

Eta mutillak gogoketa au izan eban.

Danantzat zillegi ba da, bere senar edo gizona izate-eske joatea, ni be jauregira joango naz. Bear ba da, izan leiteke nire guraria, naia, lortzea.

Bertako biztanle guztiei, bere asmakisuna azaldu eutsenean, ostaruko guztiak bururatu eben, zorakeri ori ameseta utsa izanik, baztertu egiala eskatu eutsoen. Bere bidali laguna be eretxi bardiñekoa zan. Baña Juntxu adoretzu zan, eta itxaropentsu, ziur egoan arazoa berak asmau eban bezela izango zala. Alan da ze, unetxu bat be galdu gabe, aurpegia garbitu, bere uleak orraztu ta soiñ-ganekoa euskillaturik, ostarutik urtenda, ausartu urirantz abiatu zan.

Ordu bete geroago, erregearen jauregiko ate baten deika egoan.

Aurrera! erregeak agindu eban.

Juntxuk, egurrezko ate astuna bultzaturik, erregeak, ber-berak, sedazko soiñ-ganeko eder bateaz apaindurik eta oiñetako leun, urrez gainloratuakaz, abegi bigunez artu eban. Eder, aundi ta oparotasunez inguratuta zan erregea, buruan bere koroia, bere esku baten errege-makilla eta bestean urrezko borobil ederra...

Juntxuk uste izan eban bezelakoa, gizon au ez zan. Erregea gizon zintzo ta launtsua zan. Eta samurtasunez etor-barriaren eskua, agurtzeko, berotasunez estutu gura eban lez, esan eban:

Itxaron eizu apur bat, arren! Borobil au, emen itxiko dot, besopean.

Eta alan egin eban, Juntxu agurtu al izateko. Baña bere etorrera jauregira, printzetatzua, bere alabearen senargai izan gurarik, etorrela jakin ebanean, oldarkor negarrez asi zan, ta bere koroï, esku-makilla ta borobilla lurrera jauzi ziran.

Ez zaitez saiatu olakorik egiten! erregeak errukigarri eskatu autsan, bere soiñ-ganeko ertz bateaz, bere begiak legortzen ebazan bitartean. Gaiñerokoak bezela izango zara. Zure azkena izango da.

Ez zaitez bildurtu, ez eizu bildurrik izan, Errege Jauna, Juntxuk iñotsan, bere eskua mozikaturik. Guztiak, amai ona izango dau, ikusiko dozu...

Erregeetxeko aolkariak, Juntxu biramonean barriro etorri eitela, erabagi eben, printzetatzuak azterketa bat egin eion. Lenengo itauna, galdera, igartzen ba eban, barriro urrengo egunean bigarren itaunari erantzuteko, ta au be igarriaz, irugarren itauna igarri bearko eban. Baña gogoratu eutsoen, ondiño iñok lenengo azterketatik ez ebalá urten garaille ta beraz, danak euren burua galdu ebela, euren ondamaña izanik.

Ostera Juntxu, guztiz alai ta pozik aurkitzen zan, ez eban uste berari olakorik jazo leikionik. Beste alde batetik, Juntxu siñismen berokoa zan, Jaungoikoan itxaropen osoa eban eta onek sustituten eban, orrelan beti bezela alai, ostaraxera itzuli zan.

Zelan izan jatzu? bere bidali lagunak itaundu eutsan.

Ederto, obeto ezin, mutillak erantzun eban.

Jardun eban azaltzen, erregeak egin eutsan abegi ona, beragaz izeneko alkar-izketa ta geroago Printzetatzuagaz. Eta biramona noiz elduko, artega ta gogotsu zala Peintzetatzuaz azterketa egiteko.

Illuntzea eldu zanean, bere lagunak txanporrou bat gertaturik esan eutsan, alaitu gaitazan apur bat, Printzetatzuaren izenean edan daigun.

Mutillak bere espanetara edontzia eroan eban, eta orduan, txanporrua edatean logura izugarri batek eraginda, begiak idegita eukitea eziñekoa izan jakon ta oge ganean lo sakon baten geratu zan. Bidali lagunak, jazoera onegaz balioturik, lepuzteri ebegi eutsozan egoak artuta, bere lepoan lotu ebazan, bere sakelean asto-bedartzar bat gorde, leioa idegi, ta uriko teillatu ganetatik egazkada baten, erregetxe edo jauregira eldu zan. Bertara eldukeran, printzetatzuaren logela zan leioko erlazt baten ezarri. Uri osoan, illobiko ixiltasun añaiko ixil astun baketsua nabaritzen zan. Eta jauregiko dorre nagusian amabiak lauren gitxiago-jo ebazanean, leioa idegi ta printzetatzua longain, tunika, zuri bat jantzirik, lepoan ego baltz aundi bi eukazan longaiña jantzirik, mendietarantz egazka urten eban. Bitartean bidali laguna, berantzat, printzetzaurentzat, ikusi-eziña zana, lepatut ego zuri batzuk eraginda bere atsean joian. Printzetatzuaren albora eldu zanean, asto-badartzarrekaz astintzen asi zan eta ain zartakada aundiak emoten eutsozan, ba da zartakada bakoitzean odola ugaritsu dariola izaten eban.

Au da kazkaragarra! printzetatzuak zartakada bakoitza artzen ebanean, esaten eban.

Mendira eldu zanean arzulo batera jaitsirik bere atean deitu eban. Bidali lagunak, kate zorraillu ta kisket sarata entzun eban, eta gero, arzuloa idegikeran, otso baten ago bera baño be baltzagoa zan zulo baltz batetik eztaldu zan. Baña bidal-lagunari, ikusi-eziña zan ezker, erreze izan jakon zai-zulotik bere barnera jaitsitea.

Zer egoan, zer zan, lurpe izugarria a? Nor zan bertako nagusia, jabea, lurpe aretako jabea? Bidali lagunak arin jakin eban, bertan zorgin antzeko izaki izugarri bat nabaritu eban, buru illun-baltz ikaragarriaz eta bere esku azurtsu baten esku-nakil bakan gaiztozko bat. Izugarrizko izaki au, printzetatzua agertu orduko, lurrerantz makurturik bere eskua mozukatu eban, bere alboan jarritsea eskatuz.

Egikera a oar baten irudia zan, keiñua bat bezela, ba da bereala xirrista baltz margodun batzuk kitara-soiñua joten asi ziran. Bitartean gautxori geldo batek bere sakela, tripea, bere egoakaz astitzen eban, dandolin bat balitza lez.

Soiñua beingoan geratu zan eta orduan printzetatzuak izaki izugarri areri azaldu eutsan zelan jauregira beste eskon-gai barri bat bere senarra izan gurarik joan zala ta beraz, mutil areri jakin-arazitze, igarri egiazan, iru asmakisun eskatzen eutsazan.

Izugarrizko sorgin-gizon a unetxu baten gogoratzen geratu ta gero esan eban.

Oraingoan zeoz, zerbait, guztiz erreza asmau eizu, gogoratu eziñeko ain erreza. Adibidez, gogoratu zaitex, zure oskitariko bateaz. Ez dau igarriko, ziur eta bere burua

ebagi al izango dozu! Baña, ba dakizu, ez dozu aitzu bear, biar gabean ona itzulten zanean, mutil ausarta edo adoretsu orren begiak, ekartea, jan al dagidazan.

Printzetzatxua itz-emon autsan, begiak aitzuta ez ebazala itxiko. Sorgin-gizon arek artzuloko atea idegi eban, eta printzetzatxua jauregira egaz itzuli zan. Baña bidali-laguna, bera be egaz, bere atsean joaian, asto-bedarragaz gogorkeririk aundie-nagaz, printzetzatxua miñez oikua ezarri arte, astintzen.

Au da kazkaragarra esaten eban!

Printzetzatxua bere gelara sartu zanean, bidali laguna, Juantxu lo-sakon baten aurkitzen zan ostatu ber-beratan sartu, egoak kendu ebazan eta ogeratu.

Biramonean, Juantxu goizeti izartuta, jagita egoan bere laguna agurtu eban. Orduan onek esan eutsan, printzetzatxu ta oski batzun tarteko ames bakan bat izan ebala. Orregaitik Juantxu aolkatu eban printzetzatxuari itaundu egion ia bere oskiaz gomutau ez ba zan.

Ederto, Juantxuk esan eban. Izan leiteke zure ames ori egi izatea, ta nire lenengo itauna ori izango da. Ba dakizu, siñismen osoa dot Jaungoikogan, beti Beregan siñistu dot eta Berak lagundu daust. Alan da guzti be, adiskide maitea, betirako agurtu gaitzean, ba... igarten ez ba dot, nire erantzunean uts egiten ba dot..., ba dakizu nire azkena zelan izango dan.

Sutsuz besarkatu ziran, eta Jauntxu erregetxe, jauregirantz, abiatu. Beratan erre-geetxeko, aoulkulari guztiak bere zain egozan itxaroten, iztoki antzeko jezarleku batzutan jezarrita, euren buruak baluzaz, gaiñekotuta bururdiñetan eratzanda, arazo gogorrek ausnartu bear ebezalako.

Erregea, zekula ez lez zurbil eta goibel, zutunik, zutik, esku-zapi zuri bateaz berebegiak legortzen. Printzetzatxua sartu zan, nezkatilla polit au arteroko egunean baño be ederrago egoan, eta burua apur bat makurturik batzarkide guztiak agurtu ebazan. Juantxun ondora eldu zanean, berari itxaroten egoan lekura eldu zanean, irribarre gozo bat egiñez eta egun onak eskeñiz, maitasunez agurtu eban.

Alabearrezko une izugarria eldu zan, mutil adoretsu ta gogotsuak, Printzetzatxuan asmakisuna igarri bear ebana. Printzetzatxua zekulako eder eta politenna irudi jakon, onek bere begi ederrak beragan ebazanean! Baña Juantxuk "oski" itza esan eban bat-batera, Printzetzatxua zurbildurik, bere gorputza burutik oiñetara dardara asi zan. Bere senar-gaiak bere asmakisuna igarri eban!

Aa, erregea ze pozik una aretan izan zan! Zekula be bere arpegian alako irribarre zintzo, edatsu ta zorionsua ez za agertu. Ain zorionsua zan! umetxu bat bezela saltuka ta sarataka, juregian zalapart izugarria izan zan.

Bitartean, Juantxu bere ostaetxera itzulirik, bere bidali lagunagaz, lenengo azterketaren ondore ona ospatu eban. Ikusiko dozu, zelan Jaungoikoak urrengo azterketan eta irugarrenean be lagunduko daustan, mutil adoretsuak esan eban.

Gaba aretan jazokisunak aurrerako egunetan antzera gertatu ziran. Juantxu ogeratu zanean, bere bidali-laguna lezaput egoak eraginda, sorgin-gizon bilduragarri a bizi zan egoitzara joan zan, eta aitz-zulo zikin eta illun aretan jakin al izan eban, zelan

urrengo eguneroko azterketaren izena, Printzetatzuak “esku-zorro” itza asmau ebala.

Biramonean, bidali lagunak Juantxuri esan eutsan, Printzetatzuak gaba aretan “esku-zorro” arteko zerbait, zeozer, ames egin ebala. Olan bigarrenez mutillak ames itza igarri al izan eban.

Lenengo aldian bezela, orain be erregea azko poztu eta baita be bertan egozan ikusle guztiak, mutilla amorru beroz txalotuaz. Oraingoan erregeak egin ebazan satukadak arterokoak baño aundiagoak izan ziran, eta aoulkulari itzal eta zentzundunak antzeratu gura izan eben.

Printzetatzua okullu baten, arazo arein buruz bene-benetan ausnartzen egoan. Senargaiak lenengo bietan bere asmakisuna igarri eban eta irugarren geratzen jakon, erabatekoa zan. Alegiñak egiten ebazan nasaitzeko, ondiño azkena argi ez egoala, gomutauz. Irugarren asmakisuna senar-gaiak igartzen ba eban, beragaz eskondu bearra izango eban. Baña igartzen ez ba eban... aa, igarriko ez baleu! Burua galduko leuke, ta sorgin-gizon ikaragarri arek, bere begi ederrak jango ebazan.

Irugarren azterketa izango zan egun aurrekoan, Juantxu goizeti ogeraturik, oitura eban lez otoi egin eta lo gogorren aurkitu zanean, bidali-lagunak, aurrerako gaba bietan egin eban bezela, lezaputzen egoak arturik, aitzulo zikin, goibeltsu aretarantz egaz abiatu.

Gaba a, mausari edo bide-lapur baten arimea bera baño be baltzagoa zan. Inguruak aize itzal batek aztintzen ebazan, orbel etillak egazka leku batetik bestera eroanez, jutzuri ta trumoi şaratatsuak ludia dardara ezartzen eban.

Printzetatzuak egaz urten ebaneko, bidali-laguna bere atsean joan zan, eta gaba aretan artu ebazan iru asto-bedarrakaz zartadaka, odola dariola ezarri arte jarraitu.

Ai, ai, ai! abots-miñez, erdi-illik intziratu eban. Baña aurrera, egazka egazka, jarraitu. Bere soin-gain luze, zuria itxasontzi baten ontzi-oial bezela dardaraz astintzen eban. Azkenean, ez zala elduko uste izanik, bere elmugara ez zala elduko uste izanik, sorgin-gizon basatiaren artzulora eldu zan.

Eguraldi negargarria au!, gaizto, biurki, izaki aren aurrean izan zanean, esan eban. Au da abazuza dana! Apur bategaitik ez dot urteten bizirik.

Azpaldian beti zara erostaka, gertakisun onenakaitik be, erostea dozu, sorgin-gizon arek esan eban.

Ondoren Printzetatzuak azaldu eutsan, zelan bigarren asmakisuna be, senargaiak igarri eutsan. Guztiz artega esan eutsan, irugarren asmakisuna igarten ba eutsan, beragaz eskontzeko bearturik izango zala, eta orduan zekula geiago aitzulo aretara sorginkeriak egiten ezingo zala etorri.

Ez zaitetz arduratu, ikusiko dozu zelan oraingoan zure asmakisuna ezingo dauan igarri, sorgin-gizonak abots karraskatsuz esan eban. Asmakisun bat idariko dautsu, naizta egun osoa oldozketatan egon, igarri ezingo dauana. Bestela mutil orek, neuk baño ba asma-indar aundiago bat dau. Baña orain jolastu daigan.

Eta bein ta barriro berriztu eben jai-aldi barregarria, ireltxoak euren sorgin-

argiakaz dantzaten eta bitartean, argiak euren buru-ganean ezarririk; txirristak euren kitara-soiñua jotzen, gautxorria bere sakela danbolin bat balitza bezela astintzen; txintxarrak saratatsu abesten eta amarauak tximiño batzuk ormatik igoten eben lora-sutxingar lillugarriak jaurtiz.

Jai-aldia amaitu zanean, Printzetatzua sorgin-gizona agurturik, jauregirantz abiatu. Urduri ta artega egoan, bildur zan jauregian bere utsa nabaritu egien.

Itxaron eizu, zeugaz joango naz, sorgin-gizonak esan eban. Gaba illun eta ekaitsua da bakarrik joan zaitez, egazka joan zaitez.

Eta alan egin eben, biak batera egaz, edoi ta ekaitz artean joan ziran, eta bidali-lagunak biak bardin asto-bedarrak apurtu arte astindu ebazan. Sorgin-gizona, abazua, txingor, ekaitz gogor aregaz arrituta egoan.

Printzetatzuaren logelako leioaren erlatzera eldu ziranean, izugarrizko izaki arek, nezkaitillatxua agurtu eban, belarrian ixil ixilik esaten eutsola:

Esana, gomuta eizu nire "buru" ber-beragaz...

Baña bidali-lagunak, naizta berba, itz, oneik ixillean esan, entzun ebazan. Une aretan pozik be pozik ostaetxerantz joan zan, bere lagunari irugarren azterketaren erantzuna, giltza edo igarri-bidea esaten, baño ikusirik sorgin-gizona itzultzen zala ta Printzetatzua leioa batetik estaldu zala, bere bizar luzeetatik oraturik, txarpolariaren espateaz zartada ikaragarri bateaz, sorgin-gizonari bere burua kendu eutsan. Gero astirik galdu barik sorgin-gizonaren gorputza itxasora bota, arraíñak jan egien. Buruaz lotura bat egiñik ostaetxera eroan eban eta ondoren ogeratu.

Biramonean, loturea bere lagun Juantxuri emon eutsan esanez, Printzetatzuaren irugarren galdera entzun arte, loturea ez ebala azkatu bear.

Jauregia notintsaz beterik egoan. Aoulkariak euren aulki-apatzetan jezarririk, Erregea lenengoz jazten eban soiñganeko barriaz. Bere koro ta erregemakilla ta baita be borobilla dizdirazi-barriak ziran. Arpegi guztietan artega ta larritasuna dizdiratuta agertzen zan. Printzetatzuaren arpegian bildurra ta istasuna, illeta batera joan bear izango ba eban lez, baltzez jantzita egoan. Jantzi baltz bat eroan.

Ikusi daigun ia. Zerez gomutatzen dot? Juantxuri itaundu eutsan.

Bereala mutillak eskuetan eukan loturea azkatu eban eta bera be guztiz arrituta geratu zan sorgin-gizonaren burua ikusirik. Erregea, aoulkulariak, gudari ta baita be erriko ordezkariak, ikuspegi aregaz ikeratuta geratu ziran Ostera Printzetatzua geldigeldi, zurizka il bat bezela, berbatxu bat be esan eziñik... Bere izugarrizko aopekkoa, argiratu zan!...

Azkenean jagirik mutillagana urreratuta, esku emon eutsan.

Nigaz eskontzeko duiña zara!, intziri aundi bat egiñik esan eban. Nire aita erregeak agintzen dauanean eskonduko gara.

Zeuk gura dozunean, seme maitea! Juantxuri erregeak esan eutsan.

Batzarkide guztiak, oi u ta txaloka asi ziran esanez:

Gora eskongaiak! Gora eskongaiak!

Laterri aretako goibeltasunak amaitu ziran. Gudari-soiñulari taldeak kalerik-kale

ta platazarik plaza, euren eresi alaienakaz laterri aretako inguruak alaitu ebezan. Ikurriñetako zapi baltzak zuzterkatu, dorre guztietatik kanpai-otsa, alaitasunera deiturik, zekula ez lez erria biztu zan. Platza nagusiaren erdian amaikako bat idi, eun bat aate ta oillo lauzkitu ebezan, erriko ez-euki guztiak azetu arte jan egien. Uriko iturri guztietatik ardao dariola, ta ogi bat erosten joiazan danari, ezer ordaindu barik sei ogi emoten eutsezan.

Gaba eldu zanean, zeru illuna zuzirikoz bete zan eta gudarien kañoiak danbadaka luzaro jardun eben; umetxu ta mutil kózkor guztiak nagusiak bezela edo geiago saratatsu. Jauregian jai bat antolatu eben, jatordu bateaz asirik. Ludi onetako jan-edari onenak, ugari ta garestienak, an dana zan oparotasuna. Gero jai-aldi bat antolatu eben aundiki, noble, ta diplomatikuakaz. Alde guztietatik onelako abestiak entzuten ziran:

*Ara emen nezkatarik ederrenak
Dantza ta jateko asmuz,
Soñuak jo ta ez daitela geratu eske
Euren urratsen arrada ta neurria
Dantza nezkatilla, dantza gelditugabe
Mugidu zure oiñak katua zapaldu arte
Zauritu lurra indartsu,
Oskiaren zoru galdu arte.*

Naitz notintsaren alaitasun zintzoa, ondiño Printzetatzua erdi sorginduta jarraitzen eban, eta Jauntxugan ez eban ezelako maitasunik. Orduan bere bidali-lagunak, zein gauza ta arazo guztienetan arduratzen zana, bere lagunari lezapuzen egon bateko iru luma emon eutsazan eta baita be ontzi-bonbilla txikitxu bat tantal batzukaz, esanez.

Eskondu baño lenago, tantal eta luma oneik bota eizuz garbi-ontzi baten, garbi-ontzi au urez beterik egon bearko dau, gero, Printzetatzua lazotasun une baten ontzi barrura jaurtiko dozu, iru bider alerrezka urperatzea aiztu barik, orrelan bere sorginkeriak alde egingo dautso, ba da ez dau besterik, sorginkeria baño.

Eta uste dozu ni apur bat maitatzea lortuko dodala?, mutillak guztiz artega itaundu eban.

Bizi osoan biotz samurragaz maite izango zaitu, bidali-lagunak erantzun eutsan.

Mutillak bere adiskide onaren aginduak, onuak, zeatz bete ebazan. Printzetatzuak garbi-ontzira bota ebanean, oiugorak egin ebazan, eta lezaput baltz eta aundi bat bezela bere indar guztiakaz garbi-ontzitik urten gurean ebillen, baña bigarrenez uretatik urten ebanean, lezaput a zuri-zuria zan, bere sama luzean borobil baltz txiki bat bakarrik geratzen jakon. Juantxuk otoi labur baña bero-bero bat egiñez, Jaungoikoa eskertu ta ausarki barriro egaztia uretan sartu. Azkenean uretatik printzetza eder bat biurturik urten eban. Lenago baño azkoz ta azkoz ederragoa zan eta bere begiak negar-malkoz ondaturik eskertu eban, gaizkatu ebalako, sorgin-gizon izugarri aren sorginkerietatik betirako azkatirik.

JUANTXUN LAGUNAK, PRINTZEZATXUA JAUREGIRA ITZULI ARTE ITXARON ETA ORDUAN IRATXO ZAARRAREN BURUA EBAGI EBAN. GERO BERAGAZ LOTURA BAT EGIÑIK BIRAMONEAN JUANTXURI EMON EUTSON. PRINTZEZATXUAK ITAUNDU EUTSONEAN ZERTZAZ GOMUTATZEN EBAN, JUANTXUK LOTURA ERAKUTSI. ZORGINKERIA EZERESTUA IZAN ZAN...



NIGAZ ESKONTZKO DUIÑA ZARA. NIRE AITA ERREGÉAK ERABAGITZEN DAUANEAN EZKONDUKO GARA.

ZEUK GURA DOZUNEAN, SEME MAITEA.

IGORA ESKONGAIKI!



JUANTXU ESTALDU, IGES EGIN EBAN, ORDUAN JAKIN EBAN JUANTXU BERAK EGUN BATEN MAUSARI BATZUN ETXEAN GAIZKATU EBANA ZALA. PRINTZEZATXUA ORAIN GUTZIZ ONA ZAN ETA ESKONDU ZIRAN GUTZIZ ZORIONTSUAK IZAN ZIRAN ETA JUANTXU ERREGE AGUREA IL ZANEAN LATERRI ARETAKO ERREGE EZARRI EBAN.

AZKENA

Andik egun batzuk barru, eskontza jaialdiak ospatu ziran. Jaiak luzaro iraun eben. Goresmenak eta zorion-agurrak, errege ber-beranak eta jauregiko biztanle guztiak ospa eutsezan.

Bidali-laguna izan zan, eskonbarriari azkenengo zorion-agurra eskeiñi eutsena. Bidegin makillea ta zorroa lepoan eroazala agertu zan.

Ez, ez zaitetz aldendu! Juantxuk esan eutsan. Ain beste zoor eutsan adiskide maitea, beragaz, sentitzen eban zorion a erkidetu gurarik, nairik.

Baña bidali-lagunak gozoro irribarre egiñik, mugidu eban burua ta abots maitegarriaz esan eban:

Ezin naz geratu. Ezin naiteke geratu. Eziñekoa da. Nire garaia eldu da.

Eta berba, itz, oneik esanez estaldu zan.

Ondiño erregea urte askotan bizi izan zan, zorionsu ta nasai, bere semeak alkar maite ebala, ikusirik.

Oneik be, bere errege-makil eta borobilleaz jolastea atsegin izaten jaken illoba batzuk, bere, erregearen, atsedeen-aldi ziranak, Goiko Epaillearen bedeikatzeaz, emon eutsoezan. Geroago Juantxu errege-barria izan zan, laterri osoko erregea izanik, egun zorionsu ta atsegingarriak emon al izan eutsazan.

AZKENA